

# Jakin<sup>eus</sup> 233 234

herria kultura hizkuntza uztaila-urria  
2019

## Maitasuna politikoa da

LOREA AGIRRE DORRONSORO  
MARI LUZ ESTEBAN  
ZALOA BASABE GUTIERREZ  
OIHANE RUIZ MENENDEZ  
IRATI MOGOLLON GARCIA  
LEIRE MILIKUA LARRAMENDI

ULA IRURETAGOiena BUSTURIA  
JONE ARRAZOLA MAIZTEGI  
NORA SALBOTX ALEGRIA  
JONE MINER AGINAGA  
ABARASKA

Joxe Azurmendi  
Abertzaletasun kulturala  
HARITZ AZURMENDI ARRUE

**EGUNEN GURPILEAN**  
ITZIAR UGARTE · JAIME ALTUNA  
ALBA GARMENDIA

**Jakin** *•eus* **233**  
**234**  
herria kultura hizkuntza uztaila-urria  
2019



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

#### LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

#### OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

#### ZUZENDARIA

Lorea Agirre

#### ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

#### KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,  
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,  
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,  
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

#### IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 Andoain  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

## SUMMARY

### 5

## ZUZENDARIAREN HITZAK

### 9

## GAI NAGUSIA Maitasuna politikoa da

### 13 Maitasuna maitasuna baino askoz gehiago da Lorea Agirre Dorronsoro

Maitasunak eta politikak zerikusi handia dute elkarrekin. Izan ere, maitasuna eraikuntza eta praktika ideologiko bat da eta jendartearen nolakotasunean eragin zuzena du, baita egiten dugun hirigintzan ere. Baina zer dio ideologia horrek? Maitasunak –elkartasuna eta zaintza– politika humanizatu eta justuago bihur lezake, baina, iruntzitara, maitasun erromantiko patriarkalak injustizia eta esplotazioa dakartza.

### 35 Maitasuna erdigunetik kanpo. Maitasun-ideologia arrotzeko dekalogo Mari Luz Esteban

Gure gizartean nagusi den maitasun-ideologiaren irakurketa kritiko bat abiapuntu harturik eta ideologia hori auzitan jartze aldera, maitasuna erdigunetik kanpo kokatzeko dekalogo moduko bat aurkezten da. Horrela, besteak beste, pentsamendu monogamoaren aurrean apostasia egiteko, emakume ezkongabeen historia berreskuratzeko, maitasun ez-erromantikoa fikzionatzeko, harreman afektiboan intrantsitibotasunaren ideia ereiteko edo harremanen eta espazioen artekotasanaz pentsatzeko gonbidapena egiten da.

### 67 Amatasunaren politizazioa: atzo, gaur eta bihar Zalao Basabe Gutierrez

Amatasunaren politizazioaren inguruko hausnarketa egiten da. Azkenengo hamarkadetan feminismotik egindako hainbat ekarpen aztertu eta etorkizunerako erronkak mahaigaineratzen dira.

**79** Maitasunaren ideologia eta hirigintzaren arteko lotuneak

Oihane Ruiz Menendez

Maitasunaren ideologiaren eta hirigintzaren arteko harremanak aztertzen dira, maitasunaren ideologiatik zainketen inguruko konpromisoen giza egitura berri baten bila. Horretan funtzio berriak sortzeko bidean, arkitekturan ere forma eta tresna berrien premia azpimarratzen da.

**95** Zaintza arkitekturei hurbilpena

Etxebizitza kolaboratiboak eta zahartzaro aktibista

Irati Mogollon Garcia

Jendartearen zahartze prozesuaren erronka nagusiak aztertzen dira, horien aurrean etxebizitza kolaboratiboan eta zahartze aktibistaren alternatibetan sakonduz.

**117** Arkitektura eta sexualitatea

Leire Milikua Larramendi

Bartzelonako CCCBn antolatutako *1.000 m<sup>2</sup> desira. Arkitektura eta sexualitatea* erakusketaren gakoetako batzuk lantzen dira, espazioaren, ideologiaren eta jokabideen inguruko hausnarketen ehundurara beste hari bat gehitzeko.

**137** Kultura afektiboaren arkitektura

Ula Iruretagoiena Busturia

Maitasunaren ideologiak gure etxe eta kaleen arkitektura zelan baldintzatu duen aztertzen da, arkitektura eta maitasunaren artean eraikitzen diren elkarguneak azaleratuz.

**153** Emakumeak errekadutan: kalea eta elkar babesteko sareak ehuntzen

Jone Arrazola Maiztegi

XX. mendeko merkataritzaren etnografia feminista bat aurkezten da, ekonomia, elkar babeserako sareak eta kaleen bizitza uztartzuz.

**167** Haurrak herriak eraikitzen

Etorkizuneko hiritarrak vs gaurko herritarrak

Nora Salbotx Alegria

Gaur den eguneko espazioaren erabilera ezbaian jartzen da, haurren kultura eta kolektibo horri zor zaion aitortza politikoa eza abiapuntu delarik.

**183** Espazio publikoa eta giza harremanak  
Jone Miner Aginaga

Gure auzo eta herriak biziak, aktiboak, kolektiboak eta gertukoak izateko hirigintza-tresnetan barneratu daitezkeen irizpideak aztertzen dira. Bide horretatik, Usurbilen azken urteetan garatzen ari diren hainbat plan eta proiekturen laburpena ere jasotzen da.

**199** Etxebizitza eredia auzitan jartzen borroka  
Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa

Donostiako Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa proiektua aurkeztzen da, elkarbizitzan oinarrituz eta etxebizitzaren jabetzaren ideia auzitan jarritz, egungo bizitegi komunitario ereduari alternatiba birlatu nahi dion egitasmoa.

**GAI NAGUSIA** Joxe Azurmendiren pentsamendua

**215** Joxe Azurmendiren abertzaletasun kulturala  
Haritz Azurmendi Arrue

Joxe Azurmendi filosofoaren nazio ideia aztertzen da, egilearen doktore tesia oinarri hartuta. Nazionalismo Ikerketetako eztabaidak Azurmendiren obran zehar jorratutako auziekin konparatzen dira, abertzaletasun kulturalaren kontzeptuan zentratuz.

**EGUNEN GURPILEAN**

**241** Kultura  
Itziar Ugarte

**246** Soziolinguistika  
Jaime Altuna

**252** Glokalia  
Alba Garmendia

**KONTRAZALA** Unai Iturriaga

Uztailaren 11 eta 12an, *Maitasuna politikoa da* Jardunaldia antolatu zuen JAKINEk Usurbilen, UEU eta Usurbilgo Udalarekin batera. Jardunaldi horretako hitzaldi eta elkarrizketak bildu dira zenbaki bikoitz honetan. Saio horien guztien bideoak Jakin.eus webgunean daude ikusgai:



Usurbilgo Udala

*Zenbaki bikoitz honek Usurbilgo Udalaren laguntza jaso du*

## LOVE IS POLITICAL

### Love is more than love

The journalist and editor of JAKIN, Lorea Agirre Dorronsoro, reflects on the relationship between love and politics. Love is an ideological construction and practice that has a direct bearing on the quality of society, and also on the town and country planning we produce. Love, in the form of solidarity and care, can make politics fairer and more humanized, although on the other hand, patriarchal romantic love gives rise to injustice and exploitation. [Lorea Agirre Dorronsoro](#)

### Love outside the centre: decalogue to banish love

The lecturer of Social Anthropology Mari Luz Esteban provides a decalogue in order to place love outside the centre, via a critical reading of the ideology of love prevailing in our society, and with a view to questioning that ideology. [Mari Luz Esteban](#)

### The politicisation of maternity

The equality technician Zaloa Basabe Gutierrez reflects on the politicisation of maternity. She analyses contributions that have been made by feminism in recent decades and suggests the main challenges for the future. [Zaloa Basabe Gutierrez](#)

### Relationships between the ideology of love and urbanism

The architect Oihane Ruiz Menendez analyses relationships between the ideology of love and urbanism, in search of a new human structure involving commitments towards care through the ideology of love. She highlights the need for architecture to adopt new forms and tools in order to create new functions within that ideology. [Oihane Ruiz Menendez](#)

### Approach to the architecture of care

The PhD student in Sociology Irati Mogollon Garcia analyses the social ageing process, drawing attention to the alternative proposals provided by collaborative housing and activist ageing. [Irati Mogollon Garcia](#)

### Architecture and sexuality

The architect Leire Milikua Larramendi highlights some keys to the *1,000 m<sup>2</sup> of desire. Architecture and Sexuality* exhibition, organised by the Centre of Contemporary Culture in Barcelona, with a view to adding another brushstroke to the canvas of reflections on space, ideologies and conduct. [Leire Milikua Larramendi](#)



### Architecture of affective culture

The architect Ula Iruretagoiena Busturia analyses how the ideology of love conditions the architecture of our houses and streets, highlighting where architecture and love converge. [Ula Iruretagoiena Busturia](#)

### Women and daily shopping

The social and cultural anthropologist Jone Arrazola Maiztegi provides a feminist ethnographic view about commerce in the 20<sup>th</sup> century, by bringing together the economy, mutual protection networks and street life. [Jone Arrazola Maiztegi](#)

### Boys and girls building towns

The teacher Nora Salbotx Alegria calls into question the current use of space, using children's culture and the lack of political recognition that this collective deserves as a starting point. [Nora Salbotx Alegria](#)

### Public space and human relationships

The architect Jone Miner Aginaga analyses the criteria that can be applied to town planning instruments to ensure that our neighbourhoods and towns can be alive, active, collective and near at hand. She summarises several plans and projects that have been pursued in Usurbil in recent years. [Jone Miner Aginaga](#)

### Questioning the housing model

The Abaraska Housing Cooperative collective presents its cooperative housing project, which is based on coexistence, questions the idea of housing ownership and attempts to provide an alternative to the current community housing model. [Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa](#)

## THE THOUGHT OF JOXE AZURMENDI

### Joxe Azurmendi's cultural nationalism

Haritz Azurmendi Arrue, a graduate in Philosophy and holding a PhD in Social Sciences, analyses the idea of nation as put forward by the philosopher Joxe Azurmendi. He compares debates from Nationalism Studies with issues covered by Azurmendi in his work, focusing on the concept of cultural nationalism. [Haritz Azurmendi Arrue](#)

## NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Itziar Ugarte, Jaime Altuna and Alba Garmendia.

### Various authors

**M**aitasunaren ideologiak geure buruak, geure harremanak eta geure etxe eta kaleak nola eraikitzen dituen aztertzea du xede zenbaki bikoitz honek; uztailean, Usurbilen, UEUrekin eta Usurbilgo Udalarekin lankidetzan antolatutako Jakin Jardunaldiak emandakoaren bilduma dakar. Han izan ziren hamaika idazleren ekarpenez gainera, beste bi adituren idatziekin osatu dugu zenbaki monografiko hau.

Eta zergatik maitasuna? Gaia, nola ez, apasionagarria da. Maitasunarekiko joera gizatiarra da erabat, baina maitasuna sena baino askoz gehiago da. Maitasuna ideologia indartsu eratzaille eta hertsatzaille handi bat da, Mendebalde honetan maitasun erromantikoa-ren forma hartzen duena –azken hamarkadetan indartu eta zurkaiztu dena eta kontsumoaren balioen bitartez erreproduzitzen dena–. Ideologia horretan eta horrekin sozializatzen eta generizatzen gara, eta emakume eta gizon eraiki, menderakuntza eta indarkeria askorekin eraiki ere. Ideologia hori lehenagotik datorren beste maitasun ideologia handi batekin estuki ezkontzen da gainera, maitasun guztien ama den amatasunaren maitasunaren ideologiarekin. Bi horien inguruan eratzen da geure gizartearen esparru pribatu eta publiko osoa. Baina maitasunak, erromantizismoaren eta amatasunaren mitorietatik harago, zentzu askatzaileagoa ere badu. Behar du izan. Eta kooperazioa, lankidetzak, adiskidetasuna, elkartasuna, babesa, zaintza, erotismoa, ardura eta abertzaletasuna ere maitasunaren sinonimo gisa har ditzakegu. Horrek guztiak nola bizitzera bezainbat non bizitzera era bagaramatza, eta hauxe da maitasunaren ideologiaren inguruan egiten dugun bigarren galdera: sortu ditugun hirigintza, etxe, kale eta plazen oinarrian zer eragin duen maitasunaren ideologiak sortzen dituen harremanak izateko moduak, eta eraikuntza aldatuko bagenu ea harremantzeko –maitatzeko, zentzu zabalean– modu askatzaileagoa sor genezakeen.

Horri guztiari erantzuna leku askotatik datorkigu zenbaki honetan. Honatx: Mari Luz Esteban antropologoak maitasun ideologiaren irakurketa kritiko baterako dekalogo gaurkotu bat eskaintzen digu; Zaloa Basabe genero berdintasun aditua amatasunaren ideologia eremu pribatutik atera eta politizatu beharraz ari da; Oihane

Ruiz eta Ula Iruretagoiena arkitektoek, artikulu banatan, maitasunaren ideologiaren eta hirigintzaren arteko harremana xehatzen dute, elkar zainketa egitura sozial zein arkitektoniko berriak jomugan hartuta; Irati Mogollon soziologoak zaintzaren arkitektura posibleen berri ematen digu, bereziki zahartzaroari begira; Leire Milikua arkitektoak arkitekturak eta sexualitateak historikoki izan duten harremanaz hitz egiten digu; Jone Arrazola antropologoak kaleak eta emakumeak nola harremantzen diren jasotzen duen etnografia bat dakar; Nora Salbotx pedagogoak, berriz, haurren eta espazio publikoaren harremanaz eta erabileraz idatzi digu; eta, bukatzeko, Jone Miner arkitektoak, alde batetik, eta Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa kolektiboak, bestetik, harreman berdinzale eta kooperatiboak bultzatzeko hainbat etxegintza eta hirigintza egitasmoren berri ematen digute. Azken adituak, Unai Iturriagak, ironiatik eta umoretik begiratu dio maitasunari kontrazaleko leihotik.

Horretaz gainera, Joxe Azurmendik naziotasunaren gainean erai ki duen pentsamenduaren hitzak eta giltzak argitzen dizkigu Haritz Azurmendik, filosofo zegamarraren gainean defendatu berri duen doktore tesiaren ideia garrantzitsuenak artikulura ekarriz eta abenduaren 11, 12 eta 13an Donostian egingo den Joxe Azurmendi Kongresurako aurreirakurketa egoki baino egokiagoa osatuz. Eta, amaitzeko, *Egunen gurplean* sailean, Itziar Ugartek, Jaime Altunak eta Alba Garmendiak, nork bere begiradatik, kultura, hizkuntza eta mundu zati bat dakarkigute.

## MAITASUNA POLITIKOA DA

- 13** Maitasuna maitasuna baino gehiago da  
Lorea Agirre Dorronsoro
- 35** Maitasuna erdigunetik kanpo.  
Maitasun-ideologia arrozteko dekalogo  
Mari Luz Esteban
- 67** Amatasunaren politizazioa:  
atzo, gaur eta bihar  
Zaloe Basabe Gutierrez
- 79** Maitasunaren ideologia eta hirigintzaren  
arteko lotuneak  
Oihane Ruiz Menendez
- 95** Zaintza arkitekturei hurbilpena  
Etxebizitza kolaboratiboak eta zahartzaro aktibista  
Irati Mogollon Garcia
- 117** Arkitektura eta sexualitatea  
Leire Milikua Larramendi
- 137** Kultura afektiboaren arkitektura  
Ula Iruretagoiena Busturia
- 153** Emakumeak errekadutan: kalea eta  
elkar babesteko sareak ehuntzen  
Jone Arrazola Maiztegi
- 167** Haurrak herriak eraikitzen  
Etorkizuneko hiritarrak vs gaurko herritarrak  
Nora Salbotx Alegria
- 183** Espazio publikoa eta giza harremanak  
Jone Miner Aginaga
- 199** Etxebizitza eredu auzitan jartzen  
Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa

# Maitasuna maitasuna baino askoz gehiago da

Lorea Agirre Dorronsoro

*Kazetaria eta JAKINEko zuzendaria*

## Maitasuna politikoa da

«Gaur inoiz baino gehiago esan dezakegu maitasuna kulturala dela. Gaur inoiz baino gehiago esan dezakegu maitasuna politikoa dela». Garbi esaten du Mari Luz Esteban antropologoak (2001: 40). Azken bi mendeetan, baina bereziki XX. mendean, maitasunak Mendebaldean balio kultural eta sinboliko handia bereganatu du. Eva Illouz soziologoaren ustez, politika liberal eta burgesaren eraikinaren oinarrian maitasunaren eta politikaren ustezko bereizketa dago (2016: 15). Eta zera galdetzen du: ez al da politika oro –eskumatik ezkerre- beti-beti gorputzaren, sexualitatearen, generoaren eta familiaren politika bat? Sexualitatea, maitasuna eta ezkontza politikaren eta ekonomiaren etxea sostengatzen duten adreiluak dira.

Maitasunak pertsonen sozializazioan eragiten du, eta, horrekin, baita generizazioan ere. Generoak sortzeko eskola bat da, diziplinamendu praktika bat. Maitasunaren gaineko lezioen bitartez gizon eta emakume egiten gara. Maitasunak elkarren artean desberdin eraikitzen gaitu eta desberdinkerian harremantzen irakasten digu.

Maitasuna lege askoren oinarrian dago: haurtzaroari, familiari edo mendekotasunari lotutako legeen kasuan argia

Maitasuna maitasuna baino askoz gehiago da

da; maitasunaz uste dugun horrek zedarritzen ditu legeon mamia, araubidea eta aplikazioa. Politikariek, erlijiosoek, feministek, ideologia askotariko eta kontrajarritako aktibistek, besteak beste, afektuen garrantzia ahotan darabilte. Zientzia, berriz, tematuta dago zeloan, maiteminaren edo infidelitatearen geneak topatzen. Eta hori guztia, zinemaren, literaturaren, telesailen, musikaren eta masa hedabideen bitartez, erromantizismoaren gaineko fikzio erabat hipertrofiatu batekin blaitzen da bikote bizitza idealizatu eta beste edozein harreman mota bigarren mailan utzarazteko.

## **Maitasunaren definizio batzuk**

Maitasuna bi oinarri dituen produktu mitiko bat da: batetik, humanoen arteko harreman afektibo eta erotikoen oinarrian legokeen oinarri soziobiologikoa da; eta, bestetik, kulturalki eraikitzen den pentsaera eta praktika bat da, inplikazio politiko eta ekonomikoak dituena. Izan ere, maitasuna gizabanakoaren sentimendu hustzat hartu ohi badugu ere, giza egitura guztiak zeharkatzen eta moldatzen ditu. Maitasunaren gaineko ideologiak jendartearen antolakuntza osoan eragiten du. Maitatzeko joera unibertsala da, bai, gizakioi berezko zaiguna, baina maitatzeko eredia eta ideologia aldatu egiten da lekuan leku eta garaian garai.

Maitasuna ez da bakarrik sentimendu bat, baizik eta politikoki araututa dagoen eta sozialki eraikitzen den sentimendu multzo konplexu bat da, aldaketa sozialen menara aldatzen dena, eta baita aldaketa pertsonalen arabera ere. Dinamikoa da, motorra da, aldatuz doa. Jendarteak eraikitzen digu maitasuna eta guk eraikitzen diogu maitasuna jendarteari.

Harreman sozialen kategoria oinarrizkoena maitasuna dela oraintsu hasi dira esaten soziologoak eta psikologo sozialak, eta badira diotenak maitasuna dela mugimendu sozialaren forma oinarrizkoena. Maitasuna kontrol sozialerako tresna dela gero eta argiago ikusten da, eta baita familia nuklear tradizionala eta patriarkatua iraunarazteko egitura garrantzitsuena ere.

## **Baina maitasuna ez al zen sen hutsa?**

Baina maitasuna ez al da bada eraikuntza guztietatik at dagoen hori? Erabat senezkoa? Animalia? Basa? Ez al da bada naturaz, senez, ikasi gabe berez sortzen zaigun sentimendu handi eta ederrena? Nortaz nola eta non maitemindu kontrolaezina dena? Bizitza ere haren alde emango zenukeena? Kendu ere bai? Espelikazio razionalik ez duena? Musu-truk dena ematera bultzatzen zaituen hori? Ez da ontasunaren maila gorrena? Mundu zikin honetatik salbatzen gaituena? Antropologia, soziologia, politika, ekonomia, zientzia... gizakiak sortutako abstrakzio eta pentsamendu konkretu guztietatik gaindi dagoena? Ez arraza, ez klase, ez genero baldintzarik eragiten diona? Maitemintzen zara, eta kito, hori da dena, ez da hala?

Lilura bukatu da, hautsi da anfora.

Esperientzia pertsonalak nori ez dio esaten maitasuna eta justizia ezkontzen zailak diren bi gauza direla. Nork ez du sentitu inoiz bietatik bat aukeratu beharra, bateraezinak bailira legez. Maitasunaz asko hitz egiten dugu, baina gutxiago aztertzen, sakontzen. Maitasuna kritikatzek mina eragiten digu. Maitasunaren atzean zer dugun begiratzea deseroso zaigu, geratzen zaigun helduleku aratz bakarra dela sinetsi nahi dugulako, agian. Estebanek idatzi izan bezala, maitasunaren kontra egiteak sortzen digun ezinegonak eta minak adierazten du maitasuna maitasuna baino askoz gehiago dela.

Maitasunaz asko hitz egiten dugu, baina gutxiago aztertzen, sakontzen. Maitasuna kritikatzek mina eragiten digu. Maitasunaren atzean zer dagoen begiratzea deseroso zaigu

## **Maitasun erromantikoaren ideologia**

Gurean, maitasunak maitasun erromantikoaren eredua hartzen du. Eredua hori da gure maitasun sistemaren erpinean

dagoena. Hor egiten gara, hor hartzen du zentzua bizitzak, bereziki emakumeonak. Maitasunak egiten gaitu. Maitatua ez den edo maite ez duen emakumea –bikotea ez duena edo seme-alabarik ez duena– ezin erabat zoriontsu izan, pentsatzen dugu; bikote gabeko emakumeari falta zaio zerbait, lanean onena izanda ere ez da erabat errealizatuko. Gizonezkoak maitasunak egiten ditu gizon, baina ez ditu hainbeste baldintzatuko maitasuna izateak edo ez. Gizonezkoa, bikote gabe eta maitatzeko eta maita dezaten seme-alabarik gabe ere, errealizatua dago, ez zaio ezer falta, lana dela, kirola dela, sexua dela. Are, bikote gabeko gizona askatasunaz gozatzen irudikatzen dugu; bikote gabeko emakumea, berriz, bakardadean itota.

Esan dezakegu, maitasun erromantikoa eraikuntza soziokultural bat da eta aparatu mediatiko kultural oso baten eskutik –entretanimenduaren bitartez bereziki– ideologia gero eta hegemonikoago bihurtzen ari da. Erauntsia gero eta handiagoa da. Coral Herrera ikerlaria harago doa: maitasun erromantikoa eraikuntza soziokulturala jendarte kapitalista eta patriarkalaren sostengu nagusietako bat dela dio. Ezkontza eta familia nuklearraren bitartez sostengatzen du etxe osoa. Eta ezkontzaren eta familiaren mamian honako zume hauek daude: jabego pribatua –monogamia, fidelitatea, eskusibotasuna eta jabetza–, eternitatearen ideia eta magikoa izatearen ideia.

## **Maitasun erromantikoa eta kapitalismoa**

Eva Illouz soziologoak kapitalismoaren kulturaren eta kontsumoaren erdigunean dagoen jendarte postindustrialeko gizakien bizitza emozionalaren arteko lotura ikertu izan du. Alegia, kontsumo kapitalista eta maitasun erromantikoa nola lotzen diren ikusi. Maitasun erromantikoa da hegemonikoa gaur egun, maitasuna ulertzeko modu nagusi eta zabalduena gaur egun, fase historiko-ekonomiko-zibilizatorio honetan eraikia izan dena eta kontsumora ekarri dena. Maitasunak, gainontzeko emozio guztiek bezalaxe, ez du lotura soilik



ezaugarri fisiologiko edo psikologiko indibidualekin; testu-  
guru kulturalarekin ere baditu, eta horren arabera egiten da.  
Eta maitasunaren agerpena bera ere baldintzatua dago sozial-  
ki eta kulturalki. Cliford Geertz antropologoak zioen kultura  
elkar ulermen sistema bat dela. Ados, baina galdera litzateke  
zergatik elkar ulermen sistema horretan esangura kultural  
batzuk hegemoniko bihurtzen diren. Hau da, gaur eta hemen,  
zergatik da maitasun erromantikoa hegemonikoa? Zein bo-  
tere egiturarentzat da funtzionala eta erabilgarria maitasun  
erromantikoa? Eta nola eta zertarako erabiltzen du?

Illouzen ustez, lotura argiak daude merkatu ekonomiaren  
eta maitasun erromantikoak bultzatzen duen erromantzearen  
esperientziaren artean. Maitasun erromantikoa ideario sozio-  
kultural kodifikatu bat da, eta kodifikatzeko eta deskodifika-  
tzeko, beharrezko da zinemak, publizitateak eta eleberriek  
sortutako narrazio kodeak ezagutzea. Maitasunari erreferen-  
tzia egiten dion unibertso sinbolikoa gero eta handiagoa da,  
gero eta ugariagoa, maitasunaren eta kontsumoaren arteko  
harremana gero eta estuago izan dadin; bien artean lotura  
esanguratsuak sortzeko gaitasuna gero eta handiagoa eta gero  
eta trinkoagoa da geure baitan. Zer da bada egunero ikusten  
ditugun iragarkiek ematen diguten irudia, zernahi dela sal-  
tzen dutena? Bikote heterozuzena maitasun erromantikoaren  
eredu betean kontsumoa bultzatzen; eta horrekin sexu-genero  
sistemaren desberdinkeria eta indarkeria sinbolikoa zurkaiz-  
ten, eta baita arraza, klase sozial eta kapitalismoaren ezaugarri  
ez-jasangarri –ekonomikoki, ekologikoki, humanoki...– guz-  
tiak indartzen ere. Ondorioa: mundu hori indarrean jartzeko  
jartzen da indarrean maitasun erromantikoaren iruditeria.

Zehatzago esanda, gaur egun, kapitalismo berantiar ho-  
netan, jada ez dira bereizten mitoa eta errealtatea, filmeta-  
ko maitasuna eta errealtatekoa; eta masa komunikabideek  
maitasun erromantikoa zabaltzen eta gizontzen dihardute,  
eta, turismoa eta natura dekoratu direla, etenik gabeko di-  
bertsioaren, edertasunaren, intentsitatearen eta sentsualita-  
tearen utopia bat prometatzen digute.

Zenbat iragarki daude hori dena diskurtso koherente gisa agertzen digutenak? Maitasun bikote heterozuzena zutabe nagusi duena –beste dena salbuespenari tolerantzia baino ez ote da– oinarri dutenak? Zenbat, zernahi saltzen dutela ere –autoak, arropak, lurrina...–, naturgune idiliko bati edo bidaiatzeari lotuta daudenak? Maitasun erromantiko heterozuzena ordezkatzeko duten bikoteen bitartez produktuak saltzen zaizkigu eta produktuen bitartez maitasun erromantikoa. Hori da jokoaren bitartekaria. Publizitatearen metafisika: subjektuaren eta hark kontsumitzen duen objektuaren artean ez dago distantziarik; objektuak egin egiten zaitu, kontsumoak egin egiten zaitu; dena da maitasun erromantikoa, subjektua, objektua eta bien arteko harremana.

Horren aurrean, guztioi gertatzen zaiguna gertatzen zaio Illouzek ikertu duen Estatu Batuetako jendeari ere: ezin dugula maitasun erromantikoaren kontsumoa eta praktika abandonatu; ezin dugula beste modu batez *antzeztu* geure bikote harremana publikoan; eta geure biografia amoro-

soa irudikatu nahi dugunean, esanguratsuentzat jotzen ditugun uneak maitasun erromantikoaren irudi fidel direla: Parisko giltzarrapoaren zubian, Pirinioetako goi gailurretan, itsasoan sartzen ari den eguzkiari begira edo ilargi betepean egindako argazki maitakor eta ederrekin erromantizatzen ditugu geure harremanak eta hala erakusten besteei. Maitasun erromantikoaren kode hori denok ezagutzen dugu maitemindu gaitezen baino lehen,

eta, beraz, maitemintzearen esperientziari maitemindu aurretik eragiten diote kode horiek. Alegia, nola maitemindu aurrez ikasten dugula: nola eta baita norekin ere, eta zer estetikaz,

Nola maitemindu aurrez ikasten dugu: nola eta baita norekin ere, eta zer estetikaz, zer feminitate/maskulinitate gorpuztuz, zer genero desberdinkerietara jokatzuz. Non ikasi dugu muxu ematen ez bada zineman?

zer feminitate/maskulinitate gorpuztuz, zer genero desberdinkerietara jokatuz. Non ikasi dugu bada muxu ematen ez bada zineman? Non ikasi dugu erromantikoki, erotikoki maitemintzen? Non «maite zaitut» ilargipean esaten?

Hori ez da berri-berria. Baina –eta hemen baina handi bat dago–, egun, badakigu gezurra dela. Geure kondizio postmodernoak, maitasunari dagokionez, zera dakar berri: badakigula kode narratibo horien eraginpean gaudela gu eta dagoela maitasun erromantikoa; kontziente gara horretaz, baina, hala ere, ez diogu praktikatzeari uzten, ezin dugu. Jarrera zinikoa gartzten dugu maitasun erromantikoarekiko eta geure buruekiko.

Oraintsu arte zera esaten zen: badela jendea ez zena inoiz maiteminduko maitasuna zer den entzun ez balu. Orain, aldiz, maitasun postmodernoak zera dio: gutako askok zalantzan jartzen dugula maiteminduta ote gauden gehiegi entzun dugulako maitasunaz hitz egiten. Izan ere, eredu oso idealizatu eta oso mugatu bat irakasten zaigu maitatzeko eta maitatzeko modua *antzezteko*.

Badakigu eredu prefabrikatuak direla, Hollywoodekoak, esan dezagun, eta eszeptiko gara horiekiko –begiradak gurutzatu orduko itsumustuan maitemintzea, pasioaren pasioz arrazoi dena anulatzea, edozein oztopo gainditzeko gai den maitasunean sinestea...–; baina geure maitasunen biografiako gertaera garrantzitsuenen errelatua egiten dugunean, hain justu prefabrikatuak diren istorio *hollywoodtar* horiekiko antzekotasun gehien duten pasarteak azpimarratzen eta balioztatzen ditugu. Beraz, geure bizipenen, maitasunaren gaineko idealen eta espektatiben eta narrazio kode horien arteko harremanaz gehiago pentsatu beharko genuke. Zer gupil sortzen dugun hor eta zergatik.

## **Maitasun erromantikoa garai bateko erlijioa da**

Illouzen beste ideia kitzikagarri bat, hauxe: maitasun erromantikoa garai bateko erlijioa da. Hau da, iruditeria kolekti-boan utopia bat da, bikotea aukeratzeko askatasuna eta aldi

berean bikotea izateak dakarren egonkortasuna. Lehen erlijioan bezala, orain maitasunaren eremuan gordetzen dugu sakratua denaren bizipena. Bizipen horrek hainbat ekintza erromantiko eskatzen ditu, hainbat erritual –bidaia erromantikoak, jatetxe bereziak, abenturak, munduaren beste puntara bidaiatu, normaletik kanpoko gauzak egin gogorik izan gabe ere...–, eta erritu horien bitartez sentimendu amorosoak –errelatua– indartu egiten da. Ziurrenera errituak beti dira beharrezko zernahi giza eremutan, baina kontua da oraingo erritu amoroso denak kontsumotik igarotzen direla.

Kapitalismo berantiarrean, maitasun erromantikoa aisiarekin, plazerarekin, dibertsioarekin, intentsitatearekin, unearekin, edertasunarekin... lotuta jokutzen da. Hori berria da. Geure guraso edota amona-aitonen bizipena ez zen horrelakoa, ez bizipena ez eta errelatua ere –aditu batzuek diote iraultza burgesaren ondoren sortzen dela denbora librearen kontzeptua, ordura arte ez zela denbora librearen ideiarik, eta eremu berri hori bete beharrak ekarri zuela maitasuna aisiarekin lotzea, denbora pasarekin–. Guk kontsumo modu gisa ulertzen dugu, baina, aldi berean, bikote maitasun bizipenak analizatzen ditugunean, geure irakurketa gehiago lotzen da produkzioaren eta lan munduaren ideia eta definizioekin: elkarrekin lan egitea, ekipoa osatzea, harreman finko eta sendoen beharra, esfortzu handia eskatzen duela jakitun izatea eta gauzak ondo joan daitezen ahalegin handia egiteko obligazioaz jabetzea.

Klase ertainaren kultura erromantikoa da egun gero eta indar handiagoa duena eta dena blaitzen duena. Ideal erromantiko unibertuala bihurtu dela esan daiteke, eta langile klaseetako jendeak ere bere espektatiba guztiak hor kokatzen ditu.

## **Maitasun erromantikoaren ideologiak zer ezkutatu nahi du?**

Bikotearen maitasun erromantikoaren ideologia hegemonizatzearen arrazoien atzean badago maitasunaren beste

adiera eta ulermen bat estaltzeko intentzioa. Ikus dezagun. Kooperazioa leku guztietan ageri da: herri, hiri, zibilizazio, kultura, hizkuntza, ideologia eta zientzia, sinesmen... Dena kooperazioan egin da, hau da, geure gaitasun kognitibo eta emozionalen bitartez. Biak lotuta daude eraikuntza horretan guztian, bai kulturaren eraikuntzan, bai geure buruaren eraikuntzan. Ez kulturak ez guk ez genuke zentzurik emoziorik gabe, emozioak baitira zentzua ematen dutenak.

Esan daiteke kooperazioa maitasun sentimenduen oinarrian dagoela, eta izen asko har ditzake maitasunaz ulertzen dugunaz harago, hau da, guraso eta seme-alaben arteko eta bikoteen barneko maitasunaz harago: elkartasuna, adiskidetasuna, laguntasuna, lagunartekotasuna, kidetasuna, afinitatea, erotismoa, babeseta, zaintza, atentzioa, ardura, abertzaletasuna, sakrifizioa... Horiek denak eta gehiago maitasuna deitzen dugun sentimendu konplexu horren sinonimo dira.

Klase ertainaren kultura erromantikoak gero eta indar handiagoa du eta dena blaitzen du. Ideal erromantiko unibertsala bihurtu dela esan daiteke, eta langile klaseetako jendeak ere bere espektatiba guztiak hor kokatzen ditu

## **Bikotea aukeratzen al dugu?**

Kapital ekonomiko eta kultural bertsuko jendea aukeratu ohi dugu maitatzeko, nahiz eta beti diogun ez duela inongo garrantzirik klase sozialak, esate batera, maitemintzerakoan. Pierre Bourdieuk *habitus* deitzen dio barneratuak ditugun gaitasun eta jarrera multzoari, eta habitusak, inkontzienteki bada ere, egiten duguna gidatzen du. Hau da, ez goaz geure mailako norbaiten bila intentzio argiz –kulturaz, klase sozialez, hizkuntzaz, ikasketez, ekonomiaz...–, ez dugu esaten «ni nire maila bereko batekin maiteminduko naiz», baizik

Maitasuna maitasuna baino askoz gehiago da

eta geure espektatibak inkontzienteki moldatu egiten ditugu habitus hori bete dadin, bete dezagun. Lekuz kanpoko aspirazioak alde batera utziz. Horregatik, bikoteak maila bereko dira ia beti, kasik *kuadrilla* bereko.

## **Amatasunaren maitasuna**

Maitasun erromantikoa maitasun eredu nagusia dela esan dugu. Baina horren parean jar daiteke amatasunaren maitasunaren mitoak duen indarra. Hori ere sakratua, aurrekoa baino sakratuagoa beharbada. Bene-benetako maitasuna. Traiziorik egiten ez duen bakarra. Betikoa eta betirako senetzkoa, berezkoa, entregatua, sakrifikatua, emana, egoismoaren antonimo argiena. Emakume oso egiten gaituena. Ertzak zabalduz doaz, baina oraindik ere ama ez den emakumea errukarria da gizartearen begietara. Ez horrela, aita ez den gizona. Inor gutxiri ardura zaio gizon batek seme-alabarik baduen. Emakumeari egiten zaion lehen galderetako bat da. Den eta gauzarik gaitzesgarriena ama txarra izatea da. *Aita txarra* aita klasiko normalizatu bat da gure artean.

## **Politika eta sentimenduak**

Maitasunak eta politikak zerikusi handia dute elkarrekin, esan dugu maitasunaz pentsatzen dugunak egituratzen duela geure bizitza pertsonala –hori ere erabat politikoa baita– eta *res publica* osoa.

Politika eta maitasuna esaldi berean ikustea eta bata bestearekin lotzea harrigarri egingo zaio askori, ez baita askotan ikusten. Egia da ez legebiltzarrak, ez gobernu programak, ezta politikaz ulertzen dugun mundu hori ere maitasunaz eta sentimenduez ez direla arduratzen. Baina horrek ez du esan nahi erabaki eta jardun politikoan sentimenduek ez dutenik eragiten. Ezta ere esku artean dituzten gaiek –ekonomikoak, zor publikoak, merkatuak, globalizazioak, legediak, gerrak edo afera sozialak– jendearen sentimenduetatik kanpora

kudeatzen direnik. Bizitza politikoan ikusten den isiltasun emozional horrek ozen hitz egiten du.

Politikak –zentzu hertsu arruntean– zerikusi handia du pertsonok geure maitasun harremanak bizitzeko ditugun moduekin, harreman horiek arautzen dituzten legeekin, sarobe hartzen duten egitura sozialekin eta eguneroko bizitzako praktikekin. Deskonexio handia dago politikaren eta eguneroko bizitzaren artean. Eguneroko bizitzak ikatza bezalako labezomorroak isurtzen ditu, eta sentimenduz beteta dago. Politika ez, esaten zaigu. Areago, esaten zaigu politikan sentimenduak ezkutatu egin behar direla.

Montserrat Moreno psikologo sozialak dio sentimenduak eta emozioak beti *res publica*-ren bazterretan egon daitezen bultzatu dela. Politikari bat negarrez, edo zalantzan, edo zoriontsu, edo emozionatuta, ahuldadeak agertzen, mina adierazten... jada ez da seriotan hartzeko politikari bat, maila bat behera egiten du, feminitatearen azpierzura. Bitxia da boterea ikertzean sentimenduak kontuan ez hartzea. Eta baita ere hainbeste sufriarazi eta gozarazten gaituen maitasuna hain gutxi aztertua izatea.

Isilarazteko tema horrek ezkututzen zaiguna zerbait benetan garrantzitsua dela pentsatzera garamatza. Agian, zerbait subertsiboaren aurrean gaude; agian, maitasuna subertsiboa da.

## **Intelligentzia eta afektibitatea**

Esan ohi da gobernatzeko intelligentzia behar dela. Ez da beti horrela, bistan da. Baina pentsa dezagun guretzat adimentsua den horri eman ohi diogula bozka. Baina inor adimentsua izan daiteke afektibitateak landu gabe?

Kurioski, intelligentzia –adimena– oso ezaugarri maskulinoa da, eta afektibitatea, berriz, femeninoa. Horrela eraiki gara. Eta, horregatik, gizonezkoei afektibitatea agertzea lotsagarri zaie, eta, aldiz, emakumeek intelligentzia agertzeak susmagarri egiten ditu, esanekoa ez izateko arriskua baitu. Bata maisua da eta bestea maistra –marimaistra deitzen

diogu-. Bata sentimental da eta bestea ahula -neska bat bezala negarrez-. Gauzak aldatuz doaz, oso astiro eta leku gutxi batzuetan bada ere.

Afektibitate gabe intelijentea izan daiteke, galdetu dugu oraintsu. Antonio Damasio neurozientzialariak dio sentimen-

Lehian bizi gara eta  
lehiak bizi gaitu,  
baina lehiatik adina  
kooperaziotik iritsi da  
gizakia gaur eguneraino,  
neuronen portaera  
kolektibotik hasi eta  
politikaraino

duak behar-beharrezkoak direla arrazoiketa emango bada, mendetan kontrakoa pentsatu izan bada ere. Bere ikerketen ondorio nagusia da emozioak gutxituak edo deuseztatuak dituzten pertsonak, oro har, portaera irrazionalak izan ohi dituztela. Lesio zerebral baten eraginez burmuineko sentimenduen eremua atrofiatuta izan baina arrazonamendu lo-

gikoarena -hizkuntza, memoria...- bere horretan duten gai-  
xoek erabaki irrazionalak hartzen dituztela ondorioztatu du.

Sentimenduak kontuan hartzeak zera dakarkio adimenari: begirada intersubjektiboa. Hau da, nor bere burutik ateratzea, besterentzea, bestearen lekuan jartzea eta enpatia lantzea; eta horrekin taldekatzea, kooperazioaren eta elkarlanaren oinarriak jartzea eta prozesu eta emaitza egokiago eta eraginkorragoak lortzea. Damasiok dioenez, ez da posible ezagutza eta sentimenduak bereiztea, sentimenduak baitira jakintzari zentzua ematen diotenak. Ezagutzari zentzua emozioek ematen diote. Ez dirudi erratuta dabilenik.

## Muturreko darwinismo interesatua

Gure gaurko jendartean pentsamendu-sinesmen nagusi bat muturreko darwinismoa da, esate batera. Barruraino sartua dugu denok eta geure ondorengoei sarrarazten diegu. Izan ere, Darwinen teoriak oso erabilgarriak dira hiperliberalismoarentzat -nahiz eta esan behar den naturalista ingelesaren



teorien manipulazio interesatua egiten dela, hark esanak muturreraino eramanez-. Edonola dela, denok sinesten dugu indartsuenak eta azkarrenak irabaztea dela justuena; demagun, ordea, indarrrik eza edo moteltasuna ere agian baloratzeko modukoak direla, eta are garrantzitsuagoa dena: ohartu gabe edo ikusi nahi izan gabe dena ingurune sozial, politiko eta ekonomiko jakin eta zehatz batean gertatzen dela eta, beraz, ezin dela dominarik nori eman erabaki baldintzapean kontuan hartu gabe. Meritokrazia da gure neurgailua. Baina meritokrazia oso gauza injustua izan ohi da gehienetan, nahiz dominatzaile/dominatu geure paradigman justuena eta arrazoizkoena iruditu eta hor zurkaiztu geure eguneroko bizitza, hasi etxetik eta igaro hezkuntzatik, kirolek, lan mundutik, osasunetik, politikatik, justiziatik, zientzietatik... Izan ere, nork du meritua, haizea alde izan eta lasterketa irabazi duenak edo haizea kontra izan eta korri egin duenak? Balio bakarrak indarra eta bere ahaideak dira? Non geratzen da kooperazioa? Arestian aipatzen genuen begirada intersubjektibo hori? Zergatik baloratuko da hobeto eta gehiago besteen beharra ez duen norbait beharra duena baino? Zergatik da hobe besteen beharra ez izatea izatea baino?

Lehian bizi gara, bai, eta lehiak bizi gaitu, baina lehiatik adina kooperaziotik iritsi da gizakia gaur eguneraino, neuronon portaera kolektibotik hasi eta politikaraino.

## **Eremu pribatua publiko bihurtzea**

Kooperaziotik jaiotzen den sentimendu nagusietako bat, beraz, maitasuna da, pertsonen arteko lotura sakon eta iraunkorra, alegia. Kooperazioa unibertsala da, hartzen duen forma aldatu egiten bada ere kulturatik kulturara. Maitasun lotura batean dauden pertsonak bere kultura bereko pertsonen jokaera berak dituzte. Beste modu batera esanda, kooperazioak eta maitasun jokabideek hartzen duten forma ez da jaiotzetikoa, testuinguru historiko-kultural baten barruan ikasiak baizik, eta, beraz, aldakorrak. Gure jendartean, bikote

maitasun harremana giza espezieari datxekion zerbait gisa agertzen zaigu. Eta hala izan. Baina, geure jendartean, eremu pribatura mugatzen den harreman gisa agertzen zaigu; bikoteak eraikitzen duen lekua leku idiliko bat, paradisu bat, babes bat, jendartean txar den gutzitik babesten zaituena. Leku bakana da, berezia, bertan ematen zaiguna kanpo lortzea zail dena: maitasuna, elkartasuna, ulermena, zaintza, eskuzabaltasuna, kooperazioa, fidelitatea, konfiantza... Dena on. Aitzitik, ontasun horiek denak ezagutzen ez dugun edo maitasun loturarik ez dugun jendarengan ez bilatzeko eta ezta emateko ere irakasten zaigu txiki-txikitatik; edo gutxienez ez espero izateko etxeko atetik kanpora, hau da, pertsona gehienengandik, jendartearengandik. Eta, beraz, gutako bakoitzak gutxienez bi nortasun behar dituela izan: bata, maitale/maitatu gisa, maitasun espazio pribatuan gaudenerako; eta, bigarrena, espazio idiliko horretatik ateratzen garenerako, nortasun potentzialki lehiakorra, gogorra, bihozgabea, konfiantzarikgabea, babesgabea, erasokorra, defentsarako prestua, egoista... Beste espazio hori espazio publikoa da, eta espazio publiko horri ez zaio pribatuari eskatzen zaizkion tasun eta ontasun horietarik gutzietarik bat bera ere eskatzen, printzipioz.

Gainera, espazio pribatu horretara iristea mandatu bat da. Denok iritsi behar dugu, denok iritsi nahi dugu, espazio publikoak egiten digun erasoaren aurrean babesba izan dezagun. Konpentsazio mekanismo bat da.

Baina zer gertatzen da? Familia eta bikote eredu idealizatu hori agian existituko da inon, baina nahiko urrun dago errealitatetik. Ez da beti eremu idiliko bat, afektuen trukeaz gain gatazka asko dituen eta sortzen dituen eremua da. Konpondu gabeko arazo asko barnebiltzen dituen eremua da, batzuk unean sortuak eta beste batzuk heredatuak, adibidez, berdintasun eza, justizia falta eta, oso sarri, erasoak eta indarkeria. Hori dena enklaustratutako egitura batean gertatzen da, opakoa dena, opako egiten duguna eta kanpora ateratzeko maskara bat jartzen duena, familiarekiko izan

behar ditugun espektatibek desiragarriak izan behar dutelako bai geuretzat bai denentzat, jakinik ere fiktiziotik asko dutela. Maitasunaren eremu pribatu hori isolamendura kondenatua dagoelako, indarkeria eta erasoak gerta daitezke eta gertatzen dira. Fiktizioa da. Isolamenduan ez balego ez luke bere horretan iraungo, ez luke balioko gaur ulertzen dugun jendarte egituraren oinarritzko habea izateko.

Baina jendartearekiko jartzen zaigun irudia ere ez da erabat erreala, horrek ere badu fikziotik. Jendarte oihana da, leku arriskutsua, esaten zaigu; baina topa litezke, orobat, errespetua, elkartasuna, maitasuna, hau da, familia batean topatu beharko genukeen hori guztia. Azken finean, egia hauxe da, jendartearen ontasun eta kalteak familian errepikatzen eta erreproduzitzen direla. Hori baino ez. Baina saltzen zaiguna, saltzen duguna, beste zerbaite da.

Esan dugu harreman konpentsatorio bat dela, sistema binario bat, sexu-genero sistema bezala: pribatu/publiko eta familia-bikote/jendarte banaketan maitasun/lehia paradigma jokatzeko duena. Eremu pribatuaren funtzioa, eremu publikoko indarkeriaren aurrean –ekonomikoa, politikoa, ideologikoa, generozkoa, klaseagatikoa...–, bake emaile eta bakegile izatea da. Hau da, sistemari maitasunaren promesa mantentzea interesatzen zaio, gizartearen indarkeria sistemikoa eta sistematikoa neutralizatu eta ezkutatzeko. Eta horregatik jartzen du indar guztia maitasunaren promesa bizi-bizi egon dadin: zoriontsu izatea edonoren esku dago; hobe esan, norberaren esku dago eta aldi berean guztion esku –oso demokratikoa da promesa, sistemari ez zaio ezer kostatzen eta–; nahikoa duzu, nahikoa dugu, maitatzeko norbait topatzea eta maita gaitzan norbait topatzea. Hori da zoriontasunaren bidea. Demokratikoa,

Sistemari maitasunaren promesa mantentzea interesatzen zaio, gizartearen indarkeria sistemikoa eta sistematikoa neutralizatu eta ezkutatzeko

erraza, berdintasunezkoa, dirurik kostatzen ez dena eta besteekin berdintzen gaituena: aberatsenekin, pobreenekin, beltz eta zuriekin, gizon eta emakumeekin... Denok gara berdin maitasunean, maitasunak berdintzen gaitu –kuriroski, sekula ez gara maitemintzen kalean eskean dagoen horrekin, adibide sinple bat jartzearren–, esaten zaigu, elkarri begiratzen diogu eta kolpetik maitemintzen gara.

Maitasunak ematen digu arrakasta. Eta arrakastak maitasuna.

Sistemari herritar enamoratuak gobernatzea komeni zaio; hainbat eta enamoratuengon, orduan eta bezago, hainbat eta gehiago sinetsi maitasun erromantikoaren mitoan, orduan eta gobernagarriago. Begiratu besterik ez dago ekoizpen kultural nagusi guztiak horren guztiaren zabalkunderako funtzionatzen duela –bateko eta besteko film, kantu, bideo, bideo joko, tinder, pof, iragarki...–, ideologia bete-betean egunero bonbardatuz.

## **Bikotea eta jendarte mugimenduak, lehia**

Maitasun erromantikoan sinestea sistema politiko patriarkalaren aliatu handi bat da, nahiz eta sinesmen horrek bikoteei eta familiei hainbeste ezinegon, desesperazio, frustrazio eta indarkeria ekarri. Bikoteak ixtean eta horrekin familia bere baitara tolestean –alegia, komunitate, tribu izatea ekiditen denean–, gizabanakoaren interes eta kezka afektibo gehienak horretara mugatzen dira. Horrek zera ekar lezake, interesak, indarra eta emozioak beste eremu zabalagoetara ez zabaltzea; hau da, eremu publikorako, militantzia politikorako –zentsu zabalean–, elkartasunerako, autoantolakuntzarako galga izan daiteke.

Ann Ferguson filosofoak dio familia eta jendarte mugimenduek elkarri lehia egiten diotela. Familia nukleo eta nuklear horrek jendearen energia afektibo guztia eskatzen duela, lanetik edo ikasketetatik kanpoko denbora guztia familia/bikoteari eskaini behar zaiola eta ez militantzia politikoari. Horregatik

sistemaren tema familia/bikote maitasunaren onuren propaganda egiteko. Interesgarria da Fergusonen gogoeta hori. Edonola dela, ñabardura bat ere merezi du; izan ere, familia/bikotea eta militantzia uztarketa gertatzen denetan, oso sarritan, uztarketa erabat generizatua izaten da: eremu pribatuan emakumeak geratzen dira eta publikora gizonak doaz.

## **Azter dezagun errealitatea ekonomia erreproduktibotik**

Ekonomia tradizionalaren lekutik aztertu ohi da gure errealitatea, hortik egiten dira analisi sozial eta ekonomikoak. Jendartearen osasuna eta geurea ere soldaten batezbestekoan, barne produktu gordinean, KPIaren igoera edo jaitsieran, kontsumo datuetan, langabezia tasetan neurtzen da, eta ekonomiaren martxak erabakitzen du gainontzeko erakundeena: familiarena, hezkuntzarena, osasungintzarena, justiziarena, lan munduarena...

Baina jendartearen eta geure osasuna beste leku askotatik neur liteke. Demagun, jendarteari harreman sexuafektiboan antolakuntzaren lekutik, familiarik eta haren ohitura eta legeen lekutik begiratuko bagenio, beste analisi bat geneukake. Hau da, ekonomia erreproduktiboan kokatuko ginatke. Begirada hori ekonomia produktiboaren begirada bezain zilegi eta egokia da. Beste balio batzuk aterako lirateke argira: maitasuna eta bere sentimendu guztiak, esate batera, ez intimitatearen mamu gisa, baizik eta kooperazioaren eta elkartasunaren motor gisa. Izan ere, horiek gabe bizitzak eta jendarteak ez dira bideragarri eta datu ekonomiko hutsak zentzurik gabe gera litezke.

## **Ezkontzaren gainean**

Ezkontza maitasun bizitza mota baten instituzionalizazioa da gurean, nagusi dena eta indar betean dagoena. Bi lagunek –ez gehiagok, eta ohiki heterosexualek– osatu eta kontratu

publiko baten bidez zinpetzen duten erakundea da. Bikote bakarrak (ez gehiagok) eta bere ondorengoek (biologikoak izan edo adoptatuak izan) osatzen dute oinarritzko taldea, eta talde hori arautegi baten barruan eta elkarrenganako bete-beharren arabera antolatzen da. Talde hori familia da. Familia batean odol loturarik izan ez eta seme-alabatzat adoptatua ez den inor balego –demagun adiskide bat–, ez da familia kide kontsideratzen. Modu berean, bikote maitasun eredian sartzan ez diren jendeek osatutako adiskidetasun taldea ez da legezko familia bat.

Familiatzat hartua izateko lege eskakizun horiek argi adierazten dute zein den familiaren garapen normala, familiei eta familiei bakarrik dagozkien onura eta babes legala jaso ahal izateko. Legez babesten den maitasun harremana zedarritua geratzen da. Hortik kanporako ezein maitasun harreman ez da familia izango. Azken finean, zein maitasun konportamendu izan behar dugun eta zein ez irakasten zaigu.

## **Etika eta politika**

Legeak justiziaren isla dira edo izateko bokazioa dute, eta horregatik etikarekin harremanetan daude. Etika, justizia, legeak, politika, ekonomia eta beste emozioak kontuan izanda ulertzen hasten bagara, kolore eta ñabardura berriak agertuko zaizkigu.

Carol Gilligan psikologo sozialaren arabera, gure kulturaren etika ulertzeko bi modu daude: bata, justiziaren etika, eskubide unibertsalak dituen oinarri; eta, bestea, zaintzaren etika, jendearen zaintzatik eta arduratik abiatzen dena. Seyla Benhabib filosofo feministak, Gilliganen lerroari jarraituz, justizia eta etika inklusibo baten ideia garatu du. Eta honela laburbildu daiteke.

Justiziaren etikak pertsona kontzeptu orohartzaille gisa ulertzen du, *bestea orokortua* esaten dio. Hau da, denok gara pertsona, denok gara berdin. Eta horregatik guztiok eskubide eta betebeharrak berberak ditugu. Zer dugun komunean galdera da

abiapuntua, eta, horregatik, elkarrekikotasun eta berdintasun formalaren printzipioak guztioi berdin aplikatzea dakar.

Etika horretan, ideia nagusia justizia da, hau da, jendearen beharren eta elkarren arteko diferentziak baino, pertsonen eskubide eta betebeharrak dira errespetatu beharrekoak. Justizia itsua da diferentziekiko, eta, beraz, berdina da guztiontzat eta denok betebeharrak berdinak ditugu: esate batera, zorra itzultzea denon betebeharra da, zeinahi dela bakoitzaren

Justiziaren etikak  
bestea injustuki  
tratatzea debekatzen  
du; zaintzaren etikak,  
horretaz gainera,  
behar egoeran dagoen  
inor abandonatzea  
debekatzen du

egoera ekonomikoa –diru sarrerarik izan edo ez– eta nor-nahi dela zorra zor zaiona –aberatsa edo pobrea–.

Zaintzaren etikan, aldiz, pertsona kontzeptua konkretutasunari eta norbanakotasunari lotzen zaio, *bestea konkretua*. Horregatik, pertsonen arteko diferentziak hartzen ditu kontuan. Pertsonak identitate propioko gizakiak dira, historia bat eta afektibitate sistema bat dute. Elkarren artean amankomunean dutena kontuan hartzen bada ere, bakoitzaren singularitasuna azpimarratzen da. Norberaren beharrak, motibazioak, desioak, egoera... Dena hartzen da kontuan. Baten beharraren gainera beste baten eskubidea jarri beharrean, ekitatea eta elkarrekikotasun osagarria bilatzen ditu. Oinarri dituen arauak maitasuna, adiskidetasuna eta zaintza dira.

Alderaketa ulertzeko balio lezake honek: justiziaren etikak bestea injustuki tratatzea debekatzen du; zaintzaren etikak, horretaz gainera, behar egoeran dagoen inor abandonatzea debekatzen du. Uda honetan bertan, itsasoan jasotako 42 pertsona, Italiako gobernuaren eta poliziaren kontra, Italiako portu batean lurreratu zituen Carola Rackete ontzi kapitainaren jokamoldea zaintzaren etikan sartuko litzateke.

Etika bakoitzak bere moralitatea du, baina batek bestea osa lezake. Justiziaren etikak denok berdin-berdin, diferentziak

kontuan hartu gabe, tratatzen bagaitu, injustua izateko arriskua du. Zaintzaren etikak diferentziaren printzipioa erdira ekartzen du eta horrekin berdindu liteke justiziaren etikak sor lezakeen injustizia, desberdin dagoenarekin desberdin jokatzeak eta beharren arabera emateak kooperazioa eta zaintza bultzatzen dituelako. Bien baturak etika interaktibo bat ekar lezake, Benhabibek esan bezala, hots, unibertzala eta bakoitzaren historia partikularra batera aintzat hartuko dituen.

Benhabibek, etika integratzaile eta inklusibo horren bidean, balio publikoak eta balio pribatuak zertan diren ikustea beharrezkotzat jotzen du. Gure jendartea kontrajarritako bi eremutan banatzen da: publikoa eta pribatua. Garai batean biak bat ziren; funtzioak eta etikak bereizten hasten direnean sortzen dira bi eremuak, eta eremu bakoitzak etika bat garatzen du: etika publikoa, *res publica*-ri dagokiona; eta etika pribatua, maitasunean oinarritzen dena.

Etika publikoak eremu publikoa arautzen du, egituraketa eta funtzionamendu egokia izan dezan. Arau horiek, teoriarik, justizian oinarritzen dira, hau da, berdintasun printzipioan: legeak unibertzalak dira eta berberak guztiontzat, eskubideak eta betebeharrak berberak diren bezala. Etika pribatua maitasunean oinarritzen da, barkamenean, errekontziliazioan, zaintzan, arduran.

Galdera honako hau da: publikotzat dugun eremu hori etikaren justiziak gobernatu beharrean, edo ez horrek baka-rik, zaintzaren etikak gobernatuko balu, nolakoa zatekeen?


Benhabiben erantzuna: batetik, bi eremuen arteko muga haustea ekarriko luke; eremu pribatua eta eremu publikoa bat lirateke, etika berarekin, neurgailu berekin. Hau da, balio pribatuak publikoan txertatuko lirateke, eta, beraz, esate batera, sentimenduek botere sortzaile eta eraldatzaile gisa duten indarra balioztatuko litzateke, balio sozialen motor gisa ulertuko genituzke; kooperazioa, elkartasuna eta maitasuna bultzatuko dituen balio-sistema, etika eta justizia bat jarriko lirateke martxan. Hezkuntzaren ardatz izango litzateke



sistema hori, bai familien baitan, bai eskoletan, bai hezkuntza ez-formalean; jendearen parte hartze politikoa bultzatuko eta handituko litzateke, jendartea hobetu...

Eta, aldi berean, liberalismoaren eta merkatuaren kontra-borroka bat ere izango litzateke. Izan ere, kapitalismo basatiak gero eta gehiago gobernatzen du eremu publikoa, eta dirua jartzen du arau bakar gisa eta merkaturaren harreman modu bakar gisa, eta prekaritatea eta gaixotasunak eragin eta naturaren txikizioa indartu... Horren denaren aurrean, pribatutzat hartzen ditugun maitasunaren balioak politizatu eta indarrean jartzea da gakoa. Eta alternatiba zehatzak jarri ditu Benhabibek mahai gainean: esate batera, soldatei eta irabaziei muga jartzea, bai behetik –gutxiengoaren marra– eta bai goitik –irabaziak kopuru batera mugatuz, eta hortik gorako dena birbanaketara bideratuz–, errenta unibertsala indarrean jartzeko.

## **Erreskatatu dezakegu maitasuna?**

Maitasunaren, zaintzaren eta desioaren gaineko kapitalismoaren mekanika hain da indartsua, ezen oso zail baita gaur egun praktikatzen dugun neoliberalismoaren diskurtsoetik maitasuna erreskatatzea, dio Illouzek. Maitasun neoliberal erromantiko indibidualista injustizia sortzaile baten pean eraiki eta bizi gara, baina izan daiteke beste maitasun modurik eta behar du izan. Maitasuna erreskatatuko bage-nu eta justiziarekin eta berdintasunarekin lotu, politikaren eraikin osoa aldatzea ekarriko luke. Iraultza bat. Maitasuna zentzu askatzailean ulertzen badugu, esan liteke iraultza eta maitasuna beti egon direla lotuta. Gaur egun, geurean, ate joka dugun iraultzak izen bat du: zaintza. Zaintza erdigunean jartzetik erreskatatu ahal izango dugu maitasuna kapitalismoaren eta menderakuntzaren kateetatik. 

### **Bibliografia**

- Azurmendi, Joxe (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin.
- Benhabib, Seyla; Cornellà, Drucilla (1990): *Teoría feminista y teoría crítica*, Bartzelona, Alfons el Magnànim.
- Bourdieu, Pierre (2004): *El baile de los solteros. La crisis campesina en el Bearne*, Madril, Anagrama.
- (2011): *Las estrategias de la reproducción social*, Buenos Aires, Siglo veintiuno.
- (2012): *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*, Madril, Taurus.
- Damasio, Antonio (2010): *Y el cerebro creó el hombre*, Madril, Destino.
- Esteban, Mari Luz (2001): *Crítica del pensamiento amoroso*, Bartzelona, Bellaterra.
- Ferguson, Ann (2014): 'Feminist Love Politics', in Anna G. Jonasdottir, Ann Ferguson (argk.): *Love. A Question for Feminism in the Twenty-First Century*, Londres, Routledge, 250-265.
- Garcés, Marina (2013): *Un mundo común*, Bartzelona, Bellaterra.
- (2015): *Filosofía inacabada*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg.
- (2017): *Nueva ilustración radical*, Bartzelona, Anagrama.
- (2019): *Ciudad Princesa*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg.
- Herrera Gómez, Coral (2010): *La construcción sociocultural del amor romántico*, Madril, Fundamentos.
- Horvat, Srećko (2016): *La radicalidad del amor*, Iruñea, Katakarak.
- Illouz, Eva (1997): *Consuming the Romantic Utopia*, Berkeley, University of California Press.
- (2012): *Why Love Hurts. A Sociological Explanation*, Malden, Polity Press.
- Moreno Marimón, Montserrat; Sastre Vilarrasa, Genoveva (2015): *Amor y política. La imprescindible sensibilidad de la política*, Bartzelona, Icaria.

# Maitasuna erdigunetik kanpo. Maitasun-ideologia arrozteko dekalogoia

■ Mari Luz Esteban

*UPV/EHUko Gizarte Antropologiako irakaslea*

**M**endealdeko gizarteetan hedatuen dagoen mezua da maitasuna sentimendurik puruena, gorenena dela, barru-barrutik sortu eta gizaki moduan nor egiten gaituena. Kultur industria *mainstream*-en bidez (zinea, musika, literatura...) mundu osora zabalduz doan ikuskera, bestalde. Ildo beretik, uste ohi da maitasunak plus bat ematen diola edozein harremani, edozein proiekturi, politika arloan barne.

Baina, maitasuna zer den, lekuan-lekuan zer garrantzi duen edo nola bizi dugun egoki ulertzeko, nahitaezkoa da ikuspegi hori kritikatzeko eta zabaltzeko, jakitun, erregimen emozional (Reddy 1997)<sup>1</sup> zehatz baten forma hartu duen maitasun-pentsamenduak (Esteban 2011) gure sistema politiko-ekonomikoa eratzen eta sustatzen duela, maitasuna justiziaren, elkartasunaren eta beste balioen aurretik ezarriz, gizakiak sailkatuz eta leku eta botere posizio ezberdinetan mailakatuz. Antolaketa hori sinbolo, irudikapen eta arau multzo baten bitartez gauzatzen da, nola jokatu behar dugun zehaztuz, eta familia, elkarbizitza eta lanaren banaketa bikote-ideologiaren gainean antolatuz (Esteban 2011). Maitasun-eredu horrek lau puntu

kardinal izango lituzke: monogamia, ugaltzea, fidelotasuna eta elkarbizitza (Onfray 2002).

Mireia Sallarès zine zuzendariak nabarmendu bezala,<sup>2</sup> kapitalismoak ez du soilik eskulana ustiatzen, maitasuna ere ustiatzen du. Hortik, maitasunaren eginkizuna ez litzateke bakarrik umeak sortzea, baizik eta sistema osoa mantentzea. Eva Illouz (2007) sistema kapitalistaren eta maitasunaren aztertzaile bikainak<sup>3</sup> ezin hobeto laburbildu du kapitalismoaren, erromantizismoaren eta kontsumoaren arteko lotura zertan den, eta adierazi du, gure gizartean, erromantzea (maitasun harremanak, oro har) guztiz merkantilizatuta dagoela (bidaiak, opariak, abenturak...), eta, alderantziz, kontsumo-gizarteak maitasuna behar duela saltzeko, horren adibiderik aproposena publizitateak egin ohi duen bikote-harremanaren etengabeko erabilera izanik.

Anna Jonásdóttir-ek (1993), bere aldetik, maitasunaren eta genero-harremanen irakurketa marxista eskaini digu:

Gizarte arau behinenek... esaten dutenez, gizonek, emakumeen maitasun, zaintza eta dedikaziorako eskubidea izateaz gain, beren emakume premiei libreki heltzeko eskubidea eta beren baitarako gordetzeko askatasuna ere badute. Emakumeek, bestetik, beren burua libreki emateko eskubidea dute, baina beren baitara gordetzeko askatasun oso mugatua dute. Horrenbestez, gizonen emakumeen bizi-indar eta gaitasuna beregana dezakete etengabe, berengandik emakumei itzultzen dietena baino askoz ere neurri esanguratsuagoan [...] Kapitala lan alienatuaren metaketa baldin bada, autoritate maskulinoa (emakumeen eraginaren aurrean) maitasun alienatuaren metaketa da (1993: 53).

Beste era batera esanda, maitasuna da 'emakume' edo 'gizon' egiten gaituen elementu funtsezkoenetakoa, bi izaki ezberdin eta kontrajarri bezala baina, aldi berean, elkarren osagarriak. Hortaz, sinestarazten zaigu, eta fikzio erromantikoak horrela errepikatzen digu aspertu arte, amodioa dela sozialki bereizita (eta mailakatuta) dauden pertsonen elkar topatzeko aukera onena. Eta hori egokitzen zaie ez bakarrik emakume/gizonei, baizik eta etnia-arraza edo klasearen arabera sailkatuta

dauden pertsoneri ere, maitasuna bailtzen gizarte ezberdintasunak ezabatzeko bide nagusia. Eredu horren ondorioz, emakumeek besteei ematen eta besteengandik jasotzen dutenaren artean desoreka nabarmena sortzen da; baina, halere, berariazko konpromisoa hartu behar dute maitasunarekiko.

Beraz, maitasuna, kultur kategoria izateaz batera, genero, etnia-arraza, klase eta ahaidetasun kategoria ere litzateke, eta, maitasuna aztertzeko, nahitaezkoa da gogoia, emozioa eta ekintza elkar lotzen dituen eredu konplexu legez irudikatzea<sup>4</sup> eta gure analisia feminismoak azken hamarraldietan sortutako tradizio kritiko oparoan txertatzea.<sup>5</sup>

Artikulu honetan, tesi bikoitz batetik abiatuko naiz: (1) Gure gizartean nagusi den maitasun-ideologiak genero eta bestelako gizarte-bereizkeria eta heteronormatibitatea sustatzen dituela. (2) Ideologia hori auzitan jarri ahal izateko, maitasuna erdigunetik kanpo kokatu eta maitasuna lekualdatzeko eta arrotzeko eragiketa abian jarri behar dugula. ‘Lekualdatu’ eta ‘arrotzu’ hitzen esanahiaren bila Harluxet Hiztegi Entziklopedikora joz gero, emaitza hauek aurkitzen ditugu: ‘Lekualdatu’: «Zerbait edo norbait bere tokitik higitu, lekuz aldatu».<sup>6</sup> ‘Arrotzu’ hitzaren kasuan, aldiz, lau aukera ematen dizkigu hiztegiak: «1. Norbaitetiko harremanak hautsi. 2. Erbesteratu, kanporatu. 3. Arrotzen ohiturak, jokabideak, etab. hartu. 4. Zerbaiteko ohitura edo trebetasuna galdu».<sup>7</sup>

Gure gizartean nagusi den maitasun-ideologiak genero eta bestelako gizarte-bereizkeria eta heteronormatibitatea sustatzen ditu. Ideologia hori auzitan jarri ahal izateko, maitasuna erdigunetik kanpo kokatu behar dugu

Adiera horiek guztiak konbinatuta, testu honetan, maitasuna arrotzu ahal izateko dekalogo bat proposatuko dut: hamar puntu/atal, hamaika emakumeren bizipen, sormen-lan edota teorietatik abiatuz.<sup>8</sup> Puntu horietan murgildu baino

lehen, hurrengo atalean, maitasun-ideologia hegemonikoaren zer-nolakoetan pixka bat gehiago luzatuko naiz.<sup>9</sup>

## **Maitasuna eta maitasun-pentsamendua zertan diren**

Zer da maitasuna? Maitasuna definitzea ezinbestekoa da, haren inguruan sortu ohi den kutsu magiko eta misterioitsua ekidin eta haren erraietan arakatu nahi baldin badugu, behintzat.

Maite Asensio *Berria*-ko kazetariak oparitu zidan behin orduz geroztik baliagarria izan zaidan definizioa. Asensio-  
rentzat, maitasuna muturreko enpatia litzateke. Enpatia «gizakiak beste pertsona baten tokian jartzeko edota sentitzen duena antzemateko ahalmena da. Besteen beharrianak, sentimenduak eta arazoak ulertzeko eta beraien erreakzio emozionalei egoki erantzuteko gaitasuna da».<sup>10</sup> Enpatia horretan sakontzeak maitasun sentimendua sorraraz lezake. Baina, maitasun sentimendua ezin da behartu, sortuko da ala ez, nahiz eta gure ideologia erromantikoak elkarrarremen hori 'puzteko' baliabideak eman. Aldiz, besteekin enpatizatzeke gaitasuna landu daitekeen jarrera litzateke. Hortik bere garrantzia. Aitzitik, maitasunez eta erromantizismoz saturatuta dagoen gure testuinguruan, gehiegi erreparatzen diegu maitasunari eta maitasunaren balizko bertuteei, eta gutxiegi gizakien arteko enpatiak gizarte harremanetarako eta bizikidetzarako duen muntari.

Nahiz eta gurean gailurrean egon, pasiozko maitasun<sup>11</sup> izenaz ezagutzen duguna maitasun mota bat gehiago izango litzateke. William Jankowiak (1995) antropologoak, kulturartean buruturiko hainbat ikerketaren emaitza oinarri, adierazi du amodio klase hori unibertsala dela, testuinguru bakoitzean egokituko liratekeen lau aldagairekin: idealizazioa, erotizazioa, intimitaterako nahia eta irauteko gogoia. Mendealdean, idealizazioa eta erotizazioa bereziki azpimarratuta egongo lirateke eta ezkontza eta maitemintzea bateratuta. Ezkontzaren historia aztertu duen Stephanie Coontz-ek (2005)

adierazi duenez, XX. mendeko 50-70etan Mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan zabaldu zen ezkontzaren ideala (jardunaldi-osoko-etxeko-andre/gizon-hornitzaile bikoteak osatua) salbuespena izan zen 150 urteetako prozesu luze baten, non ezkontza sentimentalizatu zen XIX. mendean, eta XX. mendean sexualizatu.

‘Erromantizismo’ terminoa ere argitzea komenigarria da, zeren nozio horrek hiru adiera ezberdin baititu gutxienez, eta hirurak nahasteko joera egoten da; hauek dira: (1) Pasiozko harreman bat ezaugarritzeko erabiltzen duguna, edozein kulturatan eta une historikotan aurkitu daitekeen lotura, lehenago esan bezala. (2) XVIII. mendearen amaieran, Alemanian eta Erresuma Batuan sorturiko kultur mugimenduari dagokiona, zeina Ilustrazioaren eta neoklasizismoaren aurreko erreakzio iraultzailea izan zen, sentimenduei lehentasuna ematen ziena. (3) Hirugarrena, berriz, azken mendeetan mendebaldarrak deitzen ditugun gizarteetan sortuz eta gartzuz joan den maitasun-kultura ezaugarritzeko baliatzen duguna, non erromantizismoa eta heteroaraua txanpon beraren bi aldeak diren. Ondorioz, harreman afektibo-sexuala beste harremanetatik erabat aparte gelditzen da, guztien gainetik.

Baina Jankowiak proposatzen dituen lau aldagai horiek edozein harreman afektibotan topa litezkeen elementuak dira, nire ustez, ez soilik pasiozkoan. Kontua litzateke ezaugarriok nola erregulatuak izaten diren lotura mota bakoitzean. Erotismoari dagokionez, adibidez, gure ikuskeran zaila egiten zaigu desio erotikoa edozein harreman afektiborekin lotzea, guztiz barneratuta dugun kultur ariketa baten bidez, bikote harremana hipererotizatu egiten baitugu, eta adiskide harremanak, aldiz, deserotizatu. Bada, nire irudikoz, erotismoa edozein harremanetako osagaia litzateke,<sup>12</sup> baina era ezberdinean erregulatuko litzateke kasuan kasu, sistemaren sustapenean ezinbesteko papera duen bikote ideologia eta ikusmolde zurrun bat mantentze aldera. Hain justu, nire proposamena litzateke definizio eta osagai berak baliatzea edozein harreman kalifikatzeko, maitatzeko aukera guztiak horizontalizatu eta

Bikotezentrismoa  
alde batera,  
maitasun-ideologia  
erromantikoa  
zorrotz aztertu ahal  
izateko, 'maitasun  
pentsamendua'  
kontzeptua  
proposatu dut

bikote-harremanaren suprema-  
zia neutralizatze aldera. Horrek  
ez du esan gura ez ditugunik  
aztertu behar testuinguru ba-  
tean dauden lotura afektiboan  
arteko aldeak edota denboran  
gertatzen diren eraldaketak.

Bikotezentrismoa alde bate-  
ra, maitasun-ideologia erro-  
mantikoa zorrotz aztertu ahal  
izateko, 'maitasun pensamen-  
dua' kontzeptua proposatu dut  
(Esteban 2011). Maitasun-pen-  
tsamendua litzateke

maitasunaren inguruan eratuko liratekeen sinbolo, nozio eta  
teorien multzo artikulatua, zeinak gizarte espazio guztiak ira-  
gaziko litzuzkeen, instituzionalak barne, jendearen jardunetan  
eragin zuzena izanik, eta genero, klase eta etnia harreman ezber-  
dintzaileak eta desioa, identitatea eta subjektua ulertzeko modu  
zehatza eta heterozuzena egituratuz (2011: 23).

Konfigurazio ideologiko eta praktikoa hori hainbat maila-  
tan gauzatu litzateke:

1. Hasteko, maitasun-pentsamenduak pertsona zer den  
modu zehatz batez ulertzera bultzatuko gintuzke, mai-  
tasuna pertsonaren definizioaren erdigunean kokatuz  
eta 'amodiorik ez duen' (batez ere, bikote-harremanik  
ez duen) pertsona gabezia irudikatuz; hori era ezber-  
dinean egokituko litzateke emakume eta gizonen.
2. Maitasun-pentsamenduak identitateen sorreran ere era-  
gin zuzena izango luke. Hortik, emakumeen identitatea  
edo emakume izatea (aldaera idealean) maitasunaren  
inguruan garatuko litzateke, harremanen lehentasun osoa  
emanez.
3. Identitate hori gorputz-lan (Wacquant 1995) zehatz eta  
iraunkor baten bidez eratuko litzateke, nahiz eta adin  
batzuetan (nerabezaroan eta gaztaroan) jorraketa hori



berariazkoagoa izan.<sup>13</sup> Horrela, sentsorialitatea, kognizioa, norbere identitatea eta besteei eta munduari begiratzeko eta hurbiltzeko erak moldekatuko liriateke.

4. Maitasun-pentsamendua afektuak egituratzeko eta ordenatzeko bidea ere izango litzateke. Bikoteak leku nagusia izango luke familiaren osaketa idealean, eta horren atzean heteroaraua eta pentsamendu monogamoia leudeke (Vasallo 2018), elkarbizitzarako zutabe nagusiak.
5. Aurrekoarekin lotura estuan, maitasun-ideologia horrek lanaren banaketa sexuala sustatuko luke. Ondorioz, emakumeok maitasunagatik lan egin behar dute bestean kargu eginez, eta horrek menpeko jartzen ditu, maitasunarekin (zaintzarekin) loturiko lan horiek, beste edozein lanekiko, aitortza ekonomiko urriagoa eta aitortza sozial anbigua eskuratzen baitute.
6. Azkenik, lege, arau eta erakundeetan ere eragingo luke, osasun, hezkuntza edo ongizate arloak horren adierazle bikainak izanik. Eremu horietan ikasiko genuke bizi proiektuak diseinatzerakoan nola jokatu behar dugun. Izan ere, emakumeek, batez ere, erakutsi behar dute maitasun kultur aginduak jarraitzeko gai direla tratu eta zerbitzu ona lortze aldera.

## Maitasuna arrotzeko dekalogoia

### 1. Monogamiatik apostatatu

Brigitte Vasallok (2018) idatzi duen *Pensamiento monógamo. Terror poliamoroso* liburua izango da atal honen abiapuntua. Vasallok monogamia sistema gisa hartzen du, ideologia monogamoak gure gizartean historikoki izan duen zentralitatea aztertuz eta monogamiak, bai maitasun harremanetan baita orokorrean ere (arkitektura eta hirigintza barne), duen eragina erakutsiz. Horrela idatzi du:

Publizitate iragarkiak edo artea bezalako kultur ekoizpenetatik abiatuta, monogamia, egun, maitasunaren (maitasun erromantiko eta sexualizatuaren 'benetako' modu baten) sinonimoa eta bi-

kotearen sinonimoa da, hori baita ‘benetako’ maitasun horren ‘naturalizat’ jotzen den eraikuntza praktikoa. Monogamia deiturikoa maitasunaren partida jokatzeko den esparru ikusezina da, taula. Zer osagai ditu bikoteen jokalekua den taula horrek? Ardatz egituratzaile hauek ditu: loturaren erromantizazioa, sexu konpromisoa, bi kideen eskusibotasuna eta etorkizun ugalkorra, maitasunen eta bikoteen inguruan dabilen mamu gisakoa. Ardatz horiek ibilbide jakin batera makurtzeko, maitasun eraikuntzari substantzia materiala ematen dioten bizikidetzazko eta mendekotasunezko (baita ekonomiko ere) praktika multzo bat finkatu da (2018: 26).

Ildo beretik, azpimarratu du monogamiaren inguruko ideia zentralena ez dela eskusibotasuna, hierarkia baino, bikotea edozein harremanen gainetik ezarrita baitago. Halaber, polimaitasunaren defentsatik harago, polimaitasunaren irakurketa neoliberalaz ohartarazi digu, zeinak gorputzen eta harremanen kontsumismoa areagotuko bailuke.

Vasallok pentsamendu monogamoa apurtzeko, suntsitzeko eta deseraikitzeke deia egiten du. Eta nik, ideia hori sakontzeko, ‘apostasia’ hitza lehenetsi dut, ez berak proposatzen duenarekin ados ez nagoelako, baizik eta bere planteamendua oraindik ere gehiago garatzeko. Wikipediara joz gero, horrela definitzen da ‘apostasia’ hitza:

... literalki ‘zerbaitetik kanpo jartzea’, norberaren erlijioa izandakoaren ukazioa da. Hitzak berak esanahi ezberdinak ditu: alde batetik ordena erlijioso edo ikastetxe batetik atera edota hura abandonatzea izan liteke; bestetik, elizgizona izatea laga duen pertsona, bere apaiz-lekame betebeharrak alde batera utzita, edo oro har, sinesmen, erlijio, iritzi edo dotrina bat beste batekin aldatzeari ere deitzen zaio.

Horrenbestez, adiera hauek guztiek esanahi orokor bat dutela ikus daiteke. Heresiaren<sup>14</sup> aurrean, apostasiak jatorrizko dotrinaren erabateko uztea edo ukatzea dakar. Hots, dotrinaren dogma jakin bat ukatu beharrean, dogma osoa ukatzen da. Apostatak dotrina osoa ukatu eta hereseak dotrinaren zati bat ukatzen du, jentilek, ordea, ez dute dotrina hori inoiz ezagutu edota ez dira haren irakaspenetan inoiz hasiak edo hezituak izan.<sup>15</sup>

Laikotasunaren aldarria egiten duten feministek apostasiaren defentsa ere egin dute. Esate baterako, 2008an, Bizkaiko

Emakume Asanbladako kolektibo batek erlijio katolikoaren aurrean apostatatzeke kanpaina abiatu zuen, salatuz eliza monoteisten matxismoa, Eliza katolikoak Espainiako Estatuan dituen pribilegioak eta eremu ezberdinak bereiztearen premia (estatua/elizak, politika/erlijioa, jakintza/fedea).<sup>16</sup> Ez dugu ahaztu behar apostasia-ekintzek erreakzio ezkorra eragin ohi dutela, zenbait testuingurutan (gizarte islamiarretan, adibidez) delitu larria izanik.<sup>17</sup>

Erlijiotik kanpora ere, apostasiaren ideia ideologia monogamia deseraiki ahal izateko egokia dela iruditzen zait, zeren pentsamendu monogamia deuseztatzeko ez bailitzateke nahikoa izango horren genealogia taxuz arakatzea, ezta ere eraldaketa partziala egitea ere (harreman sexu-afektibo askotarikoak eta anizkoitzak eduki, edo bikotea izateari ezetz esan), kasu horretan, heresiaren mailan geldituko baikin; baizik eta beharrezkoa litzateke pentsamendu horrek gudan duen sinesmen efektuaz ohartu eta sinesmen hori noraino dugun barneratua egiaztatu eta gero, ideologia horri uko egitea, erroetara joz. Hortik, nire ustez, apostasiaren nozioaren komenigarritasuna.

Erlijiotik kanpora ere, apostasiaren ideia ideologia monogamia deseraiki ahal izateko egokia dela iruditzen zait

## 2. Emakume ezkongabeen historia berrirakurri

Ana Malagon idazleak, 2018ko otsailaren 11n *Berria* egunkarian idatziriko zutabe baten zati batekin hasi nahi dut atal hau. 'Soberakinak' da zutabearen izenburua:<sup>18</sup>

Patio batera ematen duten leihoak dituzten etxeetan zaila da iluntasunetik bizilagunen argietara begira ez gelditzea, zutik, berokia kendu gabe. Zaila da voyeurismoari ezetz esatea, jendez beteta dagoen mundu batean bizi gara. Ez da gure errua. Hor daude. Zer egingo diogu. [...]

Patioko bizilagunek telebistaren aurrean afaltzen dute, urrutiko gonbidatuekin errazagoa da elkarbizitza. Ama zigarro bat erretzera aterako da leihora. Beranduago, aita. Ez dute inoiz elkarrekin erretzen. Ez dute bakarrik erretzen ere. Beraiek ez dakitte, baina hemen gaude beste guztiak.

Ez dugu frogarik oraindik baina litekeena da unibertsoan ere beste norbait egotea. Guri begira agian. Agian, likatsua ez den bitartean, hemen duguna baino konpainia atseginagoa izango da. Ripleyrekin ikasi genuen likatsua dena ez dela inoiz atsegina izaten. Likatsua den norbaiten konpainian egoteko, hobeto gaudela bakarrik.

Hori pentsatuko zuten duela mende batzuk ardatz eta hariarekin lanean, emakume ezkongabeak izendatzeko ingelesezko *spinster* hitza gorpuztu zuten emakumeek. Klase ertainaren independentzia zutenek ez omen zuten ezkontzeko aukera falta, baina maitasun ideal zehatz batean sinesten zuten. [...]

Gutxiesgarria da *spinster* hitza, aukera galduaren eta pasatutako denboraren kontzeptuak gordetzen dituen *old maid* den bezala. Gure 'neskazaharrak' ere gordetzen dituen gatazkak dira. Adinean zaharra neska izateko, ohea hutsik, emakume izateko. Kate Bolick *Spinster, Making a Life of One's Own* liburuaren egilearen hitzetan: «ama bat zertan ari den badakigula uste dugu, emazte bat zertan ari den badakigula ere bai, baina emakume ezkongabe bat zertan ari den misterio bat da». [...]

Azken urteotan Txinan gero eta maizago deitu diete *sheng-nui*, soberakin-emakumea, 27 urtetik gorako emakume langile, independente eta ezkongabeei. Ez ezkontzea errespetu faltarik handiena da gurasoentzat, eta gobernuak ere gaitzesten du, kalkulu demografikoei kalte egiten die. Sekulakoa da presioa.

Euskal gizartean izan dira eta badira ezkontzari (edo bikoteari) uko egin dioten emakumeak, bizitza osoan edo tarte batean, edozein dela arrazoia.<sup>19</sup> Euskarak baditu ere berariazko hitzak emakume horiek izendatzeko: 'neskazahar' edo 'birrotxa'. Gaur egun gutxi erabiliak izan arren, badakigu zer esan nahi duten. 'Mutilzahar' ere deitu zaie ezkondu ez diren gizonen, baina emakumeen tratamendua peioratiboagoa izan da.

Kate Bolick lan aipatzen zuen Malagonek zutabe horretan. Bolickek, *Making a Life of One's Own* (2015)<sup>20</sup> liburuan, ezkondu ez den emakumeak historian jasan duen estigmatik abiatu da: «Emakume ezkongabeak anomaliatzat jotzen

dira beti, aberraziotzat, gizarte ordenari dagokionez» (2016: 30). Horrez gain, bere bizitzako hainbat oroitzapen bildu ditu eta Ipar Amerikako zenbait emakume sortzaile, idazle edota intelektual ezkongaberen biografiak gogora ekarri eta berridatzi ditu. Emakume horiek,

«etxetiartasunari berezkoa zaion autoeroapena» baztertzean, «beren nia lantzeari» ekin zioten, ezkondu gabeko bizitza «maila sozial zein pertsonalean baliotsua den egoera gisa» defendatuz, eta «ezkontzaren aurkako hautuaren bitartez independentzia feminoaren balioei forma eman zieten» (2016: 315).

Emakume ezkongabeen historia berreskuratzeari eta berriakurtzeari ekitea ezinbestekoa da bikote-ideologia hegemonikoa auzitan jarri nahi izanez gero, bestelako loturak eta elkarbizitza bideak bere horretan aitortu ahal izateko, eta halaber, beraiek bizi izan duten uko edo estigma soziala neutralizatzeko; gerora bada ere, iragana etorkizun bihurtuz.

### 3. Mito kontraerromantikoak eraiki

Ana Malagonen beste zutabe batek iradoki dit hirugarren atal hau. Oraingoa 'Camilla' izenekoa, *Berria*-n argitaratua, 2018ko maiatzaren 20an. Horrela zioen idazleak:

Ez naute ezkontza askotara gonbidatu zorionez. [...] Ez zaizkit ezkontzak gustatzen, eta hala ere, Meghan Markle eta Harry printzearen artekoan egon nahi nuen atzo. Oso fuerte. Ez Meghan Marklengatik eta are gutxiago Harry printzeagatik. Camilla Parker Bowlesen aldamenean eseri nahi nuen eta urteetan zehar jasan behar izan duen bilipendioaren porrota ospatu. (Berarengatik sentitzen dudana) maitasunaren alde topa egin *scotch*-arekin. Camillarekin kontent jarri nahi nuen, baina ez gehiegi. Mingaina arintzeko adina soilik.

Bere miseriaren aitorpena eta oraindik konspiranoikoen bazka den heriotzarekin Lady Di aldareetara igo zutenean, Camilla infernuaren geletako gortinak aukeratzen irudikatu nuen. Une horretan hasi nintzen Camilla maitatzen. Diana Spenceren aldamenean, Camilla itsusia zen, ez zuen ez karismarik, ez karitate-rik, ez diseinugile famatuek sinatutako jantzirik. Camilla ez zen Elton Johnen laguna. [...] Eta niretzat britainiarren erreginarenean

familia ile apaindegiko aldizkarietan irakurtzen dudan fikziozko familia erreal hori denez, hemen nauzu, errepublikazaletasunari egiten diodan parentesi bakarrean, Camilla Parker Bowlesen ohorearen defentsan. Hango zergadunek barka nazatela.

90etan maitemindu nintzen ni Camillarekin baina Charles printzea 70eko hamarkada hasieratik dabil horrela. Gertatu zena laburbilduko dizut: koroaren oinordekoak bere estatus estratosferikoko zirkulu sozialean neska bat ezagutzen du, maitemindu ere bai, baina ez da ofiziala, tipoak soldaduska egitera joan behar du, maiteari agur esan eta Kaxianok kantatu bezala ontzi batean daramate Ingalaterratik kanpora eta bueltatzen denean, enebada, aurretik zuen nobio intermitente batekin ezkondu da neska. Gogoz kontra eta indar paranormalek beharturik, antza denez. [...]

Fikziozko familia boteretsuengatik eta munduak gorroto dituen pertsonaiengatik sentimenduak izateari utzi beharko nioke behingoz, ez baitio nire irudiari batere onik egiten. [...] Nire irudia apur bat garbitzeko esango dut Camillarengatik izan zela. Egia da. Konparazioak galdu eta irainak irabazi zituen Camillarengatik. Karisma, karidade eta pop lagunik gabe, *scotch*-a disfrutatuta eta erretzeari uztea lortzen ez zuen liburuzale itsusiarengatik. Camilla maitagarria da, ez esan ezetz.

Fikzio erromantikoan,  
maitasuna  
ahalguztiduna dela  
errepikatzen zaigu,  
sentimenduak  
kontzientzia eta  
borondatetik at daudela,  
eta maitemintzean  
maitasunaren goia  
jotzen dugula

Fikzio erromantikoz saturatuta bizi gara. Esan dut jada.

1740an, Samuel Richardson-en *Pamela; or, vertue rewarded*<sup>21</sup> gutun-eleberriak fikzio erromantikoa inauguratu zuen. Hortik aurrera, eta aldaketak aldaketa, kontakizun arrosetan,<sup>22</sup> emakumeak gizonak baino gazteagoak, pobreagoak, ahulagoak edota ilunagoak izan ohi dira, baina erromantzeak duintasuna eta, tarte batez, sikiera, gizarte-estatusa itzuliko dizkie. Fik-

zio erromantikoan, izan eleberri arrosa, izan kultur industriak munduratzen duen beste edozein ekoizpen ere (zinea,

musika...), maitasuna ahalguztiduna dela errepikatzen zaigu, sentimenduak kontzientzia eta borondatek at daudela, eta maitemintzean maitasunaren goia jotzen dugula; gainera, pasioa edozein maitasun harremanen gainetik kokatzen da eta zeloak amodioaren neurri bihurtzen dira.

Ikuspegi erromantiko hori, zeinak justizia edo elkartasun balioak maitasunaren azpian ezartzen dituen, sistema kapitalistarekin elkarrarreman estuan dago, batak bestea elkar elikatuz. Esate baterako, gizarte arrakasta ulertzera-koan, maitasuna eta ekonomia nahastuta gelditu ohi dira. Narrazioen gidoiak aldatuz joan dira azken hiru mendeetan, eta gaur egun, adibidez, emakumeak independenteak izan daitezke eta proiektu propioak izan, betiere 'maitasuna agertzen den arte'. Gizonak, aldiz, maitekorrek izan daitezke, harreman batean murgildu, maitemindu, baina ez dute horregatik euren botere-posizioa inolaz ere arriskuan jartzen. Badirudi dirua ez dela garrantzitsua, soilik sentimendua, baina dirua istorioaren erdigunean dago, gizonen eskuetan beti, *Fifty Shades of Grey* (James 2012) trilogia hipersalduan argi gelditzen denez. Bitxia da obra horren inguruan sortu zen eztabaida publikoa, non behin eta berriro mintzo den sexualitate ereduaz<sup>23</sup> eta askoz gutxiago eleberrian egiten den kapitalismoaren normalizazio eskandalagarriaz.<sup>24</sup>

Bere garaian arrakasta osoa izan zuen beste ikus-entzuzko produktu bat aipa dezakegu, *Pretty Woman* (Garry Marshall, 1990) filma. Horren protagonista maskulino milioi-dunak (aurrekoan bezala), zeina enpresak zatitzen eta saltzen aberastu den, prostituta bat kontratatzen du astebez berari konpainia egiteko. Pelikula amaitzen da 'printzea' haren 'mari errauskineren' bila doanean, hain justu, azken hori aste horretan irabazitako diruaz proiektu berri bat hastera doala. Gizonak emakumea salbatzen du bere gizarte positio-tik ateratzen baitu, eta, horren ordainez, emakumeak gizona salbatuko du, haren milioi-dun bizitzan zoriona txertatuz (*sic*). Beste behin, arrakasta ekonomikoa eta sentimentala solapatuta geldituko dira kontakizun horretan: emakumeak

estatusa aldatzeko bidea ezkontza da,<sup>25</sup> gizonak bere lekua inolaz ere galtzen ez duen bitartean.

Malagonek mito kontraerromantiko legez eraiki du Camilla Parker Bowles, Galesko Diana prentsa arrosaren printzesa maitatuenetakoari kontrajarriz; horren bidez, ideologia erromantikoak dituen itzalak eta ajeak agerian utzi dizkigu, maitasuna lekualdatzeko aukera zabalduz, eta ironia eta autironia maitasuna arrotzeko estrategia aparta ere izan daitezkeela egiaztatuz.

#### **4. Erromantizismoa erregulatu edota erromantizismoa erresistentzia gisa**

32 urte zituen Begoñak<sup>26</sup> *Crítica del pensamiento amoroso* (2011) libururako elkarrizketatu nuenean.<sup>27</sup> Formakuntzaz kazetari, aldizkako lanak konbinatzen zituen une hartan. Txikitan, aitak amari egiten zizkion erasoek lekuko izan zen eta bere lehen harremanetan ere tratatu txar psikologikoak jasan zituen. Hori gainditu eta aurrerago, emakumeekin, gizonekin eta pertsona transexual eta transgeneroekin izaten zituen harremanak, eta oso kritikoa zen 'bisexualitate' nozioarekin, bitartasuna mantentzeko balio baitu, bere ustez. Tarteka bikote-harreman iraunkorrak bazituen ere, sexualitatea partekatzen zuen maiz lagun eta ezagunekin. Hortaz, sexualitatea jarduera erraza eta egunerokoa zen berarentzat, isurkorra, eta adituagotzat jotzen zuen bere burua sexualitate eremuan maitasunarenean baino. Baina, era berean, bitxia eta interesgarria zen haren jarrera erromantizismoarekiko. Erromantizismoa manipulatzeko eta erregulatzen bazekiela esango nuke. Alta, gizonen batekiko elkarrarremanean adi mantentzen zen, erne, jarrera edo eszena erromantikoak zurrunki erregulatuz, horren ondorioen kontziente. Aldiz, adiskideekin edota bestelako maitaleekin ez zeukan arazorik parafernalia erromantikoak abian jartzeko.

Bizi dugun kultura hipererromantikoan, edozein harreman, baina bereziki harreman sexu-afektiboak, idealizatzen,



erromantizatzeke joera barneratzen dugu. Erromantizismoa, ezin da ukatu, kultur tresna boteretsua da, bizitzari berotasuna emateko bereziki erabilgarria. Hori baino gehiago, jendeak bere bizitzaren atalik intentsoenak maitasunarekin lotu ohi ditu, norberaren ibilbidean egon daitezkeen bes-telako bizipen guztiak bigarren mailan kokatuz. Ideologia erromantikoa elikatzeke beste bide bat. Erromantizismoa, esan dut, genero-bereizkeria eta heteroaraua sustatzeko ma-trize nagusia litzateke. Baina, Begoñak eta nire ikerketan el-karrizketaturiko beste zenbait emakumek erromantizismoa erregulatzea posiblea dela frogatzen dute, erromantizismoak eskaintzen dituen aukerei uko egin gabe, baina, nolabait, di-tuen arriskuei ere eutsiz, erresistituz.

Atal honen bigarren partean, erresistentziekin jarraitu nahi dut eta erromantizismoaren erregulazioaren beste aldaera bat izango litzatekeena aurkeztu. Noiz edo noiz emakumeek maitasun erromantikoa baliatzen dute kultur sistema bati erresistitzeko estrategia gisa.

Afganistango pastun emaku-meek kantatzen dituzten *lan-day* poemak edo emakume beduinoek sortzen eta errezi-tatzen dituzten maitasun poe-mak horren adibide bi izango lirateke. *Landay*-ak erritmo bizia duten poema labur eta bortitzak dira, errimarekin edo gabe. Poema horiek mai-tasunaz, ohoreaz, heriotzaz eta erre-beldiaz hitz egiten dute, testuinguru batean non amo-

dioa heriotza zigorra merezi duen tabua den. Emakumeek domeinu bikoitza jasaten dute: fisikoa, lan gogorrak egitera behartuta baitaude, eta morala, bigarren mailako izakitzat hartuak baitira. Egoera horri aurre egiteko praktika ohikoa suizidioa da, guztiz estigmatizatua dagoen ekintza, bestalde,

Erromantizismoa kultur tresna boteretsua da, bizitzari berotasuna emateko bereziki erabilgarria. Jendeak bere bizitzaren atalik intentsoenak maitasunarekin lotu ohi ditu

eta gizonek oso gutxitan burutzen dutena. Testuinguru horretan, maitasun kantua ordenari egiten zaion desafio legez ikus daiteke (Bahodin 2002). Poesia mota horrek Egipto ekialdeko komunitate beduino baten emakumeek (eta gizon gazteek) erabiltzen duten ahozko poesia lirikoa gogorarazten digu. Lila Abu-Lughod-ek (1986, 1990) aztertu duen gizarte hori patrilineala eta sexualki segregatua da, ohorea eta apaltasuna kultur kode hegemonikoaren funtsezko osagai direlarik. Ezkontzak aitaren aldeko gizon zaharrek eta haien lehengusuek hitzartzen dituzte. Emakumeek sistema horri aurre egiteko dituzten erresistentzien artean,<sup>28</sup> poema laburrak kantatzea da bat, zeina guna intimoetan egin ohi den. Horrela adierazten dute bizi duten zaurgarritasuna. Poesiak gizarte arauari oposatzen zaizkien sentimenduak formulatzea ahalbidetzen du, eta maitasun erromantikoa diskurtso subertsibo bilakatzen da.

Hona helduta, hainbat zalantza planteatu daitezke 'erresistentzia' nozioaren inguruan: zer ulertzen dugun hitz hori erabiltzen dugunean edota noraino halako praktikak sistema bat iraultzeko gai diren. Hainbat feministak ekarpen interesgarriak egin dituzte arlo honetan, hala nola Abu-Lughodek berak. Horrek arreta deitzen du erresistentzia erromantizatze-ko dugun joeraren gainean. Haren ustez, poesia errezitatzea erabat lekutua egongo litzateke, parekidetasuna eta hurbiltasun soziala nagusi diren harreman eta topaketetan soilik edota salbuespenezko egoeretan (esate baterako, ezkontzetan) egiten baita. Halere, gehitzen du, aintzat hartu behar da komunitate horrek poesiaren aurrean jarrera anibalentea duela, aitortua ere baita, estimatua. Halaber, nabarmentzen du erresistentziaren ikerketa etengabe aldaketan dagoen sistema politiko eta ekonomiko baten boterearen diagnostikoa egiteko baliatu behar dela, Michel Foucaultek proposaturiko ideari («boterea dagoen lekuan erresistentzia ere egongo da») buelta emanez.

Azken galdera bat ere egin dezakegu atala bukatzeko: nola bereizi erromantizismoa kultur tresna moduan edota subertsio moduan, batetik, eta erromantizismoa gizakien artean

(genero eta bestelako) ezberdintasunak eratzeko bitarte gisa, bestetik? Gaur egun hitzetik hortzera darabilgun hitz bat ekarrita, esan genezake bai Begoña bai Afganistan edo Egiptoko komunitate horietako emakumeak erromantizismoa baliatzen ari direla euren burua ahalduntzeko, baina ondo ezagutzen ditugu erromantizismoaren arriskuak zein diren. Arriskuak arrisku, nago emakume horiek guztiak bereizketa horren mugak miatzen eta zabaltzen ari direla, gu guztiontzat bestelako alternatibak eta jorrabideak asmatuz.

## 5. Maitasun ez erromantikoak fikzionatu

Bi euskal idazleren lanak aipatuko ditut atal honetan: Uxue Alberdi eta Eider Rodriguez.

Alberdik *Jenisjoplin* izeneko nobela argitaratu zuen 2017an. Nagore Vargas (Jenisjoplin) protagonista nagusia da eta 28 urte ditu nobelaren hasieran. 2010ean gaude, eta irrati libre batean lan egiten du beste hiru lagunekin; baina irratiak ETArekin kolaboratzearen salaketa jaso eta langileak atxilotetaren zain daude. Narrazioak aurrera eta atzera egiten du denboran eta gai potolo asko lantzen dira, euskal gizartearen azken hamarkadetako historia kontatzeko baliatuak: frankismoaren kontrako borroka, aldarri independentista, immigrazioa eta bizikidetzeta, drogen eta hiesaren emaitza tragikoak... Gai horien guztien artean, maitasun istorio baten zeharkatuko du nobela, Nagore eta Luka Moretti izeneko protagonistaren artekoa, istorio ez erromantikotzat jotzen dudana, nobelaren lehen partean, behintzat. Ez erromantiko esaten dudanean esan nahi dut idazleak harreman baten egunerokotasuna nabarmentzen duela, keinu eta jarduera txikiei lehentasuna emanaz, egotea garrantzitsuena bailitzan. Gainera, Luka ez da oso gizon hegemonikoa.

Rodriguezzen *Bihotz handiegia* (2017) ipuin bilduma laudatuari izena ematen dion lehen ipuina ere ekarri nahi dut hona. Aspaldi bananduriko bikote baten istorioa kontatzen digu idazleak. Aita larri gaixorik dago, hilurren, eta alabak

Jelinek-ek argi  
islatzen du amodio  
erromantikoak  
zenbat duen fantasia  
partekatutik, eta  
genero, maitasun  
eta kapitalismoaren  
arteko uztardura estilo  
magistral batean  
azaltzen du

ama haren zaintzan inplikatzeari lortzen du. Horretara behar-tuta sentitzen da ama, baina ez du gizona maite eta ezkor jarraitzen du bizi zuten istorioarekiko. Poliki-poliki, baina, harremana bilakatuz doa eta «elkarren topaketa» moduko bat

suertatuko da. Oso modu ederean eta idazmolde propioan adierazten digu Rodriguezek bilakaera hori, xehetasun, detaile ñimiño eta intimoetan arakaturik, eguneroko sentipen xumeenak, komunikazio/inkomunikazioak, kontraesanak... Eta horien guztien artean, edo ondorioz, afektua agertuko da. Amodioaren eboluzioari segida eginez, 'amodioaren osteko amodioa' posible dela erakutsiko digu, eta, horren bidez, gure kulturaren nagusi den 'banantze/

amaiera bortitzen' eta bikote kode zurrunen ideologia deskonprimatu, ñabartuko digu idazleak.

Miren Agur Meabe idazleak azpimarratu duenez,<sup>29</sup> emakume idazleek, gaur-gaurkoz behintzat, sentimentalismoari uko egin behar diote bestelako literatura (eta bestelako maitasun aukerak eta emakumeen bizitzak, gehituko nuke) zabaldu, ahalbidetu nahi izanez gero. Lehenago aipatu moduan, gure fikzioa, *mainstream* edo kultua, hipererromantizatuta dugu. Beraz, erromantizismoak ez (horren) kutsatuak, ez (horren) blaituak dauden bikote (ohi) harremanen adibideak ere eskaintzeari oso garrantzitsua deritzot, maitasunaren ideologia hegemonikoari kritika egiteko nahitaezko kontakizunak.

## 6. Maitasuna bere gordintasunean biluztu

Elfriede Jelinek idazle austriarrak *Die Liebhaberinnen* (Emakume maitaleak) nobela argitaratu zuen 1975ean. Bertan argi

islatzen du amodio erromantikoak zenbat duen fantasia parte-katutik, eta artikulu honen sarreran sintetizatu dudan genero, maitasun eta kapitalismoaren arteko uztardura estilo magistral batean azaltzen du. Idazkera gordina, gupidagabea praktikatzen du, irakurleak ihes egiteko aukera guztiak ezabatuta. Irakur dezagun liburuaren hasieran dagoen zati bat:

hasiera:

halako batean, brigettek erabaki du emakumeago izan nahi duela, are, guztiz emakume izan nahi duela, morroi batentzat baka-rrik, heinz delako batentzat.

brigittek uste du, hortik aurrera, bere akatsak maitagarri bihurtuko direla, eta bere indarguneak ezkutuan geratuko.

heinez, ordea, ez du brigitterengan ikusten ezer maitagarririk, eta haren ahulguneak, gainera, nardagarriak iruditzen zaizkio.

brigittek, orain, heinzentzat ere zaintzen du bere burua, izan ere, emakume izateak ez baitu atzera bueltarik, eta halabeharrez zaindu behar du batek bere burua. brigitek nahi luke, noizbait, etorkizunak ahalegina eskertzea, eta gazte-itxurari eustea. baina, beharbada, brigitek ez du etorkizunik batere. etorkizuna heinzen mende dago, guztiz.

bat gazte denean, batek gazte-itxura du beti; bat zaharragoa denean, ordea, berantegi da. batek ez dirudienean dena baino gazteagoa, munduak gupidarik gabe ebartziko du: gaztaroan, neurri kosmetiko eskasak hartu zituen!

hortaz, brigitek egin duena garrantzitsua izango da etorkizunean.

oraindirik ez duenak ezinbestean hartu behar ditu etorkizunerako neurriak.

brigittek bularretakoak josten ditu. jostura laburrak eginez gero, halako asko egin beharra dago; edonola ere, berrogei jostura dira hitzarmen kolektiboan ezarritako minimoa. jostura luze eta konplexuak eginez gero, gutxiago egin behar dira. hori oso da gizatiarra eta bidezkoa.

brigittek erraz asko lor zitzakeen hamaika langile, baina berak heinz lortu nahi du, heinz bat eta bakarra, zeina enpresa-gizon bihurtuko baita.

materiala honakoa da: nailonezko parpaila, eta, azpian, goma-apar fina. brigitteren lantegiak hainbat partizipazio ditu atzerrian, bai eta atzeritik etorritako hainbat jostun ere. jostun askok erretiroa hartzen dute ezkontzean, ama izatean edo hiltzean.

brigittek espero du berak ere utziko duela lana ezkontzean edo ama izatean. brigittek espero du heinzek aterako duela handik.

hori ez beste guztia heriotza izango litzateke, bizirik iraunda ere. momentuz, b.-k ez dauka bere abizena besterik, baina historiak aurrera egin ahala, heinzen abizena hartuko du brigittek, eta hori garrantzitsuagoa da dirua eta jabetzak baino; horrek berarekin ekar baititzake dirua eta jabetza.

egiazko bizitza, inork galdetuz gero hizpidera ekar daitekeen bizitza, lanaren osteko bizitza da. brigitterentzat, gaua eta eguna bezain ezberdinak dira lana eta bizitza. hemen, hortaz, gehiago hitz egingo dugu aisialdiaz lanaldiaz baino.

kasu zehatz honetan, gauza bera dira heinz eta bizitza. egiazko bizitza eta heinz baliokideak izateaz gainera, heinz bera da egiazko bizitza.

heinzetik aparte, ez dago ezer. brigitteri guztiz ezinezkoa zaio heinz baino hobea gortzea, eta heinz baino okerragorik, berriz, ez du nahi. brigitte jo eta fuego borrokatzen da beherakadaren kontra, heinz galtzeak ekarriko lukeen beherakadaren aurka.

baina brigittek badaki, orobat, berarentzat ez dagoela igotzeko aukerarik batere, soilik heinz edo hura baino gauza okerrago bat, heinz edo hil arte jardutea bularretakoak josten. gaur-gaurkoz, heinzik gabe bularretakoak jostea hiltzearen parekoa da, izan (1975: 11-13).<sup>30</sup>

Maitasuna biluzik gelditu da bere gordintasunean.

## 7. Giza eskubideak maitasunaren aurretik jarri

2009an Aminatu Haidar ekintzaile sahararrak 32 eguneko gose greba egin zuen Lanzaroteko aireportuan (Kanaria Uharteak, Espainia), Saharako Aaiuneko aireportutik modu ilegalean kanporatua izan zenean. New Yorketik zetorren, han giza eskubideen sari bat jasotzetik; eta Aaiunera heldu zenean, kontroleko poliziari adierazi zion bera ez zela marokoa, sahararra baizik, eta hori aprobetxatuta atxilotu eta kanporatu zuten.<sup>31</sup> 32 egun horietan behin baino gehiagotan agertu ziren Espainiako komunikabideetan Aminaturen semeak, Hayat eta Mohamed. Hogeita bigarren egunean, semeek dei publiko bat egin zieten ama guztiei, haien ama babestu zezaten.

Denbora aurrera zihoan eta Haidar gero eta ahulago zegoen. Zenbait agintarik gose-greba bertan behera uztera gonbidatu zuten, haren semeak arrazoi bezala erabilia eta argi utziz Aminatu Haidar, ezer baino gehiago, ekintzaile baino gehiago, Ama zela. Jakina da gure gizartean emakumeek ama onak izan behar dutela, seme-alabak edozeren aurretik jarritz eta seme-alabenganako maitasunaren truke ezer ez eskatuz, seme-alabak bizitzaren ipar bakar. Amatasunaren baldintza nagusia abnegazioa litzateke, zeina emakumeen jokatibide eta jarrera berariazko bihurtzen den.

Aminatu Haidarrek irakaspen feminista bikaina eman zion munduari, ekintza politikoa emakumeen eta maitasunaren betebeharrak moralen aurretik jarritz

Dei horren aurrean, Haidarrek esan zuen bere semeak ama barik ere bizi zitezkeela, beraien kargu egingo lituzketen senide eta lagun asko baitzituzten, beraz, ondo zainduak egongo lirатеkeela; baina ez berak ez bere semeek ere ezin zutela duintasunik, eskubiderik gabe bizi, eta amaiera arte jarraituko zuela.<sup>32</sup> Une horretan, Aminatu Haidarrek irakaspen feminista bikaina eman zion munduari, ekintza politikoa emakumeen eta maitasunaren betebeharrak moralen aurretik jarritz. Gizakien duintasuna eta (giza, herri edo gizarte) eskubideak maitasunaren aurretik jartzean maitasuna lekualdatuz, birkokatuz.

Eta hau idazten nagoela, galdetzen diot neure buruari ea ez ote gauden euskal gizartean ere 'akats berean jausten', us-tez aurrerakoia den taktika bat baliatzen, behin eta berriro jartzen ari baikara (ama-)maitasuna giza, gizarte eta herri eskubideen 'aurretik', edo, hobe esanda, (ama-)maitasuna gehiegi baliatzen. Esate baterako, preso politikoen eta euren senideen egoera tamalgarriaren gainean arreta publikoa deitzeko, ama-maitasuna edo amen beharra nabarmentzen dugu behin eta berriro. Salaketa politikorako erabilgarria izan daitekeen arren, arriskuak ikusten dizkiot joera horri.

## 8. Maitasuna arrotzak diren testuinguruetan kokatu (Mireia Sallarès)

Mireia Sallarès zinegile katalanak *Kao malo vodenadlanu (Ur pixka bat esku-ahurrean)*<sup>33</sup> izeneko arte-proiektu zabala izan zuen erakusgai 2019ko udaberrian, Bartzelonako Fabra i Coats Centre d'Art Contemporani delakoan. Proiektu hori hiru 'zabor-kontzepturen' (egia, maitasuna, lana) inguruko lan baten parte izan da. Zabor-kontzeptu, egilearen esanetan, ez baitute ezertarako balio, baina, aldi berean, errezi-klagarriak direlako. Beraz, esangura galdu duten baina gako diren nozio batzuez ari da, eta nozio horiek galdekatu nahi ditu. Balkanetako gerra ondoko testuinguruan kokatu du bere lana, non iragan komunistaren oroimina dagoen, kapitalismoaren sarrerarekin batera. Honela zioen Sallarèsek elkarrizketa batean:

Jendeak galdetzen zidan ea heriotzaren inguruan lanean nengoen. Serbiak, maitasunak bezala, urteak daramatza izena aldatzen, mugak birformulatzeko.

Pertsona batek esaten du: «Ni soldadu izan nintzen bando serbiarrean». Eta nik diot: zer dakigu guk bando batean edo bestean egotera behartuta egon zenaz? Serbiarrek uste dute inork ez diuela ulertuko eta isilik mantentzen dira, ez dute euren burua azaldu nahi.<sup>34</sup>

Erakusketa barruan proiektatzen zen dokumentala fikzioa eta errealtatea nahasten dituen filma bitxia da oso. Serbian jasoriko istorioak eta azterturiko prozesuak maitasunetik kontatzea erabaki du egileak, baina filmaren eszenatokia polizia etxe bat da eta testuingurua galdeketa bat, non Sallarèsek berak (filmaren protagonistetako bat) polizia bati kontaktatzen dion zergatik konprometitu den bertan egondako denbora-tartean zenbait gobernuz kanpoko elkarteren egitekoan, eta zergatik deitzen dien azterturiko prozesuei 'maitasun'.

Zergatik galdeketa forma eman filmari? Sallarèsek azaldu du Serbian ohikoa omen dela elkarte batean laguntzen dauden atzerritarrak tarteka galdeketa batera deitzea. Bertan, deklarazioa egin eta badoaz. Hortik hartu zuen ideia. Filmeko



poliziak ez du ulertzen kontatzen ari den zertan den istorioa maitasuna-istorio. Arrotz egiten zaio, eta guri, publiko legez ere, arrotz egiten zaigu zinegilearen estrategia. Baina estrategia argia da: hain justu, gerra eta gerra ondoko prozesuez hitz egiterakoan maitasuna baliatzean, prozesu horien beste alderdi bat erakustea, beste ikuskera bat lortzen du.

Eta bere laneko ideia horretan oinarritu naiz ni artikulu honetarako, maitasunaz gogoeta egiteko modu bikaina baita maitasuna guztiz pentsaezina, guztiz arrotza den eszenatikietan posizionatzea.

## 9. Maitasuna iragangaitz bihurtu

Luce Irigarayk, filosofia eta poesia nahasturik duen *J'aime à toi. Esquisse d'une félicité dans l'histoire* (1992) liburuan, maitasunaren eta elkarren aitortzaren ordezeko irakurketa eskaini du. Egileak azaldu du gure maitatzeko modua iragankorra dela, trantsitiboa, subjektua eta objektua, biak dauzkala, eta ondorioa agerikoa: «maite zaitut, beraz, nirea zara eta ni zurea naiz». Eta proposatu du bestelako aukera bat, esanez maitatze ekintza bera iragangaitz bihurtzea ezinbestekoa dugula: subjektua bai baina objektua aparte jarri, lekualdatu. Ez «nik maite zaitut», baizik eta «nik zuri maite dut».

*Nik zuri maite dut*

Nik zuri maite dut: horrek esan nahi du zurekin dudan harremanean ez dagoela *nork nor*-ik. Ez zaitut azpiratzen, ez zaitut kontsumitzen. Errespetatzen zaitut (menderaezin gisa). Agurtzen zaitut: agur egiten dut zugan. Goresten zaitut: goresten dut zugan. Eskertzen zaitut: eskerrak ematen dizkizut zuri zeragatik... Bedeinkatzen zaitut zeraz edo zergatik. Mintzaide zaitut, ez bakarrik zeraz, baizik zuri mintzo natzaizu. Esaten zaitut, ez hau edo bestea, baizik esaten dizut zuri.

Horrako 'nori' hori da *nork nor*-ik izango ez den bermea (1992: 171).

*Isiltasun kasik guztizko batean*

Has gaitezen hemendik: nola entzun zu? [...]

Entzuten zaitut, nitaz haragoko beste bat entzuten den bezala: horretarako, bestelako dimentsio batera igaro beharra dago.

Entzuten zaitut: ohartzen naiz zer esaten duzun, adi nago horri, ahalegina egiten dut zure asmoa aditzeko. Horrek ez du esan nahi: konprenitzen zaitut, ezagutzen zaitut, eta, beraz, ez daukat zertan zu entzun, agindu ere agindu diezazuket bilakaera bat. Ez, entzuten zaitut oraindik ezagutzen ez dudan zerbait eta norbait zaren aldetik, gertaera honetarako soilik erabiltzen dudan askatasun eta prestasun batean oinarriturik. Entzuten zaitut: bide ematen dut iritsi gabeko zerbait sor dadin, bilakaera bat, hazkunde bat, jaiotza bat noiz edo noiz. Entzuten zaitut nahasian direlarik oraindik-kodetu-gabea, isiltasuna, leku bat existitzeko, ekimena izateko, asmo librea edukitzeko, zure bilakaera sostengatzeko (1992: 179, 181).

Bestea entzutea, isilaldi bat izateko modua ematea besteari, hori bada haren hatsa errespetatzea ere. Ama da haurraren partez arnasa hartzen duen bakarra. Jaiotakoan, arnasa nork bere kabuz hartu behar dugu, hartu behar genuke (1992: 187).

Komunikatzean, tartean da *norbaiti ukitzea*, bestea errespetatzen duen ukitze bat, besteari arreta bat ematen diona, baita haragizkoa ere.

*Norbaiti ukitze* horrek isiltasuna behar du. Besteari tokia emateko, ezinbestekoa da isiltasuna, zer guztiei eta nor guztiei ukitzearen segida hausten duen isiltasuna.

*Norbaiti ukitze* horrek hatsa behar du, ondo babestea biziaren presentzia eta haren atzerapena, norbera aldatuz bestea suntsitu gabe (1992: 193).<sup>35</sup>

‘Gizon/emakume’ bikoteaz hitz egin arren, haren ikuspedia orokortu daiteke. Intransitibotasuna defendatzen duen teoria horrek besteari ezagutza/jabetzarako ate gorentzat duen maitasun-ideologiaren flotazio-marra luke jomuga.

## 10. Harremanen eta espazioen artekotasuna pentsatu/aitortu

Maitasuna arrozteko proposatu nahi dudana azken puntua harremanen eta espazioen artean dauden loturak birpentsatzea da, artekotasunaren noziotik abiatuta. Artikulu honetan, afektu ezberdinen horizontalitatearen premia azpimarratu dut, besteak beste. Baina, horretarako lehen urratsa dauden harreman guztiak ikusaraztea litzateke, eta adiskide-harremanak izan ohi dira gure gizartean lausotuen mantentzen direnak, inkesta ofizial eta ikerketa soziologikoetan baztertuta ere.

Maitasun-pentsamenduari buruzko ikerketa bukatu ostean, feministei egindako elkarrizketa gehienetan agerturiko gai batean sakondu nuen: adiskidetasuna eta adiskide-taldeak.<sup>36</sup> Nire ikerketako parte-hartzaileek erabateko garrantzia ematen zieten adiskide-harremanei, bizitzaren zutabe nagusitzat hartuz. Beraiek aipaturiko adiskide-taldeei 'elkar babesteko talde edo komunitate' izena jarri nien,<sup>37</sup> eta sare horien berriazko ezaugarriak xerkatu nituen. Batetik, talde horiek ez dira ugaltzearen, sexu-harremanen, elkarbizitzaren edo truke afektiboen ondorioz sortzen, ez derrigorrez, behintzat. Horien nolakotasun nagusia, aldiz, partekatze eta 'elkarrekin ekiteko' nahia izan ohi da; hau da, borondatez eraturiko elkartasun- eta elkarrekikotasun-taldeak lirateke. Bestetik, harreman mota horiek, bai teorian baita praktikan ere, familiaren (modu estu eta mugatzailean ulertuta) alternatiba izan ohi dira, emakumeek abian jartzen dituzten proiektu propio eta apurtzaileetarako babes eta bultzada ezinbestekoa. Beraz: (1) adiskide talde horiek ahaidetasunaren osagai funtsezkoa lirateke eta, aldi berean, maitasun-hierarkia hegemonikoa auzitan jarriko lukete, agerian utziz hainbat pertsonarentzat adiskidetasuna ezkontza edo odolkidetasun bidez sortzen diren familia-harremanen maila berean dagoela; (2) talde horietan konprometituta daudenek ez lukete etxea partekatuko, ez denbora guztian behintzat, etxeen arteko harreman iraunkorretan mantenduko bailirateke, etxeak elkar lotuz baina etxearen espazioa ere gainditurik.

Baina, atal honen hasieran esan dudanez, maitasunaren eta espazioaren artean dauden harremanez ere gogoeta egitea oinarritzkoa da.

Adiskide taldeek maitasun-hierarkia hegemonikoa auzitan jarriko lukete, agerian utziz hainbat pertsonarentzat adiskidetasuna ezkontza edo odolkidetasun bidez sortzen diren familia-harremanen maila berean dagoela

Zenbaki monografiko honen oinarrian dagoen Usurbilgo Jakin Jardunaldian, Oihane Ruiz Menendezek<sup>38</sup> esan zuen feminismoak familia egituren funtzioei erreparatu diela batik batik, ez horrenbeste elkarbizitzarako espazioen formari; eta horixe dela, besteak beste, arkitekturan eta hirigintzan lanean dauden feministak egiten ari diren ekarpena. Gehitu zuen etxebizitzaren tankerak eta hirigintzak berak eragin handia dutela, ohartu gabe, maitasun-ideologiaren iraunkortasunean, harremanen mugak eta hierarkiak goitik behera baldintzatzen baitituzte. Ez dira kasualitatea, bi adibide aipatzearren, pisu baten gelen banaketa nolakoa izan ohi den, zeina seme-alabekin bizi den bikote batentzat pentsatuta dagoen, edo hiri baten plangintzan zaintzarako zerbitzu publikorako gunerik apenas ez egotea. Gainera, bai arkitekto bai ekonomialari feministek nabarmendu dute, bestelako gizarte-antolaketa bat helburu, estatuaz, merkatuaz eta etxez gain leudekeen guneak ere aintzat hartu behar ditugula, hala nola elkarteak eta komunitateak.<sup>39</sup> Hortik, gune horietan burutzen diren zereginak eta harremanak eta hartzen dituzten formak aztertzea nahitaezkoa litzateke.

Haatik, elkar babesteko taldeak bezalako sareek sailkapen horiek desafiatzen dituzte, bertan izaten diren harremanak, esan bezala, artekotasunean mantentzen baitira, espazio horien mugak zabalduz eta lausotuz. Beste era batera esanda, giza harremanen eta guneen dibertsifikatzeaz batera, harreman eta gune horien artean dauden loturak kontuan hartu behar ditugu, artekotasunean gertatzen denari arreta osoa jarritz.

Bukatzeko, artikulua edukiak laburbiltze aldera, ideia hauexek azpimarratu nahi ditut: funtsezko deritzet gure maitasun-ideologiaren zutabe nagusietakoa den pentsamendu monogamoaren aurrean apostasia egiteari eta maitasunaren inguruan eraiki ohi dugun jabego-filosofiaren kontra joango litzatekeen harremanen intrantsitibotasunaren ideia ereiteari. Era berean, emakume ezkongabeen edota haien bizitzetan erromantizismoa erregulatzen dutenen esperientziak

berreskuratzea eta berrirakurtzea ere garrantzitsua da, nire ustez, eta, fikzioa saturatzen duten mito erromantikoen kontra, mito eta amodio-istorio ez erromantikoak sortzea eta maitasun erromantikoa bere gordintasunean erakustea ere bai. Maitasuna arrotz bihurtzeko beste estrategia bat maitasuna pentsaezina den eremuetan bilatzea edota kokatzea izan daiteke. Gainera, maitasun-mota ezberdinak (esate baterako, ama-maitasuna) giza, gizarte, herri eskubideen aurretik jartzeaz kezkatu, jarrera horren arriskuez gogoeta egitea ere proposatu dut. Eta, azkenik, bai harremanen bai espazioen artekotasunaz pentsatzeko gonbidapena egin dut, adiskidetasun-sareen balioa bere horretan nabarmenduz eta gure gizartean hegemonikoa den maitasun-hierarkia neutralizatuz. 🌊

### *Oharrak*

1. 'Erregimen' hitza erabiltzen du, emozioen ordena araugile baten adierazpena dela esateko.
2. Ikus [www.diariodemallorca.es/sociedad/2019/05/11/amor-solucion-problemas-hecho-perpetua/1416171.html](http://www.diariodemallorca.es/sociedad/2019/05/11/amor-solucion-problemas-hecho-perpetua/1416171.html)
3. Arlie Russell Hochschild izan zen maitasunaren eta kapitalismoaren arteko loturak aztertu zituen lehen autorea. Ikus, esate baterako, Hochschild (1983).
4. Dorothy Tennov-i (1979) jarraituz.
5. Maitasunaren inguruko ekoizpen feminista barne hartu ezinekoa litzateke gaur egun, nahiz eta beste hainbat arlotan baino urriagoa izan. Gaiaz idatzi zuten autore klasikoaren artean, hauek nabarmenduko nituzke: Alexandra Kollontai (1976 [1927]), Simone de Beauvoir (1998 [1949]), Kate Millet (1969) eta Shulamit Firestone (1976). Azken hamarraldie dagokienez, niretzat erreferente diren beste zenbait autore, hauek: Wendy Langford (1999), Anna Jónasdóttir (1993), bell hooks (2001), Clara Coria (2001), Marcela Lagarde (2005), Eva Illouz (2007, 2012) eta Brigitte Vasallo (2018).
6. Ikus [www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=lekualdatu](http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=lekualdatu)
7. Ikus [www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=arrotz](http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=arrotz)
8. Hamar puntu hauetan ez dira agortzen maitasuna lekualdatzeko aukerak. Osa daitekeen hautu bat legez har dezala irakurleak.

9. Eskerrak eman nahi dizkiet Edorta Aranari eta Karmen Diez Minteguiri, testua hobetzen eman didaten laguntzagatik.
10. Ikus <https://eu.wikipedia.org/wiki/Enpatia>
11. Ez dago adostasunik harreman mota hau izendatzeko, eta izen ezberdinak hartu ohi ditu: pasiozko maitasuna, maitasunezko pasioa, amodio erromantikoa, infatuazioa...
12. Are gehiago erotismoa ulertuta, Audre Lordek (2002 [1984]), Gilles Deleuze eta Felix Guattarik (1998) eta bestelako autoreek proposatu bezala, sexualitatea barne baina sexualitatetik harago ere, besteengana eramaten zaituen indar sortzaile gisa.
13. Loic Wacquant-en (1995) lana oinarri, honela definitu dut gorputz lana (Esteban 2013: 173-174): «Organismoaren manipulazio intentsiboa litzateke, pertsonarengan jarrerak, mugimendu-errutinak eta emozio eta kognizio egoera subjektibo zehatzak eragiten dituen, zeinaren bidez gorputz eremua berrantolatzen baita, organo eta gaitasun batzuk beste batzuei gailenduz eta gorputzaren zentzuaz gain organismo osoaren kontzientzia eraldatuz; eta horrekin batera, munduarena».
14. 'Heresia' «sinesmen sistema batean [...] aldaketa berri edo eztabai-dagarri bat sartzea da» (ikus <https://eu.wikipedia.org/wiki/Heresia>).
15. Ikus <https://eu.wikipedia.org/wiki/Apostasia>
16. Ikus, esate baterako, 2009an, Granadan ospatu ziren Jardunaldi Feministetan aurkeztu zuten ponentzia: Comisión por la laicidad de la Asamblea de Mujeres de Bizkaia (2009).
17. Ikus, esate baterako, zer esaten duen Wassyla Tamzalik (2015) arabiar gizarteetako feminismoaz egiten duen analisiaren harira.
18. Ikus [www.berria.eus/paperekoa/2326/024/003/2018-02-11/soberakina.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/2326/024/003/2018-02-11/soberakina.htm)
19. Arrazoi horiek anitzak izan daitezke, hala nola, bikotekide egokirik aurkitu ez, banandu/alargun gelditu izana, edo emakumeenganako erakarpena sentitu eta praktikara eramateko aukerarik izan ez izana; baina hautu kontziente bat ere izan daiteke.
20. Gaztelera: Solterona. *La construcción de una vida propia* (2016).
21. Non Pamela Andrews dontzeilaren bizitza kontaktzen den. Andrewsek behin eta berriro errefusatzeko dituen haren nagusiaren sedukzio-saioak, baina, hainbat gorabehera eta gero, gizona 'erreformatu' egiten da eta berarekin ezkontzeko eskatzen dio (ikus [https://es.wikipedia.org/wiki/Pamela\\_o\\_la\\_virtud\\_recompensada](https://es.wikipedia.org/wiki/Pamela_o_la_virtud_recompensada)).
22. Literatura arrosak (horrela deituta erromantizismo garaiko literaturatik bereizteko) bi maitalaren arteko pasiozko harreman bat du argudioaren ardatz. Literatura mota horrek zale asko ditu, batez ere emakumezkoen artean; Amerikako Estatu Batuetan eta Kana-

- dan behintzat, genero salduena da (misterio eta suspentse arloko fikzioaren aurretik): bi mila eleberri erromantiko baino gehiago eta 51,1 milioi irakurle (ikus [https://es.wikipedia.org/wiki/Novela\\_rom%C3%A1ntica](https://es.wikipedia.org/wiki/Novela_rom%C3%A1ntica)).
23. Eleberrian, batetik, joko erotiko-sexuala (sexu esplizitua eta ustez transgreditzaileak diren praktikak –BDSM-bondage, diziplina eta sadomasokismoa–) eta, bestetik, printze urdinaren ohiko den maitasun-istorio kontserbadorea konbinatzen dira. Liburuak emakume eta gizonen arteko harreman sexu-afektiboen inguruko eztabaida piztu zuen. Oso kritikatu izan zen, esate baterako, emakumea gizonaren objektu erotiko bezala agertzea; baina, era berean, Anastasia protagonista femeninoa bere desioaren subjektu aktiboa ere bada, eta horrek interes handia piztu zuen emakumeen foro ezberdinetan. Hori bai, esplizitatzen ez dena da Anastasia sexismoaren biktima ere badela, gizonari gustua ematea bere bizitzaren erdigune eta gizon menderatzailea ikono erotiko bihurtuta. Zenbait autorek nabarmendu bezala, fikzio horretan oso modu eraginkorren gelditu da irudikatua emakume modernoentzako, askatasun sexualaren eta familiaren egitura tradizionalaren artean. Ikus Illouz (2014) eta Enguix eta Núñez (2015).
  24. Ian Hunter (2013) bezalako autoreek adierazi dute eleberri hori gure gizartean nagusitu den kapitalismo berantiarra aztertzeko ezin baliagarriagoa dela.
  25. Dolores Julianok (2009) adierazi du emakumeek estrategia ezberdinak abiatu dituztela historian gizarte estatusa aldatu ahal izateko, hala nola ezkontza, migrazioa edo prostituzioa.
  26. Fikziozko izena erabiltzen ari naiz.
  27. Ikerketan elkarrizketaturiko guztietatik, hamabi emakumezkori eta bi gionezkori egindakoak txertatu nituen liburuan, Begoñarena horietako bat.
  28. Antropologo horrek gizarte horretako emakumeek baliatzen dituzten beste hiru erresistentzia mota identifikatu ditu: (1) inposaturiko debekuen aurrean (ez erretzetik senideak bisitatzeko baimenik ezera) sekretuak eta isiluneak baliatzea, (2) zenbait ezkontzaren aurrean erresistentzia-praktikak eta (3) gizonen inguruko abestiak eta txantxak, beraiek ez daudenean.
  29. Ean (Bizkaian), uztailaren 12an egin zuen *Hezurren erretura* (Susa, 2019) liburuaren aurkezpena.
  30. Danele Sarriugartek euskaratu du aipamena.
  31. Ikus [https://eu.wikipedia.org/wiki/Aminatou\\_Haidar](https://eu.wikipedia.org/wiki/Aminatou_Haidar)
  32. Eta bere helburua lortu zuen, Marokoko poliziak pasaporte itzuli baitzion.

33. Serbierazko esamoldea.
34. Ikus [www.diariodemallorca.es/sociedad/2019/05/11/amor-solucion-problemas-hecho-perpetua/1416171.html](http://www.diariodemallorca.es/sociedad/2019/05/11/amor-solucion-problemas-hecho-perpetua/1416171.html)
35. Irene Arraratsek euskaratu ditu aipamenak.
36. Ikus, esate baterako, Esteban (2016).
37. Horretarako, Piotr Kropotkin-ek (1989 [1902]) proposaturiko 'elkar babesa' kontzeptuan oinarritu nintzen. Autore horrek argudiatu zuen kooperazioa eta elkarren arteko laguntza gako direla gizakien eta animalien biziraupenean eta eboluzioan.
38. Uztailaren 11-12an izandako *Maitasuna politikoa da* Jakin Jardunaldian, Ruiz Menendezek hitzaldiaren izenburua: 'Maitasunaren ideologia eta hirigintzaren arteko lotuneak' (ikus [www.jakin.eus/albisteak/maitasuna-politiko-da-jakin-jardunaldiko-hitzaldiak-ikusgai/336](http://www.jakin.eus/albisteak/maitasuna-politiko-da-jakin-jardunaldiko-hitzaldiak-ikusgai/336)).
39. Ikus, esate baterako, Pérez Orozco (2013).

### ***Bibliografía***

- Abu-Lughod, Lila (1986): *Veiled Sentiments*, Berkeley, University of California.
- (1990): 'The Romance of Resistance: Tracing Transformations of Power Through Bedouin Women', *American Ethnologist* 17/1, 41-55.
- Alberdi, Uxue (2017): *Jenisjoplín*, Zarautz, Susa.
- Bahodín Majruh, Sayd (2002): *El suicidio y el canto. Poesía popular de las mujeres pastún de Afganistán*, Madril, Ediciones del Oriente y del Mediterráneo.
- bell hooks (2001): *All about love. New visions*, New York, Harper Collins Publishers Inc.
- Bolick, Sarah (2015): *Spinster: Making a Life of One's Own*, New York, Crown Publishing [gazt. *Solterona. La construcción de una vida propia*, Bartzelona, Malpaso, 2016].
- Comisión por la laicidad de la Asamblea de Mujeres de Bizkaia (2009): 'Feministas por la laicidad', in CEOF: *Jornadas Feministas Estatales. Granada, treinta años después. Aquí y ahora*, Granada, Asamblea de Mujeres de Granada 'Mariana Pineda' / Federación de Organizaciones Feministas del Estado español, 251-255 ([www.feministas.org/IMG/pdf/Jornadas\\_Estatales\\_Granada\\_30\\_anos\\_despues\\_aqui\\_y\\_ahora.pdf](http://www.feministas.org/IMG/pdf/Jornadas_Estatales_Granada_30_anos_despues_aqui_y_ahora.pdf)).
- Coontz, Stephanie (2005): *Marriage, A History: From Obedience to Intimacy, or How Love Conquered Marriage*, New York, Viking Press [gazt. *Historia del matrimonio. Cómo el amor conquistó el mundo*, Bartzelona, Gedisa, 2006].



- Coria, Clara (2001): *El amor no es como nos contaron... Ni como lo inventamos*, Buenos Aires, Paidós.
- De Beauvoir, Simone (1998 [1949]): *El segundo sexo*, Madril, Cátedra.
- Deleuze, Gilles; Guattari, Felix (1998): *El Anti-Edipo. Capitalismo y esquizofrenia*, Bartzelona, Paidós Ibérica.
- Enguix, Begoña; Núñez, Francesc (2015): 'Género, sexualidad y posfeminismo en *Cincuenta sombras de Grey*', *AIBR-Revista de Antropología Iberoamericana* 10/1, 49-74.
- Esteban, Mari Luz (2011): *Crítica del pensamiento amoroso*, Bartzelona, Bellaterra.
- (2013): 'Gorputzak eta politika feministak. Feminismoa gorputz gisa', in Isa Castillo, Iratxe Retolaza (koordk.): *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak*, Donostia, Edo!, 169-204.
- (2016): 'Maitasun harremanak eta elkar babeserako sareak edo komunitateak: emakume feministen esperientziak', in M. L. Esteban, J. M. Hernández (koordk.): *Etnografía feminista. XXI. mendera begira dagoen antropología*, Bilbo, UEU eta UPV/EHU, 261-275.
- Firestone, Shulamit (1976): *La dialéctica del sexo*, Barcelona, Kairós.
- Hochschild, Arlie Russell (1983): *The Managed Heart. Commercialization of Human Feeling*, Berkeley, University of California Press.
- Hunter, Ian Q. (2013): 'Pre-reading and failing to read *Fifty Shades of Grey*', *Sexualities* 16/8, 969-973.
- Illouz, Eva (2007): *Intimidaciones congeladas. Las emociones en el capitalismo*, Madril, Katz Barpal.
- (2012): *Por qué duele el amor. Una explicación sociológica*, Buenos Aires, Katz.
- (2014): *Erotismo de autoayuda. Cincuenta sombras de Grey y el nuevo orden romántico*, Buenos Aires, Katz.
- Irigaray, Luce (1992): *J'aime à toi. Esquisse d'une félicité dans l'histoire*, Paris, Grasset [gazt. *Amo a ti. Bosquejo de una felicidad en la historia*, Buenos Aires, Ediciones de la Flor, 1994].
- James, E. L. (2012): *Fifty Shades of Grey*, New York, Vintage Books.
- Jankowiak, William (1995): 'Introduction', in W. Jankowiak (arg.): *Romantic Passion. A Universal Experience?*, New York, Columbia University Press, 1-19.
- Jelinek, Elfriede (1975): *Die Liebhaberinnen*, Reinbek bei Hamburg, Rowohlt [gazt. *Las amantes*, Bartzelona, El Aleph, 2005].
- Jónasdóttir, Anna G. (1993): *El poder del amor. ¿Le importa el sexo a la Democracia?*, Madril, Cátedra (Feminismos).
- Juliano, Dolores (2009): 'Delito y pecado. La transgresión en femenino', *Política y Sociedad* 46/1-2, 79-95.
- Kollontai, Alejandra (1976 [1927]): 'La juventud y la moral sexual', in *Autobiografía de una mujer emancipada*, Bartzelona, Fontamara, 121-155.

- Kropotkin, Piotr A. (1989): *El apoyo mutuo, un factor de la evolución*, Madril, Nossa y Jara [ing., lehen argitalpena: 1902].
- Lagarde, Marcela (2005): *Para mis socias de la vida*, Madril, Horas y Horas.
- Langford, Wendy (1999): *Revolutions of the Heart. Gender, Power and the Delusions of Love*, Londres/New York, Routledge.
- Orde, Audre (2002 [1984]): 'Usos de lo erótico. Lo erótico como poder', in *La hermana, la extranjera. Artículos y conferencias*, Madril, Horas y Horas, 10-13 (<https://glefas.org/download/biblioteca/feminismo-antirracismo/Audre-Lorde.-La-hermana-la-extranjera.pdf>).
- Meabe, Miren Agur (2019): *Hezurren erretura*, Zarautz, Susa.
- Millet, Kate (1969): *Política sexual*, Mexiko Hiria, Aguilar.
- Onfray, Michel (2002): *Teoría del cuerpo enamorado. Por una erótica solar*, Valentzia, Pre-Textos.
- Pérez Orozco, Amaia (2013): 'La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿y eso qué significa?'. Hitzaldia: *IV Congreso de Economía Feminista*. Sevilla, Universidad Pablo Olavide ([http://riemann.upo.es/personal-wp/congreso-economia-feminista/files/2013/10/PerezOrozco\\_Amaia.pdf](http://riemann.upo.es/personal-wp/congreso-economia-feminista/files/2013/10/PerezOrozco_Amaia.pdf); 2017ko martxoan kontsultatua).
- Reddy, William M. (1997): 'Against Constructionism: The Historical Ethnography of Emotions', *Current Anthropology* 38, 327-351.
- Rodriguez, Eider (2017): *Bihotz handiegia*, Zarautz, Susa.
- Tamzali, Wassyla (2015): '1. Osoko bilera: mundu globalaren erronkak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteko', in *Emakunde: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarra. 'Gogoetak eta estrategiak krisi, sare eta berrikuntzen testuinguruetan'*, Gasteiz, Emakunde, 58-69.
- Tennov, Dorothy (1979): *Love and Limerence. The Experience of Being in Love*, New York, Stein and Day.
- Vasallo, Brigitte (2018): *Pensamiento monógamo. Terror poliamoroso*, Madril, La Oveja Roja.
- Wacquant, Loïc J. D. (1995): 'Pugs at Work: Bodily Capital and Bodily Labour Among Professional Boxers', *Body & Society* 1/1, 65-93.

# Amatasunaren politizazioa: atzo, gaur eta bihar

Zaloa Basabe Gutierrez

*Iruñeko Udaleko Berdintasun Alorreko koordinatzailea*

## Begiradak eta ikuspegiak

Txikitatik hitz egitea atsegin izan dut. Ez soilik hitzekin gozatzea, baizik eta solasen isiluneen ziurgabetasunek gordetzen zituzten aukerekin, elkarrizketetako gora-beherekin, neurririk gabeko erritmoekin eta beraien tonu inguratzaleekin. Batzuetan zalantza izan dut: pertsonak ala hitzak nahiago nituen? Presentzia ekidinezinak ala isilune adierazgarriak?

Aspalditik berpiztu naute gehiago amaitu gabeko elkarrizketek eta bukaerarik gabeko istorioek, erantzungaitzak ziren sententzien trukeek eta 'erabatekoa' hitzaz lagundutako adjektibo batekin ixten ziren istorioek baino. Azken horiek ez naute interpelatzen; seinalatu besterik ez dute egiten eta, sarritan, identifikatu ere ez dute egiten. Ez ukitu, ez hunkitu.

Antzeko zer edo zer gertatzen zait amatasunen gaia plaza-ratzen den bakoitzean, berdin etxeko arloan, zein lanekoan, akademikoan edota militantean.

Itxi gabeko elkarrizketen zale bezala, eta inoiz izan ez ginituen (begi-bistako arrazoiengatik) baina behar ditugun (argi dauden zioengatik) elkarrizketak sortuko zituzten ukro-nien ikastun gisa, onartu behar dut inoiz amets egin dudala zerarekin: amatasunen inguruko Simone de Beauvoirren eta Adrienne Richen arteko solasaldia, konplizitatez betea,

gaitzespenik gabea baina galderez betea, ondoko mahaitik entzutea. Aitortu behar dut zaila egingo zitzaidala horien eztabaida bizia etetea, horien garaitik at egongo ziren esatekoekin, nahiz eta gaur egun egokiak izan. Imajinatzen dut ere penatuko nindukeela gaiaren inguruan eta XXI. mendean sartuta ditugun hainbat diatriben eta diskurtso-ariketen garapena kontatzeak.

Noski, ez du balio gai konplexua dela esateak eta horrekin eragin kolektibotik aldentzen diren norbanako praktikei keinu bat egiteak. Ezta abarkaezinak diren marko teorikoak konplexizatzeak ere, politikoki eragiteko gaitasunik ez badute eta jarduera feministatik kanpo dauden emakumeen gehiengoak ezagutzen ere ez baditu, akademiaren ekarpen kontzeptualetatik urrun edota eztabaida horietara (eta beste batzuetara) iristeko aukera materialik gabe dauden bezala.

Amatasunen gaineko ikuspegi politiko bati heltzea da gako, ez bakarrik kulturatik eta sinbolismotik harago doan bere alde hori (hori ere) aztertuz, baizik eta baita bere funtzio ekonomikoa eta soziala ere, funtzio horrek dakarren eraginarekin batera desberdintasunezko terminoetan, generoan zein klasean.

Esanak esanda, eta nire buruari izorrakirik egiteko asmorik gabe, nire gogoetak oinarritzat dituen printzipio batzuk laburbilduko ditut:

- Amatasunen jarduerarekin lotutako praktika 'subertsiboak/alternatiboak' vs sistemaren egituren eta 'instituzio' bezala ulertzen den amatasunaren eraldaketarako eragiteko gai diren proposamen politiko integralak.
- Emakumeak menperatzen dituen egitura patriarkala etengabe salatu (oraindik indarrean dagoen subjektu politiko gisako 'emakumearen' definizioaren aurrean jarrrera finkatuz).
- Feminismoaren funtzioa eta helburua emakume *guztion* berdintasuna, askapena eta erabateko burujabetza lortzeko tresna eta bidea izateko bokaziotik abiatuta.

## Gu baino lehenago, beraiek

Errealitatea sinbolikoki eraikitzerakoan, ama-emakumea binomioa da denboran zaharrena eta barruraino grabatuta daramaguna. Bi termino horiek bakoitza bere aldetik aztertzen saiatze hutsa da, berez, subertsio ariketa bat. Emakumeon gorputzaren kontzepzioa bera, ugaltze-lanerako prestatua dagoen gorputz sozial bezala; bere funtzio ekonomikoaren biologizazioa; edo baita amatasuna 'naturaren' aferekin lotzeko eta 'razionaltasunaren' areriotzat hartzeko (amatiar instintua...) maisuki eraikitako aldamiokulturalak ere, horren gaineko proposamen kritiko feminista bat egiterakoan oztopo bilakatzen dira, sentikortasuna astindu gabe edo kontraesanetan erori gabe egin nahi bada, behintzat.

Hala ere, zaila izan arren edo -hain zuzen- zaila izateagatik, eta ezinegon ugariren iturriari erantzuna emateko premiaz gain, feministok ez diogu muzin egin beharrezkoa den amatasunen politizazioaren eztabaida mahai gainean jartzeari. Etxe barruan, pribatutasunean

gorde izan dena herriko plazara ateratzea bezala ulertu behar da politizazio hori. Politizazioa gonbidapena da ekonomia-aren eta desberdintasun sozialen terminoetan azterketa egiteko, bizitzaren jasangarritasunaren ardura duten eragileei interpelazioa, emakumeengandik harago; hau da, estatuaren, komunitatearen eta herritarren zeregina nabarmentzeko, batez ere historikoki interpelatuak izan ez direnena: gizonena.

Horretaz hitz egiteko (beste hainbat aferez bezala) atzera begiratu beharko dugu eta besoak zabaldu Simone de Beauvoirren eta bere lanaren ekarpenak jasotzeko. Une honetan,

Errealitatea sinbolikoki eraikitzerakoan, ama-emakumea binomioa da denboran zaharrena eta barruraino grabatuta daramaguna. Bi termino horiek bakoitza bere aldetik aztertzen saiatze hutsa subertsio ariketa bat da

aste honetako pasadizo bat gogoratu nahi dut: trebakuntza saio batean Neus Albertos kezkatu agertzen zen gaurko korronte feminista teoriko zehatz batzuekin; beren diskurtsoa hainbat ikerlarik –Judith Butlerrek, adibidez– Beauvoirren eta beste egile batzuen lanaren gainean egiten dituzten interpretazioetan oinarritzen duten korronteak, alegia. Ongi dago Butler irakurtzea. Beharrezkoa da Butler irakurtzea. Baina, mesedez –esaten zigun Albertosek–, ez ahaztu Simone de Beauvoir, Betty Friedman, Kate Millet, Adrienne Rich... irakurtzen jarraitzea.

Kontua ez da bibliografia bat gomendatzea, baina bai oinarri teoriko batzuk onartzea emakumeon ‘bizitza pribatuaren’ politizazioari heltzeko. Aurretik egindako proposamenak ezagutu, amatasunaren jardura indibidualak eragindako ondoreza sortu zen tokietara itzuli ahal izateko: plazara, publikora, erakuntza sozial, ekonomiko eta kulturalera, paper zehatza ezarri zigulako patriarkatuaren egituraren zutoi nagusia bilakatuz.

Ondoz ondoko korronte feministek hartzen dituzten jarrera desberdinak aztertzen ditugunean, ez dugu zertan korrika eta presaka irmoki bat egin batzuekin besteen aurka. Guztiak une historiko zehatzetan egindako analisiak dira, non emakumeon askapenerako estrategiek gako desberdinak azpimarratzen zituzten. Logikoa. Ikuspegi historiko batetik, horrek ez ditu jarrera kontrajarriak bilakatzen; erabat osagarriak dira, eta itxurazko kontraesan horietan ere –Beauvoirren eta Richen planteamenduen artean atzeman ditzakegunak bezala– argia pizten zaigu mendetan isildutako eztabaida gaur egun argiztatzeko, argitasun publikotik urrun eta ‘etxeko kontuen’ iluntasunean zokoratuta egon ondoren.

Diferentziaren feminismotik, non Beauvoir koka dezakegun, berak amatasunaren jardura emakumeon askapenerako oztopo bezala identifikatzen zuen. Era horretan, lan produktiboan ikusten zuen berdintasunerako bidea, eta emakumeak kate biologikoetatik askatzea zen bere iradokizuna, kate horiek jaiotzetik ama-emakume gisa identifikatzera behartzen gintuztelako.

Urte askoren bueltan, eta filosofiaren arlotik, Elizabeth Badi-  
nerrek historiari luzatu zion begirada, zera jakin nahian: noiz,  
nola eta zergatik sortu zen berak deitzen zuen «amatiar ins-  
tintuaren mitoa», Beauvoirrek defendatzen zuen ideia –‘ema-  
kume izatearen’ eraikitze kultural eta sozialarena– berretsiz.  
Badinerren ikerketek XVIII. mendean kokatzen zuten diskur-  
tso horren finkatze nagusietako bat, non «amatiar maitasuna»  
emakume izateari atxikita agertzen zen; ama izatearen misioa  
lagaezina zen, emakumeon paturako guztiz erabakigarria eta,  
bide batez, emakumeon isolamendu ekonomiko, sozial eta  
politikoa gauzatzeko eta errepikatzeko ezinbesteko tresna.

Izan ere, korronte desberdinetako feministek asko jorratu  
dute amatasuna. Alexandra Kollontai feminista zoragarriak  
amatasunari buruzko zenbait postulatu ere egin ahal izan zi-  
tuen, Alderdi Boltxebikearen eskutik. Beauvoirrek amatasuna  
emakumeen emantzipaziorako oztopo gisa identifikatu baino  
urte batzuk lehenago, Kollontai jada ausartzen zen familia zu-  
zenean seinatzera kapitalismoaren garapen egokirako beha-  
rrezko egitura patriarkal aliatu gisa, emakumeen esklabotza  
ugaltzeko espazio ezin hobe bezala deskribatuz. Emakumeen  
autonomia handiagoa eta hazkuntza kolektibizatzea erraztuko  
lituzkeen funtzioak diseinatu zituen, arlo publikotik haurren  
zaintzari zuzendutako funtzioak, alegia, eginkizun horien  
onurak haurren zein komunitatearen gaineko eragina dutela-  
koan. Hamarkada batzuk geroago, berdintasunaren feminis-  
tak deiturikoek (besteak beste, arestian aipatutako batzuek)  
amatasunari buruz azaldutako argudioa aurkezten zuten,  
emakumeen emantzipazioaren aldeko borrokaren testuingu-  
ru jakin batean. Diferentziaren feministek, ordea, uste zuten  
emakumeen emantzipazioak (aurreko egileek asko erabiltzen  
zuten terminoa) ez zuela ekarriko emakumeen eta gizonen ar-  
teko berdintasuna, berdintasun-parametro hori ez zelako de-  
siragarria. Hau da, diferentziaren feministek pertsona guztien  
arteko harreman ez-hierarkikoak ezartzera irits daitezkeen  
desberdintasunak (baita biologikoak ere) balioestea erabaki  
zuten. Luce Irigaray diferentziaren feminismoaren erreferente

garrantzitsuenetako bat da, filosofiaren esparrutik amatasunaren esperientzia berez askatzaile bihurtuko duen ordena simboliko bat sortzea proposatzen duena, ordena patriarkaletik urrun. Puntu honetan, berriz ere poztuko naiz irakurketaren bidez Donna Haraway eta bere 'ezagutza kokatuaren' kontzeptu bikaina ezagutu izanaz, analisi eta behaketa objektu ezberdinen aurrean argi eta konplexurik gabe posizionarazten nauena: argi eta garbi aitortzen

Sarritan, diskurtso  
feministetan bi  
kontzeptu nahasten  
dira behin eta berriz:  
amatasunaren  
esperientzia eta  
amatasuna instituzio gisa

dut edozein esperientzia mota garatzen den baldintza materialen kontua alde batera uzteak zailtasun handia dakarkidala teoretik praktikara pasatzeko. Kosta egiten zait ulertzea Iri-garayren teoretatik edozein eraldaketa-estrategia mota atera ahal denik, baita ordena sozialetik ere, kolektiboaren boka-zioarekin. Beste era batera esanda, eta Adrienne Richek bere garaian adierazi zuen bezala, sarritan, diskurtso feministetan (eta, nire ustez, batez ere diferentziaren feminismoan lehena-go eta ekofeminismoan geroago sustraitutako diskurtsoetan) bi kontzeptu nahasten dira behin eta berriz: amatasunaren esperientzia eta amatasuna instituzio gisa. Nekez lortuko ditugu amatasunaren praktika iraultzaileak, baldin eta gure planteamendu indibidualak ez badoaz lotuta amatasuna erakunde gisa eta patriarkatuaren bizkarrezurra den heinean higatzera eramango duen estrategia kolektibo batekin. Gure praktikak ez dira sistemarako subertsio txikiak baino izango, eta sistemak iheserako zirrikitu gisa hartuko ditu, aurrerantzako ihesaldiak, aurrez ederki ezarritako narrazio baten barruko bertso solteak bezala.

Eta zertarako amatasunaren eztabaidari egindako ekarpen feminista batzuen aldizkako eta joera argiko ibilbide hori gutzia? Agerian uzteko ez dela berrikuntza amatasunak emakumeen bizitzan eta egiturazko desberdintasun-parametroetan



dituen ondorio ekonomiko, sozial eta politikoak feminismotik aztertu izana.

Hala ere, eta aldi berean, egia da ekarpen teoriko horiek oso gutxi islatu direla bai zuzenbidean bai politika publikoetan; finean, orokorra izan da amatasunarekin zerikusia duen guztia eremu pribatua soilik garatu behar zela hautematea, hau da, familiak (patriarkalak) berak ezarritako arauen arabera, non estatuak –‘publikoaren’ kudeaketan lanpetuta– ez zuen parte hartu behar.

Aukera, berriz ere, bigarren olatuko feministen postulaturik iraultzaileenetako bat aldarrikatzeke: «Pertsonala (pribatua bezala ere ulertua) politikoa da». Izan ere, Espainiako Estatuan, familiako aitaren autoritatea ordenamendu juridikoaren baitan egon da indarrean ia XX. mende osoan zehar, aitari familiari buruzko guztiaren gaineko ahalmena emanaz (haurrak ez ezik, horien ama ere ‘guztia’ horretan sartuz).

[Bada salbuespen txikiren bat zuzenbidearen eta amatasunaren arloan, ekoizpen-eremuan amen osasuna babesteari lotuago dagoena horien askatasunari buruzko legeak egiteko asmoari baino.]<sup>1</sup>

Horrek agerian uzten du, XX. mendean zehar korronte desberdinetako feministek amatasunak ‘politizatzeke’ egingdako ahaleginak etengabeak izan badira ere, ahalegin horiek behin eta berriz egin dutela topo –oraingoan bai– lerroak estutzen zituen sistema kultural, politiko, juridiko eta ekonomiko baten erresistentziekin, lanaren banaketa sexualean oinarritutako sistema patriarkal eta kapitalista baten aurrean eta menderatze-egitura oso baten aurrean, non (ez gaitzezen engaina) emakumeok (sozialki gizonen menpeko izaki bezala egituratuta) nekez gauzatu ahal izango dugun benetan askatzailea den amatasunaren praktika bat.

### **‘Ni’ + ‘ni’ + ‘ni’ batuketaren emaitza ez da ‘gu’**

Aurreko epigrafean idatzitakotik ez litzateke ondorioztatu behar XX. mendetik ez dugula ezer aurreratu gure

amatasun-jarduera askean. Behin (nirea ez zen) amona bati antzeko zerbait esan nion eta iruditu zitzaion (arrazoi osoz) oso esker txarrekoa izaten ari nintzela, kexati nengoela edota, zuzenean, ez nuela ezer ulertzen.

Baina, aldi berean, nire inguruan gero eta ohikoagoa zen lagunei entzutea horiek askatasunez erabakitzen zutela ama izan nahi ote zuten, noiz eta nola eta, batzuetan, non (norekin, zergatik eta zertarako ez dut testu honetan aztertuko). Iritsi al da emakumeentzako amatasun emantzipatzailea, horrela Simone de Beauvoir handiaren gogoetak eta igarpenak gaindituz? Nire lagunek, gainera, ustez subertsiboak diren liburuak gomendatzen dizkirate amatasunei buruz; etxe ondoko liburu-dendan, azken hilabeteotan hitzaldi bat baino gehiago programatu dituzte horri buruz; blogak eta blogariak beren esperientzia apurtzaile eta alternatiboei buruz hitz egiten dute, eta ia derrigorrez irakurri beharrekoak dira ama modernoan artean; eta ama urbanoen gaiztakeriak ilustratzen dituzten komikiak, berriz, guztiz lotsagabeak eta autoatseginak dira («ni bezalako da» esanarazten diguten horietakoak).

Banakako praktika subertsiboak autodeterminazioaren eta ahalduntze pertsonalaren adibide apelaezinak dira, bi- zipen eredugarriak eta nahitaez iraultzaileak. Posible dela erakusten digute, lan egiten den komunitatea osatzen dugunoi interpelatzen digute, eta modu ukaezinean agerian uzten dituzte norberaren koherentziaren eta irmotasunaren berehalako ondorioak, etsai eta erronka erraldoien aurrean. Ados. Amaigabe ikasten dugu horiengandik. Gure inkoherentzien aurrean islatzera behartzen gaituzte, defendatzen ditugun sistema publikoaren hutsuneen aurrean eta nahi dugun sare komunitarioen eta ehun sozialen eraginkortasunik ezaren aurrean. Bakar batean hasten da iraultza. Ongi da. Politikoki eta intelektualki estimulatzen gaituzte, eta benetako ñabardurak eskaintzen dizkigute, gure kontraesanak azaltzen dizkigute, erreformismoari aurre egiten diote eta teoria eta praktikaren arteko jaunartze magikoarekin pozten gaituzte. Ironiarik gabe esaten dut. Mototsa kentzen dut

bere ausardiaren, bere jaurtiketaren eta bere dedikazioaren aurrean. Eskertzen dut buruak, begiak eta bideak irekitzea.

Miresten dut alternatibak esplizitatzeko eta gure gogame-nak astintzeko duten gaitasuna; parte-hartzeari eta beste espazio batzuei uko egiten ez diogunon jarreraren eta pentsa-molde erosoaren aurrean hazkuntza-eredu askatzaileak behin eta berriz asmatzeko erakusten duten grina txalotzen dut.

Baina, benetan egon al daitezke amatasun-eredu askatzaileak, banakako praktikatik domeinu, ukazio eta seinalamendu patriarkaetik salbatuko gaituztenak? Praktika subertsiboen batuketa batek, kutsatze eredugarri baten ondorioz, amatasunaren esperientziaren subertsioa ez ezik, amatasunaren instituzioarena ere sortuko al du?

Adrienne Richek, beste askoren artean, ikaskuntza interesgarri bat utzi zigun horren inguruan: amatasuna esperientzia gisa eta amatasuna erakunde gisa bereizten irakatsi zigun. Orduz geroztik, 'aukera askearen' paradigma (ekonomikoki, materialki eta formal-ki gehiengoarekiko egoera pribilegiatuetan dauden klaseentzat bakarrik) behin eta berriz nahastu da amatasuna 'askatasunean' kontzeptuarekin.

Emakumeen askatasuna honako hau da: autonomia, gainerako emakume eta gizonekiko aukeratzeko, erabakitze-ko eta negoziatzeko gaitasunen berdintasuna. Ospitale publiko batean edo zuhaitz bat berrakatzuz erditu nahi duzun eraba-

kitzea, 43 urterekin haur bat eduki nahi duzun edo ez. Lana uztea eta, azken esne-hortza erori arte, haur horri begietara begiratzeko erabakia hartzea. Erabaki horiek hartzean, librea-go sentiarazten gaituzte? Agindu sozialei oldartzen gatzaizkiela uste dugu? Beste emakume batzuen egoerei dagokienez,

Praktika subertsiboen batuketa batek, kutsatze eredugarri baten ondorioz, amatasunaren esperientziaren subertsioa ez ezik, amatasunaren instituzioarena ere sortuko al du?

elkartasun hurbilagoa sentitzen dugu? Ala norberak aukeratzeko gaitasuna (pribilegiatua) gizartea eraldatzeko apustu kolektibo eta feministarekin nahasarazten al digu, eraldaketa sozial horrek gure praktika pertsonala gainditu eta pertsonen arteko harremanak eta horiek garatzen diren egitura bera baldintzatuko duen eragin politikoa izango duelakoan?

Beste esparru batzuetan, eta zer sistema motatan bizi nahi duzun erabakitzeko unean, edonork ulertuko luke ez dela gauza bera sistemaren katalogoaren aukera desberdinen artean aukeratu ahal izatea edo benetako autodeterminazioa baliatzea. Politizatzea da, ulertzea gure giza jardueretako bat ere ez dela neutrala. Guztiek bokazio indibiduala edo kolektiboa izan dezaketela ulertzea. Eta ondorioak ez direla berdinak eraldaketa sozialari dagokionez. Eta feminismoa horretaz ari da.

## Ondorioak

Orduan, bi hauen artean aukeratu behar al da derrigorrez: batetik, norberarentzat asegarriak izan daitezkeen ama-esperientziak, edo, bestetik, 'emakume-zaintzaile' lotura kulturalari eta lotura horri dagozkion ondorio ekonomikoei jarraitzen dieten agindu sozial guztiak hausten dituzten eraldaketa-estrategiak?

Uste dut feminista gisa ez geniokeela uko egin behar horietako bakar bati ere. Gure ahalegina izan beharko litzateke identifikatzea norbanako gisa –eta arlo pribatutik– bizi izan diren ezinegonak, eta horietako zein itzuli behar diren sortu ziren lekura: publikora, alegia. Horrela, justizia sozialik gabeko ikuspuntu batetik tratatu beharko genituzke; izan ere, bizitzaren iraunkortasuna bermatu eta zaindu egin behar da arlo publikotik ere, kasu honetan gehienbat emakumeen gain dauden desberdintasun-egoerak saihesteko. Ez genuke ezer berririk esango gogoratuko bagenu, azken finean, espazio publikoan garatzen dena jarduera 'politizatutzat' jotzen duguna dela, eta espazio pribatuan gertatzen dena, berriz, jarduera 'pertsonez' dagokiela.

Eta zer eskatzen dugu zaintza publikotik/politikotik kudeatzeko?

- *Baliabide materialak*

Zerbitzu publikoen birdiseinuan eragina izan behar dute, unibertsaltasuna eta doakotasuna bermatuz, bai eta horlan profesionalak egiten dituztenen lan-baldintza duinak bermatuz ere.

- *Baliabide sinbolikoak*

Emakumeak-amatasunak binomioa hausteko gai izango diren erreferente berriak sortu behar dituzte; amatasun eredu berriak, askotarikoak, agerian utziko dituztenak; erreferente maskulino zaintzaileak erreproduzitzen dituztenak; estereotipo patriarkalak erreproduzitzen ez dituztenak eta, mesedez, amatasunak mitifikatu edo mistifikatuko ez dituztenak.

- *Baliabide komunitarioak*

Komunitatea inplikatu behar dute, elkarte-ehuna indartu, auzoak artikulatu eta zaintzak gure hirien erdigunean kokatzen lagundu. 'Zainketen' paradigma berri bat sortzen lagundu behar dute, eta paradigma horrek alde batera utzi behar du horien laguntza-alderdia, herritar guztiak interpelatuz: denok behar ditugu zaintzak; denok zaindu behar dugu.

- *Arau-baliabideak*

Kontziliazio neurrietatik harago joan behar dute. Kontziliazio-neurriek besterenezinak eta nahitaez bete beharrekoak izan behar dute, osorik kotizatu eta iraupen egokia izan behar dute. Erantzukidetasuna izan dadila neurri horien guztien amaiera, eta ez dadila berrero uztartzearekin nahastu.

Batzuek pentsatuko dute egungo estatu patriarkaletik ezienezkoa dela egungo ordena sozialarekin hausten duten plan-teamendu feministak itzarotea.

Ados nago.

Estatu honekin ez. 

***Oharrak***

1. Egileak badaki arlo pribatuaren eta publikoaren arteko aldea ez dela berdina klase burgesaren eta klase langilearen baitan, lausoagoa izanik azken horren kasuan. Izan ere, emakumeok, askotan, lan egin izan dugu aldi berean ekoizpenean, lankide gizonek baino modu prekarioagoan eta okerrago ordainduta; eta ugalketa, berriz, emakumeok bakarrik hartu izan dugu gure gain, gehienetan.

# Maitasunaren ideologia eta hirigintzaren arteko lotuneak

Oihane Ruiz Menendez

*Arkitektoa eta hirigintza eta genero inpaktuan aditua*

Hala esaten didate:  
Zertan zabilta maite kontuetan?  
Elkarbizitza jokuan  
Eta zu, berriz, bertso ttikietan.

Kantu leunak  
Nahi nituzke jarri.  
Eguzkia  
Ainubian denari.  
Zaindu maite duzun hori.  
Zaindu gorroto duzun hori.  
Zaindu...

**A**rkitekto feministok maitasunaren ideologiari hiri-gintzatik nola heltzen diogun pentsatzen hastean, Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori* abestia datorkit burura.

Lurralde antolaketaren –eta horrek gerora sortzen dituen– formak ikusita, maiz iruditzen zait ‘maitasuna’ eremu pribatua giltzaperatuta egon izanaren ondorio bat ere badela egungo tresna teknikoan pobrezia.

Tresna teknikoek –hirigintzan, kasu honetan–, objektibotasun aseptiko batetik aztertu eta proposatzen direlakoan, proposamenen ideologia ezkututzen dute.

Maitasun sanoa, tratu onean oinarritzen dena, zaintza eta dependentziak nahita aukeratu eta horiekin konpromisoak sortzen dituen da. Eta horretan guztian botere harremani aurrez aurre begiratzen diena. Konpromisoa, agian, horretan datza hain zuzen, harreman sanoak izateko botere harremani zuzen begiratzean.

Eta, begirada hori entrenatzen hasteko, gure egunerokotasuneko eremuei buruzko hasierako hausnarketa bat planteatzen dugu. Zer zaindu nahi dugun pentsatuz, harreman sanoak izateko hemen eta orain zerekin konprometitu behar dugun, eta bide horretan zer aldaketei diegun beldur. Galdera horiek bertso (leku) txiki eta handietan irudikatuz: hirian, auzoan, lurraldean, etxean, gorputzean...

Eta ez bakarrik guk espazioarekiko –hau da, etxearekiko, auzoarekiko, hiriarekiko edo eta lurraldearekiko– izan nahi dugun harremana aztertuz. Horrenbestez, *Zaindu maite duzun hori* ingurura eramanda: nolako maitasun eta zaintza harremanak nahi ditugu aukeratu etxearekin eta etxean, auzoarekin eta auzoan, hiriarekin eta hirian, lurraldearekin eta lurraldean, gure geure gorputzarekin eta gorputzean?

*Zaindu gorroto duzun hori*: etxearekiko, auzoarekiko, hiriarekiko, lurraldearekiko edo gure geure gorputzarekiko maitasuna edo zaintza irudikatzen dugunean, non daude beldurrak eta, horiekin, gure gorputz, familia egitura, gizatalde edo egitura kultural edo ekonomikoen aldaketarako erresistentziak?

Maitasunaren ideologia berri baten bila, bi bide hauek batera egin behar dira: batetik, maitasunaren ideologia berri bat eraiki behar da, libreago egingo gaituen gizarte eredu bat planteatzeko; eta, bestetik, maitasunaren ideologiaren sustrietan deseraikuntza bat egin behar da.

## **Hirigintzaren funtzioak eta formak**

Hirigintzak formak eta funtzioak lantzen dituela esan daiteke: hirigintzatik plan edo proiektu bat diseinatzen dugunean, azken buruan, formek eta funtzioek berebiziko garrantzia dute.



Maitasunaren ideologiarekin lotuta, interesgarria da aztertzea hirigintzaren esparruan zer forma eta zer funtzio agertzen diren, edo forma eta funtzio horiek *hemen eta orain* nola gauzatzen diren. Sarritan, hirigintzan eta arkitekturen proiektuetan hemendik eta gaurtik aurrerako begirada bat ematen da, baina ez da beti aztertzen hemen eta orain zer daukagun, eta aurrerako begirada horretan zer mantendu eta zer baztertu behar dugun, hau da, zer konpromisori jarraipena ematen zaien eta, al-diz, zer konpromiso berri nahi

ditugun eraiki. Izan ere, sarritan arkitektura eta hirigintza tresna tekniko apolitiko gisa ulertzen badira ere, gorpuzten den errealitate formalak ez da inola ere horrelakoa.

Azken buruan, formak eta funtzioak planteatzen direnean, etxeetan, auzoetan, hirietan eta lurraldean ideologia bat edo bizitzeko modu edo egitura bat islatzen dira.

Hirigintza, lehenik eta behin, ekintzetara mugatzen da, hemen eta orain ongi ulertu gabe aurrera begira zer ekintza, zer eraldaketa, zer forma sortuko ditugun. Hemen eta orain hori ongi ulertzearen garrantzia funtsezkoa da emakumearentzako, funtsezkoa da gizarte eraldaketarako. Laura Freixas idazleak, hitzaldi batean, hausnarketa oso interesgarria egin zuen amatasunak literaturan duen lekuaren –edo ez-lekuaren– inguruan: egunero emakumearekiko bizi ditugun bidegabekeriaren aurrean, lehenengo urratsa gauzak ulertzea eta ordena batean sartzea da. Freixasek dioenez, belaunaldi bakoitzean erroka bat planteatu behar da, eta, haren ustez, gure belaunaldiaren erroka «gauzen egoera» seinatzea edo identifikatzea izango litzateke; androzentrismoak ezartzen duen neutraltasun faltsua –gizonaren zentraltasuna

Hirigintzak formak eta funtzioak lantzen dituela esan daiteke: hirigintzatik plan edo proiektu bat diseinatzen dugunean, azken buruan, formek eta funtzioek berebiziko garrantzia dute

eta boterearen monopolioa– adieraztea, argi azaltzea eta ulertzea.

Izan ere, ulertzen badugu, esplikatu ahal izango dugu, beste batzuei ulerrarazi ahal izango diegu hemen eta orain gauzak nola antolatzen diren, hemendik aurrerako aldaketak eta erronkak zein diren eta gure energia eta gure denbora zertan jarri behar dugun.

Hemen eta orain, maitasuna eta arkitektura –maitasunaren ideologiaren eta hirigintzaren arteko harremana– ulertze-ko adibide asko ekar litezke. Nik honako hau aukeratu dut: 2019an uztail bitartean Espainiako Estatuan izan diren feminizidio kasuak aztertzea, hiru datutan zentratuta: eraildako emakumeen izenak, non erail dituzten eta erailea nor izan den:

Rebeca	Etxebizitzan	Bikotea
Leonor	Etxebizitzan	Senarra
Izen ezezaguna	Zahar etxean	Senarra
Soledad	Kotxean	Bikote ohia
Rebeca	Etxebizitzan	Bikote ohia
Rosa	Etxebizitzako sotoan	Senarra
Kelly	Etxebizitzan	Bikotea
Rosa	Etxebizitzan	Bikotea
Daríá	Etxebizitzan	Bikotea
Sheyla	Etxebizitzan	Bikotea
Estrella	Etxebizitzan	Bikotea
Gloria	Etxebizitzan	Senarra
María José	Etxebizitzan	Senarra
María	Etxebizitzan	Senarra
Izen ezezaguna	Etxebizitzan	Senarra
Nelea	Etxebizitzan	Senarra
María	Etxebizitzan	Bikotea
Irene	Etxebizitzan	Bikotea
Silvia	Etxebizitzan	Bikotea
Lourdes	Koba batean	Senarra
Juana	Etxebizitzan	Bikotea
Lilium	Etxebizitzan	Bikotea
Piedad	Etxebizitzan	Senarra
Beatriz	Etxebizitzan	Bikotea
Ana Lucía	Etxebizitzan	Senarra
Mónica	Etxebizitzan	Bikote ohia

Piedad	Etxebizitzan	Senarra
Romina	Etxebizitzan	Bikotea
Izen ezezaguna	Etxebizitzan	Senarra
Juana	Etxebizitzan	Bikote ohia
Janet	Etxebizitzan	Gizon bat
M.L.	Taberna batean	Gizon bat
Izen ezezaguna	Etxebizitzan	Semea
María Soledad	Etxebizitzan	Semea
Gloria Francisca	Etxebizitzan	Semea
Liset eta Montserrat ahizpak	Kalean	Familia politikoko gizon bat
Ángela	Etxebizitzan	Semea

Ariketa hori gogorra da, baina argi uzten du bi arazo ditugula une honetan; eta arazo horiek sinplifikatuz bi izen topatzen ditugu: alde batetik, senarra edo bikotea; eta beste aldetik, etxea.

Eraiketen %80 baino gehiago etxeetan gertatzen da. Orduan, alde batetik, maitasun egitura ugalkorreetan, familian, guri dagokigun funtzio horretan arazo bat daukagu, eta, beste alde batetik, elkarbizitzarako espazioan edo forma arkitektonikoan ere arazo bat daukagu.

Esango nuke egia dela lehenengoa –familia– feminismotik landu izan dela, badaukagula hor begi bat jarrita; baina uste dut formari –espazioa, etxea– ez diogula begiratzen. Eta uste dut ez dela kasuala: datuei begiratuz gero, argi dago zerbait gertatzen ari dela etxeetan.

Hirigintza eredu ekonomiko eta sozial baten *forma* bada, gure kasuan, eredu kapitalista eta patriarkalak behar dituen *funtzioei* erantzuten die hiriaren gaurko formak.

## Hirigintza vs urbanitatea

Hirigintza modernoa, XX. mendeko 30eko hamarkadan eratutako hiri modernoaren ideia hori, kritikagarria da, gure ustez. Hasiera batean azterketa zabal eta sakonago batetik abiatu bazen ere, ondoren hirigintza praktikan benetan gauzatu izan dena eredu horren bertsio pobretua izan da.

Horrenbestez, gaur egun hirigintzan honakoak lantzen dira batez ere: forma, arauak, estrategiak, tresna teknikoak, epeak, inbertsioak eta espazioak. Eta alde batera gelditu da *urbanitate*a dei dezakeguna: proiektu soziala, alegia. Zer proiektu sozial nahi dugu garatu, zer funtzio nahi ditugu garatu etxebizitzaren, auzoaren, hiriaren edo lurraldearen forma horren barruan? Zeri erantzun behar dio forma horrek?

Erakundeetan eta enpresa pribatuetan ari direnak ere ekintzaileak dira: industria poligonoen aldeko ekintzaileak, azpiegitura erraldoien aldeko ekintzaileak, etxebizitzaren pribatizazioaren aldeko ekintzaileak...

Une honetan, gizarte itun bat falta dela esango genuke: zein dira etxebizitzan, auzoan, hirian edo lurraldean hemen-dik aurrera bete nahi ditugun erronkak? Izan ere, badirudi elkarbizitzari lotutako auzi guztiak, edo eguneroko bizitza edo lan erreproduktiboa, hirigintzaren tresnetatik kanpo geratzen ari direla.

Argi izan behar dugu ikuspegi honen atzean proiektu politiko edo ideologiko bat dagoela. Ildo horretan, ni ar-

kitektoa, feminista eta ekintzailea naiz eta hirigintzan egiten dut lan, hala aurkezten dut nire burua edo hala aurkezten naute jendearen aurrean jartzen naizenean, eta bat nator ezaugarritze horrekin: egia da ekintzailea naizela.

Baina, zuzen eta zorrotzak izatekotan, hauxe gehitu behar zaio horri, erakundeetan eta enpresa pribatuetan ari direnak eta hainbatetan nire aurrean ditudanak ere ekintzaileak direla: industria poligonoen aldeko ekintzaileak, azpiegitura erraldoien aldeko ekintzaileak, etxebizitzaren pribatizazioaren aldeko ekintzaileak... Baina horiei ez zaie 'ekintzaile' etiketa jartzen, suposatzen delako horien jarduera ez dela politikoa, ez dela ideologikoa.

Gure ustez, aitzitik, horien jarduera ere guztiz politikoa eta ideologikoa da, gurea bezalaxe. Gu aurrez aurre joaten

gara gure proiektua aurkeztu, eztabaidatu eta defendatze-  
ra: hirigintza feminista eta soziala. Ez ditugu ontzat jotzen  
erakundeetatik normalean sustatzen diren proiektu eta hi-  
rigintza tresnak. Beste proiektu alternatibo bat daukagu, eta  
pentsatzen dugu beste modu batera landutako gure proiektua  
aurrera eramanez gero funtzio eta forma desberdinak sortu  
ahal izango ditugula.

Sarritan, hirigintza mailako plan eta proiektuak funtsezko  
*proposamen* garbirik gabe egiten dira.

*Gatazkei* ere ez die hirigintzak aurre egiten, sarritan. Ga-  
tazka baten aurrean erreakzio bat egon daiteke hirigintza  
plan edo proiektuetan, baina normalean ez dira gatazkak  
barneratzen. Ez da kontuan hartzen zer gatazka ditugun  
orain eta zer gatazka berri eragingo diren, eta gatazka horiek  
gero gure espazio, kale edo hirietan nola landu eta kudeatu  
ahal izango ditugun.

*Ekintzak* eta *denborak*. Hirigintza proiektuek sarritan izaera  
fisikoa dute, estatikoak dira. Baina ez da hori kontua. Asko-  
tan, etxeetan edo plazetan ekintzak proposa daitezke. Adibi-  
dez, generorik gabeko etxea lantzen denean, esaten da etxeak  
bizitzako etapa guztiekiko malgua izan behar duela. Kontuan  
hartu behar da, horrenbestez, zer ekintza egingo ditugun  
orain eta zer ekintza egin ditzakegun hemendik hogeit urte-  
ra, eta formak nola moldatu beharko diren egungo jarduera  
horiek guztiak eta etorkizunerako aurreikusten ditugunak  
aldatzeko aukera edukitzeko. Denboraren dimentsioa ere oso  
garrantzitsua da gure ustez, hirigintza plan eta proiektuak  
aldaketarako prozesu baten baitan ikusteko.

## **Pentsamendu dikotomikoa hirigintzan: klasifikazioa eta kalifikazioa**

Hemen eta orain eskura ditugun tresnek hirigintza moder-  
noaren ikuspegi bati erantzuten diote. Egia esan, hirigintzako  
plan orokorrek, oso konplexuak diruditen arren, bi zutabe  
nagusi dituzte: *klasifikazioa*, batetik, eta *kalifikazioa*, bestetik.

Amaia Pérez Orozco ekonomialari eta ekintzaile feministak kapitalismoaz eta patriarkatuaz esaten duen bezalaxe, klasifikazioa eta kalifikazioa txanpon beraren bi aldeak dira.

Klasifikazioak, gure ustez, kapitalismoaren hazkunde ereduaren ideologiari erantzuten dio. Plan orokorrak, izatez, tresna zaharkituak dira dagoeneko; agian Euskal Herrian ez hainbeste, baina bai Madril, Bartzelona eta munduko populazioaren zatirik handiena (hogei urte barru populazioaren %80 hiri handietan biziko dela kalkulatu da) biltzen duten halako hiri handietan. Klasifikazioaren ikuskera oso xehea da eskuarki: lur urbanoa, lur urbanizagarria eta lur ez-urbanizagarria bereizten dira, eta kito. Lehenik eta behin, horrenbestez, urbanozentrismo indartsu bat dago, botere harreman indartsu bat baitago hiritik lurralderako begirada horretan. Yayo Herrerok esaten duen bezala, lurraldea ez da testuinguru bat bezala ulertzen, euskarri bat bezala baizik: hiria handitzeko euskarri bezala ulertzen dugu lurraldea, eta ez gure bizitza hirian planteatzeko testuinguru bezala. Eta ondasun komunak –airea, ura, biodibertsitatea...– gure hiri proiektuarekin harremanetan jartzeko moduak ez dira bereziki lantzen.

Azken aldian hasi dira plan eta proiektuetako mapetan kolore gehiago jartzen, baina, orain arte, oro har, hauxe izan da jokabidea: urbanoa kolore batean, urbanizagarria beste kolore batean, eta ez-urbanizagarria –lurraldea, alegia– zurian, baliorik edo informaziorik gabeko eremua balitz bezala.

Bigarren zutabea, kalifikazioa, zuzen-zuzenean dator hiriaren pentsamendu modernotik. Eta horrek baldintzatzen du hiriaren funtzioen banaketa: eremu batean jendeak bizi edo lo egin behar du (etxeak eraiki behar dira), beste eremu batean lantokiak kokatzen dira, beste eremu batean kontsumoa antolatzen da eta, azkenik, beste eremu batean naturarekin harremanak eta berdeguneak. Eta eremu guztien artean, jakina, errepide azkar eta eraginkorrak eraiki behar dira.

Tamalez, astakeria dela badakigun arren, hirigintzak eskema horri jarraitzen dio oraindik; hirigintzaren baitako tresnak ez dira aldatu, eta ez dute balio paradigma aldaketa bat eragiteko.

Gure ustez, logika patriarkalak isla indartsua du planteamendu horretan ere; alde batetik, banaketa horrek ikuspuntu produktibo hutsetik diharduelako: etxetik ateratzen naiz eta lanera joaten naiz, ondoren kontsumitzen dut eta ondoren, denbora tarte batez, aire fresko eta garbia arnastera joaten naiz berdegunera.

Baina hirietako bizitza ez da benetan horrelakoa. Lehenik eta behin, esate baterako, etxeak ez dira soilik lotarako: milaka eta milaka pertsonaren lantokiak dira besteen etxeak. Eta lan horrek zer baldintza izaten ditu? Espazio hori lan eremu publikoa ez baldin bada, lan eremu publikoan sortzen den eskubide esparrutik kanpo geratzen dira lan eremu horiek, bai psikologikoki, bai formalki, bai errealki.

Horrek guztiak pentsamendu dikotomikoari (PentsaMundu Dikotomikoari) erantzuten dio. Pentsamendu dikotomikoak honakoak kontrajartzen ditu:

Objektiboa	Subjektiboa
Partikularra	Unibertsala
Emozionala	Razionala
Abstraktua	Konkretua
Publikoa	Pribatua
Balioak	Ekintzak
Gorputza	Gogamena
Literala	Metaforikoa

Bikoiztasun horretan, jakina, gizonaren<sup>1</sup> gertaerak dira unibertsalak, eta narratiba guztietan gizakia eta gizona nahasi egiten dira.

Bi arazo edo erronka sortzen dira testuinguru horretan: batetik, pentsamendu dikotomikoak eta egitura patriarkalak sortzen dituzten harreman ereduak; eta, bestetik, elkarbizitzarako espazioak.

Harreman emozionalak eremu batean gertatzen dira, forma baten barruan, eta, seguruenik, funtzio bati erantzunez. Eta harreman emozionalak, formak eta funtzioak ezin ditugu elkarren artean bereizi: harreman emozionalak guztiz lotuta daude bizi garen lekuak dituen formekin edo bizi garen

etxearen, auzoaren edo hiriaren formaren arabera kanpotik ezartzen zaizkigun funtzioekin.

Azken buruan, non bizi garen, lana non egiten dugun, batetik bestera nola mugitzen garen..., horrek guztiak funtzio baten barruan sartzen zaitu. Eta funtzio horren barruan, agian, askatasun maila txikiegia daukagu nahi ditugun harreman emozionalak sortzeko.

Azken buruan, non geratzen da harreman emozional horiek ikusteko eta sortzeko espazioa eta denbora?

Kataluniako Punt Sis arkitekto eta soziologoek kolektiboak lan bat egin zuen duela urte batzuk emakume talde batekin: erloju batean sartu behar zituzten egunean zehar egiten zituzten ekintza guztiak. Une berean bi hiru edo ekintza egiten zituztenez, batzuen egunek 26-27 ordu irauten zituzten guztira. Ekintzen *ginkana* modukoa izango litzateke hori. Galdera argia sortzen da: zenbat denbora eskaintzen diogure burua ispiluaren aurrean ikusi eta gure harreman emozionalak nola eratzen ari diren aztertzeari?

Maiatzeko udal hauteskundeen ondoren, Madrilgo Udalean gobernu aldaketa egon zen. Ekainaren 9an ‘¿Por qué

Madrid es de derechas?’ artikulua agertu zen *El Confidencial* egunkari digitalean. Artikulua arina zen, baina benetan interesgarria, argi erakusten baitzuen Madril azken hogeitau urteetan proiektu sozial baten esperimendazio eremua izan dela: liberalismoaren eta indibidualismoaren proiektuarena, hain zuzen ere. Zein dira proiektu hori aurrera eramateko landu diren ildo nagusiak?

Lau lerro nagusi izan ditu po-

litika horrek: lehenik, osasun zerbitzu pribatuak bultzatzea –nahiz eta ekipamenduak publikoak izan, kudeaketa pribatua

Feminismoa ari da harremanak lantzen, baina formei ez zaie behar besteko garrantzia ematen; premiazkoa da biolentzia guztiak aztertzea, etxe, auzo eta hirien formarekin duten harremana ikusteko



da-; bigarrenik, hezkuntza kontzertatua sustatzea. Beste bi zutabeak hirigintza eredu eta etxebizitza politika izan dira, hain zuzen ere.

Krisiaren aurreko urteetan, Las Rozaseko zinegotzi batek honako azalpena ematen zuen gehienez hiru solairuko etxebizitza eraikinak eraikitzeko Esperanza Aguirreraren agintaldian zehar Zoruaren Legean jasotako arauari buruz: terrazadun atikoetan eta lorategidun etxabeetan bizi diren pertsonak eskuinaren botomaile potentzialak dira.

Txundigarria da konprobatzea proiektu liberalak ideiak eta estrategiak zein argi dituen. Ezker politikoa, aldiz, liberalismoa eta indibidualismoa txertatzeko proiektu soziologiko horren aurrean, mutu geratu da edo beste aldera begira egon da.

Areago, *El País*-ek hauteskunderen emaitzekin atera zuen mapa interaktibo batean, barrutiz barruti ikus zitekeen botoaren gehiengoa zein alderdiri zegokion, eta auzo edo kale bakoitzeko etxebizitza ereduaren eta eskuin edo ezkerreko botoaren artean goiko artikulua horretan aipatzen den korrelazioari eusten zaio. Alegia, hirigintza eta etxebizitza ereduaren eta gizarte proiektuaren arteko harremana ez da inola ere kasuala.

## **Hirigintzatik biolentziari aurre egiten**

Biolentzia guztiak aztertzea premiazkoa da gure kasuan. Feminismoa ari da harremanak lantzen, baina formei ez zaie behar besteko garrantzia ematen; gure ustez, premiazkoa da biolentzia guztiak aztertzea, etxe, auzo eta hirien formarekin duten harremana ikusteko.

Montrealen, duela hogeitun urte inguru, segurtasunaren eta emakumearen arteko harremanari buruzko proiektu bat sustatu zen: emakume herritarrak eta hirigintzari lotutako emakume teknikariak batu zituzten, eta hirian zehar gora eta behera ibili ziren elkarrekin, batez ere garrario publikoko geltokiak aztertuz, geltoki seguruagoak eraikitzeko xedearekin. Lanketa nahikoa sakona egin zuten, eta, horren ondorioz, sei

puntu zedarritu zituzten espazio batek «emakumeen segurtasuna» bermatu ahal izan dezan. Puntu horiek, gure ustez, interesgarriak izan daitezke eztabaidarako, feminismotik gure formen eta espazioen lanketa abiatzeko, formak nola eraiki ahal ditugun ikusteko bidean dimentsio biko hausnarketa egiteko aukera topatuz:

1. Non gauden eta nora goazen ikusteko eta ulertzeko erraztasuna. *Seinaleztapena.*  
Badakigu non gauden harremanetan? Badakigu non egon nahi dugun? Harreman batean gertatzen ari denaren seinaleak ikusteko tresnak baditugu?
2. Ikusi eta ikusia izatea. *Ikusgarritasuna.*  
Harremanetan zein atal dira ikusgarri? Nola performatibizatzen dugu harremana publikoki, eta harreman hori nola gordetzen da 'eremu pribatu itxian'? Nola moldatzen gara eta nola moldatzen dugu gure harremana publiko/pribatu banaketan?
3. Entzun eta entzuna izatea. *Jendartea elkartzea.*  
'Etxebizitza' prest al dago zabaldua izateko? Begi eta belarri komunitarioek bertan gertatzen dena ikus/entzun dezaten?
4. Ihes egitea eta laguntza lortu ahal izatea. *Zainketa formala eta laguntza lortzeko modua.*  
Biolentzia kasuetarako urrats txiki batzuk egin dira (telefonoak daude, biolentzia jasan duten emakumeentzako etxebizitzak sortzen ari dira...), baina etxeetan gertatzen diren bestelako botere harremanak ez dira ikusten, biolentzia zuzena eta fisikoa bakarrik da ikusgarria.
5. Giro garbi eta abegikorrean bizitzea. *Leku publikoen planifikazioa eta mantentzea.*  
Harremanetan nork mantentzen du giro garbi eta abegikorra? Noren esku daude eta nola zaintzen dira harremanen espazio eta denborak? Nork hartzen du bere gain familia proiektuaren ardura?

6. Taldean jardutea. *Emakumeen parte hartzea segurtasun politiketan.*

Emakumeen sareak sortu behar dira, baita profesionalki ere, etxebizitzan, auzoan, hirian eta lurraldean sortzen diren harremanak aztertzeko eta hiriaren barruan forma eta funtzio berriak izendatu ahal izateko.

## Erresistentzia komunitarioa

Hirigintza modernoaren kritikan, Jane Jacobs izan da gure erreferente nagusietako bat. New Yorkeko bere auzoko plaza bat suntsituko zuen autobide handi bat eraikitzeko egitasmoaren aurrean, erresistentzia dinamika komunitario bat aktibatu zuten auzoan. Baina bitxia da berari egiten zitzaion kritika: nola aldatuko dugu proiektua bera *ama* bat besterik ez bada? Nola antola dezake ama batek erresistentzia prozesua? Ama batek ez dauka horretarako beharrezkoa den agentzia politikorik.

Erresistentzia komunitarioaren lanketa abiatzeko proposamenari ekingo diot. Hiriaren forma eraldatzeko emakumeon antolakuntza prozesuen artean eredugarria izan daiteke 1996an Plazandreok emakumeen plataforma politikoak egin zuen Hiri Debekatuaren Mapa. Emakumeak antolatu ziren, kalera atera ziren, beraien artean hitz egin, adostu eta espazio batzuk seinalatu zituzten, espazio horiek emakumeen bizitza nola baldintzatzen zuten adierazteko eta auzi horren inguruan eztabaida zabaltzeko («gauzen egoera» seinalatzeko, Laura Freixasen zentzuan).

Horrez gain, hogeita bi urte geroago lanketa horri jarraipena eman dio: 2018ko urrian berriro hirigintzaren eta begirada feministaren inguruko lanketa batean aritu dira.

Non dago potentziala etxebizitzetan, auzoetan, hirietan, lurraldean eta harreman afektiboetan harreman aukera berriak sortzeko? Gure ustez, espazio komunitarioetan

Non dago potentziala etxebizitzetan, auzoetan, hirietan, lurraldean eta harreman afektiboetan harreman aukera berriak sortzeko? Gure ustez, espazio komunitarioetan. Publiko/pribatu dikotomia dinamitatu behar da, eta espazio komunitarioak indartu behar dira; horretarako, agentziadun pertsona gisa aurkeztu behar dugu gure burua auzo eta hirietan.

Horren adibidetzat jo daiteke Bilboko Abusu auzoko eskola batean, azterketa urbanistiko mardul baten barruan, ama talde batekin antolatu genuen ekintza: egun batean kalera irten ginen eta eskolaren aurrean zebrabide bat luzatu genuen, beraiek premia modura identifikatu zutelako. Ekintza horrek ahalbidetu zuen, hain zuzen, auzoan gai horri buruzko eztabaida plazaratzea. Horren ondoren, jendearen arteko eztabaida publikoa sortu zen.

Beste adibide bat: iazko udan, Madrilgo Pedagogías Invisibles kolektiboak hezkuntza eta feminismoari buruzko tailer bat antolatu zuen Mataderon. Tailerreko lerro bati 'Eskolaren madarikazio patriarkala' izena jarri nion: patriarkatua, azken buruan, budu bat bezala irudika daiteke, gorputzetan, egituretan, formetan eta espazioetan sartuta dauzkagun madarikazioak balira bezala. Horrenbestez, garrantzitsua da patriarkatuak gure gorputzean, gure etxean, gure auzoan nola eragiten duen ikustea, ondoren madarikazio horiek aterra, gaitza sendatu eta pertsona libreak bilakatu ahal izateko.

## **Parte hartzea eta autogestioa**

Askotan hitz egiten da parte hartzeari buruz. Parte hartzea garrantzitsua da, ez dago zalantzarik. Baina dagoeneko argi izan behar dugu politikoki estrategikoena autogestioa dela. Gizarteak agentzia politikoa eduki behar du, eta espazioak, denborak eta proiektuak autogestionatzeko subiranotasuna. Ezin dugu beti eskema honen bidez jardun: 'guk proposatu eta jendeari galdetu', 'guk lekua eman eta jendeari galdetu', 'guk esan nola egin behar diren gauzak eta jendeari galde-tu'... Autogestioa sustatu behar dugu, eta ongi aztertu behar

dugu eredu kapitalista eta patriarkala bultzatzen dutenek zeri dioten beldur. Hortxe dago, hain zuzen ere, gure indarra.

Beste adibide bat Sopolako *Sopela pertsonen hirian* proiektua dugu; bertan duela lau urte aritu ginen lanean.

Lehenengo bileretatik sumatu genuen bertakoek herriarekiko zuten pertzepzio negatiboa. Kanpotik ikusita, Sopela herri ederra da, naturarekiko harreman zuzena duena; baina herritarrek hirigunean horren guztiaren gabezia sumatzen zuten, batez ere edertasunarena.

Herritarron esku erdigunea edertzeko prozesu urbanistiko bati ekin genion. Parte hartze prozesu indartsu bat abiatu genuen: tailerrak antolatzeaz gain, udaleko teknikari zein arduradunekin lanean aritu ginen bertan lanean izan ginen hilabeteetan. Saioetan elkarteetara jo genuen, zahar etxera, eskoletara; herriko talde guztiakin lankidetzan jardun eta diagnostiko on eta osatu bat egin zen. Herri trama nola bizi eta baloratzen zen jakiteko, *begirada apreziatiboa* deitzen dena landu genuen lehenengo aldiz: ez dira gaizki dauden gauzak soilik ikusi eta seinatu behar; aitzitik, gauza positiboak azpimarratetik abiatzea komeni da: jendeari eskatu genion alaitasunarekin, lasaitasunarekin eta edertasunarekin lotzen zituen espazio edo ekintzak aipatzea eta planoan jartzzea, edertasunarekiko talde bakoitzak duen irudia plazaratuz. Guretzat garrantzitsua zen gauza positibo horiek udalera eramatea eta ondoren horiek saretzea, ekintza/leku ederren formak eta lekuak seinatzea.

Horrekin guztiarekin esan genezake feminismoaren bideari lotzeko beharra badugula hirigile eta arkitektook. Maitasunaren ideologia patriarkatuaren espazio eta denboretan gauzatzeko delako, hirigile eta arkitektook badugu ardura, orobat, bestelako giza harremanak sortzeko behar diren espazio eta proiektuak eraikitzeko.

Botere harremanak eta pribilegioak etxean, kalean, auzoan zein hirietan ematen direlako. Bide horretan gatazkak badaudela onartu behar dugu, eta espazio edo formekin dituzten loturak aztertu eta azaltzeko gai izan behar dugu. Forma eta

funtzioen arteko harremanak, alegia. Hirietan autoa (gutxi batzuek) erabiltzearen pribilegioa nagusitzeak gehiengo baten mugikortasun seguruaren eskubidea ukatzen du.

Etxebizitzetan, harremanen hierarkiak espazioetan izan duen isla agerian geratu da azkeneko hamarkadetan, Eusko Jaurlaritzak berak beren etxebizitzaren legeko eraikuntza araudian lehen aldiz genero perspektibarekin lotura duten zenbait ideia landu baititu. Eta hori guztia feminismoetatik egin den, dugun, lanari esker da eta izango da.

Maitasunaren ideologia gaur emakumearen zampaketarako ezinbesteko tresna bada, gure askatasunerako bidean erdigunean jartzea premiazkoa da. Elkarbizitzarako harremanak proposatzen ditugunean, gizataldeen funtzio sozialek zer espazio edo forma berri behar dituzten ere asmatu behar dugu.

Bide onetik goaz, jendartearen autonomia sustatuz (autogestioa), feminismoaren eta desazkundearen eskutik eredu produktibo berriak sortuz –non zaintzak eta bizitzaren ziklo eta beharrak barneratzen ditugun–, ondasun komunen baliok goraipatuz eta defendatuz (ura, airea, bioaniztasuna...).

Eta tratu onean oinarritzen diren harreman sanoak lantzeko, lan erreproduktiboak eta zaintza lanak bere gain hartzen dituzten arkitektura berriak sortu beharko ditugu. Geografia, sareak, mugikortasun premiak... Denetan forma berriak sortu beharko ditugu, funtzio sozialak alda daitezten. 🌱

### ***Oharrak***

1. Gizona = Eredu patriarkalaren subjektu pribilegiatua. Ez du zertan CIS gizonarekin bat egin, agian BBVA pertsonarekin (*blanco, burgués, varón y autónomo*) lotu genezake hobeto.

# Zaintza arkitekturei hurbilpena

Etxebizitza kolaboratiboak eta zahartzaro aktibista

Irati Mogollon Garcia

*UPV/EHUko Soziologia II Saileko doktoregia*

**Z**er egingo dugu zahartzen garenean? Aldatuko al da gure bizi ereduak? Nola zainduko gara egoera berrien aurrean? Nola moldatuko gara ez badut zahar-etxe batera joan nahi? Nola, ez badugu gure seme-alabek zaintzerik nahi? Galdera horiek kokapen soziohistoriko eta politiko baterako helduleku paregabeak ditugu. Izan ere, ez dira galdera indibidual gisara ulertu behar, geure jendartean bizi dugun abagune historiko baten adibide gisara baizik.

Galdera horiei erantzun ahal izateko, lehenik eta behin, baieztapen irmo batekin hasi beharko dugu: egungo zahartzaroak ez du zer ikusirik geure aurreko belaunaldien zahartzaro ereduarekin.

Egungo 65 urtetik gorakoen bizi baldintzak, desirak, esperientziak, bizi ereduak, kultura eta egoera fisikoak guztiz ezberdinak dira aurrekoekin alderatuta. Geure jendarteetako zaharrak jada ez dira landa gunetatik hiriburua industrialetara jauzi egindako exodoaren oinordeko, letrina erabiltzen zuten eta lastozko etxeetan bizi ziren frankismoaren seme-alabak. Egun, zahartzaroan murgiltzen dabilten gizabanako askok ikasketa unibertsitarioak dituzte, bizi-biografia borrokalariak, munduan barrena bidaiatu izan dute, dibortziatuak daude eta frankismoaren azken urteetako eta trantsizio garaiko esku-bideak erdietsi zituen belaunaldi ameslaria dira. Beraz, esan

dezakegu geure iruditeria kolektiboan diren zaharrek eta egungoek zerikusi gutxi dutela euren artean.

Gai honen bueltan lanean daramatzagun urte luze hauen ostean, zalantzarik gabe azpimarra dezakegu zahartzaroaren unibertsoaren inguruan ezjakintasun ugari egon ohi dela, mito anitz orokorrean, eta soilik kezka azpimarratzen dituen ikuspegi negatibista. Goazen, beraz, planteaturiko galderen erantzun bidean, lehen urrats gisara, zahartze prozesuak XXI. mendean dituen ezaugarriak hezurmamitzera. Ostera, egungo erronken aurrean plazaratzen dabiltzan eredu kolaboratiboetako bat aurkeztuko dugu, eta, azkenik, abagune honetan bizi ditugun erronkak eta hausnarketak kokatuko ditugu, hausnarketa kolektiboa mugarri izanik.

## Zahartzaroa XXI. mendean

Parametro demografikoetatik hasiz gero, ikuspegi kuantitatibo batetik, egun, izadiaren historia laburrean izandako agertoki demografiko ezberdinean kokatzen garela baieztatu genezake. Datuak dantzan, lehen aldiz 65 urtetik gorako pertsona taldeen ehuneko demografikoek 18 urtetik beheragokoen ehunekoak gaindituko dituztela aurreikusten da hemendik urte gutxietara. Eustaten arabera, abagunerik hoberenean, 2050eko agertokian, 65 urtetik gorakoek hazkunde demografikoa %32koa izango da; ahots kritikoen artean, adituak ehunekoa bikoizteaz ere mintzo dira. Parametro internazionaleri erreparatuz gero, egoera horrek ez du inbertitzeko zerumugarik; *Munduko populazioaren egoera, 2014* txostenaren arabera, Espainiako Estatua dugu, Japonia eta Esloveniarekin batera, mundu mailako hirugarren populaziorik zaharkituena.

Fenomeno horri *jendarte zaharkitu* terminoa egotzi zaio, eta iraultza demografiko batez mintzo garela esan ohi da. Izan ere, orain artean bizi izan ditugun jendarte parametroak (ekonomikoak, estetikoak, zaintza egiturazkoak, kulturalak...) eraldatuko ditu aipaturiko agertoki berriak.



Iraultza horrek badu, ordea, ironia multzo txiki bat bere baitan atxikita, inoiz izandako jendarte zaharkituenaren aroan, zaharrak bazterkeria eta errefus sozial handiena bizitzen ari baitira. Hau da, gaztetasuna inoiz baino gehiago gorai patzen den une historiko eta kulturalean bizi gara, zahartzaroa gaixotasunarekin, autonomia galerarekin, ezkutatu beharreko lotsa eta menpekotasun egoerekin... lotzen da iruditeria horretan. Errefus eta bazterkeria sozial horri *adinkeria* (*ageism*) terminoa ipini zion Robert Butler adituak (Butler 1969).

Adinkeriak azal ilun ugari ditu bere baitan, ez baita soilik jendarteak zahar izateagatik *zama sozial* gisara atzematen duela gizabanakoa, baizik eta norberak bere zahartze prozesuarekiko bazterkeria eta errefusa biziko dituela, nazka, beldur eta lotsa egoeretan hezurramituz hura.

Adinkeria horren adibiderik argiena pertsona heldu askok *mantra* gisara errepikatu ohi duten «ni gazte sentitzen naiz oraindik» leloa dugu. Txan-txa eta erreklamo artean nabigatzen duen diskurtsoa da, bere baitan «gazte gisara trata nazazu» eskatzen duena, hots, *ez nazazu infantilizatu* edota *ni ez naiz zama bat* esaldiak ezkututzen dituen bere mui-nean. Zahartzaro-egoera bizi eredu, eskubide eta jokamolde batzuen *gabetzearekin* lotzen dela aditzera ematen duen mantra da, zalantzarik gabe.

Gainera, datorkigun jendarte zaharkituenaren bestelako ironiatxo bat kokatze aldera, pertsona gazte-heldu banaketa geografikoaz hitz egin beharko dugu laburki. Izan ere, Sergio del Molino (2017) erreportariak *Espainia huts eta Espainia betearen* liburuan argi utzi zuen gisara, estatu mailan bizitzen ari den fenomeno sustraitua dugu hori. Laburbilduz,

Inoiz izandako jendarte zaharkituenaren aroan, zaharrak bazterkeria eta errefus sozial handiena bizitzen ari dira. Hau da, gaztetasuna inoiz baino gehiago gorai patzen den une historiko eta kulturalean bizi gara

hiriburu hiperpopulatuak eta landa herrietako populazioaren desertifikazio egoerak nonahi direla aipatzen da bertan. Horren arrazoen artean ditugu azken hamarkadetako politika espekulatzailak, herrietako garraio eta zerbitzu publikoen (eskolak, ospitaleak, aisialdia...) berariazko prekarizazio politikak eta krisi ekonomikoa, besteak beste.

Erkidego zaharkituenen artean kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoa egun, Asturias, Gaztela eta Leon, Aragoi eta Kantabriarekin batera, 65 urtetik gorakoen ehunekoak populazio osoaren %21 gaindituz. Landa herri horietan (2.000 biztanletik beherako herrietan), proportzionalki zahar kopurua handiagoa da, populazioaren %28,3. Beraz, ezinbestean geure errealitateari zuzenean loturiko problematika dugula ondoriozta dezakegu.

Edozein kasutan, herrietan zaharrak proportzionalki gehiago badira ere, zahar gehien dituzten eremuak hiriburuak dira, Madril etaartzelona izanik horietan erreferente (Abellán *et al.* 2018). Azken datu horrek erronka nabarmenak zabalitzen ditu parez pare; izan ere, hiriak dira zahartzaroari eta zaintzari begira dauden ingurune uher handienak. Argazkia guztiz distopikoa da kasu horietan: kaleek oztopo arkitetktoniko ugari dituzte; autoaren hegemonia oinezkoaren kaltetan nabarmena da, soilik oinezkoentzako diren kaleak estuak izanik eta guztiz peatonalizaturiko eremuak orokorrean adurrak izan ohi direlarik; maiz, zebra bideak eta kaleak ez daude diseinaturik pausoak motel ematen dituzten hiritarrentzat; kutsadura tasak (soinu eta arnas kutsadurak) altuak dira; eta isolamendu zein bakardade ez-hautatuen egoerak larriak dira hiriburu horietan.

Azkenik, adinkeriaaren bestelako ezaugarri bat jaso nahiko genuke, XXI. mendean zahartzaroa nolakoa den kokatu ahal izateko: zaharrek ekonomian duten paperaren ezaugarria, hain zuzen ere. Maiz, *ekonomia zaharkituaz* hitz egiten denean, alarmek eztanda egin ohi dute; zahartzaroa pentsioetarako dagoen diru gabeziarekin, ogasunean suposatzen duen eragin negatiboarekin edota gizarte segurantzian dakartzan

kode erraldoiekin lotzen da, pertsona helduak momentu oro ekonomian *kostu* gisara irudikatuz.

Badira hainbat eta hainbat ahots, ordea, irudi horren deseraikuntzan lanean dihardutenak, besteak beste eta akasogure testuinguruan esanguratsuenak, María Ángeles Durán ikerlari eta ekonomista feminista. Bere lan erreferenteetako batean (Durán 2014), pertsona helduek familia ereduetan duten paper ekonomiko aktiboa azaleratu zuen. Adibide bat ipintze aldera, soilik parametro monetarioetan, pentsio kontributiboetatik eta ez-kontributiboetatik bizi diren familia unitateak –nagusiki jubilaziotik, baina baita ere alarguntza, menpekotasun egoerak eta bestelako kasuak aintzat hartuz– Espainiako Estatuan 2012an %32,68 zirela azaleratu zen. Horietan, gainera, adin guztietako populazioaren %25,7 bizi zen, hots, ez ziren zaharrez osaturiko familia unitateak soilik.

Era berean, atal monetarioa alde batera utziz eta zaintza lanetan murgilduz, Sociedad Española de Geriatria y Gerontología elkartearen arabera (SEGG 2014), estatu mailan aitona-amonek batez beste sei ordu eskaintzen dizkiote egunean bilobak zaintzeari, alta, maiz, haur horien gurasoek baino denbora gehiago dedikatuz txikien zaintza eta heziketari. Aitona-amonen zaintza lan horiei esker, seme-alabak dituzten familia unitateek aurrezpen ekonomiko handia izan dezakete, ez baitute lan horiek kontratatzeko beharrik izanen.

Askok, halako datuen aurrean, pertsona helduek duten «lan boluntario eta maitekorraz» hitz egiten dute, baita lan ordu horiek pertsona helduen osasunari eta poztasunari egiten dioten ekarpena ere goraipatuz. Errealitatea, ordea, bestelakoa da; izan ere, astean sei orduko lan jardunaldi derrigorrezko horrek elkartasunez estali ohi ditu maiz zaintza lan jardunaldi intentsibo eta erregulatu gabeak diren dinamikak. Erregulazio ezak eta maitasunaren izenean egiten diren jardueren argudioek desbideratu egiten dituzte bi eztabaida gako: lehenik, *bizitza eta enpleguaren arteko kontziliazio-ardura kolektibo horien pribatizazioaren eztabaida* dugu, pertsona helduen bizkar gainean ipiniz kontziliazioaren ustezko erresoluzioa,

eta ez, aldiz, administrazio publikoen, enpresen eta gurasoen arteko akordioen gain. Bigarrenik, zaintza lan horietan dabil-tzan pertsona zaharren lan eskubideen eztabaida dugu, lan ordu arautuen zein oporraldien eztabaidak barnebiltzen di-tuena. Aitona-amonak diren pertsonen egunerokotasunaren argazkia ezaguna eta, era berean, gordina dugu:

Haurra sukarrarekin altxatzen den kasuen %49etan amonak dira zaintzeaz arduratzen direnak. Haurrak oporretan direnean eta beraien amek lan egin behar dutenetan, kasuen %53etan aitona-amonak dira horietaz arduratzen direnak; kasuen %18etan aitona-amonak dira haurtzaindegira eramaten dituztenak eta baita %25etan jasotzen dituztenak ere (Bernal 2012).

Informazio horrek ikuskatzen du nola banatzen diren zain-tzak gurea bezalako *ongizate estatu familistetan*. Argazkiaren irudi osoa barnebiltzeko, ordea, beste bi pieza falta zaizkigu puzzlearen amaieran. Lehena Entitats Catalanes d'Acció So-cial elkarteak eskaintzen digu: 2016ko *Gente mayor: Pobreza y vulnerabilidad* ikerketan aipatzen denez, populazio zaharraren %60ek zailtasun ugari dituzte hilabete amaierara heldu ahal izateko, eta %40ek soilik dute Lanbide Arteko Gutxieneko Sol-

data jubilazio prestazioan. Era berean, ikerketak azaleratzen du lau pertsona heldutik hiruk beren seme-alabak ekonomi-koki laguntzen dituztela, zaha-rren egoera ekonomikoaren prekarizazio maila areagotuz.

Puzzlearen azken pieza zain-tzailearen irudiari egotzi behar diogu. Izan ere, zahartzaroak berez emakumezko gorputza du, horiek baitira gehien bizi direnak eta beraz zaharren po-pulazioetan genero-tasa altue-nak osatzen dituztenak; ema-kumezko zaharrek bere baitan


Zahartzaroak berez emakumezko gorputza du, horiek baitira zaharren populazioetan genero-tasa altuenak osatzen dituztenak; emakumezko zaharrek bere baitan ezaugarri propio nabarmen bat dute taupaka: zaintzailearen rola

ezaugarri propio nabarmen bat dute taupaka: zaintzailearen rola.

Zaintzak eta zaintzailearen rola zahartzaroa guztiz hezur-mamitzen du bizi fase honetan. Lehenik eta behin, historikoki emakumeak geure gizarte patriarkaletan izandako zaintzaile rola dela medio (Borderías, Carrasco eta Alemany 1994; Arbaiza 2000; Pérez de Orozco 2014), familiako zaintzen arduradun nagusi bilakatzen dira ezinbestean emakumezko zaharrak. Bigarrenik, zahartuz doazen heinean ere zainduak izateko beharra izango dute; eta hona hemen erronka handienetako bat: izan ere, *nola zaintzen da zaintzailea?*

Datu mardulen arabera, 45 eta 65 urte arteko emakumeak dira zaharren zaintza lan guztien %50ez arduratzen direnak geure gizartean, orduetan neurtu diren ikerketen arabera (CSIC 2018). Aurreko galderari erantzunez, kasu gehienetan emakume heldu horiek beste emakume heldu batzuek zaintzen dituzte; kasuen %42,7etan, beraien alabak dira zaintza lan horien emaille nagusiak. Gizon zaharren kasuan, zaintza emaille nagusia emaztea dugu, %40,8etan; alaba, ostera, %26,6etan. Beraz, zaintza horien protagonista orokorrak Espainiako Estatuan *emazteak eta alabak* direla baieztatu dezakegu.

Zaintzaileen banaketa sexu-generoaren arabera (2018)



Iturria: Abellán et al. (2018). Jatorria: CIS (2014): Estudio 3.009. Cuidados a dependientes.

Aipaturiko guztiaren ostean, ondoriozta genezake, batetik, egun zahartze prozesua adinkeria trinko batean murgildurik dagoela. Bigarrenik, adinkeria egoera horren ondorioz, zahartze prozesu eta ezaugarrien errealitatea aurreiritzi eta estigmez gainezka dagoela. Hirugarrenik, pertsona zaharrak ekonomian eta zaintza lanetan orokorrean paper aktiboa eta ezinbestekoa betetzen ari direla. Ezaugarri horiek guztiak kontuan izanik, *zer egin abagune honetan?* kolektiboki egin beharreko galdera dugula deritzogu.

## **Abagune honetan zer? Etxebizitza kolaboratiboak eta zahartze aktibista**

Aurkeztu berri dugun abagune honen aurrean hamaika aterabide sortzen ari dira, nagusiki, gizarte mugimendutik. Testu honen baitan jasoko duguna zaharren etxebizitza kolaboratiboena izango den arren, azpimarratu nahiko genuke beste hamaika aukera ere badirela, adibidez, egun burutzen ari diren jubilatuen manifestazio masiboak edota M-15etik sortu zen Yayoflauten mugimendua, besteak beste. Gure kasuan, ordea, azken lau urteetan etxebizitza kolaboratiboen eta zaharren ahalduentzen tailer, ikerkuntza zein gidaritzetatik jo izan dugunez, horiek izango ditugu hizpide *Arquitecturas del cuidado. Viviendas colaborativas y envejecimiento activista* liburuan (Mogollón eta Fernández 2018). Bertan, European zehar aztertutako hemeretzi etxebizitza kolaboratibo jaso dira. Danimarka, Alemania, Suedia eta Frantzia izan ziren aztertu genituen lurraldeak; horietan hamaika proiektu ikeritu genituen, tamaina eta ezaugarri anitzetakoak: batzuetan 22 pertsona soilik bizi ziren, beste batzuetan 300 bizilagun ziren proiektuan; batzuk 65 urtetik gorakoentzat ziren soilik, beste batzuk, aldiz, belaunaldiartekoak; batzuk emakumezko proiektuak ziren soilik, beste batzuetan genero mistoak onartzen ziren; batzuk hirietan kokatuak, besteak landa eremuetan; batzuk etxe bloke bakarrekoak, besteak txalet formatudunak. Esan bezala, hamaika aukera jorratu nahi izan

ziren, aniztasunetik, bidaia guztian zehar gainean eraman-  
dako galderak erantzuteko aukera izango genuelakoan. Egin-  
dako ikerketa-bidaiaren nondik norakoak kokatze aldera:

#### Zaintza Arkitekturaren bidaia



Iturria: Mogollón eta Fernández (2019).

Etxebizitza kolaboratiboak 70eko hamarkadatik hona sortu diren habitat proiektu komunak dira. Etxebizitza komunitarioak, kolaboratiboak, *cohousing*-ak, *senior-cohousing*-ak, etxebizitza mutualistak..., hamaika izen ipini ohi dizkiete tradizio eta jatorri kulturalaren arabera. Baina, orokorrean, ezaugarri konpartitu hauek dituzten etxebizitza ereduak dira.

Bertan bizi den pertsona edo familia unitate bakoitzak espazio pribatu/etxe/pisu propio bat dauka, sukalde, komun, egongela eta gela bat edo gehiagorekin, beharraren arabera. Etxe pribatu horiek metro karratu gutxiko unitateak dira; ohikoena 45 eta 60 m<sup>2</sup> artean izaten da, eta horietatik ateratzen diren metroak espazio komunari eskaintzen zaizkio. Horrela, kolektiboki eremu konpartituak izan ditzakete; egunerokotasuneko hainbat alor konpartitzeko joera eratzen da eraikinaren bitartez: adibidez, sukaldea, egongela, kiroldegia, zinema foruma, lorategia edota saunak partekatuz, besteak beste. Orokorrean,

etxebizitza eredu horietan hainbat alor konpartitzen dira: aisialdiko jarduera batzuk (astean behineko zinema, mendi irteerak, jolasak, kirola...), egunerokotasunaren koordinazio eta antolaketa bilerak, eta beste hainbat jarduera, adibidez, asteen bi egunez afari kolektiboak. Delako espazio komun horiek espazio publikoaren eta espazio pribatuaren artean kokatzen diren *erdibideko espazioak* (Rodera Martínez 2015) ditugu. Horietan, elkartasun eta zaintza jarduerak burutzen dira, eremu publikoaren anonimotasuna eta eremu pribatuaren familia hertsiairen egituraren amildegia saihestuz.

Horrenbestez, baiezkoa eman ziguten proiektuak bisitazterakoan, fitxa tekniko bati heldu nahi izan genion, bidaian egon zitezkeen hamaika estimuluak neutralizatzeko aldera. Izan ere, herrialde ezezagunetara gindoazen, kultura eta hizkuntza (daniera, ingelesa, suediera, frantsesa) arrotzekin, eta proiektu oso ezberdin zein ikusgarriak izanik, nonahi zeuden estetikarengatik txundituak izateko eta muinean zeuden ezaugarriak ez jasotzeko arriskuak.

Etxebizitza kolaboratiboen ezaugarri ikonoak

Generoaren arabera	 Emakumezkoak soilik	 Mistoak	
Adinaren arabera	 40 urtetik gorakoak	 55 urtetik gorakoak	 Belaunaldi-arteak
Jabego ereduaren arabera	 Jabego pribatu indibiduala	 Inbertsore jabego pribatua	 Jabego kooperatiboa
	 Jabego publikoa	 Jabego mistoa	
Eredu juridikoa	 Irabazi asmorik gabeko elkarte	 Elkarte kooperatiboa	 Fundazioa
	 Elkarte ekonomikoa		

Iturria: Mogollón eta Fernández (2019).



Hargatik, aurrez diseinaturiko gure fitxak ezinbesteko tresna metodologikoak izan ziren. Horietan bete beharreko lehen urratsa ondoren sortu genituen ikonoena izan zen.

Behin horien muinezko ezaugarriak jasota, proiektueta-  
ra joan eta horiek aztertzeari ekin genion. Sortutako fitxek  
ezaugarri multzo bati erantzuteko beharra zuten; Helen Jarvis  
(2015) ikerlariaren kontzeptu batetik abiatuta, hura gure beha-  
rretara moldatu eta ‘azpiegitura bigun eta gogorraren’ kontzep-  
tuak sortu genituen. Orain, la-  
bur, fitxaren nondik norakoak  
azalduko ditugu, gerora, etxebi-  
zitza kolaboratiboen nazioarte-  
ko proiektu erreferente batzuk  
zuzenean aurkeztu ahal izateko.

Gure aburuz, bi ezaugarri  
horien konbinazioak eskain-  
tzen digu zinez taldearen non-  
dik norakoen informazioa eta  
koherentzia maila. Izan ere, ba-  
tzuetan, diskurtsiboki eta ideo-

logikoki dagoen kontsentsu sortatik praktikan gertatzen diren  
egunerokotasuneko errealitate materialetarako jauzia handie-  
gia da, eta diskurtsoak praktiketan gertatzen diren errealita-  
teak estal ditzake. Hutsune horiek saihesteko, bi dimentsioak,  
azpiegitura biguna eta gogorra, arkitektonikoa eta soziologi-  
koa, batu nahi izan ditugu zaintza arkitekturen ikuspegian.

Datozen lerroetan, fitxan diren kontzeptuen edukiak de-  
finituko ditugu laburki, kasuen deskribapenarekin jarraitu  
ahal izateko. Bistan den bezala, proiektuen fitxa bitan bana-  
turik agertzen da. Batetik, *azpiegitura gogorra* dugu: zenba-  
kigarria den informazioa jasotzen du, espazioaren ezaugarri  
materialak, ezaugarri juridikoak eta ezaugarri ekonomikoak,  
hurrenez hurren. Bestetik, *azpiegitura biguna* dugu: kuantifi-  
katzen hain errazak ez diren ezaugarri kolektiboak genituzke,  
taldearen balio sistema, antolakuntza eredua, protokoloak,  
zaintza eskalak..., besteak beste.

‘Azpiegitura bigun’ eta  
‘azpiegitura gogorraren’  
kontzeptuen  
konbinazioak eskaintzen  
digu zinez taldearen  
nondik norakoen  
informazioa eta  
koherentzia maila

## Zaintza arkitekturei hurbilpena

### *Etxebizitza kolaboratiboen izena*

Kontaktua: etxebizitza kolaboratiboaren helbide fisikoa eta digitala

#### *Azpiegitura gogorra*

<i>Etxebizitzak</i>	Etxearen ezaugarri arkitektonikoak; gela, tamaina, kokapena eta metro kopurua
<i>Espazio komunak</i>	Espazio komunaren ezaugarriak, kokapena eta espazio motak
<i>Eremu pribatu eta kolektiboaren arteko ratioa (m<sup>2</sup>)</i>	m <sup>2</sup> kolektiboak / m <sup>2</sup> pribatuak
<i>Pribatu eta komunaren arteko harremana</i>	Eremu pribatu eta publikoaren arteko banaketa eta trantsizioak
<i>Kostu ekonomikoa</i>	Zenbat euro kostatu zuen eraikinak eta zenbat kostatzen duen hilabetero alokairuak
<i>Jabegoa</i>	Jabego mota, goiko ikonoen arabera
<i>Finantziazioa</i>	Finantziazio mota, goiko ikonoen arabera
<i>Diru sarrerak</i>	Kolektiboki nolabaiteko diru sarrerarik ba ote duen
<i>Banaketa sozialerako neurriak</i>	Egoera ekonomiko prekarioagoan dauden pertsonen inklusio mekanismorik ba ote den

#### *Azpiegitura biguna*

<i>Antolakuntza sistema</i>	Zer egitura klaseren bidez antolatzen den taldea
<i>Lan eta jarduera kolektiboak</i>	Zer jarduera kolektibo eta zer lan kolektibo dituzten
<i>Protokoloak</i>	Sarrera/irteera, gatazka... kasu zehatzetan ea protokolorik baden
<i>Erabakitze prozedura</i>	Kontsentsuzkoa, bozketa bidezkoa, gehiengo bidez...
<i>Zaintza tipologia</i>	<i>Kopresentzia:</i> egunerokotasunaren harremantzetik sortzen den zaintza mota <i>Aitortza soziala:</i> beste pertsonak entzuetetik eta entzuna izatetik sortzen den zaintza mota <i>Bizitzaren antolamendua:</i> bizi antolaketaren arduretan laguntzetik sortzen den zaintza mota <i>Zaintza puntualak:</i> gaixotasun edo behar puntualak <i>Zaintza intentsiboak:</i> gaixotasun edo behar kronikoak, epe luzekoak... <i>Zaintza globalak:</i> ama lurrari eta etorkizuneko belaunaldiari egiten zaien legatua
<i>Zaintza tresnak eta kostuak</i>	Zaintza errazteko dauden teknologiak eta zaintzaren gainean dauden kostu monetario eta emozionalen inguruko informazioa

## Nazioarteko ereduak eztabaidagai

Mundu mailan ezagunak ziren eredu erreferenteen azterketak geure errealitatetik aldendu eta beste aukera batzuk ikertze-ko abagunea eskaintzen digu. Espazioaren mugak direla-eta, aurkeztu nahiko genituzkeen hamaika eredutatik soilik etxebizitza kolaboratibo bat jasotzeko beta izango dugu. Landuko dugun ereduak Danimarkan kokatzen da; orain dela hemeretzi urte eraiki zen, Munksøgård du izena eta badu berezitasun nabarmen bat: etxebizitza kolaboratiboan eremuan kausitzen diren gako gatazkatsuenak aurrez hausnartu eta praktikoki konpondu ahal izan dituen proiektu interesgarrienetako bat da. Danimarkan kokatu izana ez da, gainera, kontu hutsala; izan ere, ezin da ahantzi Danimarkan populazioaren %1 etxebizitza kolaboratiboetan bizi delako datu esanguratsua (Vestbro 2010). Proiektuaren fitxa landuko dugu datozen lerroetan:

### *Munksøgård 2000*

Roskilde 4000, Danimarka

[www.munksoegaard.dk](http://www.munksoegaard.dk)



250 pertsona, bost kategoriatan banatuta: gazteak (31 urte arte), familiak, Anel, jabego pribatua eta zaharrak (65etik gora)

### *Azpiegitura gogorra*

*Txalet moduko etxe baxuak dira, partzela erraldoi batean bost azpi plazatan bateratuak.*

*Etxebizitzak* Tamaina ezberdinak konbinatzen ditu. Apartamentu batzuek 45 m<sup>2</sup> dituzte, ikasleentzako eginak. Beste batzuk, pertsona zaharren eraikinean (*senior-cohousing*) kokatuak, 50 m<sup>2</sup>-koak dira. Azkenik, familiei zuzenduriko apartamentuak daude, 150 m<sup>2</sup> arte dituztenak.

*Espazio komunak* 3.500 m<sup>2</sup> ditu eraikiak, bost etxe komunitario ezberdinetan banatuta, azpiplaza bakoitzeko bana. Espazio komunak: abeltzaintza gune komuna, bizikleta gunea, tailerrak, gonbidatu eremua, animalientzako espazioa (zalditegia, besteak beste). Konpostagune komunitarioa, ur tratamendu sistema propioa, biomasa berogailu zentralizatua, auto konpartitu sistema (*car-sharing*) eta baratze komunitarioak (100.000 m<sup>2</sup>).

## Zaintza arkitekturei hurbilpena

<i>m<sup>2</sup> komun/m<sup>2</sup> pribatu ratioa</i>	0,1 m <sup>2</sup> komun/m <sup>2</sup> pribatu etxe komunitarioarentzat. 0,2 m <sup>2</sup> komun/m <sup>2</sup> pribatu zerbitzu komunitarioentzat.
<i>Publiko eta pribatuaren arteko harremana</i>	Bi eskala daude: plaza bakoitzak bere baitan duena (bost azpiplaza ditu proiektuak) eta beste plaza komun erraldoi bat. Horri esker, bertako biztanleak, talde txiki batean ego-teaz gain, ostera talde handian ere egon daitezke, eta egon behar dute, kasuak kasu, espazioarteko oreka erraztuz.
<i>Kostu ekonomikoa</i>	Batzuek etxebizitza erositu dute, beste hainbat alokairuan daude. Baina informazio hori ez dago eskuragarri. Inguruko udalerriek administratiboki proiektua egikaritzeko prozedura erraztu zuten.
<i>Jabegoa</i>	Hainbat eredu: Andel (jabego pribatua, udalaren laguntza txiki batekin), jabego pribatua eta Almene (jabego kooperatiboa, erabilera lagapenean eta finantziario publikoak babestuta).
<i>Finantziarioa</i>	Mistoa: finantziario pribatua, Andel eta Almene.
<i>Diru iturriak</i>	Udalak garbiketa eta mantenu zerbitzuagatik ordainsari txiki bat ematen die.
<i>Banaketa soziala</i>	Aurrekontu komuna. Etxebizitza batzuek babes publikoa dute.

### *Azpiegitura biguna*

<i>Antolakuntza sistema</i>	Urte amaieran asanblada bat daukate. Ostera, lantalde derrigorrezkoak dituzte lan komun erraldoietarako (berogailu sistema, ekonomia...). Aurrekontu komun bat daukate, behar eta lantalde ezberdinen artean banatzen dutena. Etxebizitza plaza bakoitzak, bestalde, berezko antolakuntza berezia du, garbiketa, otordu eta hainbat jarduerentzako. Jardueren kasuan, komunitatea beren plaza artean harreman-tzen da, hainbat aisialdi partekatuz. Azken horiek hautazko antolakuntzak dira; adibidez, zalditegi lantaldea komunitate guztiko pertsonekin egina dago, zaldiekin harremana nahi duen jendea batuz. Antolaketari begira, Intranet eta telefono linea propioa dute. Jardueretan txikienean eta zaharrenean parte hartzen dute, bakoitzak bere aukera eta erritmoekin.
<i>Lan eta jardueren kolektiboak</i>	Biztanle gisara, norberak komunitate-plazan derrigorrezko lan batzuetan parte hartu behar du azpitalde modura. Ostera, talde boluntario batzuk daude. Sukalde komunitarioan as-tean behin parte hartzea ez da derrigorrezkoa, baina sinboli-koki oso garrantzitsua da.
<i>Protokoloak</i>	Komunitatearen parte izateko prozesuan, itxaron zerrenda bat dago; lehentasuna jada komunitatearen parte direnak dute. Adibidez, dibortzioak daudenean komunitatean bertan geratu nahi dutenen kasuetan erantzun ahal izateko. Komu-

	<p>nitateko inork ez badu nahi etxebizitzarik, atzerritarren itxaron zerrendari heltzen zaio. Orduan, hiru prozesu zabal-tzen dira: kafea hartuz, apurka-apurka egunerokotasunaren bizitzaz, gatazkez eta konpromisoez hitz eginez doaz prozesu bakoitzean. Amaieran, astebeteko proba pasatzen dute azken fase gisa, eta ondoren horren arabera egiten dute hautaketa. Orokorrean, sarrera eta irteera protokoloak aplikatzen dira, kasuak kasu.</p>
<i>Erabaki hartzeak</i>	<p>Talde orokor mailan hainbat erabaki hartzen badira ere, oro har azpitalde bakoitzak bere autonomia eta arau propioak ditu sukaldeari, jarduera motei, garbiketari, egunerokotasunari eta abarrei begira.</p>
<i>Zaintza tipologia</i>	<p><i>Kopresentzia:</i> Azpikomunitate edo plazatxoetan diren etxe komunitarioak dira, zalantzarik gabe, komunitatearen egunerokotasunaren bihotza. Azpikomunitate horiek bizi eredu eta beharren arabera eraikita edo banatuta daudenez, kopresentziaren ezaugarri nagusia eskala ezberdinetan banatua izateko aukera da, komunitate erraldoi batean itoa ez sentitzeko aukera eskaintzen baitu.</p> <p><i>Aitortza soziala:</i> Talde baten parte sentitzea, talde nortasuna izatea, luzera begirako proiektu bat izatea, jarduera kolektiboetan zein bileretan entzunak sentitzearen sententzia positiboa.</p> <p><i>Bizi antolamendua:</i> Egunerokotasunaren antolamenduaren ardura azpikomunitateei dagokie; nagusiki, sukaldatzea, astean barneko jarduerak, erosketak, garbiketak eta aisia. Gainontzeko ardurak era pribatuan eramaten dira.</p> <p><i>Zaintza puntualak:</i> Jarduera batzuk burutu ahal izateko, beste azpikomunitateen laguntza dute. Gainera, jarduerak erregulatzeko joera dute: menpekotasun handienak dituztenak lan egiteko aukera gehien dituztenekin jartzen dituzte, taldeak era inklusiboan orekatu ahal izateko.</p> <p><i>Zaintza intentsiboak:</i> Norbera bere kasara antolatzen da halako kasuak daudenean.</p> <p><i>Zaintza globalak:</i> Bizi eredu kolaboratiboan sinisten dute eta horren alde jokatzen dute. Eraikina dagoen zonaldean beste hainbat etxebizitza kolaboratibo ere kokatzen dira. Beren filosofiaren barnean, bizitzak eta ekosistemak sostengarriagoak egitea da xede nagusia, eredu periurbano sostengarriak eraikiz. Isolamendua saihesten dute erreferente errealeta hurbila izaten saiatzeko, hurbil daude unibertsitate campusetik, beste etxebizitza kolaboratiboetatik, hiritik...</p>
<i>Zaintza kostuak eta tresnak</i>	<p>Azpitalde bakoitzaren lanak nahastu egiten dira beren behar sozialekin. Horrek sozializazio maila ezberdinak baimentzen ditu, eta komunitatea bera zaintza-sare gisara jokatzea bakar-</p>

dade ez hautatu, depresio eta okertze kognitiboen aurrean. Espazioak orokorrean oztopo arkitektonikorik gabeak dira, gurgildun aulkientzako irisgarriak eta eserlekuez beteak edozein unetan eseri ahal izateko.

Baina ez dago, horrez gain, zaintzaren bestelako teknologizazioirik: ez larrialdietarako leporik, ez sentsoreekin zabal-tzen den aterik...

Gurgildun aulkiak norbanakoek ordaintzen dituzte, eta oraingo ez dute inor kontratatu (erizainak, sendagileak, irakasleak...) pertsona heldu edo gazteak zaintzeko; denon artean kudeatzen den zerbitzua da. Oro har, gazteen zaintza kudeaketak eta erabakiak espazio formalagoetan hartzen dira, pertsona zaharren beharrezanekin alderatuta.

Ezinbestean, horrelako proiektu erraldoiak ikusita, sortzen zaizkigun lehen duda-mudek zera diote: zerk bereizten du proiektu hori bizilagun-jator talde batetik? Zertan egiten dio ekarpena zaintzaren krisia gaingiditzeari? Zergatik ez dira proiektu guztiak belaunaldiartekoak? Zergatik ez dira denak Andel alokairu sozialdunak? Zer dela-eta daude jabego pribatudunak eta jabego kooperatibodunak proiektu berean bateratuta? Zer zerikusi du horrek zahartze aktibistarekin?

## **Hausnarketak eta eztabaidak**

Zuzenean proiektu horren ondorio eta ezaugarri interesgarrienei heltze aldera, atzematen dugun lehena bost azpikomunitate horien sorrera-arrazoen hausnarketan datza. Izan ere, etxebizitza kolektibo erraldoi horren barnean kolektiboki bizi ahal izateko bost eredu planteatzen dira, eredu ekonomiko, sozial eta bizi-momentuen arabera banatuak.

Batetik, hiru azpikomunitateren kasuan alokairu kooperatiboak ditugu; azpikomunitate horiek bizi-unearen arabera banatuak daude: zaharren komunitatea (65+), gazteen komunitatea (31-) eta udalarekin erabilera lagapena duen eredu mistoarena (belaunaldiartekoa). Ondoren, beste bi komunitateek jabegotza pribatuak dituzte: bata udalaren laguntza apur batekin, hura ere belaunaldiartekoa (Almene); eta bestea familiena, guztiz finantziazio pribatuarekin.

Eredu horrek hainbat aukera eskaintzen ditu, eta baita hainbat egonkortasun/malgutasun maila ere bizi-une ezberdinen arabera, denen bizi erritmoak errespetatu eta era berean bateratu ahal izateko. Gazteen komunitatean, asteazken gauetan kontzertuak egoten dira, bizimodu unibertsitarioa dute eta alokairu eramangarriagoa eta malguagoa dute, luzera begirako konpromisorik gabekoa. Astean bitan egiten dituzte afari kolektiboak, eta, janaria ongi dagoen arren, ez dugu beste munduko menu txundigarrik irudikatu behar. Lorategia bizikletaz betea dago, eta beti dabil jendea hara eta hona bertan.

Pertsona zaharren komunitatea, aldiz, oso zaindua dago, garbia da, lorategi bikaina dauka lorez eta fruta-arbolez gainezka. Astean lau egunetan bazkaltzen dute elkarrekin nahi izanez gero, eta janaria jarduera kultural bat gehiago da bere baitan. Gu egon ginenean, kasu, tribu bikingo baten plater historikoa prestatu zuten, ia lau orduz sukaldatze jardueretan arituz.

Azkenik, familien plaza komuna jostailuz beterik dago, haurrak daude nonahi eta pare bat guraso noizbehinka horiei begira. Jostailuak eta zaratak ere komunak dira, bazkaria astean bitan egiten da, asteburuari begira, eta oso ohikoa izaten da lagunen zelaietan haurrak elkarrekin jolasten izatea, edo etxeko lanak egiten izatea norbaiten etxean.

Proiektu honen adibideari esker, maiz egon ohi den joesra batez hitz egin nahi genuke, nagusiki zaharren etxebizitza kolaboratiboak ikusten direnean jendearen partetik sortu ohi den *errefus narratibaz*: «A, hori ghetto bat da, hobe belaunaldiartekoa bada, horrela elkar lagundu dezakete». Horren inguruan, aipatu beharra dago European sortuz joan

Etxebizitza kolektibo erraldoi horren barnean kolektiboki bizi ahal izateko bost eredu planteatzen dira, eredu ekonomiko, sozial eta bizi-momentuen arabera banatuak

ziren lehen zaharren etxebizitza kolaboratiboak, hala nola Sockenstugan Kollektivhuset suediarra, etxebizitza kolaboratibo mistoetatik bereizi edo *independizatu* ziren zahar taldeek osatu zituztela. Horrek aditzera ematen digu, zalantzarik gabe, halako eredu belaunaldiartekoetan sor daitezkeen arrisku handienen artean taldeko segmentu baten bizi eredu eta beharrak besteen gainetik ipintzearena dela. Izan ere, batez ere seme-alabadun familien kasuan, haurrak beren bizi eredueta *oso espantsiboak* zirela zioten, zaratatsuak, eta dena beraien jostailu, marrazki eta abarrez betetzen amaitzen zutela.

Hargatik, Munksøgårdeko zaharrek argi zuten: «Gustuko dugu hurrez inguraturik egotea, baina gure eremu intimoan eta gure kooperatiban haurrik izan gabe. Gu jada izan ginen guraso, orain aitona-amona izatea tokatzen da» (Munksøgård, 2016). Esaldi horretan aditzera eman nahi dena da aitona-amona posiziotik *haurrekin disfrutatzeko posiziora trantsitatu nahi dela*, zaintza intentsiboak albo batera utziz. Horrelako posizioez jabetu izan ez diren kolektibitate mistoetan, zaharrak gehienetan ez daude kolektibo espezifiko gisara aitortuak, eta denbora aurrera joan ahala adinkeria bizitzen dute, komunitatean aitortza soziala soilik *amonatxo/aitonatxo maitagarriaren* roletik edo *jakintsuaren* rolaren bidez lortuz.

Bestalde, zuzenean zaintzaren parametroez mintzatuz, horren baitan dauden aldaketak azpimarratu nahiko genituzke. Izan ere, espazioaren beraren eraldaketak eta moldaketak, elkar ikusteak eta jarduera komunak nahi adina izatearen abaguneak zaintza sare erraldoia eraikitzen baitu praktikan. Izan ere, espazioa moldatzen denean, elkar topo egiteko eta jarduera komunak egiteko aukera fisikoak sortzen dira. Ondorioz, egunerokotasunean diren harreman sozialak aberastu egiten dira, isolamendua akabatuz eta zaintza sare erraldoiak eraikiz. Haur, heldu, gazte, guraso, alargun..., jendearekin harremanetan egoteak eta, era berean, norberaren etxearen intimotasuna izateak osasun eta egonkortasun emozionalari begira ikaragarriko onura dakarrela diote halako



komunitateetan bizi direnek. Bakardade ez hautatua, isolamendu sentsazioa eta bizitzak gainezka egiten duelako aferak gutxitu egiten omen dira komunitatean. Komunitate-sare horren existentziak, era berean, zaintza puntualei begirako ikaragarritzko laguntza suposatzen du, haurrak parkean zaintzeko txandak dituzte, enpleguan dituzten egoeren nondik norakoez hitz egin dezakete korridoreetan bizilagunekin topo egitean, zaharrak elkarrekin doaz sendagilearengana eta gaixotasunez hitz egiten dute inongo beldurrik gabe, afari eta bazkariekin lagunduz, eta historikoki emakumezkoenak izan diren etxeko lan horien ardura gehienak kolektiboki hartuz.

Orain aipatu dugun guztiarekin ez dugu adierazi nahi komunitatean bizitzea *panazea* moduko bat denik, egoera eta pertsona guztientzako aplikagarria. Toki guztietan bezala, arazoak daude; komunitatean bizitzea ikaspen bat da, gatazka egoten dira eta gure iritziak kolektiboki nola planteatu ere zaila izaten da maiz. Edozein kasutan, gatazka eta arazo horiei aurre egiteko talde dinamikak daude, familia tradizioaletan diren botere harreman eta hierarkia hertsietan ez bezala.

Era berean, orokorrean komunitatearen zaintza gordine-tan ehuneko altu batean emakumeek egoten jarraitzen duten arren, aitortu beharra dago jabekuntza prozesu feminista interesgarria gauzatzen ari dela proiektu horietan, nagusiki orain artean pribatuaren eta publikoaren arteko amildegian ardura kolektiboaren zubia eraikitzeko baliatzen ari denetik. Horrek jarduera askoren aitortza eta birbanaketa kolektibo-a suposatu du, nagusiki garbiketa, zaintza eta sukaldatze jarduerena.

Horregatik, uste dugu hiri eta herrien birplanteamendu politikak egikaritzeko orduan, halako egitura urbano eta sozialatik asko dugula ikasteke. Zalantzarik gabe, egungo eredu industrial eta produktiboetatik bizitzak erdigunean kokatuko dituen eredu sostengarriago eta osasuntsuagoetara jotzea erronka nabarmena izango dugu datozen hamarkadei begira.

Azkenik, zuzenean Euskal Herriari erreparatuz eta testua-ren hasieran planteaturiko agertokia kontuan izanik, hauxe

ondorioztatzen dugu: egon daitezkeen oztopoen artean, familia inguruneak ditugu mugarri handienetako bat. Izan ere, egungo jendartean nagusiki bilobak dituzten pertsona helduek horien heziketan eta beren seme-alaben ekonomia-  
ren sostenguan paper aktiboa dutela ikusi dugu. Beraz, ez da harritzekoa pertsona heldu batek bere etxebizitza saldu eta halako proiektuetara joango dela dioenean hizka-mizka galanta sortzea horren inguruan: «Eta gugan ez al duzu pentsatuko?», «Etxe hori gure herentzia da!», «Nork lagunduko nau txikiekin?» bezalako erretorikak nagusitzea kasu askotan. Horregatik deritzogu ezinbestekoa dela *zahartze aktibotik zahartze aktibistarako jauzia* egitea, halako egoera boikotatzaileak jabekuntza prozesu kolektiboez soilik apurtu baitaitezke, berdinen arteko bizipenak partekatuz eta horiei kolektiboki, lagun artean, aurre eginez. Uste dugu Euskal Herriak badituela, gainera, azpiegitura administratibo eta teknikari ugari udal zein aldundietan lagundu dezaketenak halako proiektuak egikaritzen. Nagusiki, bonifikazio ekonomikoak baino, legedi aldaketak besterik ez dituzte behar proiektu zibil horiek, eraikuntza enpresa erraldoiekin lehia-tu behar ez izateko erraztasun administratiboak ipiniz. 🌿

### **Bibliografia**

- Abellán García, Antonio; Ayala García, Alba; Pérez Díaz, Julio; Pujol Rodríguez, Rogelio (2018): *Un perfil de las personas mayores en España. Indicadores estadísticos básicos*, CSIC - Instituto de Economía, Geografía y Demografía (IEGD).
- Arbaiza, Mercedes (2000): 'La «cuestión social» como cuestión de género. Feminidad y trabajo en España (1860-1930)', *Historia Contemporánea* 21, 395-458.
- Bernal, Manuela (2012): '¿Deben los abuelos cuidar de los nietos?', *ABC*, 2012-03-26 ([www.abc.es/20120323/familia-mayores/abci-abuelos-can-guro-201203231413.html](http://www.abc.es/20120323/familia-mayores/abci-abuelos-can-guro-201203231413.html)); azken kontsulta: 2018-11-02).

- Borderías, Cristina; Carrasco, Cristina; Alemany, Carme (bilk.) (1994): *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*, Bartzelona, Icaria.
- Butler, Robert N. (1969): 'Age-Ism: Another Form of Bigotry', *The Gerontologist* 9/4, 243-246.
- Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina; Torns, Teresa (2011): *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*, Madril, Catarata.
- Del Barrio, Elena; Mayoral, Olga; Sancho, Mayte (2015): *Estudio sobre las condiciones de vida de las personas de 55 y más años en Euskadi*, Gizartea Hobetuz. Documentos de bienestar social 77, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzia.
- Del Molino, Sergio (2017): *La España vacía. Viaje por un país que nunca fue*, Madril, Turner.
- Durán, María Ángeles (2014): *El papel de las personas mayores en la economía de Euskadi*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzia.
- Jarvis, Helen (2015): 'Towards a Deeper Understanding of the Social Architecture of Co-housing: Evidence from the UK, USA and Australia', *Urban Research & Practice* 8/1, 93-105.
- Mogollón, Irati; Fernández, Ana (2019): *Arquitecturas del cuidado. Viviendas colaborativas y envejecimiento activista*, Bartzelona, Icaria.
- Pérez Orozco, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madril, Traficantes de Sueños.
- Rodera Martínez, Paloma (2015): *Lo posmoderno y sus símbolos en la escena de lo cotidiano: Matadero Madrid, escenario teatral de la cultura*. Doktore tesia. Universidad Complutense de Madrid.
- SEGG (2014): 'Los abuelos españoles dedican una media de seis horas diarias al cuidado de sus nietos', 2014-08-01 ([www.segg.es/ciudadania/2014/08/01/los-abuelos-esp%C3%B1oles-dedican-una-media-de-seis-horas-diarias-al-cuidado-de-sus-nietos](http://www.segg.es/ciudadania/2014/08/01/los-abuelos-esp%C3%B1oles-dedican-una-media-de-seis-horas-diarias-al-cuidado-de-sus-nietos); azken kontsulta: 2019-03-12).
- Vestbro, Dick Urban (2010): 'Concepts and Terminology', in Dick Urban Vestbro (arg.): *Living Together - Cohousing Ideas and Realities Around the World*, Stockholm, Division of Urban and Regional Studies - Royal Institute of Technology, 21-30.

# Arkitektura eta sexualitatea

Leire Milikua Larramendi

*Arkitektoa eta unibertsitate espezialista Agroekologian  
eta Genero Berdintasunean*

2016ko urriaren 26tik 2017ko martxoaren 19ra bitartean, Centre de Cultura Contemporània de Barcelona erakundeak (CCCB) 1.000 m<sup>2</sup> desira. *Arkitektura eta sexualitatea* erakusketa jaso zuen. Kultura garaikideari eskainitako zentro berberak ekoitzia, bertako erakusketen burua zen Rosa Ferrék eta Adélaïde de Caters arkitekta egin zituzten komisariotza lanak.

Erakusketaren helburua arkitektoak, artistak, ikertzaileak eta filosofoak biltzea izan zen, arkitekturak eta espazioak desira sexualerako toki bezala duten botere izugarria aztertzeko; baita fenomeno horiek biztanleriaren gaineko botere- eta kontrol-mekanismo papera nola bete duten azaltzeko ere, genero estereotipoak sortuz eta gizarte patriarkala indartuz.

Idatzi honen helburua, aldiz, 1.000 metro karratuko azalera bete eta *Desiraren politikak*<sup>1</sup> jarduera zikloari bide eman zion lan mardul haren gako batzuk euskarara eta gurera ekarri eta hedatzea da: espazioaren, ideologiaren eta jokabideen inguruko hausnarketen ehundurarako beste hari bat.

## Abiapuntua

Komeni da zehaztea non eta noiz kokatzen den aipatutako erakusketak bildutakoa. XVIII. mendean du hasiera, garai hartan hasi baitzen lehenengoz espazioen sexualitatea

baliatzen intimitatearen kontzeptuarekin lotuta. Burgesiaren baitan, bigarren mailako edozein aristokratak omen zuen *petite maison* edo *folie* bat, toki sekretua, basoan galduta, eta leku horietan balio zuen gauza bakarra pasioak jarraitzea ei zen. Eremuari dagokionez, Mendebaldeko jendartean kokatuko litzateke.

Espazioari, berriz, hiru ezaugarri edo ahalmen esleitu zitzaizkion erakusketan, hiru ardatz egituratzaile izango zirenak: boterea adieraztea, desioa bultzatzea eta, aldi berean, jokabideen gaineko kontrola eragitea. Kontrol horren bitartez, sexu-jokabideetan eragitea bilatzen zuten espekulazioak batu ziren, arkitekto, pentsalari zein artistek proposatutakoak, XVIII. mendetik gaur egunera arte.

Has bedi ibilaldia.

## Ledouxen Oikema

Claude-Nicolas Ledoux (1736-1806) Frantziako arkitekto eta hirigileak guztiz sinesten zuen arkitekturak gizartea eraldatzeko eta zorientasuna sortzeko zuen gaitasunean. Zera zioen: «Gobernua egitera ausartzen ez denari, Arkitektoak<sup>2</sup> egingo dio aurre!».

Erregimen zaharraren faboreak zituen bere alde, eta hura erori arte ez zitzaion ez lanik ez aukerarik falta izan. Arc-et-Senansko errege gatzagan<sup>3</sup> eskualdeko gatzaga zaharrak ordezkatzeko proiektua gauzatu zuen, eraikin eta prozesu industrialak bestelako antolakuntza bat jarraituz razionalizatzeko asmoarekin. Bertan, bere hiri idealaren planteamendua partzialki gauzatzeko aukera izan zuen. Modu erradialean antolatu zuen eraikin multzoa, zuzendaritza zentroan, antolaketa eta behaketa teoria garaikideen aitzindari; arkitektoaren arabera, espazioaren kontrola bermatzeko ez ezik, baita begiaren gozamina bermatzeko ere.

Baina planoetan garatutako bere hiri-eredu idealean, lan-tegi, bizitegi eta bestelako azpiegiturez gain, bazeuden pasio eta plazererako etxeak (*Oikema* izenekoak); eta gatzagaren

ondoko Chauzeko basorako ere aurreikusi zuen bat, erdigunetik aparte, eraiki ez zena. Plazererako eta hezkuntza sexualerako gunea zen, harreman irekietarako eta hedonismorako gonbidapena luzatzen zuena, libertinajerakoa; eraikinaren barne banaketak eta antolamenduak berak bertan jazotakoenguruko kontrola ere ahalbidetzen zuen, ordea, zeina (aurrez esan bezala), era berean, plazer iturri zen. Arkitektura-  
ren honako ulermena zekarren: inimizazio errituen agertokia, keinu eta begiraden antolatzailea, diziplinazko begiradatik begirada lizunera (bien arteko muga lausoa zelarrik), modu naturalean bakoitza dibertitzeko tokia.

Ledouxek arkitekturak hartzuna izan behar duela aldarrikatzen zuen, eraikinak barruan zuen hori kanpotik adierazi behar zuela modu agerikoan; eta gero bolumetriari disimulatu zuen arren, falo formakoa izan zen bere plazererako eraikinaren oinplanoko antolaketa. Esan beharra dago, proposamen aurrerakoa izanik ere, planteamendu androzentrista zuela, oinplanoaren formatik harago: plazeraren etxe horien helburua zen gizonezkoei sexuaren perbertsio guztiak erakustea, modu horretan bide zuzena zein zen ikusi/ikas zezaten.

## **Benthamen panoptikoa**

Jeremy Benthamek (1748-1832) garaiko gizartearen kritika erradikala egin zuen, eta hori erreformatzeko proposamen ugari egin. Patriarkatua kritikatu zuen, baita emakumeen desberdinkeria soziala ere. Legeen eta bizi-baldintzen aldaketak aldarrikatu zituen berdintasunaren alde (etxeko lanak emakume eta gizonen artean banatu beharko lirakeela esatera iritsi zen). Askatasun sexualaren defendatzaile sutsua izan zen, eta homosexualitatearen alde ingelesez idatzitako lehen saiakera idatzi zuen. Hala ere, ideia horietako gehienak ez ziren garaian argitaratu, garaikideen onespenezaren beldurrez, eta panoptikoaren asmatzailea izateagatik egin zen ezaguna.

Kartzeletako egoera negargarriak eraman zuen Bentham panoptikoa proposatzera. Bere anaia Samuelek<sup>4</sup> lantegietan langileen koordinazioa eta zainketa optimizatzeko diseinatutako oinplano biribileko antolaketa izan zuen inspirazio iturri: modu kontzentrikoan, leiho bi zituzten gelaxkak planteatu zituen (bat kanporantz eta bestea barrurantz) kartzelak antolatzeko. Zaintzailea erdian egongo zen, eta, horrela, kontraargiak preso zeudenak non eta zertan zebiltzan argi-argi

Fourierrek grinen, zaletasunen eta sexu-manien araberako izaeren barietate zabal baten katalogazioa gauzatu zuen, pertsonak hamabi taldetan sailkatuz

erakutsiko zion; horiek, aldiz, zaintzailea non zegoen ezin zutenez ikusi, begiradapean egotearen ustea bera nahikoa izango zuten begiradapean baleude bezala jarduteko. Beraz, eraikinetik harago zihuan mekanismo bat planteatu zuen, era berean, eraikina zuena birtarteko nagusi. Ondoren, beste hainbat funtziodun eraikineta-

ra aplikatu zen printzipio hori (eskolak, egoitzak...), eta Foucaultek diziplina-gizarteen<sup>5</sup> aitatatzat jo zuen, bioboterearen teknologiaren sortzaile.

Erdiguneko begi(rad)aren ideia horrek eragin zuzena izan zuen kontrolaren eta plazeraren arteko lerro finean, aurreago ikusiko den bezala.

## Fourierren falansterioak

Baina utopia sexual benetan iraultzailea Charles Fourierren (1772-1837) eskutik etorriko litzateke, aurreko autore biak abiapuntutzat hartuta, jakina. Grinen, zaletasunen eta sexu-manien araberako izaeren barietate zabal baten katalogazioa gauzatu zuen, pertsonak hamabi taldetan sailkatuz. Zibilizazioa zazpi fasetan banatu zuen, eta bosgarrenean omen zegoen orduko jendartea: azkena *Harmonia* izango zen. Aro harmonikoan, pultsioak ez lirateke erreprimutuko,

baizik eta pertsonen arteko harremanen erregai eratu luke. *Falansterio* deitu zion aro horren gauzatze materialari.

### **Proposamen espaziala**

Falansterioa amaitu gabeko jauregi bat bezala planteatu zuen Fourierrek, eta bere eraikuntza behin-behinekoa litzateke hasierako saiakeretan, denboran eta aldaketetan oinarritutako esperimientua, malgutasunez eraldatuko zena, komunikazioaren arintasuna eta gorputzen topaketak errazteko sortua. «Falansterioa balio gutxiko materialekin eraiki beharko da, zura, adreiluak eta abar erabiliz. Lehen entsegetan, ezin izango dira zehaztasun osoz definitu sesterio bakoitzerako, tailer, biltegi edo ukuilu bakoitzerako neurri egokienak». Hortaz, falansterioak, hasierako proposamen gisa, laborantzarako egokia litzatekeen eta ura izango lukeen bost kilometro karratuko azalera hartu beharko luke, baso batetik eta hiri handi batetik hurbil.

Behatoki batek, telegrafo batek eta komunikazio-dorre batek koroatuta (erdigunean), hiru solairu eta hiru hegal lituzke eraikinak: bat makineria zatatsuentzat eta haur zatatsuentzat, beste bat jarduera isilentzat eta hirugarrena oturuntzak egiteko eta sexu-bileretarako. Musika, gimnasia eta poesiarako tenplua izango luke, eta beste tenplu bat pertsonaren eta uni-bertsoren batasuna ospatzeko.

Etxeko bizimodu tradizionala suntsituta, helduentzako bizitokiak bigarren eta hirugarren solairuetan egongo lirateke, umeengandik urrun. Antolamendu konposatu eta graduatu bat litzateke, bizi direnen gustuen, eskakizunen eta diru-sarreraren arabera. Erdian, harmonikoen soziabilitate funtzioak garatuko lirateke honako tokietan: liburutegia, jantokiak, tenplua, behatokia, neguko lorategia eta amodiozko topaketarako espazioa.

Galeria-kaleak Harmonia jauregiaren elementu garrantzitsuak ziren: etxebizitzak, baratzeak, areto publikoak eta tailerrak artikulatzeko trantsizio espazioak ziren. Udan aireztatuta eta neguan epel, soziabilitate eta topaketa gune



pribilegiatuak ziren; gizarte eraldaketa-programarekin lotura estua zuten barnealdearen eta kanpoaldearen arteko elementu arkitektoniko horiek.

Jauregi-hiri hori ez litzateke bakarrik eraikin edo eraikinen multzo bat izango, baizik eta bere proiektu politikoaren adierazpen formala, fisikoa.

### **Proposamen politikoa**

Fourierrek proposamen horrekin kontra egin zion gizatasuna kentzen zuen industrializazioari, lanean espezializatzeari, liberalismoari, patriarkatuari, familiari eta monogamiari, askatasun sexualaren, kooperatibismo integralaren, lanaren aniztasunaren, emakumearen askapenaren eta jai-gozamenaren printzipioetan oinarritutako komunitate antolatutak sortuz.

Mugimendu unibertsala eta pasioak arautzen dituen lege bat aurkitu zuela adierazi zuen, Newtonen legeak mundu naturalari nola, giza-ordenari zegokiona.

Lanean zein aisialdian, desira kokatzen zuen jendartearen gobernadore gisa, bien arteko mugak itxuragabetuz eta publikoaren, pribatuaren eta intimoaren gaia birplantatuz. Bere apustua politikoa, ekonomikoa, ekoizpenekoa eta urbanistikoa zen. Komunitate horietan lehiakortasun ekonomikoa abolituta zegoen, ez zegoen ez soldatarik ez jabetza pribaturik.

Fourierrek entretenimendu erotiko-gastrosofikoaren programa proposatu zuen, ordutegi eta protokolo zorrotzekin. Harmonian, loturak sortzea eta harremanak ugaritzeak ez zuen zertan sexu praktikara mugatu, baina sexu-sustapena arlo guztietan agertzen zen eta, beraz, existentzia osoaren arteko konbergentzian kokatzen zen. Sexualitatea bizitza kolektiboan integratuta egongo litzateke, eta erregulatuta. Senar-emazteak desagertu egingo lirатеke, eta, ondorioz, adulterioa ere bai. Monogamia arraroa litzateke, maitasuna pasio konplexua delako: harreman poligamikoak eta omnigamikoak egongo lirатеke, eta maitasun-harreman espiritualeko kuadrillak edo orkestra-loturak. Aitatasun zehaztugabeak

haurren erantzukizun kolektiboa bultzatuko luke. Zahartzaroen edo gaixorik, euren borondatearen kontra sexu-barualdian leudekeenek maitasun karitatiboa praktikatuko luketen boluntario erotikoei esker gozatuko lukete. Harmonian 'guxtieneko sexuala' bermatuta legoke biztanle guztientzat. Sexu harmonikoa ez litzateke gaueko orduetara ezta ugalketara ere mugatuko: egunez egingo litzateke, orgia gastronomikoak bezala, eta funtsezkoak lirateke giroak, eszenaratzeak, erritualak eta kodeak.

Parafilia sexualen esplorazioan aitzindaria izan zen Fourier, eta bere proposamenen horiek estimulatzeko eta taldetan elkartzen ahalegindu zen. Proposamen erradikal hori 1967an berrikusi zen, planteamendu politiko osoa deskribatzen zuen *Le nouveau monde amoureux* argitaratu zelako eklipse luze baten ondoren.

Sexualitatea bizitza kolektiboan integratuta egongo litzateke. Senar-emazteak desagertu egingo lirateke, eta, ondorioz, adulterioa ere bai. Monogamia arraroa litzateke, maitasuna pasio konplexua delako

## Sade, sadismoaren aita

Iruditeria kolektiboan, aski ezaguna den parafilietako bat da sadismoa (horrek izaera sexuala duenean): pertsona bati beste izaki bizidun baten min edo/eta umiliazioak kitzikapen edo plazer sexuala sorrarazten dionean agertzen da.

Sadeko markesak (1740-1814) eman zion izena *Sodomako 120 egunak* liburuan kontatutakoengatik. Guztiz isolatutako Silling gazteluko kontakizunen aretoan 120 egunez eszenaratutako 600 plazer mota deskribatzen dira liburuan, 150 hilabete bakoitzeko, bost eguneko. Pasio sinpleetatik hasi (penetrazio gabeak) eta hilabetez hilabete bortizkeriak gora giten du, pasio konplexuei, kriminalei eta mortalei jarraikiz.

Kontaketa horiek non kontaktzen diren, kontakizunen aretoak, berebiziko garrantzia dauka. Zirkulu erdia eratzen duen planta du. Arkuan lau gelaxka daude, bakoitza bere otomaneekin, eta horien atzean kabinete sekretu bana. Zirkulu erdiaren ardatzaren erdian tronu bat dago, era berean harmaila funtzioa egin dezaketen eskailera-mailez inguratuta, gelaxkak bezala. Tronuaren alde banatan zigor-zutabeak daude, mota guztietako tramankuluekin. Horien presentziak subordinazioa adierazten du, gozamenen psikologian garrantzitsua den faktorea, eta logia masoniko baten eran erritualizatzen du espazioa. Gainera, Sadek munduko detaile guztiak ematen ditu oihal, kolore eta argien inguruan.

Tronuan dagoen pertsonak izan zezakeen Benthamen panoptikoko zaintzailearen papera, baina panoptiko sexualizatu horretan polizia-panoptikoko rola trukatu egiten dira: begiratzearen eta begiratua izatearen esplizitutasuna bilakatzeko da sexu-arau.

Istorioan, narratzaile batek tronua okupatu eta perbertsioen kontaktari ekiten dio gauero, ordu berean. Protagonista diren lau libertinoak beraien gelaxketako otomanetan daude, denak distantzia berera, hitz bat ez galtzeko; zirkulu erdiak, ikusmenaren gozamenaz gain, entzumenarena ere bermatzen du.

Sadek argi eta garbi definitzen du ikus daitekeenaren eta ikusi ezin denaren arteko aldea. Bertan ez dago voyeurismo-rik, mundu guztia da espektakuluaren parte, gozamina libertinoen pribilegioa den arren, eta gainerakoak horien azpian daude. Handizkatutako espazioez gain, non dena esan eta ikusten den, Sadek itzalean eta isilean gelditzen diren gune batzuk gordetzen ditu, eta irakurleak ez du horietara iristerik. Kabinete sekretuetara, libertinoen ganberatxoan, irudimena da muturra sartu eta esan ezin direnetara heldu daitekeen bakarra.

Saderen lanean, itxialdia eta lasaitasuna libertinajearen alderdi ezinbestekoak dira.

## ***Playboy***

Mendez aldatuta, XX. mende erdialdean jaiotako aldizkari ezagun bati erreparatuko zaio ondoren sexualitatearen, arkitekturaren eta diseinuaren arteko harremana harilkatzen jarraitzeko: *Playboy* aldizkaria. Paul B. Preciado filosofo, idazle, ikerlari eta queer ekintzaileak sakon ikertu du harreman hori, eta hala jaso du *Pornotopía. Arquitectura y sexualidad en «Playboy» durante la guerra fría* liburuan. Bere hitzetan, «baliteke Playboyko intsignia zera izatea: gizon bat aldatu nahi baduzu, aldatu apartamentua».

*1.000 m<sup>2</sup> desira* erakusketak ere atal oso bat eskaini zion *Playboy*-ri. Beatriz Colomina arkitekta, historialari eta arkitekturaren teorialaria izan zen komisario-lanak egin zituen. Biek Princetoneko Unibertsitatean kointziditu zuten, Colominaren zuzendaritzapean ikerlari lanetan aritu baitzen Preciado.

## **Sorrera**

Sexualitatea, arkitektura eta diseinua guztiz lotuta daude *Playboy* aldizkarian hasieratik: arkitektura ez zen irudikatzen zen zerbait, bere benetako engranajea zen. Fantasia sexualak eta arkitektonikoak banaezinak ziren.

*Playboy arkitektura* aipatzen denean, barrualdeko espazioei egiten zaie erreferentzia nagusi. *Playboy*-a barruko gizona da, eta aldizkariaren lehenengo zenbakiaren editorialak zioen ez zutela «inolako eragozpenik» esateko. Gizonezkoen beste aldizkari batzuetan, gizonak beti aire zabalean pasatzen omen zuten denbora, sastrakadi arantzatsuetan edo ibaietan. Playboy gizona beste animalia mota bat zen, ordea. Ehiztaria ere bazen, baina bere

Sexualitatea, arkitektura eta diseinua guztiz lotuta daude *Playboy* aldizkarian hasieratik. Fantasia sexualak eta arkitektonikoak banaezinak ziren

habitat naturala hiri-apartamentua zen; horretan aditua zen eta hura etengabe egokitzen zuen *harrapakina* hobeto ehiatzeko. Izan ere, harrapaketa baino gehiago kezkatzen zen amuaz: apartamentua bera zen desiraren xede nagusia. Gaia ikertu dutenen arabera, playboy gizona eta bere aldizkaria arkitektura eta diseinua dira.

Aldizkaria bere lehen zenbakitik zegoen eraikinen barrualdeez eta puntako diseinuko elementuez josita, eta diseinuak zuen rola are nabarmenagoa egin zen bosgarren zenbakian, *konkista arrakastatsu* bat lortzeko gida argitaratu zenean. Apartamentu moderno bateko oinplanoan adierazitako ekin-tzen sekuentzia batean oinarritzen zen gida, bertako banaketak eta altzariak berez sedukzio-dantza koreografiatuko balute bezala. Emandako jarraibideen arabera, playboyak bere biktima oherantz eramateko maniobrak egiten zituen bitartean, apartamentuko xehetasun guztiek eskaintzen zioten sostengua eta laguntza. Ez zen kasualitatea ibilaldia Eero Saarinen-en *Butterfly* aulkiko bihurgune arinekin eta *Womb* besaulkiaren toles sakonetan hasia, *Playboy*-ko aulki enblematikoak biak. Irudi seduzitzaile batzuk eskaintzera mugatu beharrean, sedukzioaren arkitektura aztertzen zuen *Playboy*-k, eta irakurleari erabiltzailearen eskuliburu antzeko bat eskaintzen zion, playboy sofistikatuak diseinu modernoari buruz emakumeei buruz baino gehiago jakin behar izateraino.

Barrualdeekiko debozio horrek 1956ko irailean izan zuen bere puntu gorena *Playboy Penthouse*-rekin: *Playboy* aldizkariak oso-osorik diseinatutako lehen apartamentua, zortzi orrialdetan luxu handiz irudiztatua (ohiko edozein artikulua baino gehiago); aldizkariko hurrengo zenbakian jarraipena izan zuen (sei orrialde). «Etxe gehienak emakumeek dekoratzen dituzte» ideia konbentzionala arbuaiatuz, helburua zalantzarik gabe 'maskulinoa' zen barrualdea sortzea zen: emakumeak sartzen eta irteten ziren artean, altzariak ziren bertan zirautenak. Atiko proposamenarekin batera argitaratutako testuak ez zuen dudarako tokirik uzten:

Gizon guztiek izan nahi dute etxe propioa. Kapela zintzilikatzeko leku bat baino gehiago, gizon orok bere domeinua izatea du amets, berea bakarrik den espazioa. *Playboy*-k goitik behera diseinatu, proiektatu eta dekoratu du hiriko ezkongabearentzako atiko bat: bizitza onaz gozatzen duen gizon bat, arte bizietan aditua, baita janari eta edari kontuetan ere, eta bi sexuekin ondo konpontzen dena. Gizon bat, agian, zure antz handia duena... Eta hemen duzu giltza. Elkarrekin erabil dezagun eta has dezagun aurkikuntza bidaia.

Irudiek etengabeko entretenimendu-paisaia erakusten zuten. Espazio guztiak zehatz-mehatz deskribatzen ziren, eta objektu bakoitza identifikatzen zen, diseinatzailea, fabrikatzailea eta prezioa barne. Etxea gailu elektronikoko eta ikus-entzunezko modernoenez beteta zegoen, eta ingurune hori guztia ohetik kontrola zitekeen, barnealde idealizatuaren epizentrotik. Aldizkariak, seduktore trebea, barruko arkitektura-diseinurik aurreratuenak deskribatzen zuen, «beharbada zure antz handia duen gizon batentzat» pentsatua. Irakurleak edo irakurlearen fantasia zen bezeroa, eta artikuluko lehen orrialdean apartamentuko giltzak eskaintzen zitzaizkion.

Atikoaren artikulua aldizkariaren historiako ezagunena izan zen, erdiko posterretako *playmate*-enak baino gehiago. Arkitektura bilakatu zen playboyaren bizitzan gelditzeko baimena lortu zuen *playmate* bakarra. *Playboy*-k ehunka gutun jaso zituen etxe horri buruzko informazio eta xehetasun gehiago eskatuz eta altzariak non eros zitezkeen galdetuz.

### **Barrualdeetatik etxe osoetara**

Atikoaren artikulua izandako arrakastaren aurrean, aldizkariak asko hedatu zen artikuluko sorta bat hasi zuen: etxe osoak aurkezten zituen bertan, besteak beste, *Weekend Hideaway*, *Playboy Townhouse*, *Playboy Duplex Penthouse*...

*Playboy*-k onargarri bilakatu zuen gizonek interesa izatea arkitekturan eta diseinuan. Idealizatutako barnealde horietako elementuren bat beraien bizitzan sar zezaketela pentsatzera animatzen zituen irakurleak. Horrela, *Playboy*-k objektuak

(garaiko diseinatzaile sofistikatuenenak) gero eta xehetasun gehiagorekin aurkezten zituen artean, fantasia hori elikatu egiten zuten, eta desio zirkulu bat eraiki.

Lehen Playboy-etxeak ezaugarritzen zituen mende erdialdeko Amerikako arkitektura generiko lerrozuzenak muturrekoagoak ziren kontzeptuei eman zien bidea, aldizkaria jada existitzen ziren etxe batzuk «Playboy etxeak» bezala bere-

Kritikarien eta arkitektoen irudimenean eragin handia izan zuen Playboy-k. Ia arkitekto guztiek irakurtzen zuten. Arkitekturaren fantasiatzen sartzea lortu zuen

ganatzen hasi zenean. Eraikita zegoen etxearen geometria ludikoa bilakatu zen diseinuaren bidezko sedukzio-eredu (*The Bubble House, House of the Century...*). Arkitekto esperimental nabarmenek eraikitako eraikin eta barrualdeak bihurtu ziren *Playboy*-ren fantasieren mamia, arkitekturarekin aldi berean sofistikatuz joango zirela ziruditen hainbat ema-

kumetz beterik zeudenak, diseinuak fantasia indartu eta goratuko balu bezala. Eraikin horiek ez zuten jada bizitzeko makinek<sup>6</sup> bezala funtzionatzen, baizik eta seduzitzeko eta desiratzeko makinek bezala: arkitekturak desioa eraikitzeko eta irudikatze aukera ematen zuten.

Aldizkariak bazekien, deskribapena zenbat eta zorrotzagoa izan, orduan eta biziagoa zela irakurleak bertan sartzeko zuen nahia. Mundu mailan lortutako aparteko banaketari esker (bere punturik gorenean, 70eko hamarkadan, zazpi milioi ale saldu zituen) eta arkitekturaren sexualizazioari esker, esan daiteke *Playboy*-k aldizkari espezializatuek, barne-diseinuaren inguruko aldizkariak eta baita New Yorkeko Arte Modernoko Museoak baino arrakasta handiagoa izan zuela diseinu moderno zabaltzerako orduan. Eta, jakina, diseinatzaileak ere aldizkariaren irakurleak ziren. Kritikarien eta arkitektoen irudimenean eragin handia izan zuen aldizkariak. Reyner Banhamen 1960ko adierazpenak («milia

bat egingo nuke herrestan *Playboy*-gatik») belaunaldi baten sentimendua jaso zuen. Ia arkitekto guztiek irakurtzen zuten *Playboy*. Aldizkariak arkitekturaren fantasetan sartzea lortu zuen, Colominaren hitzetan, «ikertu, aztertu eta kritikatu beharko liratekeen metodoak erabiliz».

## **Eta, emakumeak?**

CCCBko erakusketak agerian jartzen du arkitekturaren jarduna gizonen eskuetan egon dela nagusiki, eta, ondorioz, gozamenerako proposatu izan diren espazioak gizonezkoen desira eta fantasetatik abiatuta imajinatu direla. Erakusketan dokumentatutako espazio ez normatibo gehien-gehienek gizonetzkoek pentsatutako iruditeriak dakartzate.

Colominaren aburuz, emakumeak ezbairik gabe egon dira eta badaude; arkitekturaren mamuak deitzen ditu berak, proiektu guztietan parte hartzen dutelako, lantalde guztietan daudelako, baina kasu guztietan lana sinatzen du(t)en gizonetzko(ar)en atzean.

## **Adierazpen kulturalak eta intimitatea**

Argi dagoena hauxe da: bai XVIII. mendeko eleberri batean deskribatutako espazio jakin batek, bai XX. mendeko aldizkarian argitaratutako diseinuzko elementu garaikideez dekoratutako barrualde batek, bere horretan ez liokete zertan desiraren giltzari eragin, gure iruditerian espazio jakin batzuei ekintza/emaitza jakin batzuk ez balitzaizkieke atxikituko. Horren harira, elkarrizketa batean Rosa Ferréri kultura adierazpenek norbanakoen erabaki intimoetan nola eragiten duten galdetuta, zera erantzun zuen:

Fantasiak eraikuntza-kulturalak dira. Frogatuta dago Jessica Lange eta Jack Nicholsonek *Postariak beti birritan deitzen du* pelikulan duten sexu-eszena sutsuaren ondoren (arropa urratu eta mahaiaren gainean etzaten du zer apurtzen duen kontuan izan gabe) instantean bilakatu zela 80ko hamarkadako fantasia espazial bat, adibidez.



## **Sexografiak: pasio garaikideen kartografiak**

Kontuan hartu behar da erakusketak eredu tradizionala hautsi (bikote-harremanak, familia-instituzioa, monogamia...) eta utopia sexualak proposatu zituzten proposamenetan jarri zuela fokua. Baina, oro har, oso gutxi izan dira sexurako espezifikoki asmatu eta sortu diren espazioak, eta are gutxiago eraiki direnak. Egiaz, alderantziz izan da kontua: erabiltzaileak izan dira sexurako espezifikokoak ez ziren espazioak eraldatu dituztenak, erdi publikoak diren espazioetatik hasi (saunak, zenbait klubetako gela ilunak...) eta ordu jakinetan topaleku bilakatzen diren espazio publikoetaraino (parkeak, hondartzak, pixalekuak...).

Ferrék erakusketako katalogoan dio betidanik egon direla hirietan espazio publiko kodifikatuak, zokoratuak edo debekatuak egon diren praktika sexualak izatearen beharretik jaiotakoak; eta argiztapen jakin batek, usainak edo musikak eraiki izan dutela arkitektura informal hori. Bere hitzetan, eguneroko bizitzatik ihes egiteko espazioak dira, irla sexualizatuak non denbora eteten den, Steven Marcus-ek *pornotopiak* deitutakoak.

## **Diskotekak**

Diskotekak edo *rave*-ak dira oso sexualak izan daitezkeen beste espazio batzuk. Pol Esteve arkitektoak dantzaren kulturaren inguruko teknologiek espazioaren sorkuntzan eragin ditzaketan aldaketak ikertu zituen, eta erakusketako atal horren arduraduna izan zen. Haren arabera, soinu- eta argi-teknologien eta teknologia psikotropikoen konbinazioak pertsonen hautematea alda zezakeen gailu arkitektonikoa jarri omen zuen martxan.

60ko hamarkadatik aurrera hedatu zen soinu sintetikoa: ordua arte ezaguna ez zen soinu futurista eta erritmiko hark, nola erreproduzitzen zen, bibrazio biziak proiektatzen zituen; DJ trebeenak gorputzeko parte ezberdinetan eragiteko eran manipulatzeko gai ziren, antza. Neoizko argiak, argi ultramoreak,

laser argiak eta argi estroboskopikoak lehenagotik ezagutzen ziren arren, 70eko hamarkadan hasi ziren espaziora aplikatzen. Hainbat ikerketek argi horien erabilera burmuinak alfa uhinak sortzearekin lotzen zuten, sistema kognitiboa beste dimentsio batera eramateko gaitasunarekin. Gainera, tradizionalki pertsonaia publikoa zen eszenatokian argizatzen zena, ikuslearen gorputz anonimoa ilunpean gelditzen zen bitartean; dantzaren kulturaren ordea, protagonistaren eta ikuslearen gorputzek bat egiten zuten, espazio osoa bilakatzen baitzen eszenatoki, denek jasotzen zituzten argi izpiak eta ilunguneak berdin. Eta substantzia psicotropikoek soinu eta argien eragin eraldatzaileak indartu eta biderkatzen zituzten.

Dantzaleku horietan, gorputzaren gozamina beste plano batzuetara hedatzen zen; sexualitatea sexu-organoetatik gorputzaren gainerako tokietara desplazatu zuten. Ez zen beharrezkoa elkarrekintza fisikoa. Ez zen bikote-sexualitatea, ezta talde txiki batena ere: eredu afektiboak zabaltzen zituen esperientzia erotikoa kolektiboa zen. Esteberen hitzekin jarraituz, maitasuna era abstraktuan egitea bezala. Orgasmo kubista bat.

### **Ziberestesia edo estasi telepatikoa**

Aipatu da XX. mendearren bigarren erdian jada gorpuztasuna arindu eta elkarrekintza fisikoa espazio jakinetan jasotako estimuluek ordezkari zezaketela nolabait, plazer- eta estasi-iturri bezala. Erakusketak espazialtasuna bera ere desagerrarazten zuen proposamen bat agertu zuen: Yann Mihnen *Nooscaphe-X1*. Errealitate birtualean eta estimulazio teledildonikoan guztiz murgiltzera daraman makina baten prototipoa erakutsi zuen. Praktika zibersexualen hiru maila bereizi zituen artistak: zibersexu pasiboa, erdi aktiboa baina gainerako pertsonekin harremanik gabekoa (bideo-jokoan, animazio grafiko interaktiboan edo estimulazio elektromekaniko automatikoan bidez, kasu) eta beste pertsona batzuekiko harremanetan oinarritzen ziren praktika aktiboak. Azken talde horretan, *Second Life* nabarmendu zuen.

Azken urteetan Second Life plataforma bilakatu omen da mania sexualen paradisia sarean. Abatarren bitartez, edozein tabu hausteko gai diren topaketa sexualak antolatzen dira, xehetasun eta zehaztasun handiz irudikatutako espazio birtualetan, fantasien arkitektura propioan. Pertsona batzuek txataren bitartez harremanak dituzten bitartean, beste batzuek begiratu egiten dute.

### **Maitasunaren armada**

Idatzia amaitze aldera, berriro ere espazialtasunera eta batez ere gorpuztasunera itzuliz, erakusketak jaso zuen eta hainbat autoreren ideiak biltzen dituen proiektu bat aipatu nahi da: *Army of Love*.

2012an, Ingo Niermann idazleak, Martti Kalliala arkitektoarekin batera, *Drill Love* proposatu zuen: erakargarritasun, edertasun eta gaztetasun estandarrak (sexualitate garaikidearen ardatzak) betetzen ez zituzten pertsonen arteko topaketei bide emateko espazioa.

Baina, orain, proiektu are anbiziotsuagoa jarri du martxan Niermannek: *Maitasunaren armada*. Alexa Krolinskiarekin elkarlanean, *Army of Love* dokufikzioa ekoiztu du, pertsona guztientzako maitasunaren kanpaina baten hasiera bezala. Adin eta itxura ezberdinetako soldadu erregimentu bat proposatzen du, harreman intimoak izan ezin dituztenen bakardadea den gaixotasun sozialari erremedioa jartzeko. Utopia justizieroa aldarrikatzen dute, eta proiektuaren webgunean ([thearmyoflove.net](http://thearmyoflove.net)) azaltzen dute dena zehatz-mehatz.

Erakusketaren ekintza paraleloetako bat honako hau izan zen: *Army of Love: aurkezpena eta errekrutatze saioa. Workshop-performancea*.<sup>7</sup>

### **Hausnarketak**

Amaitzeko, *Yorokobu* aldizkariak *1.000 m<sup>2</sup> desira* erakusketaren harira Rosa Ferréri egindako elkarrizketa<sup>8</sup> gomendagarritik ateratako ideia batzuk ekarriko dira jarraian.

Gaur egun, espazioak teknologiak sortzen dituela agerikoa dela planteatzen du Ferrék. Ziberespazioa filien meka dela baieztatzen du, bertan mania orok aurkitu dezaketelako beren tokia, beren komunitatea. Erakusketan jaso den bezala, errealitate birtualaren eta estimulazio teledildonikoaren teknologia denbora gutxian aurrez aurreko sexuarekin lehiatu ahal izango duten murgilketa-espazioak sortzen ari da. Horrez gain, topaketetarako aplikazioak espazio bat omen dira bere horretan, ez dira soilik aurrez aurreko topaketetarako tresna bat. Interneteko erabiltzaile askok dekoratzen dituzte beraien profilei dagozkien espazioak erabili/transmititu nahi duten irudi zehatza kontuan hartuz: adibidez, gaur egun toki batzuk beste batzuk baino «instagram-garriagoak» direla aipatzen du, eraikuntza horiei begira.

Internetek eta sare sozialek bizitza pribatuaren irudi saiaturia inposatzen dutela-eta, irudi horien atzetik lan asko dagoela dio: *selfie*-etatik Instagramera, *sexyak* izan eta zoriontasuna erakustera behartuta omen gaude; *sexy* itxura izan behar dugu, XXI. mendeko desira gainerakoen desira izango balitz bezala. Sare sozialen arkitekturak gure bizitza pribatuaren gaineko irudi irreal bat ezartzen du, eta paradoxa interesgarria nabarmentzen du Ferrék gainera, egun milioika norbanakok bilatzen dutelako besteekiko harremana modu pribatuan, baina Internet bezalako testuinguru publikoetan.

Askatasun sexualaren aroan gaudela esan daitekeela dio Ferrék, Mendebaldeko jendartean badirudielako permisibitate jada ez dela harago joate bat, araua baizik. Aldiz, asko liberalizazio sexualaz hitz egiten dute, sexua, egun, kontsumoarekin guztiz lotuta dagoela argudiatuz.

Ferréren iritziz, *sexyak* izan eta zoriontasuna erakustera behartuta gaude, XXI. mendeko desira gainerakoen desira izango balitz bezala. Sare sozialen arkitekturak gure bizitza pribatuaren gaineko irudi irreal bat ezartzen du

Bere aburuz, gorputzaren eta sexualitatearen etorkizuna honakoei oso lotuta egongo da: lanaren etorkizuna, ekoizpena, kontsumoa eta norbere denboraren antolaera. Ferréren arabera, interesgarria litzateke 60ko eta 70eko hamarkadetakako iraultza sexualera itzuli eta orain non gauden ikustea. 60ak ez ziren harreman sexualen askatzea bakarrik izan, antza: izan ere, gorputzek elkar topatzeko denbora bat aldarrikatzen zen orduan. Ferrék galdera hau botatzen du: zein da gaur egun sexu-plazeraren denbora, gure eguneko orduak ekoizpenaren eta kontsumoaren artean banatuta daudenean?

Eta honakoak dira, haren hitzetan, etorkizuneko erronkak: jendartean hainbat espazio sortzea generoen arteko harreman binariotik harago doazenak, betiko errepresentazio nabariak eta botere harremanak erreplikatu ez dituztenak; eta norbere eta besteen gorputzekin bestelako harreman bat eraiki eta ulertzea, iraganarekin zerikusirik ez duten fantasiak sortuz.

Argi dago gure barru, buru eta inguruak zeharkatzen dituztela erronka horiek, eta goitik behera irauli. Hor fokua jarri eta hausnarketarako beta hartzea izan da emandako lehen pausoa. Segi dezagun bidea eginez, ertzak erdigunera ekarriz (Ledoux gogoan), plazeraren izenean. 🌿

### **Oharrak**

1. *Políticas del deseo* 2017ko urtarrilaren 18tik martxoaren 1era bitartean antolatutako ekintza paraleloen zikloa izan zen, *1.000 m<sup>2</sup> de sesera* erakusketaren testuinguruan garatutakoa (ikus <https://labur.eus/zo1bM>; azken kontsulta: 2019-09-06).
2. Arkitekto hitza letra larriz idazten zuen beti.
3. Arkitektoaren esku-hartzea 1982an izendatu zuen Unescok Gizateariaren ondare.
4. Ledouxen lanak ikusita zituen horrek Frantzian, Arc-et-Senansko errege gatzaga, adibidez.
5. *Surveiller et punir. Naissance de la prison* 1975eko liburuan azaldu zuen.
6. Arkitektura modernoaren ordezkari nagusietako bat zen Le Corbusierrek etxebizitza bizitzeko makina bezala definitu zuen («*la machine à habiter*»).
7. Hemen ikusgai: <https://labur.eus/iE01g>
8. Hemen irakurgai: [www.yorokobu.es/influye-espacio-la-sexualidad](http://www.yorokobu.es/influye-espacio-la-sexualidad)

### **Bibliografia**

- Bueno, M. J. (1988): 'El panóptico erótico de Ledoux', *Boletín de Arte* 9, 201-216.
- De Caters, A.; Ferré, R. (2016): *1000 m<sup>2</sup> de deseo. Arquitectura y sexualidad*, Bartzelona, Centre de Cultura Contemporània de Barcelona.
- Fourier, C. (1975): *El nuevo mundo amoroso*, Madril, Fundamentos.
- Preciado, B. (2010): *Pornotopía. Arquitectura y sexualidad en «Playboy» durante la guerra fría*, Bartzelona, Anagrama.
- Sadeko markesa (2009): *Las 120 jornadas de Sodoma o la escuela del libertinaje*, Bartzelona, Tusquets.
- Yorokobu (2016): '¿Cómo influye el espacio en la sexualidad?' ([www.yorokobu.es/influye-espacio-la-sexualidad](http://www.yorokobu.es/influye-espacio-la-sexualidad); azken kontsulta: 2019-09-06).
- Yann Minhen webgune ofiziala: [www.yannminh.org](http://www.yannminh.org) (azken kontsulta: 2019-09-06).

# Kultura afektiboaren arkitektura

Ula Iruretagoiena Busturia

*Arkitektoa eta UPV/EHUko Arkitektura Saileko irakaslea*

## Maitasuna eta arkitektura?

Arkitekto lagunei maitasuna eta arkitektura lotzeko aukeren inguruan galdetuta, gehienek harridura azaltzen dute, irudimen eta asmakizun handiko ariketa baten aurrean jarriko banitu bezala. Gaia lehen aldiz planteatzen denean, maitasunak –indibiduoaren barne-sentipen intentsoa– eta arkitekturak –espazioaren pentsamendu eta materializazioa– izaera dibergenteak dituztela ematen du –lehenak barneranzko zentzua du eta bigarrenak kanporanzkoa–, kamustu ezinezko esparruak direla, alegia.

Baina lotura zailtasun hori arkitekturatik soilik ez, maitasunaren politikari ekiten zaionean espazioak interes eskasa sustatzen du, eztabaida eta gogoetari gutxi eskaintzeko duela sinistuta eta hausnarketa-esparru diziplinariotzat joz. Ziurrenik espaziora jauzia emateak izan duen atzerapenaren arrazoia da maitasunaren inguruko deseraikitze-prozesuak hasia behar zuela aurretiaz. Ematen du, hortaz, iritsi dela sekula agurtu gabeko familiak elkar ezagutzeko momentua. Datozen lerroek orain arte agertutako lotura ezintasuna zirriboratu nahi dute, eta arkitektura diziplinaren zalantzei argibide eman nahi diete, bata eta bestearen artean korapilatu daitezkeen zeharbidetuek, elkargune eta gurutzaketa posibleak bilatuz edota sortuz.

Maitasunaren hausnarketa arkitekturaren analisi-kategoria berria dela esaten ausartuko nintzateke. Gaiaren inguruan aurki daitezkeen hausnarketa eta testu eskasiagatik, euskarri teorikorik ezean, jarraian aurkituko duzuna intuizio ariketa bat da, idazten duenaren unibertsitate-irakasle eta arkitekto esperientziatik eta emakume roletik eratorritako gogoeta eta ondorioztatze pertsonal bat delako. Espazioaren eraikuntza sensibilitatetik maitasunaren politikari zein ekarpen egin dakioken eta espazioaren ikerketaren potentzialitatea baliolan jartzea izan dira testu honen motibazio nagusiak, eta, horretarako, arkitekto baten begiradatik gaiak nola eta non interpelatzen duen, zer mugitzen duen, nora eramaten gaituen, zein egiturarekin egiten duen talka, zer jartzen duen kolokan galderen emaitza da, argitasun-zantzu eta zalantza askoren emaitza-bilduma.

Pentsamendu kritiko arkitektonikoan maitasunari ez zaio eskaini sexualitateari eta generoari eman zaion interesik, haragiaren politikan hutsune nabarmena argitan jartzen duena. Genero ikuspegi feministak bizitza eta pertsona aldarrikatu ditu espazioaren eraikuntzarako, gorputzen behar eta izaera aniztasun, pluralitate eta dibertsitatea aldarrikatuz. Begirada horrek suposatzen duen gerturatze berritzailea ulertzeko, beharrezkoa da esatea arkitekturaren manifestu modernoak gorputz unibertsala eta bizimodu homogeneousatu bat asmatu eta eraiki behar izan duela espazioari 'arrazoizko' ergonomia, neurria eta antolaketa emateko helburuarekin. Ikuspegi feministak salatzen duena da eraikitze modu horrek bazterketa eta menderakuntza egoera aunitz ekartzen dituela eta espazioari forma emateko begirada mugatuegia eta sinplifikatuegia dela. Arkitekturaren oinarriak zehazterakoan gizonezkoek agindu dutenez –klase sozial altuko eta zuriek, gainera–, eta bestelako begirada eta sensibilitateak entzun eta kontsultatu ez direnez, gorputz eta bizimoduen hausnarketan gabezia eta hutsunea dago. Horrek ekarri du espazioaren forma eta antolaketa botere- eta kontrol-gune izatea, edo, beste modu batean esanda, politikarako aztergai kritiko bilakatzea.



Sexualitatea, gorputzaren aferari lotutako ikerketa-lerroa, genero ikuspegiaren funts beretik elikatzen da, gorputza bote-re-harreman eta bazterketa eremua delako salaketaren baitan mugituz. Arkitekturatik sexualitatea aztertu denean, sexuaren praktikorako espazioak nolakoak diren eta sexuaren praktikoraren ulerketa mugatuak espazioaren pentsamenduan dituen ondorioak azalera dira. Sexuak gizentasunaren eraikuntzan duen berebiziko balioagatik eta judutar-kristautasunaren errotutako gizartean izan duen zikintasun eta gaiztakeria izaeragatik, sexu-praktikorako diseinatutako espazioak fantasia sexual eta plazer maskulino hegemonikoen adierazle dira.<sup>1</sup>

Alor horietan aurrerapen eta ekarpen emankorrak gertatu diren arren,<sup>2</sup> oraindik ere haragiaren politikak arkitektura diziplinan gerturatze berria eta marjinala izaten jarraitzen du. Zuzentasun politikoaren diskurtso hutsaletik genero ikuspegiaren problematika hala moduz onartzen den arren, ezer gutxi aldatzeko balio izan du. Euskal unibertsitatean, adibidez, begirada berritzaile horrek sektoriala izaten jarraitzen du, eta ez du arkitekturako hezkuntzan eraldaketa iraultzailerik suposatu, ez eta hausnarketa sakonik eragin ere. Egoera hori egitura baten euskarriak ezbaian jartzeak eragiten dituen erresistentzien azalerapena besterik ez da.

Sexuak eta maitasunak binomio bat osatzen dutela onarpen zabala duenez, sexu eta desira espazioen lanketa kritikoek maitasunaren gaia ere abordatzen dutela esan zitekeen, baina testu honek maitasunaren ideologian tematzeko gogoia du. Horrek esan nahi du, sexua baino gehiago, indibiduen arteko harreman afektibo moduek –sexualak izan edo ez– arkitektura nola baldintzatzen duten ikertu nahi dela –bi

Pentsamendu kritiko arkitektonikoan maitasunari ez zaio eskaini sexualitateari eta generoari eman zaien interesik, haragiaren politikan hutsune nabarmena argitan jartzen duena

ikuspegietatik: arkitekturaren egiletik eta erabiltzaile papere-  
tik-. Maitasunak genero ikuspegi eta sexualitatearekin aman-  
komunean du gorputzaren beharrei arreta jartzen diela eta  
gorputz ezberdinkeriak espazioaren forma eta antolaketa nola  
egituratzen duen eta zein ondorio dituen aztertzeko helburua  
duela. Maitasunak dakarren berritasuna da gizakiok konpar-  
titzen dugun sentipen unibertsal bat dela eta maitasun ideia  
jakin bat gailentzen dela –eraikuntza kultural baten emaitza  
dela, alegia-. Maitasuna intimitateari eta gure erraiekin kon-  
taktuan den eremu bati lotuta dago; maitasunera iristeko, gil-  
tzapeturik dagoen eta irekitzeko baimena eskatu behar den  
ate bat zabaltzeak suposatzen duen mugimendua egin behar  
da. Espazio baten eraikuntzan harreman afektiboak inplika-  
turik direnean, karga emozionala duten eta zaurgarri agertzen  
gaituzten egoerak lan-material bilakatzen dira.

Arkitektura diziplinak maitasunari tarterik dedikatu ez  
izanak badu esplikaziorik. Humanitate, arte eta teknika-  
sunaren erdibidean gelditzen den diziplina izanik, erosoago  
murgiltzen da objektibatu daitezkeen eta neurgarriak diren  
gaietan, eta maitasuna ‘material sentisibleegia’ da, funtzio-  
namendu bat zehaztearekin edo uraren ibilbidea ekiditeko  
egin beharreko operazioarekin alderatzen badugu behintzat.  
Arkitekturari dagozkion arazoen artean daude argiaren sarbi-  
dea zehaztea, espazioen arteko harreman bisualak antolatzea,  
eraikuntza materialen hautaketa egitea; maitasuna zeregi-  
netatik at gelditzeak pertsonalegia delako eta ukigarritasun  
maila txikiegia duelako argudioari erantzuten dio. Baina  
susmoa dut kanporatzearen muinean dagoela diseinatzailea  
bere emozio eta esperientzia intimoekin aritzeko deseroso-  
tasunaren ezkututzea. Maitasunarekiko eraikitako distantzia  
hori gaiak diseinatzailearen gain izan dezakeen interpelazioa-  
ren aurrean babes gisa eta besteekin maitasunaz lasaitasunez  
mintzatzeko zailtasun bezala irakur daiteke.

Arkitekturak, tradizioz gizonak menderatutako dizipli-  
na izanik, maitasuna gai femeninoegia kontsideratzen du  
seguruenik –femenino adjektiboaren konnotazio negatibo

guztiekin-, eta ukatze horrekin batera arkitektura serioagoa eta goratuagoa egiten dela sinisten da, bertikalagoa, alegia. Maitasunaren gaiarekin bakarrik ez, antropologiak, soziologiak eta filosofiak espazioa arakatzen dutenean, arkitekturaren rol teknikoa ezbaian jartzen dute, hormigoi armatuzko paretaren eraikuntzak memoria, identitate, botere-harremnan eta balioztapen kulturekin dituen harremanak agerian utziz. Diziplina arkitektonikoa erasotua sentitzen da nolabait, transbertsalitateak arkitektoaren erabakitze esparrua murriztea eragiten du (beste diziplinen begirada jasotzea muga bezala irakurtzen delako, aberastea ikusi beharrean). Arrakaladura horiek arkitektoaren lanak politika egitearekin duen harremana berrestera datoz.

## **Arkitektura, politikarako tresna**

Egitura, forma, kolore eta ehundura jakin bat duen eraikuntzak arkitektura bat duela diogunean, ukigarria den espazio fisikoaren atzetik murgiltzen diren logika, mekanismo eta pentsamenduez ari gara. Espazio baten eraikuntza erabaki sorta askoren zertze bat da, eta erabaki multzoak pertsonen bizimoduari espazioa emango dion errealitate materiala ulertzeko eta eraikitzeko modu jakin bat deskribatzen du. Hiri baten antolaketan, adibidez, zentroa enparantza, udaletxe eta eliza batek osatzeak –Europako Erdi Aroko erdigune gehienetan bezalaxe– irakurketa bat du, eta zentroa bankuen bulegoetarako haizeorratzek osatzeak –AEBetako eta Kanadako *downtown* gehienetan bezala– beste bat. Erabaki arkitektonikoetan alderdi tekniko eta funtzionalak inplikaturik dira –hirigintza eta eraikuntzako tekniken arabera–, baina badira beste erabaki batzuk hautazko lengoia estetikoa eta ideologikoaren arabera egindakoak direnak. Erabakiak ez dira arkitekto baten eskutik soilik eratortzen, beste eragile askok parte hartzen dutelako kasuaren arabera –politikariek, inbertsoreek, partzela edo higiezinaren jabeek–. Espazioaren forma ez dela inozentea esan nahi da. Horregatik, arkitektura

artefaktu kultural bat dela esaten dugunean, gizartea bizi deneko testuinguru materiala garai bakoitzean gizartearen balioekin eraikitzen dela eta balio eta egiteko moduek kultura bat deskribatzen dutela baieztatu nahi da. Esaterako, gaur eguneko edozein hiri globalizatutan auzo berriak zentroetan eraikitzen direnean edota kale bat frankiziek hartzen dutenean suertatzen den higiezin-eragiketa ekonomikoak ondare arkitektonikoan eta ehundura sozialean eragiten duen sarraskian, kapitalaren itzala sumatzen da, XX. eta XXI. mendeko eraikuntza harrapakariaren seinale historiko direnak.

Gizartearen bizimoduari forma emateko erabakietan arkitektura inplikaturik dagoenez, automatikoki baieztatu dezakegu arkitektura egitea politika egitea dela. Non bizi, zer zerekin erlazionatu eta zer zerekin banatu, nondik sartu, non debekatzen den sarbidea, zer egin ikusgai eta zer ezkutatu, zer eta nondik den zeharkagarria, zein leku lehenesten den eta zein jartzen den bestearen zerbitzupean, zertan dirua inbertitu, non jarri interes berezia, zein erabilerari ematen zaion azalera gehien, zerk osatzen duen zentro bat, nola hierarkizatzen diren espazioak... Errealitate materialaren eta gizartearen

Garai historiko eta kultural bakoitzean gizartearen pentsamoldearen gauzatzea eta konkretizazioa da arkitektura: nolakotasun baten adierazle fisikoa

antolaketa eta bizimoduarekin lotutako galdera horiek arkitekturaren bidez definitzen dira, erabaki guztiekin forma eta egitura bat erdiesten delarik. Arkitektura, eraikuntza sozial eta kulturala izateaz gain, testuala dela esaten da, erabakien espazioratzea irakurgarria eta interpretagarria delako denon begietara. Arkitekturaren izaera ikusgarria eta publikoa as-

kotan erabili izan da sinbolismoz josteko; horren argibide, enparantza baten zentroan eta kale guztien bukaera-fokuan agintari baten eskultura kokatzeko erabakian dagoen adierazkortasuna.

Garai historiko eta kultural bakoitzean gizartearen pentsamoldearen gauzatzea eta konkretizazioa da arkitektura: nolakotasun baten adierazle fisikoa. Horrek arkitekturari interes boteretsua eskaintzen dio, froga-agiri bezala funtziona deza-keelako. Hau da, ebidentzia-gorputza da, aztarna bat, arrasto bat.<sup>3</sup> Pentsamendu, bizimodu eta patroi kulturalen adierazle den espazioa, denboran zehar mantentzen denez –eraldaketak jaso ditzakeen arren–, arkeologia-erakusle gisa ere balio lezake. Arkitektura, botere gertakizunak, bazterketa egoerak eta biolentzia-guneak salatzeko bidea izan daitekeen bezala, errealitatea eraldatzeko tresna gisa balia genezake. Hau da, tresna politikoa izan daiteke bi norabidetan: froga eta argi-bide gisa eta aldaketarako bide moduan.

## **Maitasuna arkitekturaren begiralekutik**

Maitasuna definitzeko, Mari Luz Esteban Galarzaren kontzeptualizaziora joko dut,<sup>4</sup> maitasuna zer den azaltzeko erabil daitezkeen aukera ezberdin guztien artean Estebanena erabilgarriena zaigulako arkitekturarekin harilkatzeko helbururako. Maitasuna, lehenik eta behin, emozio bat da; indibiduoak sentitzen duen lotura intentsoa zerbaitekiko/norbaitekiko. Oso emozio berezia, bizipen intentso gisa jasotzen baita, eta harremantzeko esperientziaren motor dena. Baina emozio indibidual hori pentsamendu batekin loturan ere bada, maitasunak zer izan behar duelako aurreiritziarekin batera sentitzen dugulako emozioa, maitasuna zer izan behar delako idealizazio eta itxaropenaren eraginpean. Eta, azkenik, maitasuna akzioa ere bada, emozioaren eta pentsamenduaren nahasketa gauzak eragiteko energia delako.

Maitasunaren definizio hiru aspektuak –emozioa, pentsamendua, akzioa– arkitekturaren ere identifika ditzakegu. Espazio baten eraikuntza akzio bat da, aurreratu bezala, pentsamendu jakin baten emaitzaren gauzatze fisikoa. Eraikuntza oro aurreiritzi eta ohituren nahasketarekin eragindako emaitza da, maitasunaren ulerkeran eta praktikan gertatzen

den bezala. Eta espazio fisikoa esperimentatu, bizi eta sentitu egiten denez, emozioa nahasirik dagoen ulerpen bat da. Espazioaren akzioan gaudenean, bizipena ulertze eta sentitzearen egoera bat da. Arkitekturak martxan jartzen duen maitasuna sentikortasun bat da gure gorputz eta testuinguru inguratzaile ukigarriaren artean. Pertsonen arteko maitasunak sortzen dituen emozioen intentsitatearekin alderatzerik ez dagoen arren, espazio jakin bat –etxe bat, kale bat– harreman afektiboan sortzailea dela baieztatzea ulerkorra da edonorentzat.

Arkitekturak maitasunaren beste gerturatze bat eskaintzen du: norbanakoek objektuekin eta eraikitako inguruekin ezartzen duten lotura afektiboa. Eraikitako ingurunea zentzu zabalean ulertu behar da, gure etxeko gelak, auzoko parkeak edo itsas bazterrak osaturik, baina baita gelako armairu edo koaderno batek ere, azken bi horiek arkitekturaren esparrutik aldentzen diren arren. Norbaitek pentsatu eta eraikitakoa izan den tokiarekin maitemintzearen sentsazioaz ari gara. Baina, pertsonekin gertatzen den bezala, lotura ez da zuzenean hormigoiarekin edo adreilu margotuarekin gertatzen, hormigoia horren ezaugarriak baimendu dituen egoera eta gertakizunekin lotzen gaituen sentsazio goxoarekin baizik. Harreman afektibo horiek, txikitako logelak eta sagarrondo zelaiaren paisaiaren memoriak norbanakoaren nortasunaren eraikitzaile dira. Zaila da bereizten nork nori eragiten dion lehenik, ea gu garen lekuarekiko lotura ezartzen dugunok edo lekuak gu egiten gaituen.

Ingurunearekiko harreman afektiboan eraikuntzan, gorputzak, objektuak, niak, guak, orainak eta iraganak nahasirik eragiten dute elkarrekin. ‘Ni’-aren (*self* ingelesez) eta ingurunearen artean bereiztasunik gabe jarraitutasun/*continuum* afektibo bat eraikitzen da, zeinak ez duen maitasun ideologiak eraiki duen maitasun hierarkiarik ezagutzen. Espazioarekiko harreman afektiboek bikote-maitasun, ama-maitasun biologiko eta ama-maitasun senezko, lagun-maitasun sailkapena eta hierarkia gainditzen dute. Niaren eraikitzaile diren afektu horiek beste afektu kategoriatzuk ezartzen dituzte;

horra hor arkitekturak maitasunaren azterketari eskain diezaiokeen abiapuntu aberasgarria. Eta, alderantziz, harreman afektiboen bitartezko begiradak arkitekturari eskaintzen dio espazio publiko eta pribatuaren sailkapen klasikoarekin puskatzea. Maitasuna eta arkitektura bikoteak badu zer eskaini, orain arte oharkabean igaro den arren.

## **Etxea eta kalea: maitasun ideologiaren espazioratzea**

Orain arte norbanakoak ingurune fisiko batekin garatu ditzakeen lotura afektiboez jardun bagara, jarraian, maitatzeko ahalmen horrek espazioak eraikitzeke garaian nola eragin duen eta nola erabilia izan den azaltzera goaz. Espazioaren eraikuntza kulturala eta politikoa dela esan badugu, ezinbestean eta ondorioz, maitasunaren ideologiak eraginen bat izango du arkitektura egiteko unean. Arkitekturaren ikuspegitik berresten da maitasuna politikoa dela, maitasunaren ideologia arkitekturaz baliatu delako gizartearen bizilekuak eta harreman-testuinguruak pentsatu eta eraikitzeke garaian. Maitasunaren ideologia familian oinarrituriko maitasun-eredua da, bikote-maitasunari lehen mailako papera eskaintzen diena eta maitasuna ugalketaren akzioari lotuta azaltzen duena.

Maitasunaren ikertzaileek argitaratu dute maitasunaren afera ez dela gai indibidual bat, eta maitatzeko moduetan gizartearen antolaketak eragin handia duela.<sup>5</sup> Kapitalismoaren, arkitekturaren eta maitasunaren arteko loturak agerian gelditzen dira, adibidez, bikote askok banatzeko garaian bizi duten ezintasunean, etxebizitzaren alokairu eta salmenta-prezio

Arkitekturaren ikuspegitik berresten da maitasuna politikoa dela, maitasunaren ideologia arkitekturaz baliatu delako gizartearen bizilekuak eta harreman-testuinguruak pentsatu eta eraikitzean

altuak direla-eta, eta etxebizitza bakar batean bi nukleo berri sortzeko zailtasunagatik<sup>6</sup> –elkarbizitza haustean komenigarriena ez bada ere, banaketa prozesua errazteko bidea izan liteke–. Prekaritatea eta etxebizitzaren antolaketa fisikoa muga bat da bikote-maitasunaren elkarbizitza espazioa berregin behar den unean.

Arkitekturak gure maitatzeko modua nola baldintzatu duen desestaltzea dagokigu testu honetan. Familiaren maitasun ereduak –maitasun mota hegemonikoa– etxea eta kalea nola bideratu dituen adierazteko, Bigarren Mundu Gerraren ostean AEBek lurraldea berpizteko hartutako estrategia adibide esanguratsua da. Agintariak etorkizun itxaropentsua irudikatzeko eginbeharrean ziren, eta horretarako familia gorapatzea erabaki zuten arkitektura eta hirigintzaren laguntzaz. Publizitate kanpainaren irudia familia heterosexualak osatzen zuen, eta eszena idilikoa aldirietan kokaturik zegoen, etxe isolatu batean, lorategitxo pribatu batez inguratutik. Irudi boteretsu horri deitu zaio ‘amerikar ametsa’, eta egungo AEBetako gizartearen bizi-zentzua arautzen jarraitzen duela esango nuke. Maitasunaz eta arkitekturaz egindako irudi horren mezuan, bizitzaren arrakasta profesional eta pertsonalak ez du sare afektibo baten eraikuntzarekin loturarik, bikote-harremanarekin eta familiarekin baizik. Eta irudi horren fikzioak gurean ere eraginik baduela esango nuke –egoera horri arkitektura erromantikoa deituko diot, aurrerago sakonduko dudana–, nahiz eta estatu-antolaketa-rako estrategia moduan erabilia izan dela baieztatzeko datu-rik ez dugun. Gure etxebizitzetan familiaren irudikapenaren itzala nabaria bada ere, emakumeek familiaren kudeaketan duten paperagatik eta zaintza-lan horiek estatu-ekonomian lekurik ez okupatzeagatik,<sup>7</sup> gure herri eta auzoetan ezin da familiaren bizimodu-antolaketa-rik atzeman.

Azpiatalaren izenburuak zehazten duen gaiari aurre egiteko (maitasun ideologiaren espazioratzea), lengoia amankomun bat sortzea beharrezkoa da. Horretarako arkitektura-arketipo bi erabiliko ditut: etxea eta kalea. Hitz generiko horiek ez dute



arkitektura-forma edo arkitektura-estilo bat definitzen, bai-  
zik eta arkitekturak sorraraz ditzakeen harreman afektibo bi.

Etxea intimitatearen arkitektura da –sinbolikoki eta fisi-  
koki–, eta etxeak nolakotasun afektibo bat eraikitzen du;  
gertukoekin konpartitzen dugun espazioa, maite dugunekin  
elkarbizitza gauzatzeko tokia da, eta niaren eraikuntza afek-  
tiboan oso funtsezkoa den espazioa.

Norbanako bakoitzak etxea hala moduz atonduko du eta  
estetika propioa eskainiko dio, indibiduoaren-identitate erai-  
kuntzaren parte bezala irakurriz. Etxearen espazioan, nor-  
banakoaren benetakoa den izaera garatzen da, bestelako  
espazioetan eraiki dugun zuzentasun politikorik gabekoa  
–horregatik, etxea biolentzia espazio nagusietako bat da,  
eta feminizidioaren gotorleku–. Etxearekin esan nahi da,  
finean, gure zikinkerien gordailu eta gure pribatutasunaren  
zaintzaile den espazioa dela.

Kaleak, aldiz, gutasunaren arkitekturari egiten dio errefe-  
rentzia. Ez dadila espazio publikoarekin nahasi, definizioaren  
jatorriak ez baitu jabegoarekin erlaziorik. Etxearen espazioak  
elkarbizitzaren bitartez afektua sortzen duen moduan, ka-  
learen afektua identitatearekin harremantzen da. Kalearen  
harreman afektiboan kidetza sentsazio indartsua dago, baina  
ez dago elkarbizitzan egoten den intimitate-mailarik. Afek-  
tuaren jatorria ingurua eta testuinguru bera maitatzetik dator,  
nahiz eta maitatzeko modua ezberdina eta askotarikoa izan.  
Memoria kolektiboarekin eta norbanakoaren sustrai iden-  
titarioekin harremanetan jartzeak sorrarazten duen lotura  
afektiboa litzateke kalearekin esan nahi dudana.

Ekialdeko kulturari lurrarekin identifika dezakegu afektu  
mota hori, lur zati berarekin harremantzen gareneko loturak  
sortzen baitu; horregatik, lurraldeari loturiko nolakotasu-  
nean, lurraldetasuna dei dakioko. Afektu horren eraikuntzan,  
ezaugarri fisikoek ezaugarri immaterialek adina garrantzi du-  
te. Inguru naturalarekiko eta paisaiarekiko agertu ohi dugun  
begirada erromantikoa afektu mota horrekin harremanetan  
dela aurreratuko nuke.

Etxe eta kalearekiko lotura afektiboak berez eraikitzen ditugu eta eraikitzen gaituzte, eta ibilbide pertsonalean gertatzen diren aldaketa-fase askotan presentzia hartzen dute

Arkitekturaren bereizgarria da gure sinismen eta erresistentzien ispilu eta isla dela. Norbanakoaren joera naturalak agerian gelditzen dira, itxurakeriari eta manipulazioari espazioa ezinduz

–espazioratzen dira– arkitektura eta maitasuna inplikaturik daudenean. Esaterako: bizileku emantzipazioa burutzen dugunean, egitura afektiboarentzat bizikidetzako espazioak sortzeko garaian, egitura afektiboak desegiteko momentuan, zaintza lanen kudeaketak eskatzen dituen espazio aldaketak, ibilbide profesional zein pertsonalei sorrera emateko espazio beharrak...

Bizitzako une klabeetan arkitekturara gerturatzen gara, espazioen gaineko erabakiak hartzeko erantzukizunera gerturatzen garelako. Bizilekua erabakitzeko unean, adibidez, hirigintzako esparruetan murgildu ohi gara: ingurune hiritartua nahi ote dugun herritarraren aurrean, mugikortasun aukerak baloratzean, natura eta landareriaren gertutasuna baloratzean, espazio publikoen kalitateaz gogoeta egiterakoan, auzoaren dentsitatearen eraginak aztertzean... Etxearen banaketarekin hartzen diren beste hainbat erabakitan ere arkitekturaren gaiekin aritzen gara: zenbat logelatako etxean bizi nahi dugun, gonbidatuei ostatu emateko espazioa erreserbatu nahi dugun, zaintza gauzatzeko espazioak nahi ditugun, sozializazioak zein paper jokatu duen edo gure intimitatea nola babestuko dugun kanpoaldetik. Erabaki horiek hartzeko garaian, etxearekin eta kalearekin dugun harreman afektiboaren ulermenak eragin handia izango du.

Barneraturik ditugun maitatzeko moduek –jabetze maila eskasarekin gehienetan– etxeak eta kaleak eraiki dituzte. Arkitekturaren bereizgarria da gure sinismen eta erresistentzien

ispilu eta isla dela. Norbanakoaren joera naturalak agerian gelditzen dira, itxurakeriari eta manipulazioari espazioa ezinduz. Biluztasun afektibo eta emozionala gertatzen da, gehiengoarentzat espazioa hizkuntza arrotza delako. Etxearen arkitekturaren nabarmena da maitasunaren ulerpen hegemonikoak –eta mugatuak– oraindik zeinen funtsezko papera duen. Maitasunaren teoriarik aurrerapauso handiak egin badira ere, ideien garapen intelektualaren eta teoriaren praktikaritzearen artean dislokazio handia dagoela azaltzen dute etxe eta kaleen espazioek, maitasun ideologiaren berrikuntzaren integrazio hastapenetan garelako. Etxearen eraikuntzarako hartzen diren erabaki espazialek, ezin diegu ihes egin gure balio eta ikuspegiari –indibidual eta kolektibo–, memoria materialari, espazioarekin lotutako bizipen eta esperientziei, ikasitako ohiturei, intolerantzia eta erresistentzietan, eta espaziora eramaten ditugu, filtrorik gabe. Horregatik, espazioaren eta maitasunaren arteko ikerketa-lerroak potentzialitate handia du, arretaz begiratzekoa.

Arkitekto bezala etxearen eraikuntzan aholkularitza-lanak egin izan ditudanean, intimitate-sarraila asko zeharkatzen ditut, espazioekiko hartutako erabakietan pertsonaren benetakotasunezko beldurrak eta sinismenak irakurri ahal izan ditudalarik, espazio-terapia ariketa bat bailitzan. Adibidez, etxearen leiho tamaina erabakitzeko egoera baten aurrean, leihoa kanpoaldearekiko babes bezala ikustea edo kanpoarekin harremanetzeko bide bezala irakurtzea intimitatearen ulerpen baten esanahitzat har dezakegu. Edota espazioaren eraldaketa lanetan diru-inbestitzea banatzerakoan alabaren logelari norberaren logelaren aurretik lehentasuna emateak seme-alaben maitasunaren hierarkiaz hitz egiten du. Egia dena da kale zein etxearen erabaki espazialek geroz eta presentzia handiagoa duela tentsio ekonomikoak, maitasunaren baldintza-mailaren balorazio-azterketa zailduz eta konplexuago bilakatuz.

Bestalde, maitatzen duguna nola zaintzen dugun adierazten dugu espazioan. Zer nolako maitalea, halako eraikuntza-izaera.

Maite dugunaren aurrean, jokamolde bat agertzen dugu, espazioaren antolaketan erabaki hauek daudelako jokoan: zein askatasun edo kontrol esparru utzi; zenbat aukera eskaini apropiaziorako eta kolaboraziorako; zenbateko babes, itxitasun edo irekitasun mailak sortu; zer arautu eta zer debekatu den; hierarkiak non eta nola ezarri; zein leku hartzen duen konfortak beste balioen aurrean. Galdera horien erantzuntan, harremantzeko moduak daude inplikaturik, nolako harremana ezartzen dugun maite dugunarekiko eta nola eragiten dugun harreman afektiboekin. Etsenplu sinplifikatu bat, esan nahi dena ulerker egiteko: maitasunaren zainketa biolentzia eta kontroletik ulertzen duenak espazioa arautzeko eta kontrolatzeko joera errepikatuko du, seguruenik.

## **Arkitektura erromantikoa**

Arkitekturaren bidez, literaturarekin eta zinemarekin gertatu den bezala, maitasun ideologia betikotu dela eta maitasunari loturiko jokabide eta ohiturak naturalizatu direla esan dugu. Berdin dio zein eskalatan eragiten den, lurraldean, hirian edo etxean. Norbanakoak bizi izandako espazio eta estetika esperientziak pisu handia du, eta aurrekari sendo bezala funtzionatzen du arkitekturaren gaineko hausnarketarik egin ez duenarentzat. Normaltasunean den espazio-planteamenduak segurtasuna ematen du, eta horrela betikotzen dira ohiturak eta bizimoduak arkitekturaren bitartez. Bizi izandakoaren errepikapena joera nabaria da, baina baita etxearen eta kalearen inguruan sortu diren irudikapen ideal eta fikzionatuak. Maitasun ideologiak sortu duen maitasun erromantikoaren mekanismo berbera aurkitzen da arkitekturan, ondorio lotesle eta mugatzaile berdintsuekin.

Etxe idilikoaren iruditeriaren errelatua, berriz ere, ez da batters inozentea. Idealizazio horretan zorientasunaren eraikuntza bat dago –bikote-maitasunarekin estuki harremanetan–, kapitalarekin eta klasearekin inplikazio zuzenak dituena; baina testu honetan maitasun ideologiarekin loturikoetan

zentratuko naiz. Publizitate eta komunikazioen eragina oso indartsua da iruditeriaren eraikuntzan, eta agintzen duen etxe idealak familia egitura jarraitzen du fidelki.

Adibidez, tamaina handiko etxearen desioak bizitza mota bat eta maitasun eredu bat ezkututzen du. Etxea lanari eta produkzioari lotutako emaitza gisa erakusten da, lorpen guztien emaitza bat. Zenbat eta handiagoa, orduan eta arrakasta profesional handiagoa –diru irabazpide handiagoak, esan nahi da–. Eta bizitza pertsonalaren lorpenik goratuena –zorientasunaren izenean– bikote eta seme-alabekin osaturikoa da, maitasuna etxearen testuingurura mugatuta eta kontrolatuta. Etxe idilikoak (‘familia bakarreko’ hitzarekin definitzen denak) hesitutako berdegune batean izan ohi duen isolamendu izaerak bikote-maitasunetik kanpoko sare afektiboaren ahultzea dakar, gotorleku itxura duelako, kanpoaldetik babes-tua izan behar duelako eta formak ez duelako kooperaziora gonbidatzen. Gure kaleek etxearen intimotasuna eta kanpo gelditzen dena modu zurrun eta argian mugatzen dute, ez da tarte-espaziorik bestelako harreman-motak ahalbidetzeko –egoera fisikoak, metafora bat ez ezik, harreman afektiboan ulerpen bat islatzen du–. Eta, zer esanik ez, fikzio-irudi horietan ez dago bakarrik bizitzeko aukerarik.<sup>8</sup>

Etxearen idealizazioan, kalearen harreman afektiboek ere badute eraginik. Etxearekin identifikazio pertsonala egiten dugunean, oso ohikoa da oroitzen ditugun espazio domestikoen irudietara jotzea –gure arbasoek erabilitako material eta ehundurak gogora ekarriz, adibidez–, eta memoria hori estetika oso bat arautzera irits daiteke —itsusiaren eta politaren irizpideak–. Horregatik, gure gizartearen etxe hegemoniko erromantizatuan oso sustraiturik daude tximiniaren eta harriaren presentziaren gaineko desioak, konfortarekin baino identitate-afektiboekin lotura duten idealak –lurralde-tasunaren espazioratzearen agerbide izanik–. Etxe idilikoaren atzetik aurki daitezkeen arrasto afektiboak askotarikoak izan daitezke, baina denek arkitekturaren eta maitasunaren artean burututako erromantizismo bat agertzen dute.

Horregatik, arkitekto rolean etxe eta kaleen irudikapen erromantizatuak krisian jartzeak maitasun ideologia hegemonikoaren deseraikitze-lanean aritzea suposatzen du. Arkitekturatik ere bestelako maitasun ereduak praktikatu daitezkeelako. 🌿

### Oharrak

1. *1000 m<sup>2</sup> de deseo. Arquitectura y sexualidad* erakusketa eta liburuan (CCCB, 2016), arkitekturako diseinuen eta sexu ulerkeren arteko erlazioak bikain azaleratzen dira.
2. Beatriz Colominak *Sexuality & Space* liburuan (Princeton Papers on Architecture, 1992) argitaraturiko artikulu bilduma aitzindaria izan zen, eta Jane Rendell, Barbara Penner eta Iain Borden-ek argitaraturiko *Gender Space Architecture* (Routledge, 2002) liburuko artikulu bildumak gaia zehaztu zuten.
3. Londresko Goldsmith Unibertsitatean, Eyal Weissman-ek gidaturiko *Forensic Architecture* ikerketa-lerroa sortu da, non arkitektura biolentzia-egoeretan epaiketarako froga-agiri gisa erabiltzen den.
4. Mari Luz Estebanek Mexikoko FES Iztacala fakultatean 2016ko urriaren 6an eskainitako 'Estudio antropológico y crítica feminista del amor' hitzaldian azaldu zituen kontzeptuak erabili dira.
5. Testuaren esanahiarekin lotura dutenak aipatzearen: Eva Illouz, *Why Love Hurts. A Sociological Explanation* (John Wiley & Sons, 2013) eta Brigitte Vasallo, *Pensamiento monógamo, terror poliamoroso* (La Oveja Negra, 2018).
6. Isaac Rosa idazlearen azken liburuak (*Feliz final*, Seix Barral, 2018) bikote maitasun-harreman baten desegitea hartzen du ardatz, gizartearen prekaritatearen eta maitasunaren arteko loturak aztergai hartuz.
7. Amaia Pérez Orozcoren *Subversión feminista de la economía* (Traficantes de Sueños, 2014) giltzarria da egitura patriarkalak eraikitako ekonomia ereduaren ulertzeko.
8. Paul B. Preciadok *Pornotopía. Arquitectura y sexualidad en «Playboy» durante la guerra fría* (Anagrama, 2010) liburuan aztertzen du *Playboy* aldizkariak 50eko hamarkadan klase ertaineko gizon heterosexual eta ezkongabearentzako apartamentua diseinatzeak suposatu zuen iraultza.

# Emakumeak errekadutan: kalea eta elkar babesteko sareak ehuntzen

■ Jone Arrazola Maiztegi  
*Gizarte eta kultur antropologoa*

**E**makumeen eta merkataritzaren arteko harremanak asko du maitasunetik eta hirigintzatik.

*Oñatiko emakumiak errekadutan. XX. mendeko komertzio txikiaren etnografia feminista bat* (Irati Garai eta Jone Arrazola, 2019) Oñatiko Udaleko Selma Huxley Barkham ikerketa bekarekin egin genuen, helburu nagusi batekin: herriko emakume guztiak errekadutan ehundu duten sare afektibo eta ekonomikoaren aitor-tza eta errekonozimendua egitea.

Merkatarien bilobak izanik, bagenekien merkataritza gure amonen eta beste emakume askoren bizi proiektuaren ardatza izan dela. Intuizioak esaten zigun, lanbide eta eginbehar bat izatetik harago, dendak ahalduntze sozial zein ekonomiko-rako lurzoru izan direla. Arrakala bat izan dira merkatuak, behe barruak eta dendak bestelako maitasun harremanetarako: familia eta erromantikotasunari paralelo, elkarren babeserako sareak osatzen zituzten emakumeek.

Etnografia honek herriko emakume guztiak barnebiltzen ditu, ez soilik merkataria. Izan ere, merkataritza bi aldeek egiten dute posible: saltzaileak eta erosleak. Saltzaile izan dira dendariak, joskinak, alpargatagileak, zerbitzariak,

sukaldariak, gozogileak, ostalariak, nekazariak, ogidunak, arraindunak, errekadistak... Erosle, berriz, adin, jatorri eta klase sozial guztietako emakumeak.

Izendegiak garrantzi handia du; izan ere, horren arabera osatzen dugu gure iruditeria. Merkataritzaren historiaz idatzi den apurra gizon historiagileek begirada androzentrikotik egin dutenez, gizonen mundutzat irudikatu da. Hala, gorai-patu dituzte gizon merkatarien lanbideak, eta emakumeen lana azpiratu, bigarren mailako kategoria eman. Horregatik ez du estatus bera jantzigile 'sastre' edo joskin esateak. Zapatari edo alpargatari. Okin edo ogidun. Harakin edo *txar-kutera*. Tabernari edo zerbitzari.

Merkataritza zentzu zabalean ulertzen dugu ikerlanean: komertzio txikiak ari gara, hurbileko kontsumo guneez, familia-negozioez, kooperatibez edo ekonomatoez. Baina baita etxez etxeko salmentaz, ostalaritzaz eta zerbitzuez ere.

Jakina da merkataria gutxituz joan direla XX. mendeko azken hamarkadatik hona: saltokiak ez daude izkina guztietan, ez dago lehen besteko denda bete kale. Baserri bete auzo. Ekoizle bete azoka. Arrain edo kafe usaindun kantoi.

Tokiko merkataritzak bizi duen krisialdia izan da, alde batetik, lan hau egitera bultzatu gaituena. Eta, bestetik, gure amonen eta horien belaunkideen ondarea jasotzea. Alarmak piztuta dituen sektore baten iraganean arakatu dugu, jakiteko zer dagoen arriskuan, eta zergatik. Azken hamarkadetako emakumeen ahalduntzeak zerikusirik izan du?

Emaitza: merkataritzak hiru ekarpen egi(te)n dizkio herriari. Ekarpen ekonomikoa, ekarpen sozioemozionala, eta ekarpen espaziala.

## **Ekarpen ekonomikoa**

Merkataritza, batetik, lanbide izan da ekoizle, bitartekari, errekadista eta merkataria eta dendarientzat. XX. mendean, merkataritza sektore feminizatua izan da, eta egun hala izaten jarraitzen du.



Eta zergatik izan da emakumezkoen ofizio? Emakumeei zegozkien beste lanekin bateragarriak ziren enpleguak zirelako. Hau da, etxeoandre eta dendari, biak aldi berean izan ahal zirelako. XX. mende osoan zehar ezarri zaien betebeharrak eta roletik gehiegi urrunduta gabe egin zezaketen lana zen. Frantziako indartu zuen sexuen arabera lan-banaketak bi rol zehazten zituen: etxeoandre eta ogi irabazlearena. Emakumearen helburua zen ezkondu eta familia zoriontsu bat osatzea, eta gizonarena enplegua izan eta familia diruz sostengatzea. Emakumeek, batez ere ezkonduak, etxera dirua ekarri behar izateak familia pobrea, desorekatua errepresentatzen zuten. Eta horrek familia buroaren desohorea zekarren.

Emakume guztiak ez ziren, ordea, klase bereko, eta, beraz, berdin: klase baxu eta ertainekoek lan eskua saltzea behar-beharrezkoa zuten, biziraungo bazuten. Hala, normatik atera gabe, dirua etxean bertan sortzen zuten josiz, sukaldatuz edo komertzioa izanda. Gaztetatik hasi eta helduetaraino:

Tabernara de sirvientas asko, danak soltera etorten zian, eta behin ezkondu izten ebein. Hombre! Es que antes era una deshonra para el hombre; como si no pudiera mantener a la familia...

Mujeres diez años mayores que yo ya no pudieron trabajar. Las que tuvieron suerte de tener comercio pues allí, y si no a coser!<sup>1</sup>

Are gehiago, industria edo neskametzak ez bezala, merkataritzako lana emakume ezkonduentzat lanbide apropostatzen zuten jendarteak. Zergatik? Sarritan, modu informalean edo diru sarrera osagarri gisa egiten zelako: adibidez, etxe etxeoko salmenta, joskintza eta bestelako milaka zerbitzu.

Zergatik izan da merkataritza emakumezkoen ofizio? Emakumeei zegozkien beste lanekin bateragarriak ziren enpleguak zirelako. Hau da, etxeoandre eta dendari, biak aldi berean izan ahal zirelako

Hala ere, emakumeentzat dendan lan egiteak ez zuen esan nahi ekonomikoki independente izatea. Izan ere, familia negozioak izan direnez, dendako ekonomia eta etxekoa bat izan dira: dendako ekonomia tiraderan oinarrituta egon da, eta familiako kideek ez zuten bere lanagatik soldatarik jasotzen.

Noski, familia kide guztiek ez zuten eskua tiraderan sar-tzeko zilegitasun bera:

Gizonak manejaitten eben dirua. Andrak ibiltten zian diru justuakin. Oso andra gutxik ibiltten ebein dirua. Zeatik ez zian egoten dibortziuak? Nora joango zian? Bueno, nora fan dozena erdi umekin?

Salbuespena dira alargun eta ezkongabeak: horiek, gizonaren faltan, etxeko eta negozioko arduradun legalak ziren. Eta horrek materialki askatasun eta botere handia eman die. Horrek ez du esan nahi, ordea, sozialki botere hori erabili dutenik, ez baita ohikoena izan.

«Ezkonduta ez bazeunden, galduta zeunden», zioen nire lagun baten amonak. Eta hori oso ondo islatzen da Maria Pilarren bizimoduan. Bere ilobak kontatua:

Nere tiak ez zuen lagunik izan. Astean zehar denda eta asteburuetan ez zuen ezer. Oporrak? Beranboa hasi zenean, abuztuan hamabostaldi bat egiten zuten lan goizez eta arratsaldean itxi. Eta hurrengo hamabostaldian Oñatin, que no quedaban ni los gatos, itxi behar izaten zuten, baina orduan ez zuen ezer giterik.

Hau da, maitasun erromantikoaren egituretatik kanpo kokatu zirenak, borondatez edo halabeharrez, merkataritzan tokia izan zuten, batez ere XX. mendeko lehen erdian. Tokia, bizirauteko, ekonomikoki zein afektiboki.

Alabaina, emakume gehienak, mandatu patriarkalarekin bat eginez, ezkondu egiten ziren. Ezkontzeak haxe zekarren 60-70eko hamarkadetara arte: enplegua utzi eta etxekoandre eta ama izatea. Merkatarari zirenak, ordea, ez. Familia-negozioa bazen, enpleguari eusten zioten.

Eta nola kontziliatzen zuten? Komertzio gehienak, mende osoan zehar, familia-negozioak ziren, denda familia-etxearen

azpian kokatzen zen, barrutik konektatuta egon ohi ziren eta lan-banaketa familia patriarkalaren egituraren arabera egiten zen, gizon figura bat zegoen kasuetan.

Familia unitate produktibo gisa ulertuta, kide (ia) guztiek hartzen zuten parte negozioan. Negozioaren espazioa (denda, taberna edo zerbitzua) senide guztiek bere sentitzea zekarren parte hartze horrek. Hau da, etxearen luzapen bat zen negozioa.

Senarrak jabetza zuen, produktuak biadjanteei enkargatu eta sektoreko ferietara joaten zen. Bidaiatzeko aukera izaten zen, lagun artean. Bitxia da, baldin eta errekaduren bat egitera joan behar bazuen, eta dendan ilara egonagatik, lehenengo berari artatzen zitzaiola: «atendiu lehenengo gizona, prisía eukiko dau ta».

Emazteak bezeroak artatzen zituen eta kontabilitateaz arduratzen zen. Era berean, denda zabaldu baino lehen, familiari gosaria eman, haurrak eskolarako prestatu eta lapikoa jartzen zituen. Goiza izaten zen emakume gehien zetozen momentua: denda emakumez betez gero, ez zituzten bezeroak azkarrago artatzen. Bakoitzari behar zuen denbora dedikatzen zitzaion. Bezerorik ez zen uneetan, denda eta etxea garbitzen zuen. Eguerdian, familiari bazkaria eman eta harrikoa egiten zuen. Arratsaldean, denda zabaldu arte bestelako zeregin batzuetan aritzen zen: familiarentzat arropak josten, edo lixiba egiten, adibidez. Afal ordura arte, berriz, mostradorean egoten zen. Ondoren, afaria prestatu, hurrei eta senarrari zerbitzatu eta harrikoa egin. Etxean azkena lokartzen zena izan ohi zen etxeoandrea.

Eta hori guztia maitasunaren izenean.

Hurrek ere funtzio bat zuten negozioan: eskolaz kanpoko orduetan biltokia txukuntzeaz arduratzen ziren eta amak agindutako errekaduak egiten zituzten, eta dendan azkenengo artatzen zituzten beti, presarik ez zutela eta. Ostiraletako lana izaten zen paketeak egitea: zereal, lekale eta kafea hamar kiloko zakutan etortzen zen, eta hurrek libra erdi, libra eta kiloko paketeak prestatzen zituzten.

Dependenterik kanpokuak? Keba, keba. Horreik... ezta zoratuta bez! Etxekuak zertarako dia ba? Ze lehen holakotxe pentsakerak zian... etxeukuak etxerako dia, lanerako! Eta gu ba txiki-txikittatik lanera! [...] Jolasten egon biharrian ba hantxe lan eta lan! Sakuak bete eta bete, eta bete.

Seme eta alabaren artean ezberdintasun bat egingo zen, hazitakoan: alaba amari itsatsiko zitzaion, ofizioa ikasteko. Hala, amarengandik alabarengana eman izan da erreleboa, 70eko hamarkadara arte behintzat, gehienetan behartua. Hori ere familiari zitzaion maitasunaren izenean. Eta ez bereziki alabari.

Mi vocación frustrada ha sido peluquería. Yo soñaba toda la barra (del bar) llena de secadores, ta nere ama: «Ez ez ez, tienes que ir a San Sebastián a aprender el oficio y no, no hay dinero, tienes que empezar a trabajar en casa». Hamalau urtekin. Eta hola hasi nintzan tabernan. Eta esan notzan amari: «Jo, ama, lo que más pena me da es dejar el piano»... Porque me gustaba mucho la música... y: «Eh? Ahí tienes once metros y medio de mostrador para tocar el piano», esan noztan amak.<sup>2</sup>

Semeak, aldiz, nerabetan esku bat botatzeari uzten zion, eta, etxeko ekonomiak baimentzen bazuen, ikasketak egin ahalko zituen edo fabrikan lanean hasi.

El negocio lo empezó mi padre. Mis hermanos estudiaron y a la que no le gustaba el negocio le toco quedarse. Yo como no estudié, pues aquellos se fueron a la fábrica y alguien se tenía que quedar. A mí no me consultaron si quería. Toma, pa'ti! Pero a mí nunca me ha gustado.<sup>3</sup>

Beraz, alabak maite behar zuen familia-negozioa, lanbidea, baina semeari baimentzen zitzaion bide propio bat egitea.

Senar edo emaztearen ama etxean izaten bazen, hura arduratuko zen sukaldeaz, eta, ezin bazuen, dendan lagunduko zion alaba edo errainari. Eta, noski, azken horrek zainduko zuen hura.

Behin mostradore barruko ekonomia eta lan-banaketa azalduta, kanpoko azaltzea dagokit. Zein zentzutan egin die merkataritzak ekarpen ekonomikoa bezeroei?

Batetik, ekoizleak ziren nekazari, abeltzain, sukaldari, joskin eta abarrei beren produktuak merkaturatzeko modua ematen zien merkataritzak.

Baserritar askok 'soberakinak' komertzializatzen zituzten, azokan ez ezik, herriko denda txikietan: barazkiak, gazta, esnea eta arrautzak salgai ipintzen zituzten dendetan. Eta ez bakarrik baserritarrek: sukaldari eta gozogile onak ziren emakumeek, esaterako, pastelak enkarguz egiten zizkieten ostatupei, ospakizun handietarako. Bitartekariak izan dira, beraz, dendak eta ostatuak.

Eta, bigarren, bezeroei egiten zitzaizkien faborezko tratuak aipatu behar dira: trukea, apuntea edo etxean probatzeko ematea. Kasu guztietan aipatzekoa da merkatariei fabore bat eskatzeko garaian aurpegia ematen zutenak emakumeak zirela.

Trukea bereziki baserritarrekin egiten zen. Dendako produktuak baserrikoen truke:

Baserritarrak ez eukain dirua eskuartian. Jatekua bai baina dirurik ez, eta askok itten ebein. Ni akordaitten naiz adibidez familixa bat, hamahiru zian, babak ekarten ozkuen dendan saltzeko eta haren trukian azukarra edo kafia edo galletak libra erdi eruaten ebein.

Zorretan ematea edo apuntea izan da, kasu askotan, etxeko ekonomia duin bat izateko estrategia. Kaleko etxekoandreen ohiko jarduna zen hori, senarrak soldata kobratu arte ez baitzuten dirurik izaten:

Apuntau itten zan: «ezin dotsut pagau e, zapatuan gizonak kobrauko dau eta ekarrikotsut» konfiantzan...

Migratu berria bazen eta momentuan ostatua ordaintzeko dirurik ez bazuen, bi aukera: migrantea gizona baldin bazen,

Seme eta alabaren artean ezberdintasun bat egingo zen, hazitakoan: alaba amari itsatsiko zitzaion, ofizioa ikasteko. Hala, amarengandik alabarengana eman izan da erreleboa, 70eko hamarkadara arte

apuntatu egiten zitzaion eta ahal zuenean ordainduko zuen. Emakumea baldin bazen, bertan zerbitzari lana eskainiko zitzaion eta lanaren truke hartuko zuen bertan ostatu.

Hala, oso ohiko faborezko tratuak ziren trukea edota zorretan ematea. Herrietan oraindik orain egiten den praktika da, adibidez, arropak «etxean probatzeko uztea». Herri txikietan egiten da, konfiantzazko sare bat dagoelako. Eta konfiantza hori egunean-egunean merkatari eta bezeroaren artean ehuntzen da.

## **Ekarpen sozioemozionala**

Lehen ez euen psikologo biharrik porque en cada tienda había una!

Ekarpen sozioemozionala da denda, zerbitzu eta ostalaritzak herriko emakumeei egindakoen artean monografiko honetan azpimarratu beharrekoa, ikerketa honen interesgune nagusia baita.

Laburbilduz: dendak, emakumeentzat –merkatari zein bezero izan–, familiaz aparteko laguntasunerako, maitasunerako, elkarren babeserako sareen topagune izan dira.

Eguneroko errekadutan aliantzak eta agentziak egon dira bezero eta merkatarien artean, merkatarien artean zein bezeroen artean, biak ala biak emakumeen ahalduntzerako funtsezko gako direnak.

Josepa Cucó (1995) antropologoaren eskutik,<sup>4</sup> laguntasuna ulertu genuen: maitasun erromantikoak arautzen duen Mendebaldeko jendartearen, laguntasunaren diskurtsoak harremanaren emozio kargan jartzen du indarra, eta ez horrenbeste instrumentalizazioan, erabilpenean. Bada, Cucóren arabera, laguntasun harreman batean berdintasuna egon behar da. Baina berdintasunak ez du alboratzen instrumentalizazioa, baldin eta aldebikoa bada. Eta, hain zuzen ere, dendari eta bezero arteko harremana ulertzeko, hori behar-beharrezkoa da.

Baina Cucó defendatzen du bi aldeak, emozionala eta instrumental, laguntasunaren ezaugarriak direla. Laguntasuna,

beraz, plurifuntzionala da David Gilmoreren arabera (1975),<sup>5</sup> eta edozertarako balio dezake. Itsasgarri dinamiko sozial gisa funtzionatzen du, jendartea komunitate gero eta atomizatua-goetan integratuz.

Emakumeen autokontzientzia taldeen agerpena baino lehenagoko formula ziren mostradore bueltako tertuliak: etxetik at, elkarrekin harremantzeko zuten espazio bakarrenetakoak ziren dendak.

Etxeko edo baserriko isolamenduari edo bizitzaren eguneroko gorabeherei aurre egiteko sostengu sozioemozionala jaso eta eman da herriko merkataritzan: denetariko zailtasun edo minei irtenbidea edo sendagaia topatzen zitzairen dendan. Baziren zailtasun ekonomikoak (diru falta, lan-eskaintzak...), sozialak (etxeko gatazkak, seme-alaben hazkuntza...) zein emozionalak (tristura, bakardadea...). Merkatariek laguntzeko bokazioa zuten, baina askotan bezeroak ziren haiek laguntzen zituztenak. Aldebikoa zen, beraz.

Laburbilduz, 70eko hamarkadara arte, errekadutara 'ofizialki' produktu bila joaten zen emakumeak dendan bilatzen zituen sozializazioa, notizia, babesa eta lagun sarea.

Mujeres que habían tenido algún problema de lo que sea y: «Lagundu in bioztazu Francisca, hau eta hau pasaitten xat», y pasaban al comedor.

El mimo, el cariño de que entran por la puerta y ya sabes lo que quiere, lo que puede.<sup>6</sup>

Geroztik, *kontsumismoa nagusi den azken hamarkadatan*, produktuak ugaritu dira eta kapritxoz erosteko ohitura sortu da.

Emakumeen ahalduntze ekonomikoa bere interesetara baliatu zuen, hasieratik, kapitalismoak. Hala, emakume askorentzat, edertasun tratamenduak hartzea, ile apaindegira joatea edo arropa erostea bere buruari denbora oparitzea da.

Eta batzuntzako da... ez dakitt zela esan hitza ba, desahogo edo. Zuri kontaitten dotzue euran gauzak, ta bueno, zuk segiu itten zatzu, ta bueno, ia lasaixau geraketan dia...

Ekarpen sozioemozional hori azaltzen bukatzeko: esan daiteke dendetan emakumeek identitate propioa zein kolektiboa gorpuztu dutela; agentzia gorpuztu dute eta jarraitzen dute saretzen, elkar zaintzen eta elkar babesten. Sarearen korapilo dira, beraz, dendak.

## Ekarpen espaziala

Hirugarren ekarpena hirigintzari dagokiona da: komertzioa da erdigune historiko bati zein auzoei identitatea eta bizitza

Esan daiteke dendetan emakumeek identitate propioa zein kolektiboa gorpuztu dutela; agentzia gorpuztu dute eta jarraitzen dute saretzen, elkar zaintzen eta elkar babesten. Sarearen korapilo dira, beraz, dendak

eman diena. Izan ere, erdigune historikoek komertzioari esker jarraitzen dute zentralitatea izaten.

Erdigune historikoan edo auzoetan izan, denda, ostatu, zerbitzu bakoitza erdigune bat da, bere horretan. Eta luzaroan bere izaera mantentzen dutenak 'instituzio' estatusa dute. Hala ezagutzen dira memoria kolektiboan.

Kaleak, izkinak, etxeak, espazioak, oro har, izen bat hartzen du bertan bizitza bat dagoen

nean, negozio, familia, emakume bat dagoenean. Espazio izate-tik toki izatera igarotzen da. Hortik dator tokiko merkataritza.

Kaleen tokikotasuna, izaera, identitatea memoria kolektiboan dago, baina ez da estatikoa, egunean-egunean egiten da. Eta horren lekuko fidelenak dira dendak, eurak ere, iraganaren eta orainaldiaren artean, balantzan daudelako.

Espazio publikoaren (kalea) eta espazio pribatuaren (etxea) arteko *bitarteko espazio* izan dira familia-negozioak: etxearen luzapena ziren, baina ateak irekita.

Espazio publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia sustatu baino, elkarrekintzan ulertu behar ditugu. Eta espazio



publiko zein pribatua dira genero-gatazken lekuko, negoziazioaren, boteretzearen zein erresistentziaren agertoki.

Merkataritzari bitarteko espazio deitu diogu: lehen dendak eta orain kafetegiak bitarteko espazio izaten jarraitzen dute, espazio publikoan emakumeek bilatzen dituzten arrakalak, zuloak, babeslekuak.

Dendak diot, horiek izan direlako elkarren babeserako erdiguneak. Baina beste hainbat topagune sorrarazi ditu etxeko etxeko salmentak, adibidez: kale izkinak edo behe barruak, esaterako. Eta hori galtzear dago.

Ogiduna, arrainduna edo esneduna etxeko etxe zebilela, etxekoandreak kalera jaisten ziren, *¡Sardina viva!* oihuak edo bozina hotsa entzun eta berehala. Hura haien momentua zen. Halabarrez eskaileretatik jaitsi behar zen; orduan denbora gehiago pasatzen zen etxetik kalera eta kaletik etxera, eta bitartean bizilagunekin topo egiten zuten.

Oraingo gazte asko, ordea, urbanizazio berrietan bizi dira eta autoz mugitzen dira 'kalera', lanera, edonora. Autoa garajejan sartu eta igogailutik igo ohi dira etxera, inor ere ikusi gabe, nahi izatekotan.

Eskaparateen argitasunak, emakumeen joan-etorriak, merkatarien presentziak identitatea eta segurtasuna ematen diote kaleari. Jane Jacobs hirigintza feministaren aitzindariak dio: merkataritza zentrala da kaleen zaintza eta kale horien erabilera publikoa eta irekia bermatzeko.

Bukatzeko, azken ideia bat gehitu nahi dut: dendak eta osalaritza 'gehiegizko urbanitateak' disimulatzeko agertokiak izan dira: kalea 'gehiegi gustatzen' zitzaien emakumeek ihesbide bat zuten dendetan. Edo emakumeengan horrek sortzen duen zigor soziala sendatzeko toki izan dira, laguntasunean.

Hala, hauxe ondorioztatu daiteke: hein handi batean, horiei esker okupatzen dugu emakumeok gero eta gehiago plaza, kalea, erdigunea.

Eta bigarren mailako kaletar izaten jarraitzen dugu, baina egunez eta herriko kale nagusian gu gara nagusi eta kalearen jabe. Beraz, aitortu dezagun gurea den ondare eta espazioa.

## Ahalduntzeak dakar gainbehera

Denok dakizkigu egun merkataritzak bizi dituen zailtasunak zein diren. Eta ez da nire asmoa horiek errepikatzea. Bai, ordea, krisialdiaren abiapuntuaz ohartaraztea. Emakumeon ahalduntzearekin lotura zuzena baitu.

XX. mende erdian, merkatarik lanari heltzeko arrazoi eta motibazioak nabarmen aldatu ziren. 60ko hamarkadatik aurrera, negozioaren ardura hartu edo negozio bat irekitzera animatutako emakumezkoek ez zeukaten biziraupena motibazioz: senarraren soldatarekin konformatu ez, eta diru propioa irabazi nahiko dute emakumeek. Finean, independentzia ekonomikoa baloratzen hasiko dira.

Hala, 70eko hamarkadan, negozioaren ardura erreleboz hartu zuten emakume askok tiraderaren erabilera haien independentziarako muga zela ikusi zuten. Horrenbestez, dendaren ekonomia familiarenetik bereizi eta profesionalizatzeke presioa egin zuten.

Talka handiak sortu zituen horrek ama-alaba artean, amek traiziotzat bizi baitzuten alaben intentzio hori: negozioa egin da familia bizirauteko, eta maitasunez. «Nola indibidualizatuko dituzu irabaziak?», «Ez duzu familia maite».

Gurasoen erresistentzia horri zor zaio negozio belaunaldi baten bukaera. Hor, beraz, komertzioaren krisiaren abiapuntua: emakumeek familia patriarkalaren mandatupean dandan doako lana egiteari utzi zioten. Ahalduntzen hasi ziren.

Merkataritzan jarraitzekotan, beste joko arau batzuekin izango zela erabaki zuten; besteak beste, kotizatuz, soldata bat jasoz, larunbat arratsalde eta igandetan itxiz, udan oporrak hartuz...

Garai hartatik aurrera, nabarmen gutxitu ziren errelebo behartuak eta negozioarekin jarraitzeko presioa. Besteak beste, emakumeak beste nonbait enpleguratzeko aukerak zabaldu zirelako.

Bistan da, beraz, ekonomiaren eta maitasun erromantikoaren arteko lotura.

## Hitzatzea

Plazera izan da lan hau egiteko 60tik gora emakume ezagutzea, bizipenak entzutea. Oñatiko Udalaren babesari esker liburu eta erakusketa batean itzuli genion herriari guk aztertutakoa, eta eskertza handia jaso genuen.

Asko ikasi dugu emakumeok mende batean egin dugun bo-teretze prozesuaz eta bide horretan merkataritzak izan duen garrantziaz; merkataritzaren eta emakumeon historia eskutik doaz, bata ezin da bestea gabe ulertu. Belaunaldiaren arabe-  
ra, denda babesleku edo kondena izan da emakumeontzat.

Herri txikietako emakumeon bizitza zaintza-lanak eta erre-  
pideak baldintzatzen duen garaiotan, askeago izateko borro-  
kan, tokiko merkatariaik gure aliatuak dira. Lehen eta orain. 🌸

## Oharrak

1. «Ni baino hamar urte zaharragoak ziren emakumeek ezin izan zuten lanik egin. Denda izateko zortea izan zutenak hantxe aritzen ziren, eta bestela jostera!».
2. «Nire bokazio zapuztua ile-apainketa izan da. Tabernako barra ile-lehor-gailuz beteta amesten nuen, eta nire amak: 'Ez ez ez, Donostiara joan behar duzu lanbidea ikastera eta ez, ez dago dirurik. Etxean lanean hasi behar duzu.' Hamalau urterekin. Eta horrela hasi nintzen tabernan. Eta esan nion amari: 'Jo, ama, pena handiena pianoa uzteak ematen dit'.. Musika asko gustatzen zitzaidalako... eta: 'E? Hortxe duzu hamaika me-  
tro eta erdiko barra pianoa jotzeko', esan zidan amak».
3. «Negozioa nire aitak abiatu zuen. Nire anaiek ikasi egin zuten, eta ne-  
gozioa gustatzen ez zitzaionari egokitu zitzaion geratzea. Nik ikasi ez  
nuenez, beraiek fabrikara joan ziren eta norbaitek geratu behar zuen.  
Niri ez zidaten galdetu ere egin nahi ote nuen. Tori, zuretzat! Baina  
niri ez zait inoiz gustatu».
4. Josepa Cucó (1995): *La amistad. Perspectiva antropológica*, Bartzelona, Icaria-Institut Catalá d'Antropologia.
5. David Gilmore (1975): 'Friendship in Fuenmayor: Patterns of Integra-  
tion in a Atomist Society', *Ethnology* 14/4, 311-24.
6. «Mimoa, maitasuna: atetik sartzen denerako badakizu zer nahi duen,  
zer ahal duen».

# Haurrak herriak eraikitzen

## Etorkizuneko herritarrak vs gaurko herritarrak

Nora Salbotx Alegria

*Magisteritzan eta Psikopedagogian graduatua, hezkuntza aholkularia eta Amaiurko eskola txikiko maistra*

Haurren lekuaz hitz egitean, modu kritikoan birpentsatu behar dugu helduok haurrei zer rol eman diegun. Hala, haiengan konfiantza izango dugu, eta entzun egingo diegu, eta lagundu, beren lekuaren eta denboraren adiera eraiki dezaten, bi dimentsiook, azken batean, banaezinak baitira.

*Clara Eslava (2018)*

**B**azterretara begiratzeko premiaz ohartuta gabiltzan sasoi hauetan, periferiak diskurtso sozio-kritikoaren, baita, hein handi batean, politikoki zuzenaren erdigunea irabaziz doaz. Alta, praktika politikoa, bai jendarte eragileei dagokienean, are gehiago politika instituzionalari dagokionean, oraindik ere bidearen gehientsua ibiltzeke dago. Zer erranik ez haurrei buruz ari bagara. Nekez aitortuko diegu esku hartze politikorako luketen gaitasuna zein eskubidea, izan kolektibo gisara izan maila indibidualean. Eskuarki, horien eskubideak, bai araudiak bai iruditeria kolektiboak eta praktika sozialak ere, era pasiboan ulertzen eta ematen ditu, hutsuneak erdigunean jarritz, ikuspegi konpentsatzailea gailentzen delarik beti ere. Gisa honetan, oinarritzko hainbat zerbitzuren onuradun izateko eskubidea aitortzen zaie, bistan denez, izan horiek

elikadura, etxebizitza, hezkuntza eta bertze (gaur-gaurkoz horiek betetzeko ere nahiko lan!). Non leudeke, aldiz, politikan, gure egunerokoari buruz, gure espazio eta denboren kudeaketaren inguruan, gure bizitzan eragin zuzena luketen neurri saldo horren gaineko haurren iritziak eta erabakimena?

Haurrak zentzu guztiekin *entzuteko* premia defendatzera gatoz hemen, horren ezean nekez deseraikiko eta eraldatuko baititugu naturaltzat eta objektibotzat dauzkagun hainbat eta hainbat praktika politiko mugatzaile.

Oinarrizko ideia horietatik abiatuta, hondar urte hauetan Euskal Herriko hainbat herritan *Herri Hezitzalea* izenez garatzen ari den esperientziaren testigantza bat, Baztangoa hain zuzen ere, ekarriko dugu honat, bertan egin den zenbait ekimenen zertzeladak emanaz. Sakonki politikoa den eta errotik eraldatzailea gerta daitekeen herri ekimen horrek, tokian tokiko aldaerak aldaera, ikusgarritasuna eta espazio berriak irabazteko tenorea delakoan gara.

Kontu horien bueltan ibili gara aurtengo Jakin Jardunaldian, eta, halaxe, lan honetan ere, horri buruzko hausnarketa proposatzera heldu gara, Euskal Herriko herrigintzari –baita hirigintzari ere!– etorkizun hurbileko eta premiazko erronka gisara emanda, kontuan hartu beharreko lehen ideia eta oinarri zenbait plazaratu asmoz.

## **Espazioa agente hezitzaile**

Gauza jakina da ingurunearekin eta ingurukoekin hartu-emanean hezten dugula, ezagutza eraikitzen dugula eta sozializatzen garela. Heziketa eta ikaskuntza, ondorioz, une oro gertatzen da –bai eta bizitza osoan zehar ere–, hezkuntza eremu formal, ez-formal zein informaletan, eskolan zein lagun artean, sare sozialetan –era sinkroniko ala asinkronikoan– zein aurrez aurre egiten ditugun esku-hartzeetan. Etengabe ezagutza eraikitzea eramanen gaituzten informazio eta mezuak jasotzen ari gara; hala ere, mezu horiek nekez izanen dira neutro, natural ala objektibo, baizik eta uanean

uneko testuinguru ekonomiko, politiko eta kulturalak – baldintza historikoek, alegia– modelatuta.

Gauzak horrela, badagokigu geure buruei galdegitea zein gisako mezu igortzen duten gure karririk. Zer mezu helarazten dute autoz beteriko kaleek? Zer, berriz, ongi hesitutako jolas parkeek? Zer erraten dute komertzio txikien ixteek eta merkatalgune erraldoien etengabeko hazteek? Zer turistez eta turistei begirako eskaintzez beteriko alde zaharrek? Zer dio auzoen araberako desberdinkeria sozioekonomikoak? Eta, horrekin batera, zer diogu guk geuk haiekiko darabilzkgun hartu-emanen bitartez? Zer mezu edota irakaspem ematen dugu espazioa okupatzeko edo bizitzeko gure moduekin?

Bertze hainbat diziplina, ikergai edota herri eragile eta kolektibotan bezalaxe, hondar urte hauetan espazioa aztergai garrantzitsu bilakatzen ari da hezkuntzaren eremuan ere. Aunitz izan dira horretarako arrazoiak, bertzeak bertze arte garaikidea eta kezka estetikoak, feminismoa, ekologismoa edota komunitatea eta parte hartzea erdigunean paratu nahi izan dituzten proiektuak

azpimarratuko genituzkeelarik akuilu garrantzitsu gisara. Guztietan izendatzaile edo ideia komunik izan bada, hura espazioaren egituraketaren jite politikoaren onarpenetik etorri delakoan gara. Behar-beharrezkotzat jotzen duguna zinez, baldin eta eraldaketa sustatuko duen begirada kritikoa piztuko eta elikatuko badugu.

Hezkuntzan aski ezagunak dira F. Tonuccik hirigintza eta pedagogia uztartuz egindako lanak. Bere obran eta ekimeneetan zehar –1991n Italiako Fanon abiatutako *Haurren Hiria* nazioarteko sarea, adibidez–, haurrak erdigunean kokatuko dituen hirigintza paradigma berria aldarrikatzen du; izan

Badagokigu geure buruei galdegitea zein gisako mezu igortzen duten gure karririk. Zer mezu edo irakaspem ematen dugu espazioa okupatzeko edo bizitzeko gure moduekin?

ere, haurren neurria inklusibitatearena dela dio, aniztasun ororekiko barneratzaile. «Nagusientzat pentsatutako zerbitzuak ez dira onak haurrentzat», haren aburuz.

Berez, haurraren mugen baitan aniztasun denak leudeke: fisiko eta kognitiboak, arrazarenak, kulturalak, genero eta afektibitateenak, desberdinkeria sozialarenak edota hizkuntzarenak ere. Honela, egiazki haurrengan/haurrekin pentsatutako espazioak (akaso *lekuak* –M. Augéekin erranda–) denontzako irisgarri izanen lirateke, haurren neurria egindako atea edozeinek zeharka baitezake arazorik gabe. Gisa honetan, bai zahartzaroan leudekeen pertsonentzako, bai mugikortasunari loturiko desgaitasun bat luketen pertsonentzako balioko luke haurren neurriak, adibidez.

Alta, behin XXI. mendeko Euskal Herriko haurraren neurriaren nolakotasunaz pentsatzen hasita, uste dugu ez zaila nahikoa izanen logika fisiko ala topografiko hutsean oinarritutako esku-hartzerik; aldiz, aitzinera eramanen diren ekintzek, espazio fisikoa eraldatzera baino, hura moldatuz, komunitatearen hainbat tasunetan eragiteko nahi garbia izan beharko lukete. Arkitektura eta hirigintza politiko kritiko batez ariko ginateteke, beraz. Hizkuntza gutxiagotu bateko kide garen heinean, hustutako landa eremuko ala garapeneriaren logika xahutzaileetan eraikitako hiriguneko biztanle garelarik, kapitalismo kolonial eta heteropatriarkalaren pentsamendu hegemonikoaren bazterretan kokatutako gisa orotako izate eta gorputzek presentzia, legitimazioa eta boterea irabazi beharko badute, nolako espazioak beharko ditugu? Are gehiago, nork hartu beharko lituzke espazio horiekiko erabakiak? Parte hartzeari, auzolanari eta logika komunalari beharrezko deritzogu, baita, bistan denez, haiek eskuratzeko, indartzeko edota biziberritzeko aktibismoari eta antolaketa kolektiboari ere.

C. Eslavak (2018) dioenez:

Haurrek espazioan duten esperientzia aztertzean, ezinezkoa da esperientzia hori gorputzetik eta lorpen motorretatik banatzea, adibidez, lurzorua esploratzean, bertikalatasuna konkistatzean,

ibiltzean eta egotean... Ekintza horiek guztiek habitatzen dugun lekuan irmo errotzen gaituzte.

Gure ustez, habitatzen, bizitzen edo, bertzerik gabe, igarotzen ditugun/gaituzten lekuekin gutako bakoitzak burutzen duen elkarrizketaren kodeak, gordetako mezuak, aginduak... sakonki ezagutu beharrean geundeke. Tokiekiko gure atxikimenduak aisialdia, harremanak –eta ondorioz komunikazioa– eta espazio publikoarekiko gure egoteko edo jarduteko modua baldintzatuko baditu, bertzeak bertze, espazioak berak eskaintzen dizkigun erranahien kontzientzia izan behar dugu, P. Freirek *problematizatzea* deritzon ekintza burutsu eta kritiko horretan saiatu, hain zuzen ere.

Mundu mailan ezagunak diren Italiako Reggio Emiliako haur eskoletan ere, espazioak berebiziko garrantzia daukanez, horrekiko elkarrizketan murgildu nahi izaten dituzte umeak. Izan ere, pedagogia erlazional bat aldarrikatzen dute bertan, hartu-eman horretan espazioa agente hezitzaile garrantzitsutzat daukatelarik. «Espazioa, denbora, materialak eta tailerra elkarrekin lan egiten duten elementuak dira», horien aburuz.

Gutxitan aipatzen bada ere, Reggio Emiliako haur eskolen sorrera eta garapenean, L. Malaguzzi pedagogoaren ekarpekin batera, funtsezkoak izan ziren bertze elementu batzuk ekarri nahiko genituzke hemen gogora. Horien artean azpimarragarri deritzegun hiru oinarriak leudeke: zonaldeko biztanleriaren tradizio antifaxista eta partisanoarekiko atxikimendu sakona, joan den mendeko 60ko urteetan bertako mugimendu feministaren indarra, eta haur eskolen beharraz eta nolakotasunaz eztabaidatzeko garai bateko udal agintari komunistek abiatutako prozesu asanblearioa. Denak ezinbertzeko eragile eta abiarazle lirateke haurra erdigunean jartzen duen eta espazioaren esperimentazioa eta ikerketa hezkuntza-prozesuaren oinarritzko elementu gisara ulertzen dituen proposamen interesgarri horretan.

L. Jauregik (2010) ere, espazioa eta hezkuntza uztartzen dituen doktorego tesian, espazioa bizia duen zerbaiten gisara ulertzen du, «ez materiala bakarrik, baizik eta ekintzak eta



emozioak garatzen diren toki bezala ulertuta». Hortik abiatuta, espazio hezitzaileak asebate beharko lituzkeen haurraren beharrez solastatzen da: bertzeak bertze, behar afektiboak, mugimenduzkoak, sozializazioa, autonomia, komunikazioa

Haurra zineneko zure  
abenturen oroitzapenak  
ez dira toki bakar batean  
kokatzen, are gutxiago  
hesituta legokeen  
eta espresuki haurren  
jolaserako sortutako  
gune batean

edota norbere buruaren eza-  
gutza aipatzen ditu. Beharren  
zerrendatze horretan, aurki-  
tzea, sentitzea, ongi pasatzea  
edota irudimena asetzea be-  
zalako ekintzak ere gehitzen  
ditu.

Gaur egungo jolas parkeen  
azterketa kritiko gordina egi-  
ten dute A. Hoyuelos eta T.  
Azkonak (2015) ere. Haurren  
askatasuna, intimitatea, jolasa,

harremanak eta arriskatzeko aukera ere mugatzen duten haur  
jolasotoki plastifikatu eta hesituen kritika zorrotza egitearekin  
batera, aski iradokitzailea zaigun ideia darabilte:

Lehen ez zegoen parkerik. Plaza zegoen, zelaia, basoa, kalea...  
Herrian jolasten ziren haurrak, pilotalekuan, kaian, auzoan...  
Jolaslekua haur taldetxoa zegoen tokia zen. Horietan sortzen zi-  
ren jolasak: ezkutaketa, txapak, zuhaitzetara igotzea...

Lehen pertsonara ekar dezagun orain arte irakurritakoa. Izan ere, ia dena delako adina duzularik, irakurle hori, haurra zineneko zure abenturen oroitzapenak normalki ez dira toki bakar batean kokatzen, are gutxiago hesituta legokeen eta espresuki haurren jolaserako sortutako gune batean. Litekeena da zure oroitzapenak eraikitzeke zegoen eremu batean bezalaxe ur putzu batean, erreka bazter batean, handik eta hemendik jasotako hondakinekin eraikitako txabolan ala karriketan barrena bizikletan zaudela izatea. Kuriketan, pote-potean, kurkuluxetan, kaniketan, txapatan, arboletara igotzen edo patinetean zabilzala, kromoetan, globoak urez bete eta lagunen kontra botatzen, sokasaltoan edota altura

koxxorreko txirrista herdoildu batetik beheiti zatozela ikusiko duzu zeure burua. Akaso ogitartekoak biltzeko aluminio paperarekin egindako pilotarekin jostetan zaude zure oroitzapenetan, edota jertse pare batez mugatutako atean futbol atezain. Lurra klarionez margotzen, edozein kale kantoiko edozein bankutan pipak jaten, inork ikusiko ez zintuzten gordeleku batean inork ikusterik nahi ez zenuten hartan jolasten, bertzela. Eta konturatuko gara, gure bizipenetatik abiatuta, jolasa ez zela espazialki gaur den bezain mugatua, ezta inondik ere. Izan ere, aski berriki arte jolastokia dena izan baitzitekeen, lagunak edo aukera non, jolasa han baitzegoen.

Xarmanki emanak ditu haurtzaroko bizipen horien berri J. Joffok (1973) bere lan autobiografikoan. Ederrak bezain esanguratsuak dira bere hitzak:

Harritura naukate gaur egun arkitektoek hizpide dituzten haurrentzako sorkuntzek. Etxe berrietako plaza berrietan badira harea, txirristak, zabuak eta bertze hainbat tramankulu. Eta horiek denak, gainera, haur psikologian hamaika lizentziatura dauzkaten adituek sortutakoak dira.

Eta afera ez doa ongi. Haurrak aspertu egiten dira, bai igandetan bai bertze edozein egunetan ere.

Neure buruari galdegiten diot ea aditu horiek guztiek ez ote luketen jakin beharko zerengatik ginen gu horren zoriotsu Parisko auzo hartan. Paris gris hura, bere dendetako argiekin, zerua mozten zuten teilatu altu haiekin, eskalatzeko zabor ontziz beteriko espaloi haiekin, eta ezkutatzeko gorapeak, eta etxeetako txirrinak; denetarik bazen [...]. Eta hori guztia kale labirinto erraldoi batean barreiatu. Esploratzera joaten ginen.

Hirigintza eta hiria antolatzeko –hala nola bertan kontsumitzeko– eredu zehatz baten, ustezko segurtasun neurri berrien eta zaintzaren erabateko teknifikazioaren ondorioak begi bistakoak dira honezkerok. Gure oroitzapenak eredu berriaren aitzinekoak badira, geroztik gertatu denaren inguruan hausnartzea dagokigu. Alegia, hemen proposatzen zaigun gaiaren karietara, badagokigu geure buruei galdegitea ea zein maitasun den gaurko haurrak guregandik, jendarte honetatik, gehiago mugatuz nahi bada, hiri eta herri hauetatik jasotzen

ari direna. Gure haurtzaro garaiko berdina al da? Bistan denez, ez. Ez dugu uste, halere, hobea/okerragoa dikotomian erortzeak deus askotarako balioko lukeenik, iraganeko edozein garai gaurkoa baina hobea izan zela pentsatzeko joera horretatik nekez eginen baikenuke irakurketa zintzorik. Alabaina, interesgarri eta zinez beharrezko deritzogu *nolakoa* galderari erantzuteko eginahal kolektiboari lehenbailehen ekiteari.

Balizko eztabaida edo hausnarketa horretarako hainbat zertzelada proposatzera ausartu nahiko genuke hemen, gure uste-tan kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsuak baitira:

- Gaurko gune urbanoan, aisialdirako, jolaserako, berdin zein desberdinen arteko harremanetarako edota komunikazio horizontalerako denborak eta espazioek lerro eten baten itxura lukete, jarraitutasunik gabekoak lirateke eta askotan kontsumo guneekin erabat lotuta leudeke (pentsa dezagun merkataritza-guneko haur parkean, adibidez). Beraz, garai batean continuum itxura lukeen jolaserako espazioa, orain, etenez beterik aurkitzen dugu. Karririk jolaserako eta harremanetarako etenik gabeko espazio –eta denbora– gisara berreskuratzeak lehen helburua izan beharko luke, gure aburuz.
- Erronka karrikeri eta espazio publikoari ainguratutako zaintza, aisialdi eta bertzelako maitasun bat bada, berori, halabeharrez, sarrixeago azalduko dugun haurren kultura kontuan hartzetik abiatu beharko da.
- Hirigintza garatzerakoan kontuan hartu izan den pertsona mota bakarraren eredu hegemonikoa gainditzea ere premiazkoa da. Haurrak, nerabeak, emakumeak, desgaitasunak dituzten pertsonak hala nola edonolako aniztasun funtzional zein kognitibodunak, adinekoak, migratzaileak, LGTBI+ pertsonak..., alegia, sistemari periferiko zaizkion izateko moduak barne hartuz, ghettoak edo horietarako joerak gainditu beharko dira.

Finean, espazio txiki asko egokitzea litzateke desiragarria, are, espazioa osorik *leku* bilakatzea, beraz, bizigarria, identitaterako tokia, erlazonala, gozagarria, komunitarioa eginez.

Hiria edo herria jolaserako –berez autotelikoa den jardue-  
ra zinez hezigarri horretarako– continuuma bilakatzeaz ari  
gara, azken batean.

## **Haurren kultura**

Sarreran erran bezala, espazioa begi kritikoz aztertzeari be-  
zain garrantzitsua deritzogu bertan dauden pertsonengan  
arreta jartzeari. Lan honek haurrengan fokua jartzea helburu  
izaki, horixe bera egingen dugu orain. Espazioaz eta hirigin-  
tzaz ari garenean, gure karrikak (eta gisa orotako orubeak)  
okupatzen, erabiltzen, bizitzen dituzten haur horiei buruz  
solas egingen dugu, beraz.

Izan ere, jakina da perspektiba soziokultural konstruktibis-  
tak ingurunearekiko eta ingurukoekiko elkarrekintzari ematen  
dion garrantzia, bai eta ezagutzaren eraikuntzan norbanako  
bakoitzaren ariketa subjektibo aktiboak lukeen garrantzia ere.  
Vigotski, Bakhtin, Piaget, Karmiloff-Smith eta abarren tesiak  
ongi txertatu izan dira gaur eguneko hezkuntza prozesu formal  
zein ez-formal aunitzetan ere. Aldiz, haurra, bere eskubide  
zibil eta politikoei dagokienean, akaso Rousseau ilustratuak  
pedagogian utzitako itzal luzearen eraginez, bertzeak bertze,  
heldugabeko edo proiektuan legokeen bigarren mailako hirita-  
rra da oraindik ere. Pertsona ez-oso, ondu gabeko edo etorki-  
zuneko gisako tratua ematen zaio. Nerabegarora edo gaztarora  
ailegatuta jendartean modu egokian integra dadin heztera  
gonbidatu gaituen ikuskera hura nagusi da oraindik ere.

Ikuskera tradizional horrekiko aurrez aurre kokatuko li-  
tzateke L. Malaguzziren lana. Bere teorian, haurra subjek-  
tu politikoa da, eremu horretan gure jendarteari ekarpe-  
nak egiteko eskubidea eta gaitasuna lukeen pertsona, beraz.  
Haurren eskubideez hitz egiterakoan, gabeziak erdigunean  
kokatu dituen jendarte bati egindako proposamen politi-  
ko erradikal batez ariko ginatke hizketan, inolako aitortza  
politikorik ez lukeen kolektibo bati hitza emateko beharra  
aldarrikatzen duena eta hainbat esperientzia pedagogikoren

bitartez praktikara eramaten duena, Reggio Emiliako udal haur eskolen sarean, adibidez.

J. Oiarbidek eta M. Saenzek (2000) diotenez:

Horregatik, Reggio Emilian beste guztien artean imajina hau aukeratu dute: haur sendo (indartsu) aberats eta gaitua. Beharrak badituela ahaztu gabe, baina batez ere bere ahalmenak, errekurtsioak eta eskubideak azpimarratuz.

*Herri Hezitzailea*  
proposamenak gure  
ohiko antolaketaren  
egiteko moduak zein  
aldarrikapen zahar eta  
berriak bere egiten ditu:  
auzolana, parte hartzea,  
batzarra, komunitatea,  
euskalgintza, herrigintza  
eta feminismoa

Orain arteko ideia horiek oinarri hartuta eta horiek bertaratu nahian, 2012an Oinherri sortu zuten unibertsitatearen, hezkuntzaren, artearen, euskararen eta aisialdiaren inguruan aspaldi lanean zebiltzan hainbat taldek. Euskal Herrirako irakurketa propioa eginez, aisialdi parte hartzaile, hezitzaile, euskaldun, feminista eta herritarra helburu hartuta hasi ziren lanean, corpus teorikoa osatzearekin batera han eta hemen esperientziak abiaraziz.

L. Agirrek (2014), oinarrizko dokumentuaren erredakzioaren arduradunak, zera dio sorrera dokumentuan:

Azken finean xedea pertsona autonomo eta askeak bilakatzea da; eta tokian tokiko behar, nahi eta asmoei erantzutea, komunitate hurbila hobetzea, herrigintza praktikatzea, eta, ezinbestez, euskaldun eta euskal hiztun komunitateko kide izatea.

Bistan denez, aitzinetik aipatutako hainbat oinarri teorikori, beraz, Euskal Herriak berezko dituen hainbat aldagai sozial, politiko eta kultural barnebiltzeko nahi argia izan da lehen unetik. Bertatik bertarako irakurketa, *Herri Hezitzailea* izezez zabaldu dena tokian tokiko praktika politiko berrian.

Izan ere, jendarte orekatu eta justuagoa lantzera datorren proposamen sendoa litzateke, gure ohiko antolaketaren

egiteko moduak zein aldarrikapen zahar eta berriak bere egiten dituen: auzolana, parte hartzea, batzarra, komunitatea, euskalgintza, herrigintza eta feminismoa. Tradizionalki herrigintzako eragile eta kolektibo gisara aitortu izan diren horien multzoari haurren hitza gehitzeko beharraren aldarria dakarrena. Zentzu horretan, txosten berean hauxe ezartzen da helburu gisa:

Haurrei benetako erabakitze ahalmena eman eta eurek diseinatu-tako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez euskararen erabilera sustatuz, gure hurbileko gune urbanistiko, ekimen eta pertsonen arteko harremanak hobetzea eta komunitate sarea indartzea, beti ere estetikaren lanketari estu atxikita, edertasuna xede dela.

Hurrengo lerroetan, ezaugarri aski ezberdinak dituzten hainbat herritan aitzinera eramane diren esperientziatako baten zertzelada zenbait emanen dugu; Baztango kasuaz ariko gara, hain zuzen ere.

## **Kerizu Beretik, Baztan Hezitzailearen aldeko ekimena**

2014ko udazkenean, Oinherriko lagunak Elizondora hurbildu eta *Herri Hezitzaileen* sareko kide izateko gonbita luzatu ziguten bilerara deitutako hogeit hamar eragile, talde eta ikastetxetik goitiri. Oraindik ere lehen urratsak ematen ari zen egitasmoaren berri eman eta Nafarroako lehen esperientzia Baztanen izan zitekeela baloratu zen, bailararen berezko ezaugarri zenbaitek proposamena, interesgarria izateaz gain, aski egingarria bilakatzen baitzuen. Ezaugarri horiek, batik batik, bailararen egituraketa administratibo bereziari eta gobernantza eta antolaketa soziopolitikorako ereduari lotutakoak dira. Izan ere, jakina denez, foru liberalaren aitzineko araubidearen ezaugarri aunitz mantendu dira gaur den egunera arte, eta, gauzak horrela, auzolanak, herri batzarrak, Batzar Orokorreko kideak aukeratzeko era asanblearioak, komunalak eta oro har herri erronkak aitzinera ateratzeko lan komunitarioak, indarrean jarraitzen dute tokiko administrazio

zuzenbidean, araudian (Baztango Ordenantzak) zein herri praktika politikoan ere.

Ekimena, beraz, gobernantza eredu herrikoia eta parte hartze herritarra praktikatzen dituen herri bati egindako proposamena izan zen hasmentatik. Orduko udalak, hezkuntza formaleko ordezkariak eta kulturgintzaren eremuko hainbat eragilek ongi hartu zuten, gainera, baita hamabost herrietako zinpeko alkateetako gehienek ere.

Harez geroztik, bailaran ildo horri jarraikiz sortutako ekimenez gain, ordura arte abian ziren proiektuetan eta talde ezberdinen ikuspegian haurren kulturaren perspektiba txertatzen saiatu gara.

Segidan, aitzinera eramandako esperientzietako batzuen zertzelada zenbait emanen da, ulertuz, garbi geldituko denez, ildo filosofiko honi jarraikiz izan daitezkeen esperientzien nolakotasuna zabala dela arras. Baratze Hezitzailea, Haur Kantu Jira eta Lekarozko besten programa aukeratu ditugu lagin gisa. Proposamenak aski desberdinak izan arren, hiru-retan ere espazio urbanoaren ohiko erabilera edo okupazioa birplanteatzen da, haurren interesak eta iritziak erdigunean jarri eta bertzelako proposamen alternatiboak eskainiz.

### **Baratze Hezitzailea**

Proiektu honetan Elizondoko herriko eskola eta Baztan ikastolako haur eta maisu-maistra zenbait, Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Elizondoko herria eta hainbat herritar –jubilatuta eta guraso– ibili ziren elkarrekin koordinatuta lanean. Helburuak, bertzeak bertze, espazio urbanoan, herri-gunean, pixkanaka ohiko paisaiatik kanpo gelditzen ari diren baratze eremuak berreskuratzea, herriko bi ikastetxeen arteko elkarlana sustatzea eta belaunaldi ezberdinen arteko pertsonen hartu emana izan ziren. Lur saila bilatu eta hura presatzea, baratze egutegia zehaztea, lan ordutegiak antolatzea eta aurrekontua eta finantziazioari lotutakoak inplikaturako eragileetako arduradunen arteko asteroko bileretan erabaki

ziren. Behin horiek edukita, haurrek izan zuten baratzea antolatzeko, landareak erosteko eta hura zaintzeko ardura.

### **Haur Kantu Jira**

Ekimen hau Baztan bailarako ikastetxe guztien –bereziki musikako irakasleen inplikazioa bilatu zelarik–, Baztango Udalaren, Josu Txapartegi *Txapas* eta Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* bikotearen eta Baztango hainbat musikariren laguntzaz eraman zen aitzinera. Parte hartuko zuten musikariekin lehen kontraste bat egin, eta ikastetxeetako haurren artean kantu jirarako kantuak aukeratzeko prozesu parte hartzailea abiatu zen. Behin kantuak erabakita, musikariei emaitzaren berri eman eta elkarren artean partiturak trukutzen eta doinuak prestatzen aritu ziren. Elizondoko herrian barrena larunbat goiz baterako ekimenean parte hartzeko gonbita orokorra luzatu zitzairen baztandar orori tokiko komunikabide eta ohiko sareen bitartez.

### **Lekarozko besten programa**

Baztango herri gehientsuenetan bezalaxe, Lekarozen ere herriko gazteek antolatzen ohi dituzte bestak, behin Danbolin Nagusiak eta Danbolin Etxekoandreak horietariko zein izanen diren hautatuta. Kasu honetan, gazte horietariko batzuen ekimenez, programa osatzeko haur batzarrak egitea erabaki zen. Batzar horietan herriko haurren ekarpenak jasotzeko eta programa berrian egikaritu ziren. Ondorioen artean, pentsa zitekeen moduan, haurrentzako ekintzen presentzia nabarmen handitu da besta egunetan zehar, eta, hemen akasotzeko gehiago interesatzen zaiguna, lekaroztar gazteenek haien hitza herriko batzar gelan emateko praktika ahaldugarrian trebatzen hasi ahala, batzar gelan hitza emateko aukera, garrantzi eta onuraren kontzientzia barneratuz –sentituz eta biziz– joan dira.

Laburbilduz, Baztan Hezitzailea –Kerizu Beretik Herri Ekimena– hauxe da: herrietako alkate eta besta batzordeak



haren alde aritzea, sare ezberdinetako ikastetxeek proiektu baten bueltan elkarrekin lanean jardutea, enplegu babestuko langileak eta zahar etxeko pertsonak hurrekin batean aritzea edota udalaren gobernu taldearen ildo politikoan haurren kultura txertatzeko eginahalak egitea.

Praktikan, Herri Hezitzaileak ekarri dituenen artean leudeke eskolako parkearen ezaugarriei buruzko kezka ikastetxeetako guraso elkarteetan sortaraztea, udalak kultur transmisioan eragiteko Haur eta Lehen Hezkuntzarako unitate didaktikoak sortzeko egitasmoa abian jartzea, baratzearen eta kantu jiraren esperientziak Baztango herri gehiagotara hedatzea, Elizondoko soka dantza zaharberrituan hurrek bertze edozein bizilagunek jokatzen duen rol bera hartu ahal izatea heteropatriarkatuak eta klasismoak historian zehar ezarritako zantzu oro ezabatuz. Gainera, oraindik ere sortu ez diren hainbat proiektu berri amesteko marko teoriko berri bat eskaintzen digu, kritikoa eta eraldatzailea izateaz gain, termino sozial zein ekologikotan tokiko garapen jasangarri, justu eta orekatuaren aldeko lan orokorrekarekin eskutik hartuta arituko dena.

Anekdotarako, zerura begira, eguraldia nola datorren kezkatuta-edo, dagoen mutikoarena –«gure litxu hoiiek zertan egonen dira» bere baitarako baina ingurukoek aditzeko moduan galdeginez–, edota haur batzarretik bueltan gurasoei «hemendik aitzinera batzarra deitzen delarik aldike zu, ama, eta bertzeetan ni ganen naiz» erraten zuen neskatikoarenak leudeke. Biak ere, hain zuzen, ardura 'ez-ohikoak' izate horrek bizitzaren, proiektu kolektiboen eta erantzukizunaren garrantziaren kontzientzia hartzetik heldu direnak.

## Zenbait ondorio

Espazioaren erabilera eta haurren ekintzailetasun gaitasuna jorratu nahi izan ditugu lerro hauen bitartez. Jendarte kapitalista heteropatriarkal honetan, -tasun eta -ismo ez askeago jokatzeke aukera lukeen kolektibo batengan jarri dugu begirada.


Izan ere, haurtzarora litzateke, gure aburuz, irudimentsuago eta askeago jokatzeko aukera ematen duen garai hura, estereotipo eta aurreiritzi aunitzen aurreko sasoia.

Aldiz, zaintza eta heziketa teknifikatuz eta merkantilizatuz goaz izugarritzko abiadan, horiengan kontsumoaren logika guztiak ezarriz: lehia, etiketatzea, mozkinen bilaketa, sailkapena, etengabeko konparazioa, indibidualizazioa, goiztiartasuna, zaharkitze programatua... Horrekin lotuta, eta ikuskera beraren baitan, etengabe haurrentzako produktu berezituak sortzen ditugu, eta, horrekin, haurrentzako estetikoki polita, segurua, aseptikoa edota pedagogikoa zer denari buruzko ikuskera zehatza ezartzen, naturalizatuz goazena egia gisara. Plastikoa, partxis koloreak, Disney iruditeria, generoaren/adinaren arabera banandutako orotariko produktuak, elikadura, garbitasun edota osasun egokiaren inguruko ildo farmakologikoa... Guztiak, bistan denez, izugarri erakargarria zaion merkatu-hobi horri begira dagoen industria erraldoi baten mesedetan.

Patriarkala, koloniala, helduzentrikoa, bertikala, autoritarioa, erasokorra, artifiziala, kontrolatzailea, homogeneizatzailea, sinplista eta estereotipatua den maitasuna eskaintzen die merkatuak gaurko haurrei haren produktu eta ideologiaren bitartez. Beraz, bai, gure haurrak maite ditu jendarte honek, noski; baina maitatzeko modu hori leudekeen artetik posibleetako bat dela aitortu beharko dugu gutxien-gutxienean.

Hori guztia begirada kritikoz aztertu eta deseraikitzen hasia dagokigu, espazioan eragitetik eta periferietan leudekeen kolektiboen aitortzatik, eraldaketa politikorako tresna berriak sortuz: parte hartzea, karrika, elkarlana, adinartekotasuna, borroka feminista, euskara eta jasangarritasuna ezinbertzean barnebilduko dituen.

Gure haurrak maite ditu jendarte honek, noski; baina maitatzeko modu hori leudekeen artetik posibleetako bat dela aitortu beharko dugu gutxien-gutxienean

Periferia sozial, kultural eta politikoak erdigunera ekarriz eta periferia fisikoak (topografikoak, espazialak) bizigarri eta hezitzaile direla aitortuz, beroriek okupatu, ikusgarri bilakatu, autogestionatu, bizitu beharko ditugu, berorietan hazi, jendarte justu eta demokratikoagoaren peskizan elkarrengana heziz. 

### **Bibliografia**

- Agirre, L. (2014): 'Haurren aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen', *Oinherri koaderno bilduma 1* ([https://oinherri.weebly.com/uploads/4/6/8/5/46858705/0\\_kuadernoa.pdf](https://oinherri.weebly.com/uploads/4/6/8/5/46858705/0_kuadernoa.pdf)).
- Eslava, C. (2018): 'Habitatzean heztea', in Askoren artean: *Hezkuntza eta Espazioa 2018*, Iruñea, Nafarroako Eskola Kontseilua, Nafarroako Gobernua, 15-26 ([https://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/wp-content/uploads/2018/06/CEN\\_Mono\\_Espacios\\_eusk\\_web.pdf](https://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/wp-content/uploads/2018/06/CEN_Mono_Espacios_eusk_web.pdf)).
- Hik Hasi (2012): 'Espazioa, bizi dugunaren markoa. Haur eskoletako espazioaren antolaketa eta diseinua', *Hik Hasi* 173, 10-16 ([www.hikhasi.eus/uploads/erab\\_1/2012/12/1498220302-173.%20hik%20hasi.pdf](http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2012/12/1498220302-173.%20hik%20hasi.pdf)).
- (2014): 'Herri hobea lortzeko, eskolan nahiz kalean, haurrak erdigunean', *Hik Hasi* 186, 10-18 ([www.hikhasi.eus/Artikuluak/20140301/herri-hobea-lortzeko-eskolan-nahiz-kalean-haurrak-erdigunean](http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20140301/herri-hobea-lortzeko-eskolan-nahiz-kalean-haurrak-erdigunean)).
- (2015): 'Esperimentatzen uzten duten parkeak', *Hik Hasi*, 2015-11-16 ([www.hikhasi.eus/Albistegia/20151116/esperimentatzen-uzten-duten-parkeak](http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20151116/esperimentatzen-uzten-duten-parkeak)).
- Hoyuelos, A.; Azkona, T. (2015): 'Parkeak bizitzeko modu berriak', *Oinherri koaderno bilduma 5* ([https://oinherri.weebly.com/uploads/4/6/8/5/46858705/jolas\\_parkea.pdf](https://oinherri.weebly.com/uploads/4/6/8/5/46858705/jolas_parkea.pdf)).
- Jauregi, L. (2010): 'Haur Hezkuntzako gelen antolaketa espazialaren eta erabileraren deskribapena eta azterketa', *Uztaro* 74, 97-98 ([www.uztaro.eus/artikuluak/75/lorea-jauregi-elizondoren-tesiarene-laburpena/1499](http://www.uztaro.eus/artikuluak/75/lorea-jauregi-elizondoren-tesiarene-laburpena/1499)).
- Joffo, J. (1973): *Un saco de canicas*, Bartzelona, Debolsillo.
- Oiarbide, J.; Saenz, M. (2000): 'Reggio Emilia, Italiatik Euskal Herri-  
ra', *Hik Hasi* 53, 8-24 ([www.hikhasi.eus/Artikuluak/20001201/reggio-emilia-italiatik-euskal-herrira](http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20001201/reggio-emilia-italiatik-euskal-herrira)).
- Tonucci, F. (2013): *Haurren Hiria*, Arrasate, Txatxilipurdi.

# Espazio publikoa eta giza harremanak

Jone Miner Aginaga

*Arkitektoa eta hirigintza jasangarrian eta efizientzia energetikoan aditua*

**H**irigintza-tresnek definitzen dituzte gure auzo eta herriak, eta, ondorioz, hein handi batean, baita gure bizimodua ere; eremu bakoitzean egon daitezkeen erabilerek, eraikinen tipologiek edota kaleen eta plazen ezaugarriek eragin zuzena dute gure eguneroko bizitzan eta gure ohituretan. Beraz, baita senideen, lagunen, bizilagunen, auzotarren edo herritarren arteko harremanetan ere.

Hiri-ereduak bizimoduaren isla bezala interpreta litezke, Albert Cuchi (2017) Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Arkitektura Eskolako irakasleak esan bezala. Ikuskera horren arabera, hiria metabolismo sozialaren ondorioztat interpretatu behar da. Hala, tradiziozko hiriaren baliabideen oinarria lurraldearen kudeaketa zen, orduan bertatik lortzen baitziren baliabide sozialak. Bestalde, hiri tradizional horren kanpoalde garai modernoko hirigileek proposatutako hiri-ereduetan oinarritu zen; garai horretako proposamenek industrializatutako gizarte baten arazoei erantzun nahi izan zieten, garapen berri horrek emandako baliabideen bidez. Geroago, hiri lausoa izan da gizarte industrializatu aurreratu baten adierazpena, zeinak duela hamarkada batzuk pentsaezina zen eskalako mugikortasun- eta komunikazio-azpiegiturak

ekarri dizkigun, besteak beste. Orain, ordea, erronka berri bat dugu: gaur egungo industria-metabolismoa eraldatu beharrean gaude, jasanezina delako; hau da, metabolismo berri bat behar dugu, kutsakorra ez dena eta baliabide berri-erreserbatuetan oinarritzen dena.

Industrializazio garaitik datorkigun hirigintzak erabile-  
ren segregazioa eta espazio publikoaren funtzioen galera ere ekarri digu, eta horrek ondorio zuzena izan du giza harremanetan: gizarte kolektiboaren kaltetan, gizarte pribatua indartu da.

Hirigintza Ekologikoa izan liteke arazo horiei guztiei aurre egiteko behar dugun metabolismo berria. Hala, Salvador Rueda (2012) Bartzelonako Hiri Ekologiaren Agentziako zuzendariak adierazten duenez, hiru taldetan banatzen dira Hirigintza Ekologikoaren baldintzatzaileen multzoak: esku hartuko den gunearen testuingurua, hiri-sistemaren efizientzia eta hiriaren bizigarritasuna. Azken horri dagokionez, konforta eta interakzioa banaezinak diren bi alderdi dira hirigintza ekologikoan. Konfortak lekuaren ezaugarriei egiten die erreferentzia: espazio publikoa, etxebizitzak, ekipamenduak...; eta interakzioak gizakiaren baldintza sozialei, kohesio sozialari eta aniztasun biologikoari.

Beraz, lortu nahi dugun hiri-eredu berri horrek bizia, aktiboa, kolektiboa eta gertukoa izan behar du. Horretarako, José Fariña (2016) Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko irakasle emerituak bere hainbat argitalpenetan eta blogean adierazi izan duen moduan, badaude, hiri-eredu berri hori bultzatzeko, gure hirigintza-tresnetan barneratu ditzakegun hainbat hirigintza-baldintza:

### **Gutxieneko dentsitatea**

Bizitza hiritarra bermatzeko eta merkatu-ekonomia batean gertuko jarduerak ahalbidetzeko (komertzioak, ekipamenduak, zerbitzuak), beharrezkoa da gutxieneko dentsitate bat egotea. Herri edo auzo bizi eta aktibo baten oinarrietako bat herritarrek eguneroko bizimoduan egin behar dituzten

desplazamendu gehienak oinez egiteko modukoak izatea da. Hau da, ogia erosteko, parkera, eskolara edo liburute-gira joateko, autoa hartu beharrik ez izatea. Baina gertuko komertzio, ekipamendu eta zerbitzu horiek existitu ahal izateko, behar-beharrezkoa da horiek errentagarri bihurtuko dituen gutxieneko dentsitate bat. Dentsitate hori faktore askoren menpe dago, adibidez, eraikinen diseinuaren edota tipologia arkitektonikoaren menpe.

### Erabilera nahasketa

Aurretik aipatu moduan, industria-iraultzak sortutako hiri-plangintzak erabileren segregazioa planteatu zuen soluziobide gisa: lurralde banatu eta desberdinetara eraman zituen etxebizitza, industria, komertzioa, hezkuntza... Irizpide horrek, askotan, hiri oso disfuntzionalak sortu ditu, hiri oso zatikatuak.

Banaketa horrek zatika erakitako hiri bat dakar, hirigune etenetan eta dentsitate baxuetan oinarritua. Batetik, luxuzko etxebizitzak, bestetik, multzo komertzialak, babes ofizialeko etxebizitzak, gero parke handi bat eta, hirigunetik aparte, industrialde bat. Horrek guztiak izugarritzko energia kontsumoa eta kutsadura ekarri du, batetik bestera joateko ibilgailu pribatua erabili beste erremediorik ez dagoelako. Izan ere, oinez edo bizikletan desplazatzeko distantzia handiegiak dira, eta garraio publiko efiziente eta bideragarri bat ezarri ahal izateko dentsitate baxuegiak. Bestalde, lurzorua-  
ren gehiegizko okupazioa ere ekarri du, eta naturguneak hondatu eta zatitu egin ditu, askotan.

Erabilera ezberdinen nahasketa duten eremuak sortu behar dira, nahasketa soziala eta funtzionala bermatzen dutenak; hala, gertuko hiriak berreskuratu behar dira, eguneroko

Erabilera ezberdina duten eremuak sortu behar dira, nahasketa soziala eta funtzionala bermatzen dutenak; hala, gertuko hiriak berreskuratu behar dira

bizitzako gutxieneko jarduera eta zerbitzuak barneratzen dituztenak, eta desplazamendu gehienak oinez egiteko aukera ematen dutenak.

### **Eraikinen tipologia egokiak erabiltzea**

Zenbait hirigintza- eta arkitektura-tipologiek espazio publiko bizitasuna edo aktibitatea gutxitzen edo ezabatzen dute; maiz zirkulatzeko besterik ez dute balio, beste batzuetan horretarako ere ez. Adibidez, etxadi itxiak dituztenak, barruko espazio amankomun pribatuekin; horietan, haurrentzako jolas-parkeak, igerilekuak edota berdeguneak aurki litezke. Edo hiria banatutako irla txikien artxipelago bihurtzen duten urbanizazioak, zeinek komunitate bakoitzeko eremu murriz horretakoa ez den bestelako bizitza amankomunik ez duten izango. Zer esanik ez lorategi pribatua duten etxebizitza unifamiliar eta bifamiliarren kasuan: horien arteko kaleetan ez dago inolako aktibitaterik, pribatua eta publikoa banatzen duten hormaitsuak dira nagusi.

Baldintza horietan, besteekiko harremanak galdu egiten dira; ez da inolako inklusio sozialik egongo. Ezin da esan herri- edo hiri-bizitza dagoenik; kaleak, plazak eta parkeak itxurazko funtziorik gabe gelditzen dira, edo bere espazio ireki pribaturik ez dutenek bakarrik erabiltzen dituzte.

### **Espazio publikoaren diseinu egokia**

Garbi dago aurretik aipatu ditugun baldintzek eragin zuzena daukatela espazio publikoaren erabilgarritasunean. Baina honako baldintza hauek betetzea ere beharrezkoa litzateke espazio publiko egoki bat diseinatzerakoan: ingurumen baldintza egokiak izatea, osasungarria izatea (adibidez, kutsadura akustikoa ekidinez, natura barneratuz), erosotasuna bermatzea (klimatikoa, hiri-altzariena, paisaiaren aldekoa), baldintza sozialak betetzea (harremantzeko aukerak, elkarguneak sortzea), segurtasunari dagozkionak (oinezko, bizikleta edota ibilgailuen artean sor litezkeen arazoak eragozteko, delinkuentziarik gabek izatea, genero ikuspegiari dagokionez

arriskurik gabeak...) eta irisgarritasunari dagozkionak ere kontuan izatea.

Espazio publikoak herritar guztien beharrei erantzun behar die, kolektibo ahulenei ere bai (haurrak, adinekoak, ezin-duak, emakumeak...). Eta hori kontuan hartu behar da gure kaleak, plazak eta parkeak diseinatzerakoan.

### **Parte-hartzailea**

Hirian esku hartzeak eztabaida publikoa eskatzen du (Fariña 2009); herritarren parte hartzea beharrezkoa da prozesu osoan zehar, sortzetik eraikitzera eta kudeatzeraino. Izan ere, erabiltzaileak dira bertako funtzionamendua ezagutzen dutenak eta bertan bizitza nolakoa den benetan dakitenak. Eta, bereziki, kolektibo ahulenek (haurrek, adinekoek, ezin-duek, emakumeek...) ezagutzen dute ondoen; alegia, kalean ordu gehien pasatzen dutenek eta, ondorioz, espazio publikoaren potentzialtasunak eta ahultasunak hobekien ikusten eta jasaten dituztenek.

### **Usurbilgo esperientzia**

Usurbil, azken urteetan hirigintza arloan garatzen ari den plan eta proiektuetan, orain arte azaldutako irizpideak jarraitzeko saiakera egiten ari da. Hiri Antolamenduko Plan Orokorretik hasi eta parkeen edo kaleen berregokitze proiektuetaraino, orain arte landutako hainbat lanen laburpena jaso da jarraian.

### **Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra**

Hiri Antolamenduko Plan Orokor batek udalerrri osoko lurzorua sailkatzen du hiru multzotan: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina. Bestalde, lurzorua kalifikatu egiten du, hau da, erabilera orokorrak eta xehatuak arautzen ditu zonaka (etxebizitzak, ekipamenduak, jarduera ekonomikoak, parkeak...). Eta eraikuntzaren tipologiak eta



espazio publikoaren oinarritzko ezaugarriak ere zehazten ditu. Publiko eta pribatuaren arteko banaketa zehaztera ere iritsi ohi da.

Usurbil Hiri Antolamenduko Plan Orokorren idazketa prozesuan murgilduta dago. Plan horrek bertako biztanleen

Usurbil Hiri  
Antolamenduko Plan  
Orokorren idazketa  
prozesuan murgilduta  
dago. Eguneroko  
bizitzaren errealitatea  
eta herritarren iritziak  
hasiera-hasieratik  
kontuan hartu  
nahi izan dira

bizimoduan eragin zuzena izango duenez, eguneroko bizitzaren errealitatea eta herritarren iritziak hasiera-hasieratik kontuan hartu nahi izan dira. Hala, Diagnostikoa idatzi zenean, analisi teknikoa herritarren parte hartzeko prozesu sakon batetik ateratako ekarpenekin osatu zen. Ondoren, dokumentu horretatik ateratako ondorioetan oinarrituta, eta herritarrekin partekatu eta gero, Aurrerakineko aukerak eta Plana idazteko Irizpide eta

Helburuak onartu ziren. Orain, Hasierako Onespeneko dokumentuaren idazketa fasea dago martxan.

Aipatutako lanean, garrantzi berezia izan zuten eraikitako hiriaren eta herriko mugikortasunaren azterketek eta ingurumen-arloko analisiak. Azterketa horietatik ondorioztatu zen, besteak beste, herriko mugikortasuna birpentsatu, kaleak oinezkoentzat lehenetsi eta espazio seguruagoak egiteko beharra zegoela. Hori dela-eta, Usurbilgo Espazio Publikoaren eta Mugikortasun Iraunkorren Berrantolaketa Plana abian jarri zen.

### **Mugikortasuna eta Espazio Publikoaren Plana**

2016ko udazkenean hasi zen, Usurbil Kale Irekiak lelopean, Usurbilgo Espazio Publikoaren eta Mugikortasun Iraunkorren Berrantolaketa Plana idazteko prozesua. Hirigintza

lanetan, eguneroko bizitza aintzat hartu eta proiektuetan genero irizpidea txertatzea izan da lan horren helburua. Hain zuzen ere, eguneroko bizitza zentroan jarri, lan erreproduktiboari garrantzia eman eta mugikortasun iraunkorra bultzatzea.

Hala, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen diru-laguntza jaso zuen lan horrek, 2016ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko diru-laguntzak emateko deialdian.

Azken mendeko hirigintzak ibilgailuen joan-etorrietan oinarritu du herrien egituraketa; autoa hartu da garraibide nagusitzat, horrek hartu du zentraltasuna, eta horren beharren arabera kale eta espazioak antolatu dira. Gainontzeko mugikortasun aukera guztiak eredu horretara moldatu behar izan dira, eta, beraz, azken horien erabiltzaileen beharrak ez dira kontuan hartu. Horregatik, lan horrek mugikortasun iraunkor eta demokratikoaren alde egin du; hau da, gaur egun mugikortasunean dauden lehentasunak alderantzizaketa izan du oinarri.

Espazio publikoak askotarikoa behar du izan: herriaren espresiorako eremua, zainketarako lan eremua, herritarren konfrontaziorako eta bizikidetzarako eremua, sozializaziorako eta harremanetarako. Eta aniztasun hori lortzeko, hauek izan dira kontuan hartu diren irizpideak: bizitza kalitatea, eguneroko bizitza zentroan jarriz; sarea; mugikortasun geldo; askatasuna eta erabilerarako aukera berdintasuna eta espazio publikoa herritar guztien erakusleho bihurtzea.

Parte hartzeko prozesua bi fasetan banatu zen: lehen fasean, hainbat saio egin ziren auzoetan, emakumeekin eta hurrekin ikastolan. Bertatik, diagnostikoa osatu zen eta baita beharrak identifikatu ere. Informazio baliotsua jaso zen herritarrengandik: batetik, auzoetako plazak oinezkoentzako gune bihurtzeko beharra ikusi zen, baita herriguneko gaur egungo oinezkoen gunea zabaltzekoa ere; horrekin batera, besteak beste, eskolara, kiroldegira, udaletxera eta Artzabal plazara oinezko lotura seguruak egokitu beharra ere nabarmendu

zen. Bestetik, auzo bakoitzean, horien artean, eta inguruko herriekin lotura izango duen bizikleta-bideen sare bat sortzea eta garraio publikoa hobetzea ere lehentasunezko hartu ziren.

Ondoren, Usurbil Kale Irekiak prozesuaren fase nagusitik ateratako proposamenetan oinarrituta, herritarren beharren neurria egindako Plan Zuzentzailea diseinatu zen. Orduan egin zen parte hartzeko prozesuaren bigarren fasea, planaren lehen zirriborroa berriro herritarrekin lantzeko eta zerrendatutako ekintzetan lehentasunak definitzeko.

2017ko abenduan amaitu zen Planaren idazketa, eta, bertan, mugikortasun iraunkorrean oinarritutako herriko sareen eskema berriak, zonaldeka banatutako 53 ekintza eta horiek gauzatzeko plangintza barneratu ziren.

Lehenik, mugikortasun eskema ezberdinak finkatzea izan zen gako garrantzitsuenetako bat; eskema horien baitan, hauxe zehaztu zen: aparkalekuen politika, kaleen noranzko eta norabideak, eta mugikortasun modu bakoitzaren sareak nola eratuko diren eta kaleetan zein espazio fisiko okupatuko duten. Plan honetan, horrenbestez, mugitzeko moduak aldatzea proposatzen da, eta eguneroko ohiturak horretara egokitzea. Mugikortasun-modu desberdinak ordena honen arabera finkatu ziren: oinezkoak, motorrik gabeko ibilgailuak (bizikletak, gurpildun-aulkiak, patinak...), garraio publikoa eta, azkenik, ibilgailu motordun partikularrak (autoak eta motorrak, batez ere).

Ekintza zehatzen artean, honakoak jasotzen dira, besteak beste: herriguneko autobus geltoki zentralizatu berria, udal-letxe inguruaren berrantolaketa, Bordatxo biribilgunearen oinezkotzea, Aginagako plazaren berrurbanizatzea edota Kalezarko eskailerak berritzea eta parke berria egokitzea.

*Autobus geltokia.* Gaur egun Usurbilgo herrigunean hainbat autobus geltoki daude herrian zehar barreiatuta. Horrela, erabili nahi den autobus-linearen arabera, geltoki batera edo bestera joan behar da autobusa hartzera. Horrek zaildu egiten du garraio publikoa erabiltzea. Gainera, geltoki nagusietako

bat ez da batere egokia: batetik, herrigunetik aparte dagoelako, eta, bestetik, irisgarritasun baldintza kaxkarrak dituelako.

Planaren helburu nagusietako bat gaur egungo garraio publikoa hobetu eta indartzea da. Autobus geltokiak bakarrean bateratzeak mesede handia egingo lioke helburu horri. Hala, autobus geltoki berri hori herriko bihotzean egitea proposatzen da esku-hartze honetan. Aterpea izango luke, eta leku irisgarria eta segurua izango litzateke, gainera. Egitasmo horrek inguruaren birmoldatzea ere eskatzen du. Nolanahi ere, kontuan izan behar da esku-hartze hori beste ekintza batzuen menpe dagoela.

*Udaletxe inguruaren berrantolaketa.* Gaur egun udaletxearen eta bere plazaren inguruan autoek dute lehentasuna; aitzitik, oinezkoentzat eta bizikletentzat oztopoz betetako eremua da. Berrantolaketa planean, autoak udaletxearen atzealdetik bideratzea eta aurrealdearen zati handi bat oinezko bihurtzea proposatzen da. Hala, herriguneko oinezkoen gunea udaletxeko sarreraraino zabaltzea da asmoa, oinezkoentzat eta bizikletentzat guna irisgarria eta segurua lortzeko.

*Bordatxo biribilgunearen oinezkotzea.* Usurbilgo herriguneko ibilbide garrantzitsuenen giltzarria da Bordatxoko biribilgunea. Izan ere, herriko trafikointentsitate handienetakoa duen puntua da, bertan elkartzen baitira herriko hiru kale garrantzitsuenetakoak. Horretaz gain, herriguneko oinezkoen gunea haraino iristen da eta kiroldegira, anbulategira eta ikastolara joateko bide nagusia ere bertatik igarotzen da. Biribilgune horretan, hala eta guztiz ere, autoak dira protagonistak, eta oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna asko zailtzen dute.

Ekintza zehatzen artean, honakoak jasotzen dira, besteak beste: herriguneko autobus geltoki zentralizatu berria, udaletxe inguruaren berrantolaketa, Bordatxo biribilgunearen oinezkotzea...

Gune horretarako proposatzen den esku-hartzearen helburua da oinezkoentzat eta bizikletentzat ibilbideak erraztea; hau da, oinezkoen gunea zabaltzea eta bertatik ikastola eta kiroldegirako lotura hobetzea. Horretarako, hainbat kale noranzko bakarrekoak bihurtzea eta biribilgunea kentzea proposatzen da. Ondorioz, ibilgailu motordunen sarea herrigunetik urruntzea dakar proposamen horrek. Hala ere, proposamen hori abian jarri aurretik, beste ekintza batzuk burutzea behar-beharrezkoa da.

*Aginagako plaza.* Herritarrek hala eskatuta, Aginagako garai bateko plazan pilotaleku estalia eraiki zen. Pilotalekuak bereganatu egin zuen plaza, eta hondar-espazio estu eta funtzionalki trakets bihurtu zen lehen plaza zabala izandakoa. Gaur egun, espazio hori –pilotalekuaren, elizaren eta eskolaren artean gelditzen dena– oinezkoek eta autoek partekatzen dute. Gune hori herriko bihotza da, herriko elkargunea, baina ez zaio izaera hori aitortzen; izan ere, autoek etengabean zeharkatzen dute, eta, gainera, aparkalekuak ere baditu.

Leku hori arnasberritu eta oinezkoentzat lehenetsi beharra dagoela ondorioztatu da Kale Irekiak parte-hartze prozesuan. Horrenbestez, esku-hartze horretan Aginagako plaza oinezkoentzat berreskuratzea eta egokitzea proposatzen da. Horretarako, noski, autoentzako ordezkotako ibilbide bat eta beharrezko aparkalekuak berrantolatu beharko dira gune horretatik gertu.

*Kalezarko eskailerak eta parkea.* Herrigunetik Kalezar auzora igotzeko bide labur eta erabilia izan da aspalditik Errekatziki parkeko eskaileretan barrena doana. Eskailera horiek, ordea, ez zeuden batere egoera onean; izan ere, ez zituzten betetzen irisgarritasun baldintzak. Bestalde, Kale Irekiak prozesuan ikastolako haurrekin egindako saioetan, parke horretan jolaserako elementuak jartzeko proposamen zehatzak jaso ziren. Horregatik guztiagatik, eskailera horiek berritzea eta parkea egokitzea izan da dagoeneko gauzatu den ekintzetako bat.

## **Txirikorda, belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren proiektua**

Gaur egungo etxebizitzaren ereduak eta beren prezioek ez diete erantzuten jendartearen beharrei, eta horren aurrean beharrezkoa da eredu berriak diseinatu eta inplementatzea, besteak beste, izaera publiko-komunitarioa izango duten etxebizitzak sustatuz.

Gazteak eta adin nagusiko pertsonak bereziki baztertu-ta geratzen dira gaur egun indarrean dagoen eskaintzatik. Lehenengoak euren diru-sarrerengatik nagusiki, bigarrenak zenbait faktorerengatik (irisgarritasuna, herrigunetik urrun bizitzea, bakardadea, beharrak aldatu direlako...). Horregatik pentsatu da bi kolektibo horiek elkarren eskutik joan daitezkeela, kemena eta esperientzia bateratuz, txirikorda bat sortuz.

Txirikorda proiektua lantzeko, 2019ko urtarriletik apirilera bost lan-saio gauzatu ziren. Proiektuak bi helburu nagusiri erantzun nahi die: gazteentzako emantzipazio beharrari eta adineko pertsonentzako etxebizitza eta bizikidetzaren eredu berrien beharrari.

Hala, Usurbilgo Ugartondo eremuan, Ugarte baserriaren ondoan, belaunaldiarteko hamasei etxebizitza komunitarioko proiektua landu da, eta 2021ean martxan egotea aurreikus-ten da. Norberaren beharrak asetzeko etxebizitza pribatuak eta espazio komunitarioak izango ditu, behar kolektiboak eta belaunaldiarteko elkarbizitza bultzatzeko. Eraikin berria izango da, eta diseinua, bertan egongo diren etxebizitza ti-pologia ezberdinak barne, herritarrekin batera erabaki da. Funtzionamenduaren alderdi garrantzitsuenak ere lanketa horretan adostu dira, hala nola bertan biziko direnen eta erabiltzaileen betebeharrak eta eskubideak, eta baita espazio komunak erabiltzeko arauak ere.

## **Zumarte Musika Eskola**

HAPOn diagnostikoan, Eraikitako Hiria atalean, 1960 bitartean eraikitako auzo eta kaleen balioa nabarmentzeko

eta bertako ekonomia aktibatzeke urratsak ezartzeko beharra ikusi zen (Usurbilgo Udala 2015). Horretarako, batetik, etxebizitza eraikinen birgaitzea sustatu beharra azpimarratzen zen, babestutako ondarea errespetatuz eta balioetsiz. Eta, bestetik, kaleak biziberritzeko estrategia berriak ezarri beharra ere bai. Multzo horretan dago, besteak beste, Usurbilgo Kale Nagusia. Hala, Usurbilgo Espazio Publikoaren eta

Guztion Eskualdea  
eskualdea osatzen duten  
herrietako merkataritza  
guneak indartzeko  
ekimena da. Bi lan-ildo  
nagusi jorratzen dira:  
lokal hutsen eta espazio  
publikoaren aktibazioa

Mugikortasun Iraunkorraren Berrantolaketa Planean ere jasotzen zen Kale Nagusia biziberritzeko beharra; horren harira, kalearen zati bat oinezko bihurtzeko ekintza ere jasotzen da bertan.

Usurbilgo Zumarte Musika Eskolak Kale Nagusiaren 45. zenbakian duen eraikinean garatzen du bere jarduna. Aspaldiko urteetako eskakizuna

da musika-hezkuntza modu egokian bermatzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzea; izan ere, jatorrizko eraikinak hainbat gabezia ditu, bai eraikuntza eta instalakuntza aldetik, baita azalera eta guneen konfigurazioari dagokionez ere.

Musika eskola birgaitu eta handitu, edo, bestela, lekuz aldatu eta berri bat egin, bi aukera horiek jarri izan dira mahai gainean. Baina, ekipamendu hori beste leku batera eramatea Kale Nagusia biziberritzeko helburuaren aurka zetorrela ikusita, bertan mantentzea erabaki zen.

Hori dela-eta, Zumarte Musika Eskola handitu eta birgaitzeko proiektua idatzi zuen OS3 Arkitektura taldeak udalaren enkarguz, eta une honetan obra-lanak gauzatzen ari dira.

Proiektuak, hirigintza aldetik, kontuan hartu ditu inguru-neak ezarritako baldintzak, hiri-bilbea eta oinezkoen ibilbideak eta espazioak eta paisaia. Bestalde, programaren antolaketan, tarteko espazioak eta erosotasuna eta funtzionaltasuna ere landu dira, bereziki.

Proposamenak eraikuntza bioklimatikoaren irizpideak jarraitu ditu. Hauek dira bere ezaugarri teknikoak eraikuntzari dagokionez: itxituren transmitantziak kontrolatuz behar energetikoak gutxitu dira, eguzkiztapen zuzenetik babesteko neurriak hartuko dira, isolamendu termikoa indartuko da material ekologikoak erabiliz; argiztapen naturala ahalik eta gehien aprobetxatzeko moduan diseinatu da eraikina eta igogailuaren erabilera beharra murrizteko neurriak hartu dira. Bestalde, instalazioei dagokienez: argiztapen artifiziala kontsumo baxuko sistemen bidez hornitu da, berokuntza eta hozte instalakuntzetan errendimendu altuko ekoizpen sistemak ipini dira, energia berriztagarriak erabiliz, eta uraren erabilera arduratsua egin dadin bitartekoak ipini dira. Oro har, material ekologikoak lehenetsi dira eta airearen kalitate egokia bermatu da.

### **Guztion Eskualdea proiektuaren baitan Usurbilgo espazio publikoa aktibatzen proiektua**

Guztion Eskualdea Beterri-Buruntzako Udalek sustaturiko ekimena da, eskualdea osatzen duten herrietako merkataritza guneak indartzeko. Proiektu horren baitan bi lan-ildo nagusi jorratzen dira: lokal hutsen aktibazioa, batetik, eta espazio publikoaren aktibazioa, bestetik.

Bigarren horren testuinguruan, 2018-2019 urteetan zehar herrigune bakoitzeko eremu batean esku-hartzeko estrategiak planteatu dira, aurreazterketa batetik abiatuta, estrategia horiek gunearen berezitasun eta ezaugarrietara moldatuz, eta espazioaren potentzialak esku-hartzean barneratzen saiatuz.

Espazio publikoa aktibatzen proiektuaren funts nagusiak bi dira: batetik, gure herriguneetan kale-espazio atseginak sortzea, bertako merkataritzaren mesedetan; eta, bestetik, espazio publikoaren erabilerak dibertsifikatu eta modu anitzetan erabiltzeko baliabideak eskaintzea. Gure herrietako kale eta plazak bertako biztanleen arteko harremanak gertatzen diren espazio fisikoa diren heinean, herritar espektro zabalaren



arteko harremanak bermatzen dituen espazio inklusibo eta atseginak sortzeko baliabideak ematea izango da helburua.

Usurbilen 2018-2019 urteetan esku-hartzeko hautaturiko eremua herriko erdigunea eta Kale Nagusia lotzen dituzten bi espazio lirateke: alde batetik, Kale Nagusiaren 10. zenbakiko atarian kokaturiko pasabidea; eta, bestetik, Olanoenea plaza, kultur etxearen albo batean kokaturik, Kale Nagusiaren baitan dagoen espazio publikoetako bat.

Kale Nagusiaren 10. zenbakiko pasabideko esku-hartzearen helburua espazio horri entitatea ematea eta herrirako sarrera-gune erreferenteetako bat bihurtzea izango da. Horretarako, proiektu horren markoan, pasabidea osatzen duten elementu ezberdinen ondorengo hobekuntza-lanak burutuko dira: egoera kaskarrean dagoen pasabideko sabaia berritu egingo da, argiztapen berria jarriko da, egun duen kolore iluna ordezkatu eta pasabidea osatzen duten horma, sabai eta zutabeak zuriz margotuko dira, eta, eraikinaren behe solairua eta azpiko garajeen artean inpermeabilizaziorik ez dagoenez, horri konponbidea emateko, egungo zoladuraren gainean metakrilatozko zoladura iragazkaitz bat instalatuko da, pasabideko garbiketa-lanak egin ahal izateko.

Hobekuntza-lan horiek egin ondoren, pasabideari entitatea emateko murala margotuko du Irantzu Lekue artistak.

Olanoenea, bestalde, kultur etxearen eta Kale Nagusiaren artean dagoen plaza da; L formako harrizko grada batzuek inguratzen dute, plaza bi mailatan banatuz. Herriko erdigunean eta kultur etxea bezalako zerbitzu nagusi baten alboan egon arren, erabilera urria du gaur egun espazio publiko horrek.

Esku-hartze honekin, plazarako arreta erakarri eta herritarrek espazio hori beren egin dezaten, egoteko gune atsegin bat sortzeko kale-altzari 'berezi' batzuekin hornitu nahi da plaza. Egurra izango da altzari horien azaleko materiala, erabat harrizkoa den espazio horri goxotasuna eskainiz. Era berean, kalean biltzeko, elkarrekin harremanetan aritzen diren eta egonaldiako modu askotarikoak bermatzen dituzten altzariak jarriko dira: hala nola txiki eta handientzako mahaiak,

elkarrekin eseri, otorduak egin edota mahai jokoetan aritzeko, eta elkarrekin eseri edota etzanda egoteko beste altzari batzuk.

## Erronka berriak

Orain arte deskribatu den ildoan aurrera egiteko, Usurbilek baditu beste zenbait asmo datozen urteetarako: adibidez, berreskuratu den hilerri zaharra erabilgarri jartzea, edota Udarregi ikastolaren pareko orubearen erabilera definitzea.

Hilerri zaharrak hilerri izateari utzi dio dagoeneko. Ez da gorpurik bertan. Leku hori beste modu batez erabiltzeko aukera sortu da. Herritarren artean interes handia piztu du aukera horrek, eta abagune aproposa da espazio atsegin eta erdiguneko horri erabilera egokia emateko. Izan ere, lekuak kokapen oso ona du, eta inguruan dituen ekipamendu eta espazio publikoen sarea osatzeko eta horien irisgarritasuna hobetzeko aukera ezin hobea eman lezake.

Bestalde, Udarregi ikastolaren parean udalak duen orubea ere herriaren erdigunean hutsik eta erabilerarik gabe dagoen zelai bat da gaur egun. Etorkizunean ikusi beharko da herriak leku horretan zer behar eta nahi duen.

Hirigintza etengabe ari da gure herriak eraldatzen, eta garrantzitsua da eraldaketa horietan herritarrok parte hartzea. Gaur egun, garatutako herrialdeetako biztanleok gure inguruarekin gero eta lotura gutxiago daukagu, eta gure hiri eta herrietan espazio publikoak elkargune izateari uzten ari dira.

Egoera hori aldatu nahi badugu, zerbait egin behar da. Arkitektura eta hirigintzaren inguruko eduki eta ideien hedapena baliagarria izan liteke, agian. Gai horien dibulgaziorako Oinarrizko Hezkuntzan atal horri tarte bat ematea izan liteke aukera bat, Igor Diaz de Guereñu, Olatz Iñigo, Ainhoa Jaca, Estitxu Ortiz de Zarate eta Josu Santamarinak (2016) adierazten duten moduan. Arkitekturak eta hirigintzak berezkoak dituzten lan eta prozedurak ikastetxeetako testuingurura egokituz, posible litzateke dagoeneko hezkuntzan jorratzen diren edukien 'ikasketa esanguratsu' hori lortzen laguntzea. 🌱

### ***Bibliografia***

- Cuchi, A. (2017): *S.M.A.R.T. Caminos hacia la sostenibilidad*, Madril, Acciona.
- Diaz de Guereñu, I.; Iñigo, O.; Jaca, A.; Ortiz de Zarate, E.; Santamarina, J. (2016): 'Arkitektura eta Hirigintza Oinarritzko Hezkuntzan barnertzea: Gizartearen eta teknikarien arteko elkarrikeria sustatzeko aukera', *Aldiri* 28, 28-31.
- Fariña, J. (2009): 'Espacio público y vivienda' (<https://elblogdefarina.blogspot.com/2009/10/espacio-publico-y-vivienda.html>).
- (2016): 'Espacios públicos para una vida activa' (<https://elblogdefarina.blogspot.com/2016/10/espacios-publicos-para-una-vida-activa.html>).
- Fariña, J.; Naredo, J. M. (zuzk.) (2010): *Libro Blanco de la Sostenibilidad en el Planeamiento Urbanístico Español*, Madril, Ministerio de Vivienda.
- Rueda, S.; De Cáceres, R.; Cuchi, A.; Brau, L. (2012): *El urbanismo ecológico*, Bartzelona, BCNecología.
- Usurbilgo Udala (2015): *Usurbilgo HAPOnen Diagnostikoa*.

# Etxebizitza eredia auzitan jartzen

## ■ Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa

**E**z da kasualitatea Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa proiektua Donostian jaio izana. Etxeak inbertsio baliore gisa ulertzearen ondorio zuzena da egun hiriak pairatzen duen egoera, bizileku izan beharko zirenak turismoaren industriaren alojamentu-eskaeraren menpe utziz. Eskubide bat izan beharrean, espekulaziorako erabiltzen den *ondasun materiala* da.

Horren erakusle garbia da, lursail berrietan eraikitzen jarraitzen duten bitartean, Donostian erroldatutakoon kopurua ez dela ia igo azken hogeitun urteetan.

Etxebizitzaren ikuspegi merkantilista eta indibidualista horri aurre egiteko asmoz, bizi-proiektu bateratu batean elkartzeko bokazioz sortu genuen Abaraska, gaur egun taldea osatzen dugun 28 eta 60 urte bitarteko hirurogei bat lagun izatera iritsi arte.

Antolamendu kooperatiboan, jabetza kolektiboan, etxebizitzaren erabilera-balioan eta kideen arteko lankidetzan sinisten dugu. Iraunkorra, funtzionala, malgua, eskuragarria, inklusiboa, belaunaldiartekoa, feminista, ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutakoa, energetikoki eta ekonomikoki jasangarria, berritzailea, bere hiri ekosisteman egokitua eta bizitzeko eta erabiltzeko osasuntsua izango den bizitoki alaia nahi dugu.

Horrela, etxebizitza ereduaren *alternatiba integral bat* sustatzeko asmoz, bi ardatz nagusitan lan egiten dugu: etxebizitza eskuratzeko moduan, batetik, eta elkarbizitza ereduari, bestetik.

## Testuingurua

Jakina da gaur egun irtenbidea eskatzen duten hainbat erronka ditugula parean; horietako batzuei begiratu azkar bat botako diegu:

- *Demografia aldaketa* sakonak bizitzen ari gara eta biztanleria-piramide desorekatu baten aurrean gaude: zahartzarotasa esponentzialki hazten ari da eta gero eta haur gutxiago jaiotzen dira, egitura bera sostengaezina izanik. Gainera, belaunaldi bakoitzak zailtasun ezberdinak gainditu behar ditu; gazteek prekaritateari eta ezegonkortasunari egin behar diete aurre; nagusiek, berriz, isolamenduari, pobrezia energetikoari eta segurtasun ezari, besteak beste.
- *Etxebizitza oinarrizko eskubidea* izan arren, ez da gutxiontzat eskuragarria, eta etxebizitza lortzeko aukera ezberdinak ditugu genero, adin, klase, etnia eta jatorriaren arabera, gizarte-desorekak sortzen dituen aldagaia izanik. Gure gizartean, gazte, zahar, emakumezko eta migratuak gara etxebizitza duin batera sartzeko arazo gehien topatzen ditugun sektoreak. Bestalde, gertutik ezagutzen ditugu alokairuan bizitzearen ondorioak: soldataren ehuneko handi bat utzi izan dugu alokairuan, behin eta berriz bota gaituzte eta hainbat mudantza egin behar izan ditugu, edo kontraturik gabeko pisuetan bizi izan gara, adibidez.
- Etxea da gure oinarrizko harreman eta sostengu-sareak finkatzen dituen instituzio sozioekonomiko nagusia. Gaur egun, baina, *bi elkarbizitza antolamendu eredu nagusi ditugu*: bata, familia nuklear (eta patriarkalean) oinarrিতua, eta, bestea, inolako laguntzarik ez duen norbanako autosufizienteak gorpuztua (teorikoki, noski, azken finean denok baikara interdependentek). Eredu horiek zaintzaren krisia

(eta berorren kudeaketa feminizatua) eta isolamendu zein bazterkeria egoerak areagotu dituzte. Emakumezkoengan erortzen da zaintza lanen erantzukizuna, besteak beste denboraren pobrezia eraginez; eta, bestalde, lan karga hori kanpora atera eta pertsona bat azpikontratatu dezaketenak klase ertain-altuko sektoreak dira, eta azpikontratatuak, berriz, emakume etorkin prekarioak gehienetan.

- *Etxebizitza egiturak* zurrinak dira:
  - Gaur egun, elkarbizitza etxebizitza unitate bakoitzaren barruan gertatzen da, lau paretan artean, alegia. Egitura horiek ez dute ahalbidetzen oinarrizko harreman talde zabalagoa izatea eta aurreko puntuan aipaturiko lan erreproduktiboak beste modu batean antolatzea. Baldin eta elkarbizitza antolamendua aldatu nahi badugu, espazioaren antolamenduari ere erreparatu beharko diogu.
  - Bestalde, *familia ereduak* aldatzen ari dira eta elkarbizitza unitate tipologiak askotarikoak dira. Etxebizitzak, ordea, estrukturalki familia tradizional eta nuklearrentzat eginak daude. Esaterako, Bartzelonako datuek diotenez, ohiko familia ereduak %30 bakarrik dira. %70 bestelako ereduak osatzen dute: bakarrik bizi diren pertsonak, pisuak elkarbanatzen duten lagunak, guraso bakoitzeko familiak... Egungo etxebizitza-parkeak ez du errealitate hori islatzen, eta eraikitzen diren etxe berriek ere inertzia horri jarraitzen diote, hau da, familia tradizionalak gainerrepresentatuta egoten jarraitzen du. Gainera, bizitzako une ezberdinetan behar ezberdinak ditugu, eta

Etxebizitza oinarrizko eskubidea izan arren, ez da guztiontzat eskuragarria, eta etxebizitza lortzeko aukera ezberdinak ditugu genero, adin, klase, etnia eta jatorriaren arabera

etxeen egiturak, den bezain zurruna izanik, ez ditu behar ezberdin horiek kontuan hartzen.

- Hiriak planetako lurraren %2 bakarrik hartzen badute ere, berotegi efektua sortzen duten gas emisioen %70 bertan sortzen da. Gainera, gaur egun munduko biztanleriaren %50 hirietan bizi gara, baina 2050ean %75 izango gara aurreikusi da. Hori horrela izanik, hiriak aldaketaren gaketat jo dira azken urteetan. *Etorkizuneko hiriak birpentsatzen* gabiltzan honetan, jasangarritasunaz gain gailentzen diren ezaugarriak hauexek dira: hiri inklusiboagoak, parekideagoak, askotarikoagoak, ardurasuagoak eta kohesionatuagoak nahi ditugu.

Gizartea etengabe egongo da eraldaketa prozesuan, mugimendua bizitzaren ezaugarri intrintsekoa izanik. Guri dagokigu datorrenari aurrea hartu eta eraldaketa horren parte izatea. Zentzu horretan, Abaraska ez dator etxebizitza arazoari bakarrik erantzutera; Abaraska etorkizuna eraikitzeke eta irudikatzeko espazioa da.

Ziur gaude, gizarteak dituen behar horiei guztiei erantzuteko, administrazio publikoaren eta komunitatearen arteko elkarlana ezinbestekoa izango dela. Konponbidea, mirari teknologikoetatik urrun, indarrak batzetik etorriko dela uste dugu.

## **Bi ardatzak: elkarbizitza + jabetza, indibidualetik kolektibora**

Gure helburua erabilera-lagapenean eta lankidetzan oinarritutako etxebizitza eredu kolaboratiboa sustatzea da. Garrantzitsua da ezberdintzea, batak ez baitu derrigorrez bestea ekartzen.

Alde batetik, erabilera-lagapena diogunean, *jabetza-erregimenaz* ari gara, jabetza-erregimen kolektiboaz: kooperatiba da eraikin osoaren jabea, bai etxebizitza guztiena, bai gainerrako espazio komunitarioena. Kooperatiba, eta ez biztanleak; biztanleak erabilera-kuota bat ordaintzen dute, baina ez dute jabetza-eskubiderik. Modu honetara, espekulatzeko aukerari

bideak isten zaizkio. Erabilera-lagapenean, jabetzaren ordeztexebizitzen erabilera da balioan jartzen dena. Horretarako, ohiko etxebizitza kooperatibetan gertatzen ez den bezala, eraikina bukatu ondoren kooperatiba ez da desegiten; antolakuntza kooperatiboa erabilera fase osora luzatzen da, elkarbizitza kudeatuz. Horrek *etxebizitzaren demokratizazioa* bultzatzen du: erabakietan, kudeaketan, ekonomian.

Bestetik, etxebizitza kolaboratibo (edo *cohousing*) diogunean, *elkarbizitzan* oinarritutako bizimodu bat bultzatzeko sortutako proiektuez ari gara, beharrianak erdigunean kokatuz eta komunitatea eraikiz. Espazio komunaren eta harreman komunitarioen kalitateari, kudeaketari eta diseinuari garrantzia ematearekin du zerikusia. Berebizikoa da taldearen nahi eta beharretatik abiatzea, idealizazioetatik maila errealista batera etorri eta guztiok berarekin identifikatuak sentiaraziko gaituen elkarbizitza mota eta maila bat hasieratik landu eta definitzea, proiektua bizigarria eta, ondorioz, arrakastatsua izango bada.

Egun, ohikoagoa da bi ezaugarri hauetako bakarria betetzen duten ereduak aurkitzea (etxebizitza kooperatiba ala *cohousing*), baina Abaraskaren helburua bi ezaugarriak, ekonomikoa eta elkarbizitzakoa, batzea da.

## **Elkarbizitza, gure ustez**

Elkarbizitza zentzu zabalean ulertzen dugu; elkarrekin eta elkarlanean bizi nahi dugu, ditugun baliabideak elkarbanatuz: ezagutzak, denborak, ekonomiak eta baliabide materialak elkarbanatuz egingo dugu aurrera. Indibidualismotik bestelako antolaketa eredu batera egin nahi dugu jauzi.

Gure helburua lankidetzan eta elkar babesean oinarritutako elkarbizitza ereduak egituratzea da. Egungo jendarte antolamenduaren oinarrian dagoen bereizketa publiko-pribatua (produktibo-erreproduktibo), bereziki etxebizitza bezalako inguru fisiko eraikiaren bidez indartzen dena, malgutzeko bideekin esperimentatzeko tresna nagusia izango da etxebizitza



kooperatiboa, bizitzaren antolamendu kolektibo eta komu-  
nagoa bultzatuz.

Norbanako buruaski  
ala ohiko familia  
ereduaren aldean,  
komunitatea, zaintza,  
interdependentzia,  
denboraren  
ekonomia, ekonomia  
erreproduktiboa...  
lantzeko espazioa  
izan nahi du

Espazio pribatuari egotzita-  
ko hainbat jarduera etxeetatik  
ateratzeko moduak landuko  
ditugu, betiere maite dugun  
intimitateari uko egin gabe,  
bai espazioen antolamendu  
komunitarioak bultzatuz, el-  
karrekikotasunean oinarritu-  
tako kudeaketak garatuz, bai  
baliabideen partekatze kolek-  
tiboa sustatuz.

Horrez gain, inguruari,  
auzoari irekita egongo den  
proiektua izan nahi dugu, el-  
karbizitzarako, lotura soziale-

rako eta komunitate autoantolakuntzarako modu berriak  
sorzeko asmoz. Hau da, eraikina ez da izango bertan bizi  
direnentzat soilik, zati bat auzoari irekitzea ere bilatuko dugu.  
Abaraskak auzoko saretze prozesuaren parte izan nahi du,  
eta eraikinak berak ere auzo bizitzan izan dezakeen eragina  
kontuan izango du: esaterako, beheko solairuko espazioek  
izango duten erabilera edo publikotasun aukerak baloraturaz.

Laburbilduz, norbanako buruaski ala ohiko familia eredu-  
ren aldean, komunitatea, zaintza, interdependentzia, denbo-  
raren ekonomia, ekonomia erreproduktiboa eta beste hainbat  
aspektu lantzeko espazioa izan nahi du bizitoki honek, zain-  
tza eta bizitza erdigunean jarriko dituen bizitokia.

Erabilera partekatuagoa izatea bilatzeaz gain, proiektu ho-  
nek duen ezaugarri nagusietako bat etxebizitzaren etorkizune-  
ko erabiltzaileek prozesu osoan (diseinuan, eraikuntzan eta  
erabilpenean ere) duten *parte-hartzea* da. Parte-hartze ho-  
rrek hiru ardatz nagusi dauzk: kronologikoki ordenaturaz ge-  
ro, lehenik elkarbizitza eredu baten sorrera letorke, ondoren  
eraikinaren diseinua, eta, behin eraikita, horren kudeaketa

ere modu kolektiboan egitea. Fase guztietan, diseinu parte-hartzailearen ondorioz, erabiltzaile guztien behar zehatzak ezagutu eta horiekin espazioa eta proiektua bere osotasunean diseinatzea da helburua. Nola egingo dugu hori?

### **Prozesua zainduz**

Talde handia gara, egoera ezberdinak ditugu, eta aniztasun hori barnebilduko duen proiektua sortu nahi dugu. Horretarako, ezinbestekoa da erabakiak taldean hartzea eta burujabetasuna izatea. Elkar ezagutzen eta ikuspegi ezberdinetatik ditugun beharrianak aztertzen gabilta.

Badakigu proiektu kolektiboak ez direla errazak eta gure zailtasunak eta gatazkak izango ditugula. Kontziente gara proposatzen dugun proiektuak ez duela esan nahi guztiok lagunak izan behar dugunik, baina elkar babeserako mekanismoak modu formalean egituratu nahi ditugu. Horregatik, indar asko jartzen ari gara prozesuaren zaintzan: *metodologiaren lanketa*, elkar entzutea, pazientzia garatzea... Kanpoko bitartekaritzari ere ez diogu uko egiten. Azken finean, taldean bizi behar dugu nahitaez, eta eskala txikian, baita elkarrekin bizitzen hasi baino lehen ere, izaten diren gertakariak ulertzeak ateak irekiko dizkigula uste dugu. Zentzu horretan, Abaraska esperimentu sozial gisara ere ulertzen dugu.

Oraintxe bertan lantaldeen eta bileren bitartez funtzionatzen dugu. Lantalde ezberdinak ditugu momentu honetan: elkarbizitza taldea, ekonomia taldea, komunikazio taldea, arkitektura taldea, kanpo harreman taldea... Asanbladak egiterakoan ere metodologia ezberdinak jarri ditugu abian: agenda bateratua, bileretarako protokoloa, zortzilogoia, rol ezberdinen gorpuztea...

### **Espazioak egokituz**

Espazioaren kudeaketaren garrantzia ulertzeko, Irati Mogollón García eta Ana Fernández Cuberori lapurtutako bi kontzeptu erabiltzen ditugu (*Arquitecturas del cuidado*,

Emakunde, 2016), bi azpiegitura mota bereizten baitituzte: *azpiegitura gogorra* eta *azpiegitura biguna*. Lehenak arkitektonikoki ikusgai dagoen egitura finkoari egiten dio erreferentzia: espazio ezberdinak eta euren ezaugarriak, funtzioaren eta formaren arteko erlazioa. Bigarrena, aldiz, espazio horietan izaten diren sistema sozialei, praktikei eta erlazioei buruz ari da, eraldaketa prozesu etengabeak ahalbidetuz.

Hori horrela izanik, azpiegitura gogorrek espazio horietan sustatu nahi ditugun sistema sozial eta erlazioen mesedera jarri behar ditugu; horretarako, gure etxebizitzan espazio komunak egotea funtsezkoa iruditzen zaigu. Horren bitartez, egungo etxebizitza kolektiboetan (blokeetan) gertatzen den eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketa lausotu dezakegu. Hau da, norberak bere etxebizitza unitatea izateaz gain –intimitatea bermatze aldera–, *espazio komunak* diseinatu nahi ditugu.

Hauk dira hainbat bileraren ostean adostu ditugun espazio komun horietako batzuk:

- Sukalde-jantokia.
- Garbiketarako gela (garbigailuak, arropa zabaltzeko lekua...).
- Balio anitzeko gela.
- Gonbidatuentzako tokia.
- Bizikletentzako aparkalekua.
- Erreminten tokia.
- Eta abar.

Orokorrean, elkarbizitza unitate bakoitzean errepikatzen diren funtzioen espazioa minimizatu eta ‘soberan’ dauden metro koadroak kolektiboari ‘emanez’ lortuko genituzke espazio komunek eskatzen dituztenak. Egun, etxebizitza estandarretan, norberaren etxeko espazioak norberaren aukeren arabera ahalik eta handienak izatea ikusten dugu helburu bezala, gero hiruzpalau pertsonak soilik erabiltzeko bada ere. Ez al da interesgarriagoa espazio pribatu hori ‘nahikoa’ izatearekin konformatzea, eta, ‘superabitean’ dugun espazio guztia batuta, 30 pertsonentzako balio anitzeko gela bat sortzea, adibidez?

Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu etxebizitza unitateen *malgutasuna* espazialki lantzea. Kontrakoa saltzen badigute ere (etxe batean pertsona hauek bizi dira, betidanik eta betirako: bikote gazte bat eta euren –normalean– bi haurrak, nahiko txikiak), eta eredu tradizionalari jarraituta ere, beti aldatuko da etxe bateko biztanle kopurua eta euren arteko dependentzia mota: bizitzako momenturen batean bakarrik bizi gaitezke, ondoren bikoitean, gero hurrekin, ondoren hurrek etxetik alde egingo dute... Gaur egun, etxea txiki-egi edo handiegi geratuz gero, etxez aldatzea tokatuko zaigu gehienetan (horrek dakarren inguruarekiko aldentzearekin (bizilagunekiko, auzoarekiko...)). Horren aurrean, elkarbizitza unitatearen aldakortasuna hasieratik kontuan hartu eta bi esparrutatik landu nahiko genuke: azpiegitura malguen bitartez (momentuaren arabera unitate batek edo aldame-nekoak erabil ditzaketen gelen bidez) eta, noski, gure arteko kudeaketa elkarbanatuaren bitartez.

Gure apustua Babes Ofizialeko lursailen zati bat Etxebizitza Kooperatibentzat bereiztea da, eta horietako bakoitza lehiaketa bidez kooperatibei esleitzea

## Jabetza eta etxebizitza politika

Jabetza eredia kritikatzin dugu eta etxebizitza politikan eragin nahi dugu, Babes Ofizialeko legean, hain zuzen ere. Egund, zozketa bidez esleitzen zaizkie norbanakoei mota horretako etxeak. Era horretara, noski, ez dago komunitatea sortzeko aukera handirik; zozketa horren emaitza zoriak elkartutako jende sail bat izango da, aurrez ezagutzen ez zirenak. Behin elkarrekin bizitzen hasi ondoren, amankomunean hainbat gauza egin nahiko balituzte ere, eraikinak ez du horretarako espazio eta azpiegiturarik eskaintzen. (Hau da, gerora ere seguruena apenas ezagutuko dute elkar!)

Gure apustua Babes Ofizialeko lursailen zati bat Etxebizitza Kooperatibentzat bereiztea da, eta horietako bakoitza lehiaketa bidez kooperatibei esleitzea (Iruñeko Udalak Senior Kooperatibentzako lehiaketara atera berri dituen lau lursailen antzera).

Biztanle potentzialesi dagokienez, gure kasuan, kooperatibako kide izateaz gain, Etxebidek ezarritako baldintza ekonomikoak bete beharko lituzkete. Kontziente gara baldintza horiek onartzean jende asko proiektutik kanpo gera daitezkeela, gutxieneko diru-sarrera batzuk finkatzen baitituzte baldintza horiek. Kontziente gara, era berean, proiektua aitzindari den heinean, helburua eredu kolaboratiboko etxebizitza-kooperatibak lurzoru publikoan ezartzeko aukeraren alde borrokatzea dela, eredu hori bultzatu eta etorkizunean etor daitezkeen proiektuak babestuz. Badakigu gurea ez dela aukera bakarra zentzu horretan, eta beste eredu ekonomiko iraultzaileago batzuetan oinarritutako etxebizitza-kooperatibentzako lehen urrats bezala balio badu, gu pozarren.

Izan Babes Ofizialeko, dotazional edo bestelako, Abaraskan erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiben eredua *lur publikoan* garatzearen aldeko apustua egiten dugu, esku pribatuetara joan ordez ondasun publiko izaten jarrai dezaten, alokairu babestuaren gisako eredu bat zabaltzeko, eta ereduak eskaintzen dituen balio sozialak indartzeko.

Izan ere, administrazio publikoak dira *etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea* gauzatzeko neurriak sustatzeko ardura dutenak.

Horren harira, aipa dezagun badirela administrazio publiko batzuk horrelako ekimenak sustatzen edota babesten ari direnak, etxebizitza politiken *etorkizuna* hortik datorren jakitun. Hemen inguruan Errenteriako Gazteentzako Etxebizitza Komunitarioa proiektua aipa genezake, edo Usurbilgo Txirikorda. Azken hori, belaunaldiartekoa izanik, bereziki interesgarria bada ere, biek ala biek iragankortasunaren faktorea dute: hau da, etxebizitzari begira bereziki prekarizatuak dauden bi sektorerentzat espezifikoki (gazteak eta hirugarren

adina) eta epe asko jota ertainerako egonaldia egin dezakete (hirugarren adinaren kasuan, bizitzaren azken etapa deritzonari begira delako; eta, gazteenen kasuan, gurasoen etxearen eta bizileku egonkorrago baten arteko trantsizio bezala planteatzen delako, epe jakin bat bete arte).

Urrutixeago joanda, Bartzelonan jadanik abian dago Babes Ofizialeko Etxebizitzaren baldintzen, epeen eta logikaren arabera funtzionatzen duen lehen eredu kolaboratiboko etxebizitza-kooperatiba, La Borda izenekoa.

## **Finantziarioa eta jasangarritasuna**

Eraikuntza bera autosustapena izanik, etxebizitzak eraikitze-kostuan egingo lirateke, modu horretan sustatzailearen ohiko etekina aurreztuz.

Etxebizitzaren eraikuntzaren eta ondorengo kudeaketa kolektiboaren finantziarioak bi iturri nagusi izango dituela aurreikus daiteke: kooperatibako bazkideen hasierako kapital ekarpena eta kanpo finantziarioa.

Kooperatibako kideen ekarpen nagusia bazkide-bizilagun izango direnen hasierako ekarpena izango da, baina horri beste bazkidetza mota edota ekarpen mota gehitu dakiokere (tartean bazkide kolaboratzaileena...).

Kanpo finantziarioarako, aldiz, finantza erakunde eta tresna solidario, etiko eta eraldatzaileen finantzario modu desberdinak erabiliko dira: partizipazioak, mailegua eta partizipazio-tituluak.

Horrez gain, halako proiektu batek izan ditzakeen diru-laguntzak (itzulerarik gabekoak) bilatuko dira.

Kanpo finantziarioetik lortutako kapitala erabilera-kuotekin itzuliko litzateke pixkanaka. Kuota hori hilabetero-hilabetero elkarbizitza unitate bakoitzak kooperatibari ordaintzen dion kantitate bat da, etxebizitza erabiltzearen truk.

Bazkide batek kooperatiba uzten badu, hasierako ekarpena berreskuratuko du, eta haren lekuan sartzen denak ekarpen berdina jarriko du. Erabilera-kuotak, berriz, ez dira itzuliko.

## Interkooperazioa

- Abaraskak ekoizpen, banaketa, kontsumo eta finantziario harremanak eratu nahi ditu, justizian, lankidetzan, auzolanean eta elkarren arteko laguntzan oinarrituta. Guretzat nahi ditugun *bizi-baldintza hobek* besteentzat ere nahi ditugu: horretarako, ikuspegi horretan kokatzen diren egitasmo eta proiektuekin koordinatu eta sinergiak sortzea ezinbestekoa da.
- Kooperazio-interkooperazio hori eremu publiko, pribatu eta sozialeko eragileen artean egin beharko da: *kultura kooperatiboa* sortu, eskaintza eta eskaera logikatik haratago.
- Proiektu honen alderdi soziala kontuan izanik, *ekonomia sozial eta eraldatzailea* bultzatzeko konpromisoa duten era-

Abaraskak ekoizpen, banaketa, kontsumo eta finantziario harremanak eratu nahi ditu, justizian, lankidetzan, auzolanean eta elkarren arteko laguntzan oinarrituta

kundeekin elkarlana lehenetsiko dugu. La Dinamo (*Fundació per a l'habitatge cooperatiu en cessió d'ús*) eta KoopFabrika ekintzailetasun soziala sustatzeko programaren aholkularitza dugu; horrez gain, Gasteizko, Iruñeko, Bizkaiko eta Donostiako hainbat proiektuekin *laguntza eta elkarbanatze sareak* abian jarri ditugu.

- *Baliabideak elkarbanatuz:*
  - *Ekonomiak* elkarbanatuko ditugu, guztiontzat etxebizitza sarrera eskuragarria izan dadin. Bestelako egoera batzuk ere babestu ditzakegu lankidetzan horren bitartez, beti ere administrazio publikoari ardurarik kendu gabe. Esaterako, zer egingo dugu kideren bat langabezia gelditzen bada?
  - *Baliabide material eta energetikoak* elkarbanatuko ditugu, ingurumen jasagarria bultzatuz. Zenbait adibide aipatzearren: autoak elkarbana ditzakegu, garbigailuak, tresneria, Internet, energia-iturriak, haurrentzako materiala

(jolasak, arropa, ume-kotxeak...)... Ekologikoagoa izateaz gain, gure arteko ezberdintasunak gainditzeko modu bat ere bada. Orain artean, ezagunagoak zaizkigu horrelako ereduak landa-eremuan, baina garrantzitsua da guretzat *alternatiba horiek hirietan gorpuztea*. Ez diogu hirian bizitzeari uko egin nahi, baina beste modu batera bizi nahi dugu, ingurumena eta etorkizuna zainduz.

- *Sareak eginez:*
  - Beste eragile osagarriekin: kolektibo, elkarte eta enpresa ezberdinekin batera egingo dugu bidea.
  - Loiola auzoarekin:
    - ◆ Arkitektonikoki auzoan dauden zerbitzu publikoetara egokitu nahi dugu. Auzoan zer dagoen ezagutu eta hutsuneak nola bete ditzakegun pentsatu.
    - ◆ Auzoko pertsona, elkarte eta eragileekin bildu nahi dugu, zer behar dauden ezagutzeko eta proiektuaren zati bat auzokideekin sortzeko. Auzoko ehun komunitarioarekin elkarlan estua nahi dugu.
  - Administrazio publikoarekin: erakunde eta gizarte zibilaren arteko lankidetzan sinesten dugu; badaude erreferentziak, eta guk ere horren alde egingo dugu apustu.

Laburbilduz, elkarbizitza eredu komunitarioago baten aldeko apustua da gurea: badu autogestiotik, eta lurraldearen eskala txikiarekin saretzea bilatzen du. Baina, aldi berean, egun daukagun arazo larrienetako bati, etxebizitza eredu tradizional, indibidualista eta merkantilista honi aurre egiteko, administrazioaren inplikazioa exijitzen du. 🌱



## JOXE AZURMENDIREN PENTSAMENDUA

**215** Joxe Azurmendiren abertzaletasun  
kulturala  
Haritz Azurmendi Arrue

# Joxe Azurmendiren abertzaletasun kulturala

Haritz Azurmendi Arrue

*Filosofian lizentziaduna eta Gizarte Zientzietan doktorea*

**N**aziotasuna, herrigintza, hizkuntza, kultura. Joxe Azurmendiren obra zeharkatzen duten auzi garrantzitsuenetakoak dira izen horien atzean daudenak. Hasi gaztaroko testu polemikoetatik eta saiakerara filosofiko mardulenetaraino, kontzeptu horiei buruzko gogoeta bere ia lan guztien atzean topa daiteke. Naziotasunari buruzko lanak aniztasunaren kudeaketarako tresna politiko edo prozesu sezesionisten ikerketa tekniko bihurtzen ari diren honetan, Azurmendik fenomeno konplexu baten irakurketa patxadatsua eskaintzen du, bere ertz eta hari-mutur guztiak lotuz.

Horixe da *Joxe Azurmendiren nazioa Nazionalismo Ikerketen argitan. Abertzaletasun kulturalaren defentsa Euskal Herri garaikidean* (H. Azurmendi 2019b) tesiaren atzean dagoen ikuspegia. Azurmendik naziotasunaren inguruan idatzi dituen ideiak bildu eta gizarte zientzietako teoria ezagunenekin, Nazionalismo Ikerketetan biltzen direnekin, konparatu ditut. Bere pentsamendua marko horren baitan kokatuz, Azurmendiren ekarpenek sortu ziren testuinguru hurbiletik harago ere zentzurik badutela ikusten da. Era berean, akademiako teoria desberdinak euskal testuingurutik kritikoki begiratzeko aukera ere ematen du Azurmendiren obrak. Nekez agortzen den emaria dakarte Azurmendiren

lanek, pixkanaka-pixkanaka iraganarekin eta etorkizunarekin, bertakoarekin eta nazioartekoarekin, harremanetan jarri beharrekoa.

## **Nazionalismo kultural zeri deitzen zaion**

Nazioari buruzko gogoeta teorikoan, Nazionalismo Ikerketen diziplinaren arabera kokatzekotan, Azurmendi nazionalismo kulturalaren baitan koka daitekeela defendatzen da tesian. Horren esanahia argitzeko, beraz, nazionalismo kultural zeri deitzen zaion zehaztu beharko da. Aurretik esanda gera dadin, ordea, aurreratuko dut aipatuko diren teoriarari gehienak bigarren mailako erreferentzia direla Azurmendiren obran. Kontua ez da Azurmendiren nazioa ulertzeko modua nazionalismo kulturala zehazten dutenen eskutik datorrela, ezpada biek antzeko jarrera (nolabait esan) filosofikoak hartzen dituztela nazioaren inguruko hainbat gairi buruz.

John Hutchinsonek *The Dynamics of Cultural Nationalism: The Gaelic Revival and the Creation of the Irish Nation State* (Hutchinson 1987) argitaratu zuen, Irlandako kasua oinarri hartuta nazionalismo eredu jakin bat proposatuz. Ordura arteko ikerketa gehienek nazionalismoa estatu modernoan eraikitzeke mugimendu politiko-instituzional gisara aurkezten zuten, elementu kulturalak nazio-estatu horren eraikuntzarako material asmatuak edo manipulatuak zirela.<sup>1</sup> Hutchinsonek, nazionalismo 'politiko' hori ukatu gabe, nazionalismo kulturala bereizten du, nazio-estatua eraikitzeaz kanpoko helburu propioak dituzten kulturgileek irudikatua.

Handik hamarkada batera, Hutchinsonek berak nazionalismo kulturalaren ideia nagusiak eguneratu zituen artikulu batean (Hutchinson 1999). Lau gako nabarmendu zituen artikuluan: nazionalismo kulturala eta linguistikoa bereizi behar zirela, mugimendu komunitategilea zela, nazionalista kulturek «berritzaile moral» rola hartzen zutela eta mugimendua historian zehar errepikatzen zela. Guztiek ere ordura arte zeuden ikuspegiei zehaztapenak egiten zizkieten.

Nazionalismo kulturala eta linguistikoa garbiki bereizteko lana zergatik hartzen duen ulertzeko, Nazionalismo Ikerketen baitan kokatu behar dugu geure burua. Izan ere, Euskal Herritik begiratuta, are gehiago Azurmendiren hizkuntza ulertzeko modua hartzen badugu aintzat, bitxia gerta liteke eztabaida. Hutchinsonek adierazi nahi duena zera da: kulturalistak ez direla arduratzen soilik hizkuntzaz, hura objektu moduan hartuta; bere praktika sozial, kultural eta politikoak dituen komunitateaz arduratzen dira. Hizkuntzarekin hiztegi bat eta gramatika bat ulertzen dutenengandik bereizteko hartzen du Hutchinsonek distantzia nazionalismo linguistikotik. Eta, horrela, bueltan-bueltan, Azurmendiren *izpirituaren metaforara* hurbiltzen da.

Hain zuzen, kultura *praktikatzen* duen komunitateaz arduratzen baita Hutchinsonen ikuspegia, bereizi egiten ditu nazionalismo politiko-instituzionala, estatua eraikitzea helburu duena, eta nazionalismo kulturala. Bereizketa hori Nazionalismo Ikerketetan eragile kulturalak ulertzeko moduagatik dakar. Ohikoa da nazionalismoak dimentsio kultural bat baduela onartzea, baina baita ere mugimendu kulturalista horiek ulertzea mugimendu nazionalistaren estatu eraikuntza proiektuaren baitan edo haren menpe. Horren aurrean, nazionalismo kulturalak helburu beregaina duela aldarrikatuko du Hutchinsonek: komunitate historikoaren defentsa, birsortzea eta biziberritzea.

Helburu desberdinak izate horrek, ordea, ez ditu bata bestetik isolatzen. Hutchinsonek ohartzen du, praktikan, mugimendu nazionalistetan, bi formak nahasian ager daitezkeela: gerta liteke mugimendu nazionalista bakarrean biak aurkitzea, baita pertsona bera bietara lotzea ere. Baina, funtsean,

Nazioari buruzko gogoeta teorikoan, Nazionalismo Ikerketen diziplinaren arabera kokatzerakoan, Azurmendi nazionalismo kulturalaren baitan koka daiteke

bi joerek oinarrian «ideia-mundu» (*idea-world*) desberdinak dituztela defendatuko du. Batak batasun eta berdintasun nazionala estatuaren gerizpean bilatuko du, hark aitortutako hiritartasunaren bitartez guztiak aberri beraren kide eginez; besteak komunitatearen praktika kulturaletan bilatuko du kidetza, kulturaren birsortzean eta biziberritzean. Unean uneko egoerak bataren eta bestearen arteko elkarlana ahalbidetu badezake ere, Hutchinsonek mugimendu bakoitzaren autonomia azpimarratzen du.

Hirugarren gakoa kulturalistek komunitatean duten berritzaile moral (*moral innovator*) papera da. Modernizazio eta aldaketa garai sakonetan, komunitatea krisi egoeran nararitzen denean, nazionalismo kulturalera atxikitzen diren ekintzaileek komunitatearen kultura iraunarazi nahi dute etorkizunean. Hutchinsonek argi uzten du, ordea: beste zenbait ikerlarik (Kohn, Gellner, Hobsbawm) ulertu dutenaren kontra, bilatzen den pizkundea ez da folklore museo bat eraikitzea; kulturalistek elementu tradizionalak eraldatu, biziberritu eta modernizatu nahi dituzte. Tradizionalisten aurka, kulturalistek ez dute iraganeko Arkadia utopikora erretiratu nahi, baina modernisten aurrean defendatuko dute kulturaren modernizazioa komunitatearen baitatik abiatuz, erreferentzia propioak eraberrituz, egiten dela. Nazionalismo kulturalean, nazio bakoitzak modernizaziorako bere bidea urratu behar duela defendatuko da, beste kulturen esperientzietatik ikasiz bai, baina propioa bazter utzi gabe.

Tradizioaren eraberritze horren eragileak, politikariak baino, hizkuntzalariak, historialariak, kazetariak edo idazleak izan ohi dira. Instituzio kulturalak sortuz (aldizkariak, literatur taldeak, kultur elkarteak), iritsi zaizkien elementu kulturalen berrinterpretazioan saiatzen dira, tradizioaren hautaketa bat egiten dute etorkizunera begira eralda daitezkeen elementuak eta atzean utziko direnak bereiziz. Horregatik esaten du Hutchinsonek nazionalista kulturalak, tradizioaren zaindariak baino, kultura folklore ez bilakatzeko hura bizi eta eraberritu nahian diharduten letragileak direla, bakoitza

bere proiektuarekin. Horrela, kultura nazionala, naziokide guztiek partekatuko luketen sinbolo objektiboen sorta bat izan beharrean, naziotasunaren interpretazio desberdinak elkarrekin gatazkan zein elkar indartuz dabiltzan eremuaren itxura handiagoa hartuz joango da.<sup>2</sup>

Gaur-gaurkoz, nazionalismo kulturalaren ikerketak batez ere XIX. mendean zeharreko pizkundeetan oinarritu dira. Hutchinsonek berak irlandarren kasuari tiraka sortu zuen bere tresneria teorikoa, nahiz eta gerora beste zenbait esperientzia ere aintzat hartu izan dituen (SESBeko hainbat herri edo XIX. mendeko Grezia, kasu). Hutchinsonen lana jarraitu duen Joep Leerssen ikertzaileak ere XIX. mende luzea eta Erromantizismo garaiko nazionalismoa hartu ohi ditu batez ere aintzat bere azterketa konparatiboetarako.<sup>3</sup> Ziurrenik, euskal irakurlearentzat ere nazionalismo kulturalaren adibide argiena Euskal Pizkundearen garaia izango da.

Dena dela, Hutchinsonek mugimenduari esleitzen dion ezaugarrietako bat da izaera errepikakorra izatea. Nazionalismo Ikerketetako teoria gehienek pizkunde literario-kultural horiek mugimendu nazionalistaren hasierako fase dira esango dute (Hroch 2000), iragankorra, eraiki nahi den nazioaren tradizioa osatzen dutenak. Behin irudi nazional hori osatutakoan, haren politizazioa etorriko litzateke, nazio kulturala nazio-estatua eraiki nahi duen mugimendu politikoak bere egin eta gainditzen duenean. Hain zuzen, izaera errepikakorra azpimarratzeak nazionalismoa faseka irudikatzearen okerra zuzendu nahi du.

Hutchinsonentzat, tradizio nazionalaren kritika eta eguneratzea aldi-aldi gertatzen da nazioetan, batez ere testuinguruak ordura arteko oinarriak zartatu eta ziurgabetasuna zabaltzen denean. Hau da, krisi egoeran komunitatearen 'gutasunari' buruzko kezka sortzea eta horiei kulturatik erantzuna bilatzea ohikoa da nazioetan. Printzipio horrek balio du XIX. mendeko modernizazio prozesuetarako, baina ez du komunitatearekiko kezka kulturala garai horretara lotzen. Hau da, ez du ukatzen bestelako krisi baten aurrean

(globalizazioak sortutakoan, adibidez) antzeko kezka sor daitezkeenik; eta, batez ere, halako kezka automatikoki erreakzionario, atzerakoi edo gainditutako irizten ez dituen nazioaren ulkerera bat ekartzen du.

Hasieran esan dugun bezala, nazionalismo kulturalaren kontzeptu horrek ordura arte Nazionalismo Ikerketetan nagusi zen paradigma modernistarekin hausten zuen.<sup>4</sup> Egi-

Egile modernistentzat (Gellner, Hobsbawm, Kedourie), kulturak eta kulturalismoak bigarren mailako lekua zeukaten nazionalismoan. Kultura nazionala nazio-estatuak behar zuen barne uniformetasuna lortzeko tresnatzat hartzen zen

le modernistentzat (Gellner, Hobsbawm, Kedourie), kulturak eta kulturalismoak bigarren mailako lekua zeukaten nazionalismoan. Kultura nazionala nazio-estatuak behar zuen barne uniformetasuna lortzeko tresnatzat hartzen zen, administrazioaren eraginkortasunaren eta lan-merkatuaren beharrianak aginduta. Ikuspegi horretan, nazio bakoitzak zer kultura konkretu saritzen duen, zer hizkuntza lantzen duen, kontingentziak

dira; nahitaezkoa, eta modernismoan axola duena, nazio-estatuaren printzipioa formalki betetzea izango da: estatuaren lurralde osoan kultura partekatudun egitura politikoa osatzeko gai izatea.

Nazionalismo kulturalaren ekarpena hiritarraren eta nazio-estatuaren artean komunitate kulturala kokatzea da. Kultura ez da estatuaren interesetara azpiratutako tresna bat izango (haren eragina ukatu gabe), ezta hiritarraren ezaugarri pertsonal soil bat gehiago ere. Estatuarena ez den, baina hala ere pribatua ez den espazio baten gisan ikertzen da kultura, bere logika eta bilakaera propioak dituen. Bai Hutchinsonek eta bai Leerssenek mugimendu kulturalak ikuspegi «gubernamentalista» horren galbahetik ikertzearen akatsaz ohartzarazten dute (Leerssen 2006). Azterketa soziopolitikoek maiz

modernizazio prozesuak eta esparru publiko-instituzionaleko mugimenduak hartzen dituzte soilik aintzat, hizkuntza-zaletasuna edo kulturgintza horren menpe jarritz.

Nazionalismo kulturalaren azterketek nazioaz galdetzeko modua aldatu dela erakusten dute. Nazioa noiz, nola, zer prozesuri erantzunez sortu den galdetu beharrean, komunitatea nola birsortzen den ikustea bilatzen da: zer instituzio politiko eta kulturalen bitartez egiten den tradizioaren berrinterpretazioa, zer balio eta ikuspegi gailentzen diren, zein kanpoan utzi, zer diskurtso kontrajarri dauden...

Aldaketa horrek nazioaren eta kultura nazionalaren ikuspegi plural eta aldakorrarekin lan egitea ahalbidetzen du, eta, ondorioz, auzi berriak sortzen dira. Hain zuzen, Nazionalismo Ikerketetako eztabaida berri asko horri tiraka sortu dira. Naziotasuna ez badator nazio-estatuaren partaidetzatik, zerk zehazten du taldetasuna? Hale-k «etnizitatearen»<sup>5</sup> zentzuaz egiten du gogoeta bere *Foundations of Ethnic Politics* liburuan (Hale 2008); Brubaker-ek, *Ethnicity Without Groups* lanarekin, «talde etnikoa» (eta «taldea» bera) zer objektu mota den galdetzen du (Brubaker 2004). Kultura objektu sinbolikoen zaku bat beharrean pluraltasunaren eta are gatazkaren espazioa bada, horren nondik norakoak aztertzen ditu, besteak beste, Nira Yuval-Davisek *Gender & Nation* azterketarekin (Yuval-Davis 1997). Billig-en lana izan da, berriz, nazionalismoa estatua eraikitzean amaitzen ez dela eta, estatuek komunitatea birsortzeko erabili ohi duten nazionalismo banala mahai gainean jartzea (Billig 1995).

Aipatutako ikuspegi horiek guztiak ez dira, noski, nazionalismo kulturalaren aterkipean sartzen, baina erakusten dute Hutchinsonen eta Leerssenen ikuspegiek badutela antzekorik diziplinan. Nazionalismo kulturalak naziotasuna den fenomeno sozial, kultural, politiko eta psikologiko konplexuaren baitako praktika jakin batzuk hartzen ditu aintzat. Eta jarraian erakutsiko den eran, Azurmendik bere obran aipatutako auzi nagusiak jorratu ostean aldeztu duenari gehien hurbiltzen zaion teoria eta praktika izendatzen du.



## Nazioaren inguruko ideiak Azurmendiren obran

Azurmendiren lana gutxi-asko irakurrita daukanak ezinbestean hartuko zituen nazionalismo kulturalaren deskribapenean bere ideien oihartzunak. Hala ere, bere obran nekez aurki daitezke orain arte aipatu ditugun egileen aipuak. Esan daiteke Azurmendik eta Nazionalismo Ikerketetako zenbait autorek duten antzekotasuna ez datorrela batak bestekin izan dituzten ideia trukeetatik, ezpada euren ikerketen abiapuntuan hainbat auzi filosofiko partekatzetik. Izan ere, nazioaz galdetzean ez gara egitura politiko-administratibo bati buruz aritzen; nazioaz daukagun ulerkerak gizakiaren, komunitatearen, politikaren, bilakaera historikoaren... gaiak ziprztintzen ditu.

Nazionalismo teorietara ikuspegi horrekin gerturatutakoan, gauza bitxi bat ikusten da. Noski, Nazionalismo Ikerketetan inor ez da nazionalista eta ideologia nazionalista arbuiatu egiten da. Azalpen luzeak daude nazionalismoaren jatorri filosofikoei buruz. Modernitateko ideiek nazionalismoaren sorreran izan duten eragina erakusten dizute eta nazionalisten uste okerrak seinalatu; baina gero, euren teorietan, planteamendu moderno horiexek maiz baino maizago errepikatzen dituzte. Eta Azurmendik modernitatearen auzi filosofikoak erruz aztertu dituzenez, eztabaidarako tarte egokia irekitzen da bere lanetan.

## Gizaberea

Azurmendik gizakia abere hitzun kooperatzailea dela esango du, eta horrekin subjektu razional ilustratuaren parez pare jartzen da. Nazionalismoaren teorietan, ordea, ikuspegi horrek bere pisua du oraindik ere (Máiz 2010). Emmanuel-Joseph Sieyès-en *Zer da Hirugarren Estatua?* testuan, nazioa zer den azalpena hauxe da gutxi gorabehera: banakoek, euren pasioak, partikularitasunak eta izaera produktiboari ez dagozkion elementuak baztertuta, euren interes partekatua defendatzeko elkarte sortzen dute, arrazoimenaren arabera.

Ikuspegi horretan, beraz, nazioa edo komunitatea banakoaren ondorio da, eta arrazoimenaren ikuspegi mekanizista batetik eratorritzen da.

Sieyès eta Frantziar Iraultza aipatu izana ez da kasualitatea. Nazionalismo Ikerketetako paradigma zabalduena da oraindik ere hastapenetako nazionalismoa, Iraultza garaitik XIX. mende erdi aldera doana, gizartearen razionalizazio prozesuarekin (komunitate txiki sakabanatuetatik nazio-estatu bateratuetara) berdintzea eta hori positibo jotzea. Gellner aitortuki lotzen zaio tradizio razionalistari 1983an (Gellner 1983), bere garaiaren paradigma oraindik ilustrazioak jarritakoa dela postulaturik.<sup>6</sup> Hobsbawmentzat, berriz, na-

zionalismo integratzailetik chauvinistarako jauzia 1870eko hamarkadak markatzen du, printzipio razional integratzaileen ordeztan etniko edo arrazistak hartzean eta masak pasioen arabera mobilizatzean (Hobsbawm 1992). Gerora, gaur egunera arte, interes-kalkuluen arabera nazionalismoaren azterketak ere behin baino gehiagotan agertu izanak erakusten du, postmodernitateak postmodernitate, banako razional eta autonomoaren paradigmatik indartsu jarraitzen duela.

Azurmendik bere lanaren hasiera-hasieratik egin dio kritika gizakiaren ulerkera horri; horixe da bere hastapenetako liburuetan gizakiaren aberetasuna azpimarratzearen zentzua: «Gizona izaki inteligentea da. Baina gizonaren inteligentzia ere filogenesi baten arabera da. Ez da Kantekin hitz eginenez, purua, kondizionatu gabekoa, inteligentzia huts-hutsa» (J. Azurmendi 1991: 92). Gizakia ez da animalia bat *eta* arrazoimena; bere aberetasunetik datorkio den guztia.<sup>7</sup> Beste era batera esanda, arrazoimena ez da animalia izatearen ukazioa,

Gizakia ez da animalia bat *eta* arrazoimena; bere aberetasunetik datorkio den guztia. Beste era batera esanda, arrazoimena ez da animalia izatearen ukazioa, horren ondorioa baizik

horren ondorioa baizik, sentimenduak, moraltasuna eta beste giza tasunekin batera. Gaiari heltzen dion liburuetan eten-gabe azpimarratzen du Azurmendik gizakiak, abere izateagatik, konstituzio bat duela, baina konstituzio hori irekia dela. Etengabe aipatzen ditu naturaz dauzkan disposizioak batetik eta bere naturak etorkizunari begira uzten dion irekitasuna bestetik.

Gizaberearen ezaugarri oinarrizkoetako bat taldekoi izatea da. Elkarte batzuk interesen araberakoak direla ukatu gabe ere, Azurmendik gizakia abere komunitarioa *berez* dela defendatzen du, naturalki jaiotzen dela gizakia komunitatean eta hura gabe ezaindu egiten dela (J. Azurmendi 1991: 97). Horrekin batera azpimarratzen du gizakiak elkarlaguntzarako duen joera ere: «Aberezko bilakaerak berak bihurtu zuen gizaberea elkarkoi, altruista, kooperatibo, homo sapiens izateratu baino askoz lehenagotik, eta eboluzionatu ahala geroz eta gehiago» (J. Azurmendi 2016: 104-105). Gizaberearen kooperazioa eta taldekoi izaera ez lirateke, beraz, arrazoi-menaren produktu, hura baino lehenagoko baizik.

Norbaitek galde lezake ez ote garen urrutitxo etorri nazioa eta Azurmendik aipatzen duen berezko talde hori lotuz. Nazioa nazio-estatuarekin berdindu eta XIX. mendeko terminotan definitzen duenarentzat hala izango da, ezbairik gabe. Baina orduan gauza arraroak gertatuko dira. Hasiko da bat etnizitatearen jatorriaz eta zentzuaz gogoetatzen duen Hale irakurtzen eta topatuko du bere ustez *etnizitatea*, mundua komunitate etnikoen arabera sailkatzeko joera hori, gizakiaren berezkoa dela, bereziki erabilgarria suertatzen zaiona mundu soziala den itsaso aldakor eta potentzialki infinitua nabigatzeko (Hale 2008: 33). Gero ohartuko da Halek etnizitatea munduaren aurreko ziurgabetasuna apaltzeko tresna gisa hartze hori eboluzioaren teoria batekin bateragarri aurkezten duela (Hale 2008: 51), Azurmendiren «aberezko bilakaeraren» zentzuan. Eta jada seko harrituko da kategorizazio etnikoa deitzen duen horretan hizkuntza bera hitz egiteak «garrantzi intrintsekoa» duela ikusten duenean (Hale 2008: 37). Azurmendiren

eta Haleren gogoetak erabat desberdinak direla jakinik ere, ez da kasualitatea bien artean dauden antzekotasunak egotea. Orduan pentsatu beharko da beharbada Azurmendiren nazio natural hori ez dela modernismoko egitura soziopolitiko bat, hobeto ulertuko dela gizaberearen gogoetatik abiatuz gero.

Gizaberea komunitario eta kooperatibo izatearen ifrentzua da hiztun izatea. Berriro ere, berez da hiztun gizakia, eta horrek nahitaez eskatzen du hiztun komunitatean partaidetza. Azpimarra etengabea dago hiztun izate hori ez dela gaitasun abstraktu bat, ezpada hizkuntza konkretu baten harreman eta erreferentzia sisteman sartzea (eta horren bitartez munduko hizkuntza guztietara). Hiztegi ez, esanahien mundu batera, elkarrizketen segida batera sartzen da hiztuna. Hizkuntzak ematen duen erreferentzia mundu hori azaltzeko adibide polit bat ere ematen du Azurmendik:

Euskarazko nobela batek izenburua «Berriro igo nauzu» baldin badu, euskarazko irakurlearentzat Lizardiren oihartzun ilun bat entzunabartzen da hor. Titulu horren gaztelaniara itzultzeak berez ez du neke handirik; baina gaztelaniaz Lizardi ez da entzungo, alegia, ezingo da entzun. Berdin da, euskaraz ere den-denek ez dutela igarriko; baina egon hor dago. Ezein hiztun ez da hizkuntza osoaren jabe. Hala ere, posibilitate hori Lizardiri antzematekoa, euskaran badago eskainita; gaztelanian, ez (J. Azurmendi 2007a: 323).

Hizkuntzaren ulerkera horrekin nahitaez etortzen da nazionalismo kulturalaz aritzean egin dugun oharra. Hizkuntza aipatzean ez gara arau gramatikalen multzo batez ari, kultura oso batez baizik. Hain zuzen, Azurmendik berak, salbuespenak salbuespen, hiztun eta kultur komunitatea berdinduta aurkezten ditu.

## **Kultura**

*Teknikaren meditazioa* liburuan badago pasarte bat Azurmendik, Félix Duqueren aipuari jarraika, gogoeta interesgarria mahaigaineratzen duena. Teknologia produktuetan (Harrizko Aroko harrizko tresna primitiboak, adibidez) zentratuz

ulertzeko joeraren aurrean, Duquek dio benetako iraultza teknologikoa produktuok sortzeko beharrezko jakintzen garapenean, antolakuntza sozialean eta prozesu sortzaile hori abiarazi duten beharrezko bilatu behar dela. Produktuaren atzean dagoen jakintza, adimen sozialak bildu eta antolatu duen esperientzien informazioa bilatzea da gakoak. Azurmendiren ondorioa: «Honela teknika gizakiarekin, gizartearekin berdintzen zaigu, hots, kulturarekin» (J. Azurmendi 1998: 88). Kulturaren biltzen dira komunitateak pilatu dituen irakaspen, esperientzia eta bizipenak, objektu kulturalen forman gorpuztuta eta kideentzako erreferentzia-puntu gisa balio dute. Erreferentzien mundu sinboliko horretarako giltza hizkuntzak ematen du Azurmendirentzat. Komunitatearen bizieran pilatutako esperientziak eta jakintzak hizkuntza konkretuetan gordetzen dira, horiek sortzen duten espazio sinbolikoan. Banakoak hizkuntzan iristen dira erreferentzia sinboliko horiek partekatuz eta birsortuz.

Hizkuntzak ematen duen munduaz, kultura nazionalaz eta abarrez hitz egiteak polemikak piztu ohi ditu nazioaz jar-

duterakoan. Hutchinsonek berak aurre egin behar izan dio bere komunitate kulturalaren ikuspegiak ontologia «herderrarra» mantentzen duen akusazioari.<sup>8</sup> Arazoa da teoriarik askok termino esentzialean soilik bururatu dezaketela kultura nazionala. Kultura nazionalaz entzun eta sinbolo nazionala ulertzen dutenez, automatikoki, naziokide guztiek euren baitan eramango luketen zerbaiten bila abiatzen dira. Eta halakorik ez dagoen-

Hizkuntzak ematen duen munduaz, kultura nazionalaz eta abarrez hitz egiteak polemikak piztu ohi ditu nazioaz jarduterakoan. Arazoa da teoriarik askok termino esentzialean soilik bururatu dezaketela kultura nazionala

nez, ondorio posible bakarra kultura nazionalik existitzen ez dela izango da. Esentzialismoari ihes egin nahi, baina taldea,

kultura, izpiritua ulertzeko bestelako ontologiarik gabe, reifikazioaren sorgin gurpilean katigatzen dira.

Azurmendik, ordea, izpirituaz edo kulturaz diharduenean hasiera-hasieratik ukatzen du halakorik. Kultura Azurmendirentzat ez da objektu kulturalen sorta soil bat (txapela, dantza batzuk, kantua...), komunitatearen praktika bat baizik, objektu horiek sortu, berrinterpretatu eta eraberritzen dituenak. Praktika horien bitartez sortzen da kidesasuna, harreman eta erlazio sare konplexua eratuz. Kontua ez da, beraz, hizkuntzak bere hiztunak talde itxi batean itxituratzeko dituela, bere baitan isolatu. Kontua da hizkuntzak hiztun komunitatearen esperientzien oihartzunak eskaintzen dituela ('biolentziak' edo 'nazionalismoak' ez du gogora gauza bera ekartzen Euskal Herrian eta Alemanian). Hizkuntzan eskainita dauden erreferentzia kultural horiek landuz, eztabaidatuz, baztertuz eta berriak emanez diharduen praxi kolektiboan sortzen da komunitate kulturala.<sup>9</sup>

Azurmendiren kulturari edo izpirituari estatiko, esentzialista edo dena delako iriztea absurdoa da. Lehenik eta behin, bere bizitza osoan hura eraberritzen, gaurkotzen, kanpoko eraginekin aberasten jardun duelako literaturan nahiz filosofian. Bigarren, bere obraren zati handi batek kulturen bilakaera, pluraltasuna eta dinamismoa ulertzeko gogoeta duelako oinarri. Gaztaroan kultura sobietarra aztertu bazuen, herri-kultura sortzeko ideien bila aztertu zuen. Orixeren alde eta kontra idatzitakoa ia-ia Hutchinsononen teoriaren azalpen enpirikoa da. Herder, Humboldt, Goethe eta abarrak hainbesteko tentuz irakurri baditu, kultura alemanaren bilakae-ratik irakaspenak ateratzeko izan da.

Eraberritze kultural horren prozesua plurala izan ohi dela, maiz gatazkatsua eta helburu desberdineko jendea zein taldeak daudela jokoan erakusten du Azurmendik. Mila modutako literaturgileek, artistek, intelektualek... hartzen dutela parte esango du, hedabideek duten garrantzia aitortuko,<sup>10</sup> jendearen eguneroko jardunak duen eragina nabarmenduko, dauden interesak eta botere-harremanak ere ukatu gabe.

Finean, kultur komunitatea mila modutako elkarreraginek osatutako harreman sare bizia da Azurmendiren ikuspegian. Baina pluraltasun horrek, erreferentziak irakurtzeko modu desberdin horiek, ez dakarte komunitatearen ahuldaderik; kontrara, zenbat eta harreman, eztabaida, birsortze gehiago, orduan eta biziago nabari da. Kultura bat hiltzeko bidean sartu, hura objektu soiletara erreduzitu eta museotarako geratzen denean sartzen dela jakitun da Azurmendi.

Izpirituaren filosofia kulturgileen, erreferentzia kulturalen zein proiektu desberdinen harreman-sare konplexua bata-sunean ulertzeko modu bat da. Esplizituki esaten du Azurmendik izpiritua metafora bat dela, baina horregatik ez dio kentzen baliorik. Izpiritua ez da substantzia bat, beraz, eta ez luke esentzialismoaren erbirik harrotu behar. Komunitatean dagoen indar sortzailea adierazten du (ez da alferrik *Geist* alemana 'izpiritu'-z gain 'gogo'-rekin itzultzen), kulturaren aje eta indarrekin bere burua birsortzeko duen gaitasuna.

Adibidetakarako, Azurmendiren izpiritua gehiago gerturatzen da Rogers Brubaker soziologoaren ikuspegira. Brubakerrek etnizitatea eta taldetasuna ulertzeko taldea substantzialki ulertu beharrik ez dagoela proposatzen du (Brubaker 2004). Kasu horretan, taldea ez litzateke objektu itxi eta bukatu bat izango, trinkoagoa edo laxoagoa den harreman sare dinamiko bat baizik. Brubakerrentzat taldetasuna izan ez *da*; aldiz, *gertatu* egiten da. Egin liteke zubirik ikuspegi horren eta izpiritua *ergon* ez, *energeia* dela dioenaren artean. Are gehiago, Brubakerrentzat taldetasunak fase trinkoago edo sareagoak dituen eran, Azurmendik esan lezake izpiritu/gogo biziagoa edo ahulagoa ageri dela. Ziurrenik, eztabaida akademikoan jarduterakoan, honezkero zehaztapen eta desenkusa gehiegi eskatuko litzuke izpirituaren filosofiarekin kultur soziologia egin nahiak; baina, Azurmendiren kulturaren filosofiarekin, oraindik posible da komunitate kulturala subjektu beregaina balitz bezala ulertzea, bere logika propioarekin, interes eta prozesu politiko edo ekonomikoek zeharkatuta bai, baina horietara azpiratu gabe.

## Historia

Komunitate edo nazio kulturalak subjektu historikotzat har daitezkeen, horixe da Nazionalismo Ikerketetan egon izan den beste auzi bat. Hutchinsonek, nazionalismoa estatu modernoa eraiki nahi duen mugimendu politikoa soilik ez dela aldarrikatzean, eztabaida horrixek ekiten dio (eta hortik etortzen zaio herdertar izatearen akusazioa). Eztabaida termino horietan planteatzeak pista bat eman dezake Azurmendik hartzen duen jarreraz.

Etniak edo kulturak historian egon badaudela Gellnerrek eta Hobsbawmek ere aitortzen dute. Gellnerrek, bereziki, etniak komunitate txikiak zirela deskribatzen du, *laster-eler* edo kode mugatuko hizkuntzak, bata bestetik isolatuak neurri handi batean. Modernitatearen eskakizunek kultura estandarizatuago bat galdegiten baitzuten, kode mugatu horren gainean estatuak goi kultura bat inposatzen du bere lurralde osoan, diferentziak ezabatuz eta naziokide guztiak euren txoko hizkuntzatik nazioarenera aldaraziz.

Arta berezia jartzen dute seinalatzen Gellnerrek eta Hobsbawmek modernitate aurreko etnia horien eta modernitateko nazioen arteko zubiak nazionalisten asmakuntza ideologikoak direla, tradizioaren manipulazioak.

Modernismoaren baitan dagoen historiaren filosofiak hemen emango dioguna baino arreta handiagoa merezi du (H. Azurmendi 2019a). Historiaren filosofia modernoaren bi ideia nagusiak ateratzen dira argitara modernismoan: historiaren subjektuaren auzia eta historiaren bilakaerarena. Lehenengoari heltzeko, modernismoak nazioa eta nazionalismoa ulertzeko duen eragatik, euren ikerketetako subjektu historiko bakarra nazio-estatua bilakatzen da. Modernitateko oinarrien (kapitalismoa, industrialismoa) eskakizuna mundua

Modernismoak nazioa eta nazionalismoa ulertzeko duen eragatik, euren ikerketetako subjektu historiko bakarra nazio-estatua bilakatzen da



nazio-estatutan antolatzea dela izango da tesia. Ondorioz, naziotasunari lotzen zaizkion elementu guztiak subjektu horren arabera daude ebatziak. Hizkuntza erregionala nazio-estatuen zentrotik kanpo dagoena izendatzen da. Nazionalismo aurrerakoa eta integratzailea populazio handiak nazio-estatu uniformeetan antolatzea izango da, inperio handi heterogeneoak edo printzerri txikiak ezabatuz. Nazionalismo erreazionarioa, hortaz, eraikitako nazio-estatuen aurka bideratutako separatismo edo inperialismo etnizistak izango dira.

Azurmendik modernitatean subjektu razional bakarra estatutu moderno hartzea nondik datorren ederki dauka identifikatua, Hegelen pentsamenduaz diharduela:

Historiaren filosofoarentzat, kaos iraultzaile/napoleondarra azkenik gainditzen duen ordena berri hori, iragan historia guztiaren gailur eta etorkizunaren egitamu politiko legez ageri da. Mundu zaharra suntsitu eta berria definitiboki hasi, Valmy-ko gudan ez baina hemen egin da (ez ahaztu 1789-1815 artean Europa osoa gerran egon dela). Ordena berriko Estatu horretan iragan guztiaren helburu eta zentzua kunplitzen da: arrazoimena bere buruaren jabe azkenean (J. Azurmendi 2007b: 136).

Gutxienez bitxia da autore modernistek nazio-estatuari eta Hegelek estatu berri horri aitortzen dioten lehentasun ia absolutuaren antzekotasuna. Azurmendik ikuspegi horri kontrajartzen dio Herderrena, Herderrekin batera Humboldtena edo Cassirerrena ere badena, neurri batean; historia boterearen eraikuntzatik beharrean herri-kulturen bilakaeratik irakurtzeko proposamena da.

Lotuta dator seinalatu dugun bigarren auzia ere. Modernitate aurreko etnia txiki horien endekapena, estatuan gerizatu ez diren kulturen deuseztatzea gertakari historiko bat dela Azurmendik badaki. Ezin onartuzkoa kulturen desagertze hori historiaren joanaren berezko prozesua dela iruditzen zaio. Gellnerrek berak, ordea, hala argudiatzen du: modernitateak dituen eskakizunek ekarritako *beharrizan objektiboa* da nazio-estatuen eraikuntza, eta horrek nahitaez dakar kultura batzuen galera. Modernitatearen beharrizanetara

egokitzen ez diren kulturak (eta kultura gehiegi daude erai-ki daitezkeen estatuetarako) kondenatuta leudeke artifizialki irautera folkloristen eskutan edo zuzenean desagertzera.

Historiaren filosofia objektibistaren kritikoa da, ordea, Azurmendi aurrerabidearen eskemarekin irakurtzeko auzia (*Historia, arraza, nazioa* liburua osorik da horren adibide). Onenean onartuko du XIX. mendetik aurrerako joera nazio-estatu handien eraikuntza izan dela eta, ezinbestean, horrek estatuon baitako herri txikiak zein euren kulturak arrakalatu zituela. Horretan modernitateko ikuspegi filosofiko, ekonomiko eta politikoez pisu nabarmena izan zutela ere jaso du Azurmendik. Egiten ez duena zera da, historiari berezko norabide bat egotzi eta modernitatearen hastapenetan bertan joera horrek izan zituen erresistentzietan (Herder, Humboldt, errebolta...) erreakzionario edo hutsal iritzi. Historiaren gogoetatik arau objektibo ustez neutralak on-dorioztatzea da Azurmendik onartzen ez duen historiaren filosofia egiteko modua. Horregatik errebindikatzen du nazio kulturalaren subjektutza.

## **Azurmendiren abertzaletasun kulturala**

Bere gizaberearen ideiarekin, kulturaren filosofiarekin, estatu modernoaren eta historiaren filosofia modernoaren ikuspegi kritikoarekin, Azurmendik nazioari buruzko gogoeta teoriko eta jardun praktiko bat garatzen ditu. Hori ere bere neurrian hartu behar da, ordea, bere obran nazioaren teoria sistematiko koherente baten bila ez hasteko. Unean uneko eztabaidei erantzunez eta, batez ere, indarrean zeuden topikoak deseraikiz osatu du bere nazioaren ulerkera. Hala ere, badago nahikoa antzekotasun Azurmendirena nazionalismo kulturalaren aldaera bat dela baieztatzeko. Era berean, Hutchinsonen edo Leerssenen teorizazioetatik ez, aipatu ditudan filosofiako eztabaidetatik garatzen du bere jarrera. Nazionalismo kulturalarekin lotura duela, baina Euskal Herriko testuinguruan garatutako elaborazio propioa dela, bi

Azurmendik  
gaztaro goiztiarretik  
bere-beretzat hartu duen  
eginbeharra hizkuntza  
eta kultur erreferentziak  
modernizatu, landu  
eta birsortzea izan  
da. Hautsitako  
komunitatearen  
berregintza hor jokatzen  
dela azpimarratuko du

zentzuak gordetzen dituelako deitu diot abertzaletasun kultural Azurmendiren jarrerari.

Azurmendik Euskal Herria, euskarazko kultur komunitatea krisian ikusten dituela bere obra guztian nabarmentzen da. Egoera hori iraultzeko esparru bat baino gehiagotan aritu beharra dagoenik ez du ukatzen, eta jardun politikoari, estatugileari, bere balioa eman eta premia aitortzen dio. Baina gaztaro goiztiarretik bere-beretzat hartu duen eginbeharra hizkuntza eta kultur erreferen-

tziak modernizatu, landu eta birsortzea izan da. Hautsitako komunitatearen berregintza hor jokatzen dela azpimarratuko du.

Adibide argia ‘Zergatik eta zertarako euskaldun?’ polemikak jartzen du.<sup>11</sup> Hor, Azurmendi ez da euskaraz egin behar den edo ez planteatzen; euskaraz egiteari esleitzen zaion zentzua ari da auzikatzen. Esaten ari da ordura arteko «euskaraz, euskaldun jaio naizelako» hark ez duela balio mundu garaikidean, eta ekiteari, praktika komunitarioari, zentraltasuna aitortu behar zaiola. 1967ko zalantzetatik hautu bat eta bizi osorako proiektu bat eratortzen du.

Batek *Espainolak eta euskaldunak*-en azken orria har dezake ia literalki abertzaletasun kulturalarekin topo egiteko:

Horixe da gure kulturgintza: herrigintza, naziogintza. Komunitate baten berregintza. Itzuli beharra daukagu atzera, izandu gabe geratu ginen Ernazimentu hartara: Euskararen Ernazimentura baino gehiago, Ernazimentu euskarazko batera. Geure buruaren aurkikuntzara eta libertatera (J. Azurmendi 1992b: 580-581).

Eta oraindik zalantzarik balego, bere nazioari buruzko azken liburuan honakoa irakur dezake:

Zilegi bekit agora horren [Udako Ikastaroaren] zeregin bat ardurazkoa enfatizatzea, bai Jakinen eta bai UEUren sorrerako motibo nagusietakoa izan baitzen. Gure asmo politikoen jomuga burujabetasuna bada, hori ez da berehalako batean lortuko, eta bitartean egunotan jorratuko dituzuenon gisako arazoak pentsatu eta birpentsatu beharko dira. Horretarako landu beharra dago geure-geure pentsamendua, geure pentsaera (ez «pentsamendu bakarra»). Iragan intelektual pobretik gatoz. Txikiak gara eta beti txikiak izango gara. Orduan, Madril eta Parisen sukurtsal politikoak izan gura ez badugu, ezin gara sukurtsalista mentalak izan. Gure arazoak geuk geure erara gogoetatu ahal izateko, alabaina, independentzia intelektuala lortuz joatea dugu lehenengo. Estreina geuk geure buruan sinesteko. Jakiteko badaukagula geure pentsamendu bat, eta hori ez dela Barandiaranen elezaharretan eta Mariren mitoan hasi eta bukatzen. Eta gero, askatasuna beti kontzientziaren askapenetik hasten delako. Kontzientziaren askapena, berriz, ikasiz eta ikasiz burutzen da. Mundua geure esperientziaren begiekin ikusten ikasiz, eta arazoak geure buruekin pentsatuz, ez nondibait inposatu zitzaizkigun eskemekin eta doktrinekin. Ikasten duguna, geure herriarentzat ikasi beharko dugu (ez akademiarentzat soilik); pentsatzen duguna, geure jendearentzat pentsatu, ez itzulpenarentzat. Ez pentsatu esportaziorako edo idazten dugula. Ez gara irla bat eta ez dugu izan nahi. Ezin dugu orga-barrikadako defentsa posturan jarraitu, «laager» mentalitatean kiribilduta («Wagenburg»), arbaso karlisten eran. Baina Madril edo Parisko maisuen lezio eta kritikoen onespenetik zintzilik ere ezin gara bizi, biziko bagara. Geure-geure mundu bat behar dugu geu izateko (J. Azurmendi 2017: 105-106).

Ez dago askoz gehiago erantsi beharrik. Nahiko argi dago Azurmendiren abertzaletasun kulturalaren zentzua. Horrekin bide bat irekitzen da naziotasunak Euskal Herri garaikidean izan duen esanahi poliedrikoaren aurpegi bat gehixeago eza-gutzeko. Horrela, agian, pixkanaka, iritsiko gara ulertzea hizkuntza Azurmendirentzat ez dela sinbolo bat aurretiazko nazioarena edo; naziokideek partekatzen duten erreferentzia sistemen eta harremanen espazioa baizik, subjektu bat bere baitan, eragilea bere baitan. 🌿

## Oharrak

1. Esate baterako, ikuspegi horretan hizkuntzaren estandarizazioa azaltzeko bide ohikoena estatuaren zereginetarako (administrazioa hedatu, barne merkatua bateratu, irakaskuntza uniformatu) baliagarri izango den komunikazio tresna bat sortu beharra azpimarratzea da. Tresna hori sortzeko erabaki arbitrarioak eta uneko eliteen interesek agindutakoak hartuko lirateke, nahiz eta nazionalistek mitologia propioa eraiki.
2. Hutchinson, urteen poderioz, naziotasunaren muinean gatazkak eta interpretazio desberdinen arteko elkarreraginak duten garrantzia azpimarratzera etorri da, besteak beste, *Nations as Zones of Conflict* (Hutchinson 2005) lanean.
3. Leerssenena da *Encyclopedia of Romantic Nationalism in Europe* (ERNIE) proiektua (<https://ernie.uva.nl>), Europako pizkunde desberdinak bildu eta euren arteko elkarreragina aztertu nahi duena.
4. Nazionalismoaren teorioren sailkapen gehienek aitortzen diote korronte modernistari 60ko eta 90eko hamarkaden artean eragin nabarmena izan zuela (Smith 1998, Özkirimli 2010). Korronte horrek nazionalismoa modernitatearen ondorio zela defendatzen zuen, aro historikoaren ezaugarriek (kapitalismoa, industrialismoa) ordura arteko antolera soziopolitikoaren irauli eta nazio-estatuaren eredua eskatzen zutela argudiatuz. Ondorioz, korronte modernistan, nazionalismoa aztertzeke modurik ohikoena estatu modernoaren, nazio-estatuaren, nola eta zergatik eraiki zen bilatzea izango da.
5. Eztabaida akademikoetan, tradizio anglosaxoian batez ere, 'nazio' hitzak ia zuzenean nazio-estatu adierazten baitu, nazio klasikoaren –ohiturak, hizkuntzak, jatorri komunak... eta abarrek ezaugarritua– etnizitatearen esparrura lerratu ohi da.
6. Urte batzuk beranduago aktiboki egingo du beretzat arrazoimenaren ukoa dakarren «joera postmodernoaren» aurka (Gellner 1992). Hain justu, eztabaida hori Azurmendik termino oso antzekoetan aztertu du, Finkielkrauten testu baten aitzakian (J. Azurmendi 1999a: 117-205), «postmodernitatearen» kritikaren atzean arrazoimen absolutuaren nostalgia ezkatzen duela adieraziz.
7. Azurmendiren ikuspegi horrek lotura zuzena du 70eko hamarkadan biologiaren filosofian sortu zen proposamen teoriko batekin. Humberto Maturanak eta Francisco Varelak bizitza autopoiesi legeaz ulertzea proposatu zuten, autonomia biologikoaren auzia mahai gainean jarri. Arantza Etxeberriak eta Alvaro Morenok honakoa ondorioztatzen dute ikuspegi berri horretatik: «Modernitateak uste izan bazuen autonomia arrazoitzeko giza gaitasunaren ondorio desiratua zela, egungo naturalismoa arrazoimena bera (kognizio oinarritzekoena edo fenome-

- no bizidunen gisako beste fenomeno batzuekin batera) sistema naturalen autonomiaren adierazpen moduan ulertzen saiatzen da. Interesa lerratzen da, horrenbestez, autonomiatik eratorzen diren ekintzetatik gaitasun hori eragiteko prozesuetara, horien posibilitate baldintzeta-  
ra» (Etxeberría eta Moreno 2007: 35). Ikuspegi horrek Azurmendiren gizaberearekin zenbaterainoko lotura duen ikertu beharreko bidea da oraindik, baina ikuspegi antzekotasuna bistakoa da.
8. Hori jakinda, grazia ere egiten du, kasualitatez bezala, Herderren planteamendu izpiritualista esentzialismoarekin lotzeko joera okerraz Azurmendik testutxo bat daukala ikusteak (J. Azurmendi 1992a).
  9. Tesi osteko atsedendian, Stefan Zweigen memoriak irakurtzen topatu dut horren adibide ederra, autoreak James Joyceri jartzen dizkion hitzetan: «Nahiko nuke hizkuntza bat beste hizkuntza guztien gainetik legokeena, hizkuntza bat gainontzeko guztiek zerbitzatuko luketena. Ezin dut ingelesez nire burua guztiz aditzera eman tradizio batean sartu gabe» (Zweig 2001: 350; nire itzulpena).
  10. XVIII.-XIX. mende bitarteko Alemanian, Goethek antzerkiari berebiziko garrantzia ematen ziola azalduko du ederki, artean irrati eta telebistatik ezean, bateratzeko bidean zen hizkuntza alemanaren ahoskera zabaltzeko (J. Azurmendi 1999b). Harrezkero, hedabideen modernizazioarekin, kontua konplexuago bihurtu da, baina kultura birsortzearen proiektuak bere horretan dirau.
  11. Polemikaren inguruko guztia Jakinen webgunean aurki daiteke ([www.jakin.eus/gogoeta/dossierrak/zergatik-eta-zertarako-euskaldun/52](http://www.jakin.eus/gogoeta/dossierrak/zergatik-eta-zertarako-euskaldun/52)).

## Bibliografia

- Azurmendi, Haritz (2019a): 'Historiaren kontzeptua nazionaren paradigma modernoan. Gellner eta Hobsbawmen kasuak', in *Actas del X Congreso Vasco de Sociología y Ciencia Política / Sociedades en constante cambio: realidad social y reto científico*, Bilbo, EHU, 139-154 (<http://hdl.handle.net/10810/32968>).
- (2019b): *Joxe Azurmendiren nazioa Nazionalismo Ikerketen argitan. Abertzaletasun kulturalaren defentsa Euskal Herri garaikidean*. Doktore tesia. UPV/EHU ([https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/35283/TESIS\\_AZURMENDI\\_ARRUE\\_HARITZ.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/35283/TESIS_AZURMENDI_ARRUE_HARITZ.pdf?sequence=1&isAllowed=y)).

- Azurmendi, Joxe (1991): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, Donostia, Elkar.
- (1992a): 'Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder', in Xabier Palacios (arg.): *Ética y nacionalismo*, Gasteiz, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, 163-220.
- (1992b): *Espainolak eta euskaldunak*, Donostia, Elkar.
- (1998): *Teknikaren meditazioa*, Donostia, Kutxa Fundazioa.
- (1999a): *Euskal Herria krisian*, Donostia, Elkar.
- (1999b): 'Goethe: literatura nazional unibertsala', *Jakin* 111, 63-99.
- (2007a): *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.
- (2007b): *Volkgeist - Herri gogo. Ilustraziotik nazismora*, Donostia, Elkar.
- (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin.
- (2017): *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Donostia, Elkar.
- Billig, Michael (1995): *Banal Nationalism*, Londres, SAGE Publications.
- Brubaker, Rogers (2004): *Ethnicity Without Groups*, Cambridge, Massachusetts, Harvard University Press.
- Etxeberría, Arantza; Moreno, Alvaro Julian (2007): 'La idea de autonomía en la biología', *Logos. Anales del Seminario de Metafísica* 40, 21-37.
- Gellner, Ernest (1983): *Nations and Nationalism*, Ithaca, New York, Cornell University Press.
- (1992): *Postmodernism, Reason and Religion*, Londres, New York, Routledge.
- Hale, Henry E. (2008): *The Foundations of Ethnic Politics. Separatism of States and Nations in Eurasia and the World*, Cambridge, New York, Cambridge University Press.
- Hobsbawm, Eric J. (1992): *Nations and Nationalism since 1780. Programme, Myth, Reality*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Hroch, Miroslav (2000): *Social Preconditions of National Revival in Europe. A Comparative Analysis of the Social Composition of Patriotic Groups Among the Smaller European Nations*, itzul. Ben Fowkes, New York, New York, Columbia University Press.
- Hutchinson, John (1987): *The Dynamics of Cultural Nationalism. The Gaelic Revival and the Creation of the Irish Nation State*, Londres, Boston, Unwin Hyman.
- (1999): 'Re-Interpreting Cultural Nationalism', *Australian Journal of Politics and History* 45/3, 392-409.
- (2005): *Nations as Zones of Conflict*, Londres, SAGE Publications.
- Iturriotz, Ander (2010): 'Zergatik Azurmendi?', *Hegats* 45, 9-17.
- Leerssen, Joep (2006): 'Nationalism and the Cultivation of Culture', *Nations and Nationalism* 12/4, 559-578.

- Máiz, Ramón (2010): 'La hazaña de la razón: la exclusión fundacional de las emociones en la teoría política moderna', *Revista de Estudios Políticos* 149, 11-45.
- Özkirimli, Umut (2010): *Theories of Nationalism. A Critical Introduction*, Hampshire, New York, Palgrave Macmillan.
- Smith, Anthony D. (1998): *Nationalism and Modernism. A Critical Survey of Recent Theories of Nations and Nationalism*, Londres, New York, Routledge.
- Yuval-Davis, Nira (1997): *Gender & Nation*, Londres, Thousand Oaks, Kalifornia, SAGE Publications.
- Zweig, Stefan (2001): *El mundo de ayer. Memorias de un europeo*, itzul. Joan Fontcuberta eta Agata Orzeszek, Bartzelona, Acantilado.



## EGUNEN GURPILEAN

### **241** Kultura

Errotik hitzak  
Oraina oroitzen  
Itziar Ugarte

### **246** Soziolinguistika

Irlanda urrun  
Hizkuntzen negozioa  
Online nabigatzen  
Irlanda gertu  
Jaime Altuna

### **252** Glocalia

Glokal glokala  
Garbiñe Ubeda eta egia immaterialak  
Alba Garmendia



## Errotik hitzak

Pantailen aroa da gurea. Pantailen errusiar panpina: pantailak eta pantailen barruan pantaila gehiago. Interkonektatuta bizi gara, eta erroak lurretik askatzen entzungo bagenitu bezala da askotan.

Zinemaldian inoizko euskal pelikula gehien emango zirela idatzi genuen iaz, jaialdiaren 66. aldian. Euskal Herrian ekoiztutako hogeitau film ikusiko zirela denera, horietatik hamalau euskaraz, osorik edo hein batean. Behin halako titular bat idatzita, zaila izaten da hurrengoetan eustea. Aurten gutxiago izan dira, baina berdin izan dira aipatzekoak. Horien artean dago, esaterako, Maddi Barberren *Urpean lurra*. Paisaiaren memoriaz diharduen lana da, Itoizko urtegiaren gatazka abiapuntuan duena –hala zen iaz jaialdian aurkeztu zuen *592 metroz goiti* film laburra ere–. Lan *ezberdin* bat da, hitz gutxikoa, iradokitzailea, orduko borrokaren artxiboko irudiak, bertako jendearen ametsak eta egungo paisaiaren irudiak gurutzatzen dituena.

Azkenaldiko beste film bat dakar gogora: Oskar Alegriaren *Zumiriki*. Donostiakoan ez, baina Veneziako Zinemaldian erakutsi dute abuztuaren azkenetan. Galtzear den hitz bat da *Zumiriki*, eta, zinemagilearen aitak hiztegi batean jasota duenez, ibai erdian dagoen irla esan nahi du. Alegria eta lagunak, Arga ibaian, Gorritzako zumirikian ibiltzen ziren jolasean umetan, eta orain presa batek urpean hartua dauka lekua –2003an ur azpian geratu ziren Itoitz, Artozki, Orbaitz, Gorritz, Muniain, Ezkai eta Artzi herriak bezala, bere kale, zelai eta harrizko hormekin–. Espazio baten memoriaz ari da Alegria ere, beraz. Kasu honetan, bere gorputza erdian

jarrita, eta oihanean jasotako egurrezko etxola batean bizitza probatuz.

Nik hau memoria esperientzia gisa pentsatu nuen, eta ez iraute esperientzia gisa. Hau ez da edozein oihan, gainera. Ez naiz joan galdutako oihan ezezagun batera. Misterio ezezaguna misterio handiagoa da, baina ni etxeko misteriora joan naiz. Hau nire oihana da. Hau da nire Obaba, nire mundua. Amonaren bordan elkartzen ginenontzat, ibaiaz bertzaldekua ertz basa eta misterioak ziren.

Hitzik apenas duten lanak dira biak. Ez da beti hitza behar. Eta, halere, gure zinemaren mututasunak gorde lezakeenez ohartarazi du Harkaitz Canok jaialdiaren egunetan, *Zurriolako butaka* saioan orain, udaberrian Donostiako Tabakalera eskaini zuen ‘Noizko euskal zinema berritsua?’ hitzaldian plazaratutakoaren bidetik. Hala esan zuen, hiru kolpetan:

Asko maite ditut film erdi mutuak, irudietan oinarrituak, baina iruditzen zait sintoma bat izan daitekeela gure kasuan, denak direnean horrelako pelikulak. Mesfidantza bat sortzen dit: zer gertatzen da hemen? Hizkuntzarekin dugu arazoa ala hain onak gara kontatzen, zinema egiten, eta beraz ez dugu hitzik behar? Eta nire susmoa da bietatik pixka bat bagarela.

Errebindikatzen dut. Irudikatzen zait eskola bat sortu beharko litzatekeela. Oraindik ere, ez dugulako naturaltasunez zineman, inolako arazo edo planteamendu aprioristikorik gabe, modu zinezko eta zineko batean euskara lantzerik izan.

Entrenamendu geruza estra bat behar dugu. Zineman, irudia, soinua, pertiga bere lekuan dagoen, kanpoko zaratarik sartzen ez den... horretaz oso pendiente gaude, baina iruditzen zait esateko moduz, ahoskatzeko moduz eta isiltasunak murduskatzeko moduz ez garela hainbeste arduratu.

Mututasunaren beste muturrean, *Agur Etxebeste!* Zinemaldian estreinatu dute pelikula berria Telmo Esnalek eta Asier Altunak. Eta duela hamalau urte euskal zinemaren historian mugarri bat jarri bazuen *Aupa Etxebeste!*-k –Anjel Lertxundik 1987an *Kareletik* zuzendu zuenetik ez baitzen filmik egiten erabat euskaraz–, berriz egin du filmaren bigarren

itzuliak: lehenengo aldia izan da euskal pelikula baten bigarren parte bat grabatu dena –dena egiteko dugunaren beste adierazle bat–. Fikzioaren lurretan nola gabiltzan ikusita, batik bat telebistan, jakinda aktoreentzat dagoen lan eskasia, zerbait hunkigarria du Esnal eta Altunaren filmean aspaldi ikusten ez genituen aurpegi ugari elkarrekin ikusteak: Iban Garate, Sara Cozar, Iñake Irastortza, Xabier Donostia, Ainere Tolosa, Martxelo Rubio, Javier Tolosa...

Ohitsu egin gara Viktoria Eugenia antzokiaren eta Kursaalaren aurreko iragarki oholetan, gutxien-gutxienean, euskal film bat edo bi ikusten urtero. Azken edizioetako kontua da, baina. Are gehiago euskal zuzendari batek ondutako lan bat Sail Ofizialaren barruan ikustea, Urrezko Maskorra lortzeko lehian. Moriartikoak izan dira horretan aurrendari; *Loreak*-ekin lehenengo, *Handia*-rekin gero. Eta aurten ere bertatik igaro dira, ohi bezain distiratsu. Estreinakoz, espainolez egindako film luze batekin heldu dira jaialdira, eta, askok bezperan iragartzen zuten bezala, ez dira esku hutsik itzuli: zuzendaritza eta gidoi onenaren sariak lortu dituzte, baita euskal zinemaren Irizar saria eta kritikaren Fipresci saria ere.

«Behin heldu diren lekura helduta, normala da oso gaztelaniazko merkatura jauzi egin izana». Eta glup. Bati entzun diot hori, eta halere pentsatu nahi dut ez dela gehiengoaren ustea, ez eta egileen ikusmoldea. Zer pentsatua ematen du, nolana ere, ez dela apenas hitz egin horretaz –eta baliteke egia izatea, musikari batzuk, beste sortzaile batzuk estuago hartu izan direla hizkuntza hautuari dagokionean–. 36ko gerra. Malaga. Hobe dela ezer behar baino gehiago nahastu ez hastea genion gure artean, konplexu puntu batekin ere bai seguru, eta hor non, jaialdiaren biharamunean, *El País* egunkariko kazetari bati irakurri diogun, lasai ederrean:

Berretsita geratu da hasi duten bide horri segitu behar diotela: espainierarako jauzia egin –bazter batera utzirik lehendik erabili izan duten hizkuntza, euskara–, eta asmo handinahiagoak izan –Euskal Herritik kanpo girotuta dago istorioa, Malagan, Gerra Zibilean eta hango gerraoste luze eta terriblean–.

## Oraina oroitzen

Egunero dira efemerideak, urtero urtemugak. Eta aitzakia bihurtzen ditugu, kasurik onenean, kontatzeko, transmititzeko. Beste garai batean idatzi, eztabaidatu, margotu zena ekartzeko, beste garai batzuk ezagutzeko, eta, beraz, gaurkoa ere ulertzeko. Urtea amaitu aurretik ekarri dugu gogora, esaterako, aurtun duela 50 urte jarri zirela Oteizaren apostoluak Arantzazuko basilikaren fatxadan, aurreko hamalauak errepide bazterrean botata egin ondoren; beste hainbeste igaro direla Ekaingo kobetako arte labarra topatu zutenetik; 35 urte direla EIZIE baino lehen sortu zen *Senex* itzulpen aldizkaria lehenengoz argitaratu zenetik; mendera heldu dela Euskaltzaindia eta mendera Eusko Ikaskuntza. Luzea da zerrenda, eta seguru luzeagoa da lerroburuetan ospatu ez ditugunena.

Ospatu ditugunen artean, Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-ren *Elsa Scheelen* –aurrena gehiago bigarrena baino–. Bost hamarkada dira bi liburuetan euskal nobelagintza modernoko aurreneko emakume protagonistak agertu zirela; eta haietan agertu, orobat, dibortzioa, abortua eta garaiko Euskal Herrian tabuzat hartzen ziren gaiak. Ez daude alferrik atzerrian girotuak. Euskal idazle andrazko baten estreinako nobela, aldiz, hamar urtera heldu zen: Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*. Artikulu serie oparoan harilkatu zuen guztia Amagoia Gurrutxagak udan, *Berria*-n. Eta sei aleetako azkenean, Urretabizkaiak eta garaiko idazle emakumeek urratutako biderei eskainitakoan, Iratxe Retolazak ohartarazpena egin zuen zein bihurtu den zentral, eta zein geratu den ertzetan, 1980ko hamarkadan profesionalizazioaren aroa heldu zenetik:

Kanon bat sortu zen, eta historia bat egituratu, Koldo Mitxelena-ren *Historia de la literatura vasca* [1960] ardatz hartuta. Hego Euskal Herriko hizkuntzalari gizonezko batek frankismo betean egindako euskal literaturaren historia bat da gaur arte egindakoaren ardatz nagusia, horrek esan nahi duen guztiarekin. Bada historia berriak egiteko garaia.

Eta azken bi kolpe:

Euskal prentsak badu kontzientzia feminista, baina hori ez da euskal kultur sistemaren errealitatea. Zenbait emakume idazlek hedabideetan ikusgarritasuna izateak ez du esan nahi kultur esparruan aitorpena dutenik. Kultur esparruan osotasunean eragitea da erronka. Arazorik handiena kritika arloan dugu.

Erreferentzialtasuna askoz gehiago jokatzeko da egun diziplinarteko jardunean liburuetan baino, Ez Dok Amairuren garaiko proposamenetik gertuago, Arestik eta Lurrek ordezkatu zutenetik baino. Eta, hala ere, segitzen dugu liburuaren kultura soilean pentsatzen.

1969koa den beste obra gako bat ere ekartzen du argitara Retolazak: Joxan Artzeren *Isturitzetik Tolosan barru*. Deitu artefaktua, deitu literatur obra artistikoa. Nahiko bazterrean utzia izan den lan bat izateko, feminismotik ere zer irakurria duena. «Genero ikuspegitik, lan hori sekulako astindua da nazional-katolizismoaren familia eta gizarte eredua nagusi zen garaiari».

Baina efemeride beharrik gabe ere, oroitzeko beharrak bizi gaitu. Premia bat da, jatearekin, lo egitearekin eta bizitzarako aditz oinarrizko guztiekin batera. Eta memoriaren zuloz ari gara batzuetan, eta akaso betekadez ere ari beharko ginatke zenbaitetan. Josu Zabalak eta Iñaki Garitaonandia *Gari*-k Hertzainak taldearen abesti zaharrekin egindako kontzertuen arrakasta ikusi besterik ez dago. Lehenengo Bilboko Kafe Antzokian eta ondoren Euskalduna Jauregian, leporaino bete dira aretoak, nostalgiaren zapore mikatzean zoriontsu jendea.

Izan ere, paisaiak nola bizi dira garaiak jendearengan. Itzuli egiten dira, nolanahiko formetan. 1980ko urteetako oihartzunak bueltatu badira asteotan Hertzainak-en kontzertuekin, ozenago datoz bidean dabilen *Zaldi urdina*-rekin. Artedrama, Axut eta Dejabu konpainiek elkarrekin emango duten laugarren obra. Drogek orduan ireki zuten zaurian sartu dituzte eskuak, eta hasi dira jada herriz herri lauhazka. Ximun Fuchsek zuzendu du antzezlan, eta zera dio, kulturaren dabilen edonorendako baliagarri dena: «Beti kontaktzen dugarik zerbait, gaurko garaia kontaktzen dugu». 🌸



## Irlanda urrun

*Óró, sé do bheatha abhaile.  
Anois ar theacht an tsamhraidh.  
'Sé do bheatha, a bhean ba léanmhar,  
do b' é ár gcreach tú bheith i ngéibheann,  
do dhúiche bhreá i seilbh méirleach,  
is tú díolta leis na Gallaibh.*

Oh-ro, etxera ongietorria zara.  
Orain uda ailegatu da!  
Ongietorri oi atsekabetua zauden emakume hori,  
zure esklabotza gure hondamendia da,  
gure herrialde bikaina lapurren esku...  
Eta zu atzerritarrei saldua!

Uda ailegatu da eta Galway hiriko kaian Marieke Huysmans Berthou pianojolea *Óró sé do bheatha abhaile* abesten ari da. Entzule batzuek kantuz lagundu diote. Gehienok, irlanderez ez dakigunez, ez ditugu folklore irlandarraren abesti ezagunaren hitzak ulertu. Googlek ase du gure jakin-mina. Abestia XVI. mendeko Gránuaile edo Gráinne Mhaol izeneko irlandar pirata eta errebeldearen omenezko abestia da. Kantaren jatorria ez dago argi, XIX. mendeko irlandar abesti bilduma ezberdinetan agertzen da. Bertsio arrakastatsuen, ordea, Patrick Pearse-k egin zuen XX. mende hasieran. Pearse ingelesen aurkako 1916ko Pazko Matxinadan parte hartu zuen buruzagietako bat izan zen; ez da harritzekoa, beraz, berak berri-datzitako kanta irlandar nortasunaren ikurretako bat izatea.

Bi egun geroago, «*No ball games*» idatzita duen afixa txukun baten ondoan eseri gara eguerdiko sandwicha jateko. Galwayko Unibertsitateko zelaian dagoen kartel horrek koloretako letrak dituen pegatina beltz bat itsatsita du: «*Saol tri Ghaeilge*

*atá uainn*». Berriro ere, Googleri laguntza eskatu eta «bizitza irlandarren [*sic*] bidez nahi dugu» itzuli digu; gure *euskaraz bizi nahi dut* aldarriaren pareko mezua. Jakin-mina piztuta, Dublinen bizi den lagun irlandar bati *whatsapp*-a bidali diogu. Berehala iritsi zaigu azalpena, baita Michael McCaughan idazleak prentsan idatzitako artikulu baten lotura ere.

Duela urte gutxi McCaughanek «sustraietara» itzuli behar zuela erabaki zuen: hil aurretik irlandera ikasi eta Irlandan hizkuntzarekin zer gertatzen ari zen ulertu nahi zuen. Artikulua izenburua adierazgarria da: «Ordua iritsi da, bizitza irlandaraz bizitzeko aukera aldarrikatzen dugu». Lerro gutxitan hizkuntza egoera zein den agerian uzten du. Idazlea Gaeltacht inguruetan egindako hizkuntza-bidaietan ohartu omen zen duela belaunaldi batzuk irlandera eguneroko bizitzaren hizkuntza zela: «maitasunaren hizkuntza, haurrak ohera eramatekoa, eguneroko borroken, lanen eta poesiaren hizkuntza». Gainontzeko tokietan bezala, lurralde horietan ere irlandera pixkanaka gain behera etorri zen, nekazaritza munduarekin eta txirotasunarekin lotuz, eta ingelesak hartu zuen bere tokia, «aukeren hizkuntza». 1916ko Pazko Matxinadak eta jarraian sortu zen Irlandako Errepublikak irlandera nabarmendu zuten; baina berpiztearen ardura guztia eskolen esku utzi zuten, eta, McCaughanen ustez, hori «ikasleen gorputz eta gogoetan min handiz inprimatuta geratu da». Emaizta agerikoa da: egun Irlandako haur guztiek jasotzen dituzte hainbat eskola irlandaraz, nahiz eta eskolatik at gazte gutxi diren gai elkarrizketa arrunt bat hizkuntza horretan kudeatzeko.

Hain zuzen, Txerra Rodriguezek, irailean *Argia*-n idatzitako artikulu batean, Irlandako hizkuntza plangintzari erreferentzia egin zion, Bernard Spolsky soziolinguista aipatuz. Spolskyk bi eredu alderatzen ditu: Irlandako hizkuntzaren aldeko lana, administrazioko nazio mailako egituretan zentralizatua, eta Israelgoa, non biziberritzeko lana herri mugimendutik elikatu den, baina baita estatutik ere.

Rodriguezek ustez, Euskal Herriko ereduak, «antza izatekotan, Israelekin izango luke», nahiz eta estatua falta izan. Hala



ere, beste maila guztietan intentsitatea handitu beharko genukeela ohartarazten digu, esaldi iradokitzaile batekin amaituz: «Israeletik urrun gaude oraindik (Irlandatik ere, bide batez)».

## Hizkuntzen negozioa

Galwayko Unibertsitateko jardinetan bazkaltzeko aukera izaten ez genuen egunetan, unibertsitateko jangelan bazkaltzen genuen. Bertan, motxila eta jertse horiak jantzitako gazteekin topo egiten genuen: ingelesa ikasteko asmoz, udan joandako nerabeak. «Aukeren hizkuntzaz» jabetu nahian Irlandara bidaiatzen dutenek ez dute irlandararen berri handirik, ingelesa ikastera doazenek ez dute-eta beste hizkuntza batekin topo egitea espero eta, kasu gehienetan, ezta desio ere. Ingelesez bizi den komunitate batean murgiltzeko asmoz egiten dute bidaia.

Izan ere, azken hamarkadetan, irlandararen biziberritze prozesuari kanpotik datorkion beste arazo bat gehitu zaio: ingelesa ikasteko asmoz urtero joaten den ikasleagoa. *Marketing English in Ireland* izen esanguratsua duen ingeles eskolen elkartearen arabera, Irlanda da biztanle bakoitzeko ingeles ikasle gehien jasotzen duen munduko herrialdea: 2017an 129.000 lagun jaso zituen. Gobernuaren arabera, horrek urtero 762 milioi euroko diru-sarrera ekartzen du, eta, ondorioz, administrazioak merkatu hori sustatzeko lan aktiboa egiten du.

Azken urteetan indartu den hizkuntzen industriaren adibide bat besterik ez da, Monica Heller antropologoak idatzi izan duen bezala, kapitalismo berantiarrean hizkuntzak geroz eta garrantzi handiagoa baitu. Hizkuntzaren merkantilizazioaren gaia jorratu izan du Hellerrek, eta ohartarazi du globalizatutako ekonomia berrian hizkuntza hainbat prozesu ekonomikoetako erdigunean kokatu izan dela. Mintzaira bera merkantzia bihurtu da: ekoiztu, kontrolatu, banatu, baloratu eta mugatu daitekeen baliabidea. Hellerrek hizkuntza

merkantilizazio horrekin lotutako hainbat sektore zerrendatzen ditu (turismoa, itzulpengintza, marketina, kultur industria, hizkuntza ikasketa, dei-zentroak...), eta aipatzen du informazio eta komunikazio teknologien bidez hizkuntzen merkatua zabaldu dela.

Hain zuzen, teknologia horien negozioetan nagusi diren enpresa asko Irlandan topa ditzakegu. Dublingo kaleetan, motxila horia, arrosa edo berdea daramaten *hizkuntza-eduturistak* (*language edutourism*, Maia Yarymowich-i hartutako kontzeptua) informazio eta teknologia eraikinen artean ibiltzen dira, azken hamarkadetan multinazional teknologiko ugarik Irlandan jarri baitute egoitza. Facebook, Google, HP, Dell, LinkedIn, Apple, Microsoft, Amazon, Yahoo eta abarrek Irlandak eskaintzen dizkien baldintza fiskalei probetxua atera diete. Beste arazo bat, beraz, ingeles elebakartasunari aurre egiteko, ez baitut uste mundu osoan ingelesez lana egiten duten eta munduan zehar ingelesa barreiatzen duten enpresa horiek irlandararen aldeko hizkuntza-politika baterako aliatu egokienak direnik.

## Online nabigatzen

Enpresa multinazional horiek kudeatzen duten online negozioaren hizkuntza dinamikei buruz aritu zen Donostian Helen Kelly-Holmes Limerick-eko Unibertsitateko irakaslea. Irail hasieran Irantzu Epeldek zuzendutako EHUko *Gazteak eta eleaniztasuna* izeneko uda ikastaroa Kelly-Holmesen hitzaldiarekin amaitu zen, informazio eta komunikazio teknologiaren arloan eta zehazki Interneten hizkuntza aniztasunaren eboluzioa zein izan den azalduz.

Garapen horretan lau etapa bereizten ditu Kelly-Holmesek. Lehena *elebakartasunaren aroa* da. Interneten hastapenean inplizituki 'ingelesez soilik' politika linguistikoa nagusitu zen, eta hizkuntza horren *lingua franca* globalaren estatusa indartu zen. Mendearen aldaketarekin, bigarren aroaren hasiera

dator: *eleaniztasunaren aroa*. Pixkanaka, beste hizkuntza batzuek tokia hartu zuten sare globalean, baina aro horretako eleaniztasuna partziala eta paraleloa zen. Partziala, hizkuntza gutxi batzuek lortu zutelako presentzia esanguratsua, eta, paraleloa, ingelesaren nagusitasuna mantentzen zelako. *Web 2.0* izenarekin ezagutzen den teknologien garapenarekin batera hasiko litzateke hirugarren etapa: *hiperlingualismoaren aroa*. Tresna berriek hizkuntza anitzei tokia hartzeko aukera eman zieten: teknologikoki ez dago arazorik edozein hizkuntza Interneten egoteko, nahiz eta guztiak ez egon, eta daudenak ere modu berean ordezkatuak ez egon.

Kelly-Holmesen iritziz, gaur egun *hiperlingualismoa* indartu egin da, baina, era berean, hizkuntza-isolamendua areagotzen ari da. Horregatik, laugarren etaparen hasieran gaudela uste du: *idiolinguismoaren aroa*. Hizkuntzaren kudeaketa teknologiko hori marketinean erabiltzen den 'norberaren merkatuaren' (*market of one*) adierazpenetako bat litzateke: pertsona bakoitzak sarean mugitzen denean bere hizkuntza jokaera propioa aktibatzen du. Horrek aukerak ematen ditu, posibilitate berriak zabaltzen ditu, baina, mugatu ere egiten du. Beste hizkuntzekin harremanak edukitzeko aukerak murrizten baitizkigu: ez gara hizkuntzen 'merkatu zabalean' sartzen, norberarentzat egokitutako merkatuan bakartuak geratzen gara.

Norberaren hizkuntza-indibidualizazioranzko bidea egiten ari gara, eta, Limerickeko irakaslearen aburuz, horrek arrisku garbia du gutxiagotutako hizkuntzen bizitzarako: hizkuntza eskubideak dituen komunitatea izatetik kontsumitzaile eskubideak dituzten hiztunengana pasa gaitzkeelako.

## Irlanda gertu

*Óró, sé do bheatha abhaile,  
Tá Gráinne Mhaol ag teacht thar sáile,  
óglaigh armtha léi mar gharda,  
Gaeil iad féin is ní Gaill, Frainc ná Spáinnigh,  
is cuirfidh siad ruaig ar Ghallaibh.*

Oh-ro, etxera ongietorria zara.  
Gráinne Mhaol itsasotik dator,  
bera babesteko bere gudari armatuekin,  
irlandarrek dira, ez atzerritar, ez frantziar, ez espainiar...  
Eta atzerritarrak garaituko dituzte!

Gránuaile irlandarra zen, ez frantziar, ez espainiar, ez ingeles. Baina kontatzen dutenez, irlandera gain beste hainbat hizkuntzetan hitz egiteko gai zen: latina, gaztelania, frantsesa... Behin, Isabel I.a erreginarekin aurrez aurre negoziatzen aritu zen Ingalaterrarekin zituen gatazkak konpontzeko. Gai hartako *lingua franca* erabili zuten: latina.

Udazken hasierako egun epel hauetan, Gránuaile irudikatu dut Inishbofin uharte ondoan nabigatzen. Hego haizeak klima larrialdiaz protestan ari diren gazteen oihuak dakartzatza. Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak itsasoaren maila etengabe igotzen ari dela berretsi du. Berotzeak egungo joerari eusten badio, 2100erako metro bat baino gehiago igo liteke itsas maila. Gránuaile imajinatu dut urte gutxi barru ur azpian desagertu daitezkeen Trá Gheal hondartza txikiari begira. 2100erako zenbat igoko da ingeles hizkuntzaren zabalpen maila? Zenbat hizkuntza itoko dira olatu handi horren azpian? Irlandera horietako bat izango al da? Eta euskara?

Euskal Herrian eta Irlandan nabigatzaile eta surflari bikainak ditugu. Hizkuntzaren olatua surfeatzeko gai izango al gara? Gure hizkuntzetan nahi adina nabigatzeko aukera izango al dugu? 🌊



## Glokalia

Alba Garmendia

### Glokal glokala

Sormenetik du izena eta Tolosan egiten da, trantsizioko ur-taroetan, Zerkausiaren azpian dagoen leku kurioso batean, ibai ertzean. Sormenak, euskarak zein kulturak zeharkatzen dituzten arituak eta adituak elkartzen dira bertan; eta aldian aldiko gonbidatuaren elkarrizketari ukitu berezia ematen diote hura osatzen duten poesia errezitaldiek, zuzeneko musikak edo dena delako sormen saioek.

Tolosaldeko Galtzaundi Euskara Taldearen webguneak dioenez, «saretuz, azokak, euskarak eta kulturgintzak irabaztea dute helburu antolatzaileek», «sormenaz eta kulturaz gogoeta egitea, sormena eta kultura hizketagai izatea: zer, zergatik eta zertarako sortzen da sortzen den hori?». Zehatzagora joanda:

Batetik, Tolosako kale erabilera neurketek adierazten dutenez, euskara indartsuen larunbateroko azokaren bueltan dago eta ekimen honen bitartez euskara indartsuen dagoen guneari hauspo berria eman asmo zaio. Bestetik, kultur espresio ezberdinak gunerean batu asmo dira, kultur hausnarketarako eta heziketarako gunere bilakatu eta bateko eta besteko herritarrak eta kultur espresioak ezagutzera emateko. [...] Azkenik, bertaratutako arteko harremanak sortuz ekimen berrien inspirazio gunere izateko helburua ere badu.

Tolosako Arraun Klubak uzten duen espazioan egiten da euskara taldeak bultzatutako proiektua; egitasmoa zabaltzen dute tokiko komunikabideek (28 Kanala eta Tolosaldeko Ataria) eta diruz laguntzen dute bertako udalak, Aldundiak eta Jaurlaritzak. Explore San Sebastian Region ez nuen ikusi azken kontsultan (markak arrakastarik izan ez duela-eta

izena aldatuko omen diotelako izango ote da?). Gogoia horretan nuela etorri zitzaidan David Harvey-k Raymond Williams idazleari aitortzen dion bereizketa bat (*Justice, Nature and Geography of Difference* lanean), turistaren begiradaren eta lekuan bizi izandako bizitzaren artekoa, hain zuzen ere. Williamsen *Border Country* eleberria adibide. Matthew Price du protagonista, Londrestik jaioterri duen Glynmawr-era joana, Hego Galesera, gaixo dagoen aita bisitatzera. Itzultzean konturatzen da desberdina dela gordea zuen oroitzapena eta errealitatea bera: «jada ez zen paisaia bat, jendea erabiltzen ari zen ibarra baizik. [...] Bisitariak edertasuna ikusten du; bizilagunak, lan egiten duen eta lagunak dituen lekua» (34. or.). Azken horretan edertasunik dagoenik ukatu gabe, gehituko nuke.

Tolosako egitasmoa ere turistari ez, herritarrari ari zaio, landa paradisuaren kontenplazioa sustatu beharrean gure herriko herritar izatera gonbidatuz. Izan ere, bisitariaren begiradak ekartzen duen bestelakotzeak bere argiak ere izan ditzakeen arren, nekez gerturatuko da paisaia bizidun horren protagonisten egunerokora. Are, urruntze bat ere bultzatzen duela esango nuke, klixetean itotako landa eremuaren eta hiriburu kosmopolitaren arteko bereizketa azpimarratzen denetan. Pasa den mendeko kontuak irudituko zaizkizue, beharbada, baina ez da arreta gehiegirik jarri behar aurreiritziek sendo bizirik dirautela ikusteko. Inor ez da inongoa, eta egia da garen tokikoak izateak zer bat ematen digula, besteak ez(berdin) duena. Hala eta guztiz ere, ez digute inongo mesederik egiten bi muturretako batean kokatzera garamatzaten dikotomiek. Horregatik egiten zait interesgarria identitate gotortu(arazi)etatik askatu eta bakoitzaren (g)lokaltasunetik bestearenera gerturatzea. Gonbidatuta zaudete Zerkausira.

Topikoarekin jarraituz, landa munduaren konnotazio lokalak eta hirien kulturartekotasun globala aipatu beharrean nago. Esan dut denok dugula leku bat mundua irakurtzeko bidea ematen diguna; ez dagoela, beraz, leku global bat.

Harveyren ustez, Williamsek esango luke partikularitasun horietatik sortzen dela balio komunak –globalak– sortzeko aukera. Komunitate partikular batean bizitzea, hura ulertzea, hartatik mundua irakurtzea... beste biderik ez dago unibertsala ulertzeko. Aldi berean, ordea, bidegurutzez betetako bidea da, ezin baita balio unibertsal bat partikularismo hutsetik eraiki, lehenak bigarrena saihestu ezin duen bezalaxe. Kontuari freskotasun bat emate aldera, hiriaren lokala eta herriaren globala pentsatzetik has gintezke, akaso?

Tolosako partikularitasunetik abiatzen da Sormenetik, unibertsaltasun baten bidean geldialdi saihestezin dituelarik euskara eta kultura. Ekimena komunitate partikular batetik eta hari erantzuteko sortua izan da; ez da, ordea, egin beharreko/daitekeen ekimen bakarra, ezta azkena ere. Hala ere, globala da, gogoetaren eta artearen unibertsaltasuna dudan jartzen hasten ez bagara behintzat. Zeren, liburu aurkezpen batean ikusi nuen esaldia parafraseatzen uzten badidazue, zernahiz ari dela ere gutaz ari da Sormenetik. Gu lokalaz eta globalaz, glokalaz.

## Garbiñe Ubeda eta egia immaterialak

Udaberriko saioan gonbidatua Garbiñe Ubeda izan zen; Yurre Ugartek egin zion elkarrizketa, eta, galdera eta galdera artean, Ione Gorostartzuk *Ez da erditzea* liburuko poema batzuk errezitatu zituen, Hodei Yañezen biolinaren laguntzaz. Bertan esandakoetatik pare bat kontu ekarri ditut hona.

Orain arte abstrakzioaz aritu naiz, balio partikularrak unibertsalekin lotu beharraz eta alderantziz. Williamsek literatura nahiago zuen nonbait kontu horietaz aritzeko, teoria filosofikoagoetan –filosofikoegietan– katramilatzea baino. Eta Ubedak antzeko zerbait esan zuen Ugartek aitonari buruz idatzi zuen eleberriaz galdetu zionean, kazetaritzaren aldean fikzioa nahiago zuela, «fikzioak ematen dizulako egia ondoen ezagutzeko bidea, kuriozosa bada ere».

Aitona anarkista Pirinioetatik bestaldera pasa zen gerra galdutakoan. Kontzentrazio-esparruetan egon omen zen eta familiak desagertutat eta hiltzat eman zuen. Urteak pasa eta historiatxoa osatze aldera informazioa biltzen jarri zirenean, ordea, konturatu ziren beste bizitza bat izan zuela aitona Frantzia iparraldean, eta uste baino beranduago hil zela, 1980an. Berri pozgarria izan zen Ubedarentzat, baina kontatzerakoan jendeak aitonaen bigarren bizitza hori traiziotzat hartzen zuela konturatu zen. «Juzgu erraz» hori saihesteko nobelatu zuen istorioa, hezur-haragizko aitona alde batera utzi eta fikzioak irakurketa zuzenago bat ahalbidetuko zuelakoan.

Agustin Arrietak filosofiatik gertuago idatzi du fikzioaz eta ez-fikzioaz, eta argitaratzeaz duen liburuaren kapituluaren bat edo beste irakurtzeko aukera izan dut (*Gogoeta-bide irekiak*). Bertan dio, besteak beste, ez-fikzioan balio epistemikoak daudela lehen lerroan eta ezinbestekoak direla; fikzioan, ordea, ez. Hala:

Fikzio bati buruz eztabaidatzen dugunean, ez dugu aintzat hartzen ea fikzioa zenbateraino den egiazkoa, edo objektiboa den edo ez. [...] Eztabaidatzen duguna da ea nola interpretatu behar diren begi aurrean dugun obra eta ditugun pertsonaiak edo egoerak.

Ubedak esango luke hor aurki dezakegula egia, egia izan gabe ere. Eta Arrietak ere onartuko luke, beharbada, beste hiztegi batekin. Ezagutza desberdinak eskaintzen dituztelako, bere ustez, batak eta besteak, elkarren osagarri izan daitezkeenak, gainera.

Aipatu nahiko nukeen bigarren puntuaz *Berria* egunkarian ere aritu da Ubeda, Ximun Fuchs-ekin batera, *Ahomentan* atalean (2019-08-11). Idazlea izateaz gain, Ubeda Euskal Idazleen Elkarteke lehendakari ere bai baita. Bere lehendakartzari hiru erronka ikusten zizkiola aipatu zuen Tolosako saioan: lurraldetasuna, prestigioa lortzea eta ofizioaren aldarria. Lurraldetasunean geldialditxoa eginda, esan zuen politikak jartzen dituen mugak jartzen dizkiogula euskarari



ere. Hain onartua daukagu muga, printzipio unibertsal bat bailitzan, beste lurraldetasun bat egon daitekeenik pentsatzea bera ere zail egiten baitzaigu. Fikzio gehiago behar dugu, agian, muga geografiko-politikoek haragoko mundu bat deskribatzen diguna. Ez-fikziotik saiakerak egin dira, aber-tzaletasun kulturalaren inguruan ale honetan doan artikulua, kasu. Hitzetik ekintzarako bidean sormenak lagunduko ote gaituen...

Prestigioa lortzearekin lotuta dago Fuchsek *Berria*-n zioena ere, frantsesez eta euskaraz lan egiten duenean artista bera dela, baina euskaraz aritzerakoan hiru aldiz gutxiago balio duela bere lanak. Ubedak ikusgarritasun eza aipatu zuen orduan, euskaraz egiten dena txoko batean eta ikusezin dagoela eta zaila dela horrela prestigioa lortzea. Eta hortik hirugarren erronkara, ofizioaren aldarrira. Idazle izateko modu asko daudela eta denak aldarrikatu behar direla esan zuen Tolosan, «baita komuneko atean idazten dutenak ere!». Zoritzarrez, ordea, instituzioek ez dutela laguntzen, eta, ondare immaterial izendatuagatik, aurrekonturik ez dagoela idazleentzat.


Herri baten biziraupenean hain inportantea bada, aurrekontua jarri behar zaio. Eta aurrekontua jartzearekin batera immaterial uste duzun hori material bihurtuko da. Liburuak aterako dira, diskoak aterako dira, eta abar, eta abar.

Horri lotuta oroitu zait Itziar Okarizi *Argia*-n egindako elkarrizketa baten aipua ere:

Etengabeko trebakuntza batean gaude, etengabe informatzen, sekula heldu izatera iritsi ezingo bagenu bezala. Gai konplexua da hau, politikoki konplexua. Lotura du, ezagutza immaterialarekin, eremu honetan mugitzen garen pertsonen prekarietatearekin (2018-04-15, 45. or.).

Ez gabilta aurreko ataletik hain urrun, azken batean. Sor-tzailea (landa paradisua, euskara, azoka, kultura) mantendu eta babestu beharreko adin txikiko haurra bailitzan tratatzen dugu, edo behar oinarrizkoagoen atzetik soilik kasu egingo diogun pribilegiatutzat hartu, dirua soberan bada

aurrekontua eskainiko zaiona. Sortzaileari lanaren emaitza ordaintzen zaio (eta emaitza hori lortzeko prozesua ordaintzen bazaio, 'bekaduna' izango da, hitzak dituen konnotazio guztiekin), ez lanean emandako denbora edo pilatutako eza-gutza –immateriala, ikusezina–. Ez dugu benetan sinesten egia immaterial den horretan ere badagoenik. 🍀



 euskadi  
irratia  
gertu

## IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

### Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

### Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

### Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

### Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

## EROSI

### Aldizkaria

#### PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

#### DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

### Artikuluak

#### DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

### Liburuak

#### PAPERA

- Jakinkide bazara  **10 €**
- Jakinkide ez bazara  **12 €**

#### DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**



## JAKINKIDE TXARTELA

Izena .....

Abizenak .....

Helbidea .....

Herria ..... Posta kodea .....

Telefonoa .....

Posta elektronikoa .....

Kontu zenbakia

Kontuaren jabea .....



**Jakin** • *eus*  
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
Tel. 943 218092  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus



# Maitasuna politikoa da

## Kritikak goraiptua:

*“Maitasuna espazioa eta denbora galtzeko  
modu bat da”*

Bakartxo Mayora Sola (antrokologoa)

*“Politgamiak segregazioa dakar”*

Jon Osoro Isusi (politalogoa)

*“Erdigunea ertzetan dago”*

Oneka Zalla Duque (ekilibrista)

*“Politikan ez dago ezer politikan”*

J.M. Iztueta “Lazkao Txiki”

*“Maitasuna zanpatzailea da”*

Eder Zapata Larruquert (podologoa)

*“Maitasunak etengabe zauritzen gaitu”*

Arantza Gorostiza Sasiain (puntista)



zugaz/  
art

